

Euskal Unibertsitatea



Aldarrikapen baten bilakaera historikoa

MIKEL AIZPURU



Ba ote dugu behar dugun Unibertsitatea?

JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS

K. Mitxelenaren *ghettotik* euskararen *unibertsora*

XABIER ISASI



Irakaskuntzaren hizkuntza hautaketa Unibertsitatean

TXILLARDEGI

*Iritzi bilketa:* Euskal Unibertsitateaz hogeita zortzi iritzi*Egunen gurpilean*

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI

• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

JAKiN

130/131

maiatza
abuztua
2002




Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Zenbaki honetan

w 7

Gai nagusia

Euskal Unibertsitatea

Euskal Unibertsitatea eginkizun. Aldarrikapen baten
bilakaera historikoa w 11
MIKEL AIZPURU

Ba ote dugu behar dugun Unibertsitatea? w 33
JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS

Euskal Unibertsitatea: K. Mitxelenaren *ghettotik*
euskararen *unibertsora* w 79
XABIER ISASI

Irakaskuntzaren hizkuntzaren hautaketa Unibertsitatean w 95
TXILLARDEGI

Iritzi bilketa: Zer-nolako Euskal Unibertsitatea? w 117
AEK / JOSEBA AGIRREAZKUENAGA / MIKEL AIZPURU /
KEPA ALTONAGA / MILA AMURRIO, JOSE INAZIO BASTERRETxea,
ANE LARRINAGA, TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA /
BALEREN BAKAIKOA / ELA / JOSE RAMON ETXEBARRIA /
MIKEL FERNANDEZ (LAB) / MARIJE FULLAONDO (SORTZEN-
-IKASBATUAZ) / XABIER GARAGORRI / GOTZON GARATE /
PRUDEN GARTZIA / ANDONI IBARRA / INAKI IRAZABALBEITIA /
XABIER ISASI / ROLDAN JIMENO / JESUS MARI LARRAZABAL /
JUAN JOSE LARREA / XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU /
ANTXON MENDIZABAL / MARTIN ORBE / JAVIER RETEGUI /
FITO RODRIGUEZ / JOSE MARIA RODRIGUEZ IBABE /
PELLO SALABURU / JOSE LUIS SUKIA / ARANTZA URKAREGI

Egunen gurpilean

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI w 219
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia


Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

jakin@jalgi.com

2002ko PREZIOAK

ZENBAKI BIKOITZ HAU		15 €
BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	39 €	—
Ale arrunta	6,50 €	8,40 €
KANPOAN		
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,60 €

Summary



Basque University

- *The Basque University as a task. Historical development of a demand*

The lecturer Mikel Aizpuru provides us with a historical summary of the evolution experienced by the claim for a university in the Basque language throughout the 20th century. The author focuses above all on the last 25 years, and analyzes the stances maintained by the different political groups and social agents regarding the issue of the introduction of the Basque language in the university. w MIKEL AIZPURU

- *Do we have the university we need?*

The lecturer Juan Ignacio Perez Iglesias has carried out a deep analysis of the different aspects that a university must currently take into account and, where appropriate, a Basque language university: the university as a research center and as a center for training professionals, university teaching structure, the role of the Basque language in the university, the relationship between university and society, and the governing and financing of the university, etc. w JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS

- *Basque University: from the ghetto of K. Mitxelena to the universe of the Basque language*

The lecturer Xabier Isasi starts his work by referring to the controversy aroused three decades ago between Mitxelena and Santamaria regarding the nature of the Basque University. Isasi opts for the more universal vocation of Santamaria, which situates the Basque language on a par with other languages, with its own university. Subsequently, he reflects on the different aspects to be taken into account for its setting-up: its own qualifications, legal possibilities, teaching by internet, continuous training and the creation of a nursemaid university, etc. w XABIER ISASI

- *Do we have the university we need?*

The writer and lecturer Txillardegui focuses on the choice of language for university teaching in bilingual countries. To illustrate this, he provides us with a general review of the situation existing in those countries which have similar socio-linguistic features to those of the Basque Country: Sweden, Denmark, Estonia, Latvia, Lithuania, Finland, Belgium, Switzerland and Quebec. The author comes to the conclusion that the option chosen is always that of the monolingual university: the bilingual university does not exist. w TXILLARDEGI


- *Opinions regarding the Basque University*

The magazine has been directed towards around thirty representatives of university management, social agents who work in the education sector and persons linked to the university and who have expressed their opinion in the media, with the aim of gathering together the stances they maintain regarding the issue of the Basque language university. In particular, the questions put forward as regards the following three points: viability of the project (taking into account all the academic, legal, economic, social and political factors); benefits and advantages, and risks and disadvantages associated with the project; nature and character of the Basque language university and the strategy for its setting-up. w *Various Authors*



News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Joseba Balerdi, Iñaki Martínez de Luna, Amatiño and Laura Mintegi. w *Various Authors*



e skuetan dituzun hauek bigarren aldiko 130/131. zenbakiak dira eta 2002. urteko hirugarrena eta laugarrena.

Zenbaki hauetako *Gai nagusia* Euskal Unibertsitatea da. Izan ere, duela 25 urte, *Jakin* aldizkariaren bigarren aldiaren abiapuntuan bertan, gai horixe plazaratu genuen. 1977. urte hartan gaia pil-pilean zegoen, arazo bizienerako bat baitzen sortzeaz zegoen unibertsitateak zer-nolakoa behar zuen. Orduko hartan Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zen, ez ordea Euskal Unibertsitatea. Beraz, lehen zenbaki hartatik 25 urte igaro ondoren, orduan eskakizun zena orain ere eskakizun eta eginkizun da, Euskal Unibertsitatea, euskaraz arituko den unibertsitatea, alegia.

Bost atalek osatzen dute sail hau. Lehenik lau artikuludatoz, eta, ondoren, gai nagusiaren inguruan burututako iritzi bilketa bat.

Lehenengo artikuluan, Mikel Aizpuruk euskal unibertsitatearen errebindikazioak XX. mendean zehar izan duen bilakaera historikoa laburtzen digu. Batik bat azken 25 urteotako bilakaera azaltzen digu Aizpuruk, azken aldi honetan talde politikoek eta gizarte eragileek auzi honi buruz izan dituzten jarrera eta iritziak ere aztertuz.

Bigarreanean, Juan Ignacio Perez Iglesiasek gaur egun unibertsitate baten —eta, jakina, euskal unibertsitatearen— antolakuntzak aintzat hartu beharko lituzkeen alderdien azterketa sakona eskaintzen digu: unibertsitatea ikerkuntza-gune eta profesionalak prestatzeko gune gisa,

unibertsitate irakaskuntzaren egitura, euskara unibertsitatean, unibertsitatearen eta gizartearen arteko erlazioa, unibertsitatearen gobernua eta finantzaketa...

Ondoren, Xabier Isasik duela 25 urte Koldo Mitxelena eta Karlos Santamariaren artean piztutako eztabaida hartzen du abiapuntutzat, eta Santamariaren aukera *unibertsalaren* alde egiten du Mitxelenak aurreikusten zuen ghettoaren infernuaren aurrean. Gainera, euskal unibertsitateak aintzat hartu beharreko zenbait arlo jorratzen ditu: berezko titulazioa, lege aldetiko aukerak, erakaskuntza, etengabeko prestakuntza, Unibertsitate-inudearen sorrera...

Azken artikuluan, herrialde eleanitzetan unibertsitate mailako irakaskuntzan hizkuntzaren aukeraketak sortzen dituen arazoak aztertzen ditu Txillardegik. Auzi hori adibidetzeko, Euskal Herriaren antzeko egoera soziolinguistikoa duten herrialde batzuetako egoera aurkezten digu: Suedia, Danimarka, Estonia, Letonia, Lituania, Suomi, Belgika, Suitza eta Quebec. Ondorioa, Txillardegiren iritziz, argia da: unibertsitate elebakarra hautatzen da herrialde guztietan, hau da, inon ez dago unibertsitate elebidunik.

Sail honetako azken atalean, Euskal Unibertsitatearen egitasmoaren egingarritasun, onuragarritasun eta izaera eta estrategiari buruzko iritzi bilketa zabala osatu dugu. Horretarako, berrogei bat lagun izan dira gure galderak jaso dituztenak: Euskal Herriko unibertsitateetako errektore euskaldun eta euskara arduradun guztiak, UEUko zuzendariak, hezkuntza munduarekin zerikusia duten hainbat sindikatu eta gizarte-eragile, eta komunikabideetan eta auzi honen inguruan iritzia eman duten beste hainbat lagun. Honelakoetan maiz gertatzen da, eta oraingoan ere bai: ez ditugu jaso guk nahi genituen erantzun guztiak. Azkenean, hogeita zortzi erantzun jaso ditugu guztira.

Egunen gorpilean saileko orrialdeetan, ohi bezala, kultura, literatura, soziolinguistika eta komunikazioaren inguruko berriak dituzte aipagai, estilo arin eta bizian, Joseba Balerdik, Laura Mintegik, Iñaki Martinez de Lunak eta Amatiñok.°

Euskal Unibertsitatea



Euskal Unibertsitatea eginkizun.
Aldarrikapen baten bilakaera historikoa

MIKEL AIZPURU ▶ 11

Ba ote dugu behar dugun Unibertsitatea?

JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS ▶ 33

Euskal Unibertsitatea:
K. Mitxelenaren *ghettotik* euskararen *unibertsora*

XABIER ISASI ▶ 79

Irakaskuntza hizkuntzaren hautaketa Unibertsitatean

TXILLARDEGI ▶ 95

Iritzi bilketa: Zer-nolako Euskal Unibertsitatea?

AEK / JOSEBA AGIRREAZKUENAGA / MIKEL AIZPURU /
KEPA ALTONAGA / MILA AMURRIO, JOSE INAZIO BASTERRETxea,
ANE LARRINAGA, TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA /
BALEREN BAKAIKOA / ELA / JOSE RAMON ETXEBARRIA /
MIKEL FERNANDEZ (LAB) / MARIJE FULLAONDO (SORTZEN-IKASBATUAZ) /
XABIER GARAGORRI / GOTZON GARATE / PRUDEN GARTZIA /
ANDONI IBARRA / INAKI IRAZABALBEITIA / XABIER ISASI /
ROLDAN JIMENO / JESUS MARI LARRAZABAL / JUAN JOSE LARREA /
XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU / ANTXON MENDIZABAL /
MARTIN ORBE / JAVIER RETEGUI / FITO RODRIGUEZ /
JOSE MARIA RODRIGUEZ IBABE / PELLO SALABURU /

JOSE LUIS SUKIA / ARANTZA URKAREGI ▶ 117

Euskal Unibertsitatea eginkizun. Aldarrikapen baten bilakaera historikoa



MIKEL AIZPURU



Sarrera

Unibertsitatearen inguruko auzia luzea da Euskal Herrian. Unibertsitate modernoa sortu zenetik —Napoleonekin Frantzian eta Humboldt-ekin Prusian— ez Hego Euskal Herriak, ezta Ipar Euskal Herriak ere ez dute izan izen hori merezi zuen erakunderik. Bertoko agintarien axolagabekeriak eta estatu bakoitzeko agintarien jokabide maltzurak unibertsitatea gure lurretatik urruti mantendu izan dute, duela hogeita hamar urtera arte. Deustuko eta Nafarroako eliza-unibertsitateen garapenak edota Bilboko Ingeniaritza-eskolaren sorrerak duela ehun urte, ez diote indarrik kentzen hasierako baieztapenari. Baina hutsune honen aurrean ugari izan dira unibertsitate publikoaren beharra aldarrikatu dutenen eskariak. Hego Euskal Herriari dagokionez, eskari horrek Espainiako administrazioaren ezetz sistematikoa jaso zuen sarritan, eta Euskal Herrian bertan ere ez zegoen euskaldunen arteko adostasun nahikorik erabakitzeke non kokatu behar zen unibertsitatea, zeintzuk izango ziren bere ezaugarriak edo euskararen presentzia-maila, besteak beste. Iaz EIREren «Euskal Uni-

• **Mikel Aizpuru** EHUko Gaur Egungo Historia Saileko irakaslea da. 1996-2000 aldian UEUko zuzendaria izan zen.

bertsitatea-2021* Egiten ari garen euskarazko unibertsitatea» Kongresuan txosten bat aurkeztu nuen Roldan Jimenorekin batera; bertan Euskal Unibertsitatearen aldeko aldarrikapenaren historia laburtua eskaini genuen. Oraingoan, han esandakoak gehiegi ez errepikatzeko asmotan, gaia beste ikuspegi batetik jorratuko dut; alderdiek eta erakunde politikoek zer esan duten arakatuz. Azken urte hauetan egindako zenbait saio ere komentatuko ditut, aldarrikapenaren gauzatze-maila erakusteko asmotan. Sarre-raxume hau bukatzeko, azken ohar bat egin nahi dut: *Jakin* aldizkariaren ezaugarriak kontuan hartuta, idazlanaren aparatu kritikoa (oharrak eta bibliografia) alde batera utzi ditut. Norbaitek gai honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo beza EIREren Kongresuan aurkeztutako txostenera, zerrenda bibliografiko luzea du bertan eta. Hemen egiten diren aipamen zehatzak alderdi, erakunde edota legebiltzarreko bileratako agirietatik aterata daude.

1976ra arteko aldarrikapen asko eta hausnarketak

Gure artean unibertsitate publikoaren eskakizunak bi eratakoak izan dira. Batzuen aburuz lortu beharrekoa Espainiako beste unibertsitateen pareko erakundea zen, besterik gabe. XX. mendetik aurrera, ordea, gero eta ozenkiago planteatu zen *Universidad Vasca*-ren beharra. Zer esan nahi zen izen horrekin? 1918an, Eusko Ikaskuntzen Oñatiko I. Kongresuan Angel Apraizek Euskal Herriko unibertsitatearen beharra azpimarratu zuen. Apraizen ustez, Euskal Unibertsitateak bi ezaugarri edukiko zituen: Euskal Herriko arazoei erantzun beharko zien eta Espainiako unibertsitateen egitura zurrinak baztertuta, egitura malgua edukiko zuen. Kongresu hartatik Eusko Ikaskuntza sortu zen eta hurrengo urtean Euskaltzaindia. Sortu eta 1936ra arte, euskal kulturaren ekarpena Eusko Ikaskuntzaren inguruan egituratu zela esan liteke, batik bat Euskal Unibertsitatea sortzeko proiektua lau urtetan zehar bere bai-

tan eztabaidatu baitzen. Eusko Ikaskuntzako lehendakariak, Julian Elorzak, II. Kongresuan euskaraz eskatu zion erregeari Unibertsitatea, baita ezezkoa jaso ere. Gerra Zibileko esperantza zapuztuetako bat Unibertsitatea izan zen: 1936an Eusko Jaurlaritzak Euskal Irakastola Nagusia sortu zuen Medikuntza Fakultatearekin, baina gerra galtzeak horren desagerpena ekarri zuen.

Francomen garaian, unibertsitate-mailako unibertsitate-ikastetxe berrien sorrera eta birmoldaketarekin batera, beste bi fenomeno garrantzitsu gertatu ziren hirurogeiko hamarkadan. Bata, euskarazko irakaskuntzaren hedapena ikastolen bidez. Bestea, Hego Euskal Herriko lau lurraldeen garapen ekonomiko nabarmena. Ikastolen garapenak eta, oro har, euskararen etorkizunaren inguruko kezka ordura arte gutxitan planteatutako gai bat azaleratu zuten: zein izan behar zen euskararen tokia unibertsitatean. Gerra aurrean, Euskal Unibertsitatearen aldeko gehienek ustez euskarak eta euskal kulturaren azterketak eta babesak lehen mailako tokia izan behar zuten unibertsitatearen eginbeharren artean. Lehen-mailako irakaskuntza euskaraz izan behar zelakoan ere bazeuden. Baina gutxi izan ziren unibertsitateko lan-hizkuntzetako bat euskara bera izan zitekeela pentsatu edo defendatu zutenak. Hala 1932an Madrilgo euskal ikasleek argitaratutako liburuan Pedro Laskibar eta Telesforo Uribe-Etxebarria izan ziren ideia horren defendatzaile sutsuenak eta kasik bakarrak. Kepa Altonaga lagunak adierazi didanez Jean Etxepare Iparraldeko medikuak ere gaia jorratu omen zuen. 1936an Eusko Jaurlaritzak Medikuntza Fakultatea sortu zuenean ikasgaietako bat euskara tekniko izan zen.

Bigarren fenomenoak, industrializazioak, alegia, profesional gehiagoren beharren, hazkunde demografikoaren eta bizi-mailaren hobekuntzaren ondorioz zegoen hezkuntza-eskaeraren igoera nabarmena ekarri zuen. Bide horretan, mende hasieratik zetorren unibertsitatearen eskakizunaren aldeko zantzuak areagotu egin ziren. Nahi horren muga eta baldintzen ezaugarri nabarmenena, 1963. urtetik aurrera Gipuzkoako Unibertsitatearen aldeko lanek izan zuten bilakaera dugu.

Ez da kasualitatea, beraz, garai berean, sortu berria zen ETA erakundeak bere programa azaltzean unibertsitateari buruzko aipamenak egitea. Horrela, 1962ko «Pequeño programa» izeneko agirian Euskal Unibertsitatearen (Universidad Vasca jatorrizko testuan) sorrera exijitzen zen, norbanakoaren garapenerako eta kontzientzia nazionala sendotzeko elementu erabakigarria zelakoan. Urte berean argitaratutako 9. Fomazio-koademan gaiaren azterketa sakonagoa egin zuen ETAk. Unibertsitatea berrikuntza-gunea eta abertzaletasun-gunea izan ohi zen eta horren ondorioz ez zuen unibertsitaterik gure herriak. Euskal Unibertsitatearen eta euskal lurraldeko unibertsitatearen arteko bereizketa egiten zen; Francoren diktadurak iraun bitartean ezinezkoa zen lehena abian jartzea, baina bai bigarrena eta horren aldeko apustua egin behar zen, unibertsitate faltaren hutsuneak betetzeko. Erakunde ofizialetatik kanpo eman behar ziren euskarazko klaseak eta euskara egokitu egin behar zen garaiko kulturak eta teknikak eskatzen zuten mailara. Heziketa-urtearen arabera, euskalkien alde edota euskara batuaren erabileraren alde agertzen zitzaigun orduko ETA, lurraldea, aldi baterako, eremu euskaldun eta erdaldunean bananduz. Ez zen zuzenean aipatzen euskara irakaskuntza-hizkuntza izan zitekeenik unibertsitatean.

Bi urte geroago, 1964an, *El Español* astekari frankistak ETARI buruzko erreportaia argitaratu zuen, eta honi erantzunez EAJk kaleratutako txostenean euskararen alde egindako lanari garrantzi berezia eman zion. Jeltzaleen ustez, errepublika garaian bere eraginez berpiztu baitzen euskara eta Estatutuari esker eskolan, institutuetan eta Euskal Unibertsitatean euskarak tokia izan baitzuen.

1969. urtean ETAREN Fronte Kulturalak «kontrabotere herrikoia» lerro nagusiak garatu zituen. Horietako bat unibertsitatea zen. Orduko fakultateetan nazio-arazoak ez zuen beste gai batzuen (antiimperialismoa, langileen arazoak, eta abar) eragina, eta desoreka hori konpontzeko etorkizuneko Euskal Unibertsitate Herrikoia aldeko kanpaina bat bultzatzea proposatzen zen, baina ez ziren zehazten honen ezaugarriak. Ez ziren falta, dena den, kriti-

ka gogorak euskara Euskal Herriaren osagarri folkloriko gisa hartzen zutenentzat, ikastola batzuek tartean, sistema politiko espainolari mesede egiten ziotelakoan. Aurreko txostena idatzi zutenak, gero LCR osatuko zuten kideak, aldendu ondoren, 1973an VI. Asanblada bildu zenean, ETak erabateko berreuskalduntzearen aldeko apustua egin zuen, zenbait neurri proposatuz: ikastola iraultzailea bultzatzea, langileria euskararantz bideratzea, herri ikastoletan metodo iraultzaileak ezartzea, Euskal Unibertsitate Herrikoia eraikitzea, eta abar. Baina horiek guztiak posible egiteko modu bakarra Euskal Estatu Sozialista bat eraikitzea zen.

Garai horretan unibertsitatearen aldarrikapenak bat egiten zuen, kasu gehienetan, euskarari eman beharreko bultzadarekin. Horren lekuko ditugu 1970ean lehen aldiz antolatutako Derioko Udako Euskal Ikastaroak eta, bereziki, Udako Euskal Unibertsitatearen sorrera 1973an. Egia esan, UEUren lehen ekitaldi horrek gehiago zuen kultur aste intentsibo baten tankera (hitzaldi bat bestearen atzetik, inongo espezializaziorik gabe), unibertsitate jarduerarena baino, baina erreferente garrantzitsu bilakatu zen euskalgintzan, bereziki euskara batuaren aldekoen artean eta Ezker Abertzalean, nahiz eta ez izan erabat, Beltzak ondo aipatzen duen moduan, subertsiorako unibertsitatea. ETaren inguruko erakundeek Euskal Unibertsitate Herrikoia alderantzizko apustua egiten jarraitu zuten, 1975ean LABen sorrera agirian ikus daitekeen moduan.

1976-1980, Euskal Unibertsitatea

Francoren heriotzak lehen lerrera eramanez, beste aldarrikapen askoren artean, Euskal Unibertsitatearena; 1976-77 urteetan batzar, idazlan, liburu eta bilera asko izan ziren. Deustuko Unibertsitatearen Euskal Kultur Mintegiak, beste fakultateetako Euskal Kultur Mintegiekin batera, Euskal Unibertsitatearen eta Hego Euskal Herriko lau lurraldeak batuko zituen Euskal Unibertsitate Barrutiaren aldeko kanpaina indartsua hasi zuen. Baziren, dena den, Euskal

Barrutia eta Euskal Unibertsitatea bereizten zituztenak, eta barmuti bakarra defendatu arren, unibertsitate bat baino gehiago egon behar zela esaten zutenak. Euskal Barrutiaren aldeko kanpainak indar berria hartu zuen 1977ko abuztu-irailean. Sortu berria zen Legebiltzarkideen Batzarrak lau herrialdeen barrutia eskatu zuen. Baina ez ziren bakarrak izan, Alderdi Sozialistako gazteek eta unibertsitateko zenbait irakaslek ere gauza bera eskatu baitzuten. Urrian, ordea, Espainiako Gobernuak kaleratutako dekretuaren ondorioz, Arabako eta Gipuzkoako herrialdeak Bilboko Unibertsitateara lotu ziren eta Nafarroa kanpoan geratu zen. Alfermikakoak izan ziren hurrengo hilabeteetan egin ziren proposamen, protesta, manifestazio eta kultur asteak.

Euskal Unibertsitatearen definizioak eztabaida gehiago piztu zuen. Ez zen gauza berria, mende-hasieratik zetorrena baino. Izan ere, Euskal Unibertsitatearen izenpean oso egitasmo desberdinak biltzen ziren. Hiru dira, nagusiki, proposatutako bideak. Lehenak Euskal Herrian kokatutako unibertsitate ofiziala zuen buruan. Beste bientzat, ordea, Euskal Unibertsitateak euskal espiritua jaso behar zuen, espainiar unibertsitatearen atzerapena eta isolamendua gaindituz. Edozein kasutan, unibertsitate osoa izan behar zuen (fakultate klasikoak, eta Euskal Herriari eta munduko beharrei zegozkien ikerketa-guneek hornituta), eta Euskal Herriaren berezko ezaugarriak (hizkuntza, legedia, historia, bizimoduak eta abar) aztertuko zituzten, beste edozein unibertsitatearen ahalmenekin. Bazegoen, ordea, funtsezko desberdintasun bat: zein zen euskararen tokia eredu horretan?

Hizkuntzari dagokionez, Euskal Unibertsitatearen aldekoek bat egiten zuten euskara bertan egon behar zela aldarrikatzean, baina desberdintasunak nabarmenak ziren eritmoari eta kuantitateari dagokionez. Horrela, batzuek ezinbesteko ikusten zuten bitartean unibertsitate berriak euskaraz funtzionatzea, beste askok mailakatu egiten zuten euskararen beharra edota kritikatu euskarari emandako gehiegizko pisua Euskal Unibertsitatearen definizioan. Alderdi politikoen artean PSE-PSO Erena izan daiteke adibiderik nabarmenena. 1980an, Eusko Legebiltzarrerako le-

hen hauteskundeetarako prestatutako programak (gaztelania hutsean) honako hau zioen unibertsitateari buruz: Espainiako legedia garatuko zuen Eusko Legebiltzarraren arauen arabera antolatu behar zen sortu berria zen Euskal Herriko Unibertsitatea. Honek unibertsitate publikoa, demokratikoa, deszentralizatu eta kulturalki askotarikoa izan behar zuen. Euskarari dagokionez, euskal gizarteak elebitasunera joko zuenez, unibertsitateak ere elebitasuna bereganatu behar zuen, gutxika-gutxika, era errealista eta zientifikoan. Horretarako legebiltzarrak euskararen irakaskuntza bultzatuko zuen eta, baldintzak betetzen zirenean, irakaskuntza euskaraz, «sin caer en maximalismos».

Euskadiko Ezkerraren txostenetan ez zen nabarmen izan jarrera garbi bat. Euskal Autonomia Estatutua onartzekeko prozesuan zera nabarmen izan zuen *Amasa*-ren 2. zenbakiak: Estatutua ez zela ez Euskal Unibertsitatea, ezta Euskal Eskola Publikoa lortzeko tresna miragarria, baina bai euskal hezkuntza sistema hemendik antolatzeko baliabidea. Hurrengo hausnarketetan, ordea, ez zen Euskal Unibertsitateari buruzko aipamen zuzenik. Espainiako gobernuak prestatzen ari zen Unibertsitate Autonomiaren Legea aztertzeko orduan, 4. *Amasa*-k Nafarroaren urruntzea kritikatu zuen, baina ez zen euskararen inguruko inongo aipamenik egiten. Urte bete beranduagoko *Hitz irakaskuntza*-n LAUren zirriborro berriari buruzko analisiak hizkuntza-eskubideen desagertzea salatzen zuen. 1982an kaleratutako *Amasa* 10 dugu unibertsitateari buruzko Euskadiko Ezkerraren azterketarik sakonena. LAU berriro kritikatu ondoren, EHUren egoera azaltzen du, unibertsitateak bizi zuen krisia salatuz. Atalak ez zuen euskarari buruzko inongo aipamenik, are gutxiago Euskal Unibertsitateari buruz. Urte horretako kongresuko erabakien artean, ordea, elebitasuna defendatzen zen irakaskuntzaren maila guztietan eta aipamen berezia egiten zitzaien Irakasle Eskola, Pedagogia Fakultate eta Kazetaritza Fakultateari. Hiru gune hauetan bileren ezarri behar ziren hizkuntzaren arabera, eta gaztelaniazkoan euskarak derrigorrezkoa izan beharko luke.

Euskararen presentzia ezinbesteko ikusten zutenek Udako Euskal Unibertsitatea zuten buruan. UEUri zego-

kion bai Euskal Unibertsitatearen proiektua finkatzeko oinarriak zehaztea, baita bere jarduerarekin aldarrikapen horren erreferentzia izatea ere. 1975ean UEUko batzar nagusian onartutako agirian Euskal Unibertsitatearen berezitasunak zehaztu ziren: 1. Herritarra,

Euskal Herriko Unibertsitateak euskal gizartea ukan behar du bere ardaztat, euskal gizartea bere osotasunean harturik: osotasun geografiko, politiko-administratibo, kultural eta ekonomikoa.

2. Euskalduna,

Euskal Herriaren Unibertsitateak euskaraz behar du ihar-dun nahi ta ez. Ezin onhar dezakegu hizkuntzabitasunik, eta Euskal Herri osoa berreuskalduntzea dugu geure xede.

Ez zen maila horretara heltzen Koordinadora Abertzale Sozialistak zuen iritzia. 1976ko urte-amaieran plazaratutako euskararen inguruko agirian elebitasunaren aldeko deia egiten zen, «Euskarari lehentasunezko sarbide progresiboa emanen dion politika baten» oinarri moduan. Horretarako «Erdarekin batera euskararen ofizialkidetasuna legez euskal Herri osoan» planteatzen zuten. Irakaskuntzari dagokionez ondoko puntuan zehaztu zituzten:

1.3. Ikastetxeak. Euskara eta euskal kultura, euskaraz irakastera progresiboki pasatuko dira. Hau da, irakaskuntza osoa euskal unibertsitateraino, euskaraz hartzeko egoki iritsi daitezen.

1.4. Magisterio eskola. Euskaraz dakiten ikasleentzat, irakaskuntza osoa euskaraz. Euskaraz ez dakitenak jakinda irten daitezela.

1.5. Unibertsitatea. Euskaraz irakatsiko duen unibertsitatea behar dugu. Egoera honetara progresiboki iritsiko da.

Horretaz gain, unibertsitatetik ateratzen ziren diplomatuek Euskaltzaindiaren lehen mailako tituluaren jabe irten behar zuten, eta irakaskuntzarantz jotzeko asmoa zutenek bigarren mailako diploma bereganatu behar zuten; horrela, Irakasle eskoletan berehala ezarriko zen elebitasuna. KASen esanetan, hori guztia lortzeko Euskal Unibertsitatea behar zen, Hego Euskal Herriko lau lurral-

deak distritu bakarrear bilduz. Ipar Euskal Herrian «unibertsitate esperimental bat kokatua denez, ahaleginak egingo dira bertan iraun dezan».

Euzko Alderdi Jeltzalearen iritzia ere ez zen oso zehatza. 1976ko azaroan *Euzkadi* astekaria argitaratzen hasi zenean, lehenengo zenbakiak jorratu zuen gaia: «Unibertsitaterik gabe, euskal gazteek urrutiko kulturaren edaten zuten, erbesteko jakintzaz kutsatuz». Idazlanaren egileak, Euskal Unibertsitatearen eskaera onartzeaz gain, hauxe gogorarazten zuen:

Unibertsitatea eta administrazioa elkarri lotuak ikusi bear dira. Onengatik diogu ez dela Euskal Unibertsitaterik izango, eta ez eta Euzkadiko Unibertsitate ofizialik, Euzkadik bere erritasun eta nortasun osoa lortu arte.

Ez zen falta, bestetik, aldizkarian, iraganean egindako lanaren aldarrikapena (Leizaolak sortutako euskal unibertsitatea 1936an) eta hori ahaztearen inguruko kexa. Izan ere 1977ko udaberrian, gerraosteko lehen batzarrean, eztabai-datutako puntuen artean Euskal Unibertsitatea zegoen. Jelkideentzako

Euskal Unibertsitatea, Euskal Herriaren kultura irrits zuzen-zuzeneko ta baztertu eziña da, ta aren adierabide ta edapenbide. Euskal Herriaren euskal kultura bereiztasuneri, eta batez ere, izkuntzarekikoei doakiona, unibertsitate lanetan erabilliko du izkuntza eta dagoen gizartearen arazoan zerbitzurako, ondorioak Euskal gizarteari eskeiniatz. Erria, unibertsitate zenbaitetan banatua, irakasleak autatzeko premia, gure buru ikasiek erro arrotzeko unibertsitate-ustez eta landuketaz, egitasmo-saio bat burutzeko beartzen gaituzte eta ekiñaldi zenbaitez, diran eskuarteai etekin geiena atereaz batean, Euskal Unibertsitatea epe aalik laburrenean antolatzea atzeman.

Bi izan ziren hurrengo hilabeteetan alderdi jeltzaleak defendatu zituen jarrerak, nahiz eta ez egon oso urruti bata bestetik. Batak, Batzar Nagusian onartutakoaren bidetik, Karlos Santamaria zuen bozeramaile. Honen ustez Nafarroarik gabe ezin zen Euskal Unibertsitateari buruz hitz egin eta ez ziren gauza bera «Euskal Unibertsitatea» eta «Euskal

Herriko Unibertsitatea». Azken hori beharrezkoa eta onuratsua zen, baina ez zen Euskal Unibertsitatea; «euskal kultura euskaraz irakats dezana eta haren *alma mater* izan da» izan beharko luke Euskal Unibertsitateak. Bertan euskaraz irakasteko aukera egon behar zuen, nahiz eta gauza jakina izan ez zela posible hori berehala gauzatzea.

Bigarren jarrera Koldo Mitxelenaren iritzietan oinarritu zen. Bere ustez, lehenetasuna unibertsitatea edukitzea zen. Euskal Herri osoa hartuko zuen unibertsitate bakarra eta ofiziala. Mitxelena izan arren barruti bakarraren aldeko kanpainaren bultzatzaile nagusia, bigarren mailan jarri zuen Nafarroa bertan sartzeari, bertoko agintarien zuzendaritzapean egongo zen unibertsitatea edukitzea zelako oinarritzakoa eta premiazkoa. Mitxelenak ez zuen oso gogoko «Euskal Unibertsitatearen» lema, «expresión ambigua si las hay», zeren «Bistan da, Unibertsitate eskea gurean nabarmendu zenez gero ez gabiltzala guztiok gauza bat-beraren bila». Ez zen iritzi horretako jeltzale bakarra. Daniel Innerarity gazteak gauza bera azaldu zuen 1978an *Euzkadi*-n argitaratutako artikulu andanan

el nombre Universidad Vasca es sumamente ambiguo y puede llevar a equívocos, la universidad ha de ser universal, preocupándose de potenciar el estudio de lo vasco.

Mitxelenaren ustez Euskal Unibertsitatearen definizioetan nabaria zen ideologiaren pisua, ez baitzen zehazten unibertsitate-eredua, lerro orokorretatik kanpo eta are gutxiago, ikasketak, ikerketa-lerroak, gizartearekin eta erakunde publikoekin izan beharreko harremanak, eta abar. Zehazten zirenean, maiz, lanean ari zen unibertsitate-eredua hankaz gora jartzen zen, erdibiderik proposatu gabe. Edozelan ere, Mitxelenarentzat Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea ez ziren gauza bera, baina ez zeuden elkarren aurka, eta «ez genuke inolaz ere deus egin behar elkarren osagarri liratekeenak elkarren etsai tankeran ager daitezen».

Bide horretatik, eta garaiko errealitatea onartuz, jeltzaleek sortu berria zen Unibertsitatea babestu zuten. Santamaria bera sortu berria zen Euskal Kontseilu Orokorreko

Hezkuntza Kontseilari izendatu zuten, baina Unibertsitatea ez zen egon bere gain hartu zituen eskumenen artean. Edozein modutan, kontseilari berriak hainbat bilera izan zituen errektorearekin eta Hezkuntza Ministeritzarekin, us-tez onartzeaz zegoen Unibertsitate Autonomiaren Legeak euskal autonomia errespetatzea. Ez zitzaion eskaririk falta unibertsitate-ereduaren aldaketarako. Bide horretan 1978ko ekainean, ikasle- eta irakasle-talde batek zera eskatu zioten errektoreari: Euskal Unibertsitatea sortu ahal izateko Nafarroa euskal barrutian sartzeko eta Ipar Euskal Herriarekin harremanak sortzeko, unibertsitatearen arlo guztietara zabaltzeko euskararen ofizialtasuna eta euskarazko klaseak ereduaren barruan ematea, erakundearen dirulaguntzarekin. 1979an «Ley de Autonomía Universitaria»-ren zirriborroa ezagutu zenean Ikasle Abertzale Batzordearen iritzia gardena zen: LAUrekin «tendremos una Universidad radicada en el País vasco, pero no una Universidad Vasca, ni una Universidad eficaz». Gazte horien ustez Euskal Kontseilu Nagusiak sail berezi bat sortu behar zuen unibertsitatearentzako, unibertsitatearen transferentzia negoziatu eta Euskal Unibertsitatearen araudia zehaztu. Honek euskara eta euskal kulturaren garapena babesteaz gain, atzerritar ereduak eta irakasleak erabili behar zituen. Unibertsitate berria «deberá estar totalmente desvinculada del poder que ejerce el Cuerpo de catedráticos numerarios españoles».

Edozein kasutan, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa biltzen zituen barrutiaren osaketak denbora luzerako aldendu zuen Euskal Unibertsitatearen inguruko eztabaida mamitua, morfologia arazoak salbu. Izan ere, 1977ko urrian Bilboko Unibertsitatearen Gobernu-Batzarrek erakundearen izen-aldaketa eztabaidatu zuen, Universidad Vasca hartu nahian. Ez zen denen gustukoa proposamen hori eta azkenean 1978ko apirilean «Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea» hartu zuen, nahiz eta izen hau ez zen ofiziala izango 1980ko otsailera arte. Gogora dezagun, bitxikeria moduan, sortu berria zen *Egin* egunkariak inoiz *Universidad Vasca* terminoa erabili zuela EHUri buruz hitz egiteko orduan. Egunkari horretan argitaratutako zenbait

artikulutan (gaztelaniaz) Euskal Unibertsitateak eduki beharreko zenbait ezaugarri zehazten ziren:

se precisa un proceso universitario de negación de la jerarquización social impuesta por el capitalismo (negación de la jerarquía en el saber, lo que implica cuestionar los actuales modos de enseñanza y de control de la misma. Negación del poder democrático burgués, negación del principio de rentabilidad en la enseñanza, etc.).

El proceso de ruptura a nivel universitario al exigir el ir acompañado de una acción global requiere el rechazo del proceso de reforma iniciado por el Gobierno Suárez.

Lotura zuzena ezartzen zen, beraz, Euskal Unibertsitatearen eta Herri Batasunaren jarreraren artean.

Esanguratsua da, era berean, STEE-EILAS sindikatua-
ren jarrera-aldaketa. 1979an arestian aipatu dugun Unibertsitate Autonomiaren Legearen inguruko hausnarketan Euskal Unibertsitatearen oinarri moduan ez zen euskara inondik inora aipatzen, unibertsitateko barne-antolaketa demokratikoa baizik. Urtebete beranduago, mahai-inguru batean, STEE-EILASeko ordezkariak euskara unibertsitatearen hizkuntza ofiziala izatea eta Nafarroa euskal barrutian egon behar zuela defendatu zituen.

1980-1990, Euskal Unibertsitatea ala unibertsitatean euskaraz?

1980tik aurrera Euskal Unibertsitatearen inguruko eztabaida publikoak alde batera geratu ziren. Bazen, ordea, zer eztabaidatu. Besteak beste, euskarak zein toki izan behar zuen unibertsitate-arloan eta bereziki unibertsitate publikoan. Hemen ere hiru ziren jarrera nagusiak. Unibertsitateko agintari gorenei eta bertan lanean ari ziren irakasle gehienei ez zitzaien burutik pasatu ere egiten posible zenik klaseak euskaraz ematea, ezta hurrengo urteetan unibertsitatearen arazo garrantzitsu bilaka zitekeen ere. Horren lekuko ditugu, adibidez, jadanik laurogeiko hamarkadan behin-behineko errektorea zen Arantza Mendizabalen hitzak. Unibertsitatearen kezka, arazo eta etorkizuna haus-

na rtzeko orduan ez zuen euskara aipatu ere egin. Mendizabal Euskadiko Ezkeraren ingurutik PSOeko diputatu izatera heldu zen. 1986tik aurrera sozialistek zuzentzen zuten Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak argitaratutako zenbait lanetan euskararen normalkuntzari buruzko aipamenak falta ziren edo «arazo» moduan aurkezten zen.

Bigarren jarrera Mitxelena jeltzaleak ordezkatu zuen. Bere ustez, euskara unibertsitatean sartzea ez zen une horretako lehentasuna, irakasle euskaldunak oinarrizko heziketan behar ziren. «Euskal Herriko Unibertsitateetan, (...) euskara: Ezin izan daiteke, ordea, oraingoz, ikas- eta irakas-bide nagusi». Bai, «zenbait gaitan». Jaurlaritzaren lana zen, azkenik, euskalduntzearen mugak, epeak eta bi-tartekoak finkatzea. Mitxelena EHUko errektoreordea izan zen 1979-80 urteen bitartean eta bere itzalpean asko izan ziren, baina bere euskaltzaletasunik gabe, euskararen ezarrera atzeratu nahi izan zutenak, plangintza eta irakasle prestatuen hutsuneaz baliatuz. Ezer, edo ezer gutxi, egin zuten hutsune horiek betetzeko.

Hirugarren pentsaerarentzat euskararen presentzia onuragarria ez ezik, ezinbestekoa zen unibertsitateari «Euskal» abizena eranstea. Ideia honen aldekoak dira UEUren sorreran aurkitu ditugunak. 1976-77 urteetan bizi zen euforia-giroan ulergarriak dira egindako hainbat baieztapen bibril, hala nola hizkuntzabitasunaren (elebitasunaren) aurkako zantzuak edota sortu berria zen Kazetaritza Fakultatean euskara derrigorrezko ikasgaia izango zela, salbu Euskal Herritik kanpokoentzat. Garaiko berotasunaren arriskuez jabetua zen Deustuko irakaslea zen Alfontso Irigoyen:

Edozein modutan ere Euskal Unibertsitatea ez du egiten hitz bi horiek gogora dakarkiotena, besterik gabe, hitza dariola hasten denak. Ez dut esan nahi horrela giro politikorik ezin sor dezakeenik haren alde, baina Unibertsitatea zerbait gehiago da ene ustez eta berez ez dute politikoez egiten joko politikoan ari diren alderditik.

Euskararen erabileraren inguruko eztabaidak, dena den, ez zuen berebiziko ondorio praktikorik izan hirurogeita hamarreko azken urteetako unibertsitatean. Gizarte-eskariaren hazkundeak irakasleen kopurua emendatzea be-

harresten zuen, eta horrek, nahi edo ez, Espainiako unibertsitate tradizionalaren egiturak eta bereziki irakasle katedradunen eta bestelakoen arteko harremanak birmoldatu zituen. Irakasle eta ikasle berriek —gizarteko aniztasunaren lekuko eta lehenengo aldiz, erdi- eta behe-mailako klaseetakoak— frankismoaren azken urteetako eta trantsizio garaiko kezkek unibertsitate esparruan zabaldu zituzten. Hori gutxi balitz, unibertsitateen birmoldaketa krisi ekonomiko eta politiko larriaren erdian gertatu zen. Tentzio ugariren lekuko izan zen unibertsitatea.

Zenbait protestek euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzaren aldarrikapenean zuten bere sorrera. Lehen klaseak Zientzia fakultateetan hasi ziren. Unibertsitateko irakasle ziren hainbat lagunen eta ikasle euskaldunen taldeen presentzia eta presioa ikasgeletan izan ziren ekintza horren ardatza. EHUren euskalduntze-prozesuak babes berria izan zuen 1979tik aurrera eta bereziki 1982tik aurrera, izan ere EAeko Autonomia Estatutuak elebitasuna ezartzen zuen bere lurraldean eta Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Oinarrizko Legeak (1982), bere aldetik, ikasleei ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea onartzen zien, nahiz eta espreski Unibertsitatea ez aipatu. Garaiko errektorearen ustean, lege hori eraginez

Unibertsitateak, beraz, euskararen berreskurapenaren objektibo orokorrenekin loturiko hizkuntza politika unibertsitaria definitu beharra dauka, eta, helpide bezala, arau-marko bat eratu beharra.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren bilakaerak ezberdintasun nabariak ditu, alde horretatik. Lehenik eta behin, ia hamar urte beranduago osatu zen, LRUren eredia bete-betean aplikatuz. Bigarrenik, euskararen estatus juridikoa oso bestelakoa zen. Nafarroako Foru-Hobekuntzaren Legeak euskara, bakarrik euskalduntzat jo daitezkeen lurraldeetako hizkuntza ofiziala deklaratzeko zuten. EAEn legearen bagesa eduki arren, unibertsitateko agintari ugari euskararen eskaera Ezker Abertzalearen metodo eta helburuekin lotu zuten. Kritika horiek areagotu egin ziren ikasleen artean Ikasle Abertzaleak taldeak hartutako protagonismoa-

ren ondoren, baina eskaeraren hazkundeak ezinbesteko egin zuen euskalduntzean sakondu beharra.

Euskal Herriko Unibertsitatearen euskalduntzearen lehen urratsen beste ondorio bat Udako Euskal Unibertsitatean eman zen. 1978. urtean UEU EHUn integratu beharra proposatu zuen *Zeruko Argia* astekariko lankide batek:

Gure ametsak gauzatuak ikusi nahi baditugu bederen, nahitaezkoa zaigu gure ideia marabilosoak eta gaur egungo unibertsitate-errealitatea uztartzea. Beharrezkoa zaio, bada, UEUri Lejoako Unibertsitate estrukturetan sartzea eta murgiltzea, UEUk alternatiba serio eta nagusi bat izan nahi badu behintzat (...).

Idea horrek ez zuen arrakastarik izan, baina kontua hurrengo urteetan ere errepikatu zen: 1984an eztabaida bizia egon zen UEUn. Azaleko kontua UEU EHUn integratzea bazen, ez zen falta jarrera bakoitzaren aldetik lerratze politikorik.

1990-2002, elebitasuna unibertsitatean eta egitasmu berriak

UEU izan zen, hain zuzen, Euskal Unibertsitatearen aldeko deia mantendu zuen erakunde bakarra; baina, zenbaiten aburuz, errebindikazio horrek gizarte-oihartzuna galdu ondoren, UEU noraezean geratu zen. Ez bakarrik hori, *Egineko* kazetari anonimo baten esanetan, UEUk berrikuntza beharra zuen, zeren eta

Gaur egun ez zaigu nahiko edozein gai euskaraz emateko gai garena jakitea. Zer ematen den ere aztertu behar dugu. Unibertsitate euskaldun eta zabal, baina kontuz, ideologiaz ezkertiarra behar dugu egin, eta ez EHUko gai berberak euskaraz errepikatuz (...).

Idazle horren hitzetan UEUren Letren arloko sailek «ideologia menperatzaileari joku zuzena egiten diete». Idazlan horrek eragin nabarmenik eduki ez bazuen ere, ezinegona nabaria zen eta horren lekuko dugu 1987tik aurrera 1995era arte errepikatu ziren bilera eta txostenak erakun-

dearen helburuak, jarduerak eta abar eztabaidatuz. Horien artean prozesu garrantzitsuena 1990eko uztailan hasi zen eta bide desberdinak jarraitu zituen; besteak beste, 1995eko apirilean Donostian egindako UEUren I. Kongresuan amaitu zen. Bertan onartutako lan-ardatz batek «Euskal Unibertsitatea lortzeko baldintza soziopolitikoak lantzea» proposatu zuen, baina egindako ahaleginek saioaren muga eta ezintasunak agerian utzi zituzten. Ikasle-talde batzuk saiatu dira Euskal Unibertsitatearen gaia eta barruti bakarren gaia berriro gizarteratzen, baina arrakasta handiegirik gabe. Hiru dira nabarmenduko ditudan saioak azken urteetan.

Lehena 1998ko udaberrian egin zen, Eusko Legebiltzarrak Unibertsitatea Antolatzeko Lege-proiektua eztabaidatu zuenean. Talde parlamentario desberdinek aukera egokia izan zuten bakoitzaren unibertsitate ereduari eta, zehazki, euskarak bertan zuen tokiari buruz hitz egiteko orduan. Zera aurreratu dezakegu, ordea, hizkuntzaren inguruko eztabaidak toki gutxi bete zuela eztabaidaren ordu luzeetan. Legeak, berez, Eusko Jaurlaritza eta unibertsitate publikoaren arteko harremanak arautzen zituen, bereziki unibertsitatearen finantzaketa-sistema; baina Hezkuntza Saila zuzentzen zuen Inaxio Oliverik bidalitako proposamenak hainbat arlo ukitzen zituen. Batzar Aretoan esan zuenez, legearen helburuen artean unibertsitate publikoaren euskalduntzea bultzatzea zegoen, benetakoa elebitasuna gauzatzeko (hiruganaren helburua, hamabiren artean). Horretarako, irakaskuntzan, ikerkuntza zientifikoan eta administrazioan Euskalduntze Planaren bitartez normalizazioa bultzatzeko neurriak proposatzen ziren. Lege-egitasmoaren bultzatzaileak —UAKo ordezkariak aitortu zenez— ahalik eta kontsentsu handiena lortzen saiatu ziren eta horren ondorioa izan zen hainbat zuzenketa onartzea, jatorrizko testua asko aldatuz. Gure harirako garrantzitsuena 5. artikulua zioena izan zen. Erredakzio berriaren arabera honela geratu zen artikulua horren lehen atala:

5. artikulua. Hizkuntzen ofizialkidetasuna eta normalizazioa

1. Unibertsitate publikoak behar diren neurriak hartuko ditu unibertsitate-irakaskuntzan, zientzia-ikerketan

eta administrazio- eta zerbitzu-jardueran euskararen erabilera berdintasun eta kalitatezko baldintzetan normalizatzeko, *betiere Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean hizkuntza-arrazoiengatik soilik zatiketarik ez sortzeko irizpidea errespetatuz*. (Neuk azpimarratua).

Legeak, beraz, argi eta garbi adierazten zuen euskara (edota gaztelania) hutsezko unibertsitaterik ez zela posible izango Euskal Autonomia Erkidegoan. Are adierazgarriagoa da, ordea, plenoan gauzatutako eztabaidan gaiak zein toki gutxi bete zuen. Gogora dezagun garai hartako Eusko Jaurlaritza EAJ, EA eta PSE-PSOEek osatzen zutela, nahiz eta gaia eztabaidatu zen unean PSE gobernua utzi berria izan. Oliveri sailburuak egindako aurkezpen luzean gaia aipatu ere ez zuen egin eta gauza bera gertatu zen EA eta EAJren ordezkarien hitzaldietan. Hiruren kasuan, diskurtsoa antzekoa izan zen. Oliveriren esanetan euskarari buruzko erreferentziak berdintasunarekin eta kalitatearekin lotzen ziren. Igone Martinez de Lunaren hitzetan (EA), unibertsitatearen izaera elebiduna zen aipamenik garrantzitsuena, eta legearen bitartez euskalduntze-programek tresneria egokia edukiko zuten gure hizkuntza unibertsitatean garatzeko. Are gehiago, Ezker Batuaren (5. artikulua) idazkera berriaren bultzatzaileak) zuzenketak «benetan interesgarriak eta oso sujerenteak» izan ziren. Eztabaida osoan «Euskal Unibertsitatea» kontzeptua erabili zuen bakarra Joseba Arregi izan zen, beti ere EHUri buruz hitz egiteko orduan. Bere hitzetan, gainera,

ez dugu inolako beldurrik eduki euskarari buruz esaten direnak esateko; apropos eta jakinaren gainean, argi eta garbi jarrita daude. Jakinaren gainean, argi eta garbi, eta zer egiten dugun dakigularik; ez ezkutuan, eta ez inolako beldurrekin.

Ez zirudien, beraz, Jaurlaritzako bi alderdi abertzaleek zailantza handirik zutenik idatzitakoaren inguruan. Herri Batasunako bozeramaileari erantzunez Martinez de Lunak zera azaldu zuen, Eusko Alkartasuna konprometitzen zela unibertsitate-sistemaren beharrak osatzeko behar ziren eskumenen alde borrokatzeko. Espainiako legeak ezarritako

mugak ezagutzen zituztela —«Gure Autonomi elkartetik, posible da pentsatzea euskal unibertsitate batean, LRUK diseinatzen duen marko nomatiboarekin?»—, baina ez zeudela prest lege-urraketa ekar zezakeen urratsik emateko.

Are argiagoa izan zen PSE-PSOeko ordezkariaren hitz-jarduna. Carmen Asiain izan zen gaia espreski aipatu zuen bakarra. Berarentzat legeak era egokian betetzen zuen hizkuntz normalizaziorako EAEko Estatutuak markatzen zuen helburua, hots, erkidego elebiduna sortzea. Horretaz gain, legeak bat egiten zuen gizarte-kohesioaren printzipioarekin. Berarentzat printzipio horrek zera eskatzen zuen:

no crear dos universidades distintas, aunque la titularidad fuera única, que no existan dos tipos de ciudadanos que deban formarse en sitios distintos en función de la lengua vehicular en la que cursan sus estudios.

Asiainen hitzak ez ziren horretara mugatu, eta beste alderdi batzuek (UA eta PPK) azaldutako kezka berberak plazaratu zituen euskalduntzearen arriskuen inguruan. Berarentzako unibertsitateko irakaskuntza-mailan ezin zen inolaz ere —batzuek utopikoki planteatzen zuten bezala— irakasleria guztiz gaitua inprobisatu, eta hizkuntz gaitasuna izateko helburuarekin ezin ziren sakrifikatu unibertsitate publikoaren ikasleria eta giza baliabideak.

1998ko ekaineko hitzaldi luzeen artean harrigarriena, agian, HBrena izan zen. Aurkene Astibia ezin joanda, Iñaki Antiguedadi egokitu zitzaion talde horren iritzia plazaratzea. Une garrantzitsua, kontuan hartuta HBk ez zuela parte hartu ponentziaren eztabaidetan. Antiguedadek azaldu zuenez, bere taldea ez zegoen ados legearekin arrazoi bat baino gehiagotatik: jarraitutako prozedura, zituen edukiak eta eduki-hutsuneak zirela medio. Ipar Euskal Herriko edota Nafarroako unibertsitate publikoaren aipamenik ez egitea zen horren adibide bat. Euskararen inguruko aipamen zehaztugabeak edota hizkuntza honetan egindako ikerlanei buruzko aipamen zehatzik ez egotea beste adibide bat zen. Are gehiago, HBren bozeramailearentzat euskarak eta beste hainbat gauzak unibertsitatean benetako apustu estrategikoa izan behar zuten, eta, hortaz, ezin zitekeen ho-

rrelako plan unibertsitario baten barruan sartu. Ez zen 5. artikulua 1. puntuari buruzko inongo aipamenik egin bere diskurtsoan. Baina 1996ko abuztuan «Euskal Unibertsitaterantz. Unibertsitatea eta Ezker Abertzalearen jokabidea» izeneko agiria landu zen HBren baitan, eta bertan, unibertsitate desberdinetan landu beharreko taktikaz gain, Euskal Unibertsitatearen definizio bat ematen zen (Nazionala, Euskalduna, Publikoa eta Demokratikoa) eta bere aldeko apustu argia egin zen. Antiguedaden jarrerak badu azalpena; aipatutako agiriaren arabera, «Euskal Herrian dauden unibertsitateak ezin izan daitezke *Euskal Unibertsitateak*. Espainia edo Frantziako unibertsital atalak besterik ez direlako», ez zuen merezi unibertsitate elebakar edota nagusiki euskaldunaren aldeko, baina Espainiaren legedipeko, unibertsitatearen defentsarik egitea.

Legebiltzarrean onartutakoaren oihartzuna —ez oso handia, bide batez— itzaltzear zegoelarik, egitasmo berri batek hasi zuen bere ibilbidea. Izan ere, 1998ko uztailan hasi ziren Ikastolen Elkarte eta UEUren arteko elkarrizketak unibertsitateko ikasketen eta unibertsitate euskaldunaren beharraren inguruan. Proiektu eta partaide desberdinak izan dituen egitasmoa izan dugu. Lehen asmoa unibertsitate independentea sortzea zen, baina horren ezintasuna ikusirik unibertsitate-ikastetxea sortzea erabaki zen eta horretarako harremanetan hasi ziren Mondragon Unibertsitateko Humanitateen Fakultatearekin. Hasierako bi kideak gehi beste hiru izan ziren elkarrizketetan parte hartu zuten erakundeak (Ikastolen Elkarte, UEU, AEK, Labayru eta Zenbat Gara). 1999ko udaberrian adostutako egitasmoan «Ikasgu Nagusiak» hizkuntz eredu euskalduneari oinarritutako, baina hezkuntza-proiektu eleanitza garatuko zuen unibertsitate-mailako irakaskuntza bultzatuko zuen, bereziki graduondoko ikastaroen arloan. Lehen edota bigarren zikloko ikasketak baztertu gabe. Berriaren zabalkundeak euskalgintzan itxaropen eta poz handiak zabaldu bazituen ere, proiektuak zailtasun ugari egin behar izan zion aurre. Batetik, erakunde bultzatzaileen mugei eta elkarrekin lan egitearen tradizio ezari horrelako proiektu bat bultzatzeko orduan. Proposatutako zereginen

tamainak, bestetik, azterketa ugari egin beharra bultzatu zuen: zein ikasketa bultzatu, ikasle-merkatua aztertu, balizko irakasleen presentzia, irakas-material urria eta abar. Egitasmoak, azkenik, Mondragon Unibertsitateko eta Jaur-laritzako agintarien mesfidantza jaso zuen. Horren guztia-
ren ondorioz, Labayru eta Zenbat Garak proiektua utzi zuten eta hasierako asmoak eraldatu eta murriztu egin ziren. Ikasgu Nagusiak eta HUHEZik lankidetza-hitzarmena sinatu zuten graduondoko ikastaroak bultzatzeko. Horien lehen emaitza aurten ikusiko dugu, ikastetxeen kudeaketa-
tara zuzendutako ikastaro batekin.

Azalduko ditudan azken inizatibak azken sei hilabeteetan gertatu dira. Lehena EIREk (Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkarte) 2001eko irailaren bukaeran antolatutako kongresua dugu, «Euskal Unibertsitatea-2021* Egiten ari garen euskarazko unibertsitatea» izenburuarekin. Bi dira nabarmendu nahi ditudan puntuak. Bata, unibertsitate desberdinetan euskarak duen presentzia neurtzeko ahalegina. Horren ondorio ditugu Kongresuan azaldutako datuak, hots, badela aski irakasle eta ikasle euskal unibertsitateak garatzeko, 1.200 irakaslek eta 25.000 ikaslek lan egiten zutelako euskaraz Euskal Herriko unibertsitateetan. «Euskal Unibertsitatearen» definizio berria da bigarren elementua. Kongresuaren «Ondorioak eta etorkizun proposamenak» agirian, Euskal Unibertsitatea

euskarazko unibertsitate modura definitzen dugu eta euskaraz egiten den unibertsitate irakaskuntza, ikerkuntza, kudeaketa eta egitura oro hartzen ditu bere baitan.

Bistan denez, definizio horrek malgutasunez hurbiltzen gaitu Euskal Unibertsitatera, gunee zehatz eta itxi baten orde-
dez, dagoeneko ari diren eta sortzear dauden unibertsitate-egituraren koordinazioa lehenetsiz. Batzarrean Karmelo Landak, Arantza Urkaregik, Fito Rodriguezek eta Juan Mari Elorzak aurkeztutako komunikazioak, itxuraz behintzat, ez du bat egiten aurreko definizioarekin. Beraientzako

Euskal Unibertsitatea ezin da izan soilik une bakoitzean unibertsitate ezberdinetan euskaraz irakasten eta lantzen diren gai eta titulazioen bilduma. Horrela ez goaz inora.

Euskal Unibertsitateak bere ikerkuntza politika, bere irakaslego eredua, bere garapenerako estrategia, (...) izan behar ditu. Beraz, helburuak zehaztu behar dira eta estrategia bat markatu.

Aipatutako komunikaziotik, zenbait puntu interesgarriri alboratuta, zera azpimarratuko dut hemen, amaieran indar politiko abertzaleen eta aurrerakoien ekimenari eta unibertsitate-agenteen atxikimenduari egindako deia.

Ez dakit horren emaitza zuzena den, baina 2002ko urtarrilean aurkeztu zen «Bai Euskal Unibertsitatea», Euskal Herrirako unibertsitate-legearen herri-ekimena. Proposatzaileen asmoa beraiek zirriborrotutako lege-testua Eusko Legebiltzarrean, Nafarroako Legebiltzarrean eta Iparraldeko Garapen Kontseiluan aurkeztea zen, tramitera onartua izan eta izenpetze-kanpaina bat hastea proposamena legebiltzar bakoitzean eztabaidatua izan zedin. «Bai Euskal Unibertsitatea»-ren bultzatzaileen nahia Euskal Herrirako unibertsitate-legea egitea zen, hemengo unibertsitate guztietan antzeko arauak ezarriz, barruti bakarra eratuz eta euskarari lehen tokia eskainiz. Ez naiz arituko hemen lege-proposamenaren edukiei buruz, arazo eta kontu desberdinak nahasten baitira bertan. Asmoak, gaur arte behintzat, ez du aurrerapen handirik izan; ez Nafarroako Legebiltzarrak, ezta Gasteizkoak ere, ez dute ontzat hartu ekimena. Talde politiko bakarrak, Batasunak, eman zion bere babesa EAEko legebiltzarrean, eta aurkezpenean euskalgintzako sektore garrantzitsuen babesa eduki arren, horien artean ez zeuden ez UEU ezta EIRE ere.

«Помот» horrek eta aurreko eztabaidek zera erakusten digute, Euskal Unibertsitatearen inguruan indefinizio handia dagoela eta asko izan arren euskara unibertsitatean ikusi nahi dutenak, ez dagoela oinarritzko adostasunik honen ezarreraren, erritmoaren eta ezaugarrien inguruan.¶

Ba ote dugu behar dugun Unibertsitatea?



JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS



Aurkibidea

Sarrera gisa

Zertarako behar dugu Unibertsitatea?

Unibertsitateek jakintza sortu behar dute

Ikerkuntza egiteko baliabideak behar dira

Ikerketarako erabiltzen diren baliabideak gutxi dira

Ikerkuntza motak

Zertarako behar dira falta diren baliabideak?

Ukiezinezko eragileak ikerketa jardueran

Ikerketaileak prestatu behar dira

Ikerkuntza egiteko egiturak ez dira oso egokiak

Euskadin egiten den ikerkuntzaz ari gara

Unibertsitateek goi mailako profesionalak prestatu behar dituzte

Zer eta zertarako irakatsi behar dugu?

Nola irakatsi behar da?

Curriculumen egitura

Irakasteko egiturak

Irakaste jardueraren balioztatzea

Zein hizkuntzatan irakatsi behar da?

Euskaraz, zergatik?

Euskara erabiltzen ote da unibertsitateetan?

Eta etorkizunari begira, zer?

Nazioarteko komunikaziorako hizkuntzak ere

► **Juan Ignacio Perez Iglesias** EHUko Zientzia Fakultateko irakaslea da. 1997-2000 aldian Euskara Errektoreordea izan zen.

*Jakintza erabiltzen lagundu behar dute unibertsitateek
 Unibertsitateek gizartera helarazi behar dute jakintza
 Euskal Herriko unibertsitate sistema
 Unibertsitateen gobernua
 Nork finantzatu behar ditu unibertsitateak?
 Laburbilpena*

Sarrera gisa

Unibertsitateak, Euskadin, gaur bizi duen egoerak ez du zerikusirik duela hogeita bost urte zuenarekin. Duela hogeita bost urte, Deustu eta Nafarroako Unibertsitateak ziren benetako unibertsitate erreferentziak eta Bilbaokoa zen genuen unibertsitate publiko bakarra. Orain, Euskal Herriko Unibertsitatea izena duen unibertsitate publikoa dugu. Euskadi osorako unibertsitatea ez den arren, unibertsitate handia bilakatu da, eta egoitza sendoak ditu Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban. Beste bi unibertsitate sortu dira, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Mondragon Unibertsitatea. Bestalde, hegoaldean erakunde antolaketa erabat aldatu delarik, bi autonomia erkidego sortu dira. Antolaketa modu berri horrek eragin nabarmena izan du unibertsitatearen alorrean, nahiz alor horretan autogobernurako ahalmena mugatu samarra izan.

Bestalde, izugarri emendatu da unibertsitatera iristen diren ikasleen kopurua. Ongizatearen gorakadaren ondorio izan den emendapen horri aurre egin behar izan diote erakundeek, ikastetxe berriak eraikitzeko eta eskaintzen diren ikasketen kostuak ordaintzeko dirulaguntzen bidez. Gaur, ia edozein ikasketa ofizial egin daiteke Euskal Herri-
 tik irten gabe; hegoaldeaz ari naiz, jakina. Iparraldean, berriz, unibertsitate mailako ikasketa oso gutxi eskaintzen dira eta kanpora joan behar dute ikasle gehienek.

Duela hogeita bost urte ia ez zen ikerkuntzarik egiten Euskal Herrian. Ez zegoen ia bat ere ikerketa erakunderik, eta zeuden unibertsitate guneetan ere ez zen gehiegi egiten. Ikuspuntu horretatik, zientzi basamortu bat zen Euskadi osoa. Gaur, berriz, garapen handia jasaten ari dira jakintza esparru guztietako ikerketa jarduerak, eta Europako

Batasunaren maila berberera hurbiltzen ari da EAEn egiten den ikerkuntza eta garapenerako ekonomi ahalegina.

Oro hartuta, nabarmeneko hobekuntza gertatu da hogeita bost urte hauetan zehar. Baina, nahikoa al da horri? Pozik egoteko moduan gaude? Gizarte honek, euskal gizarteak, kalitatezko unibertsitate sistema bat behar du, edozein herri aurreratuk bezala. Ba ote dugu behar dugun unibertsitate sistema hori? Galdera hori erantzun nahi du da lan honek, eta horretaz arituko naiz datozen lerroetan.

Zertarako behar dugu Unibertsitatea?

Goiko hori da unibertsitario batek bere buruari sekulan egiten ez dion galdera, egiten ez dion bakarra, behar-bada. Guk ez dugu zalantzarik egiten, baina ez arrazoiak begi bistakoak direlako. Ez, ez dira bistakoak, eta galdera horri eman behar zaion erantzunetik abiatu beharra dugu unibertsitateaz eta bere inguruko egitasmoez gogoeta aberasgarria egin nahi badugu.

Unibertsitate kontuez aritzen diren politika zein gizarte eragileek eta unibertsitariook galdera horri erantzuteko ahalegina inoiz egingo bagenu, uste dut gauzak hobeto joango litzaizkigukeela, ez unibertsitario jakin batzuen gauzak, baina bai agian unibertsitatearen beraren eta gizartearen interesekoak direnak.

Goi mailako profesional eta adituak beharrezkoak dira edozein gizarte modernotan. Bestalde, baten batek sortu eta transmititu behar du jakintza; azken batean, jakintza dugu aurrerakuntzen eta bizitza kalitatearen iturri nagusietariko bat, are gehiago gaur, jakintzaren gizartearen baitan bizi garen aro honetan. Baina bada bestelako aukerarik: «besteek asma dezatela» esatea, Unamunok esan omen zuen legez. Eta zentzuzkoa litzateke hori. Besteek asma dezakete guk, gero, erabiliko duguna; besteek irakats dezakete gure artean gero aplikatuko duguna eta besteek erakuts diezazkigukete munduan diren gauza zoragarri guztiak.

Baina hain aukera muturrekoa hartu barik, bestelako biderik har genezake aipatu hiru helburu horiek unibertsitatearen

tateak ez diren erakundeen bidez betetzeko. Jakintza sortu, transmititu, erabili eta aplikatzen lagundu dezaketen beste-lako erakundeak badaude, ikerketa zentroak, akademiak, teknologia zentroak eta kultur elkarteak, kasu. Baina horietariko batek ere ez ditu batera betetzen aurreko zeregin guztiak. Izan ere, zeregin horiek batera betetzeak ekartzen duen sinergia, eta sinergia edo elkarrekintza horretatik sortzen den onura dira unibertsitatea bereizten duten ezaugarri nagusiak, goi mailako akademi guneei unibertsitate izaera ematen dieten ezaugarriak hain zuzen. Pentsamenduak kritikoa izan behar du hezitzailea izateko, eta izaera hori guztiz loturik dago pentsamendua sortzeko prozesuarekin.

Salbuespenak egon daitezke, sorkuntza jarduerarik gabeko irakaskuntza ona egon daiteke, baina unibertsitateak *plus* bat eduki behar badu, harantzago joan behar du. Eta harantzago joateko, neurri handi batean behintzat, ezinbestekoa da ikerketa jardunak irakasleari bere jakintzan ematen dion ezagutza kritikoa. Ikerketarik gabe ez da sortzen metodologi zalantzarik, ez eta epistemologi zalantzarik ere. Ikerketarik gabe nekez uler daiteke arazoaren muina. Eta zalantzarik ez dagoenean eta arazoaren muina ulertzen ez denean, ez dago aurrerakuntzarik. Hori garrantzi handikoa da berez, eta, gainera, horixe da unibertsitateko ikasleei transmititu beharko litzaiekeen ideiarik funtsezkoena. Goi mailako profesionalak jakintza maila garaia behar du, bai, baina horrez gain, halaberharrezkoak ditu bere arloko adigai tresnak. Horixe bilatu behar du unibertsitateak; bestela, akademia onak baino ez genituzke beharko.

Aurreko guztiak ez du esan nahi unibertsitateko kide denek eredu horretara moldatu behar dutenik. Jakintza sortzea eta transmititzea ez da halaberharrez unibertsitateko kide guztiek bete behar duten zeregina. Erakundeari berari dagokio zeregin hori, eta gero, malgutasunez, bere jarduerak antola ditzake modu batean zein bestean.

Hemen bertan sorturiko edo munduko beste edozein tokitatik iritsiriko jakintza da, beraz, Unibertsitateko jarduerak gizarteari eskaini behar diotena. Jakintza gizarte-ratzeko bide nagusiak garden-gardenak dira: goi mailako profesionalen prestakuntza, jakintza produktu eta zerbit-

zuak enpresa eta bestelako erakundeei eskaintzea, eta ahalik eta herritar gehienen kultura eta ezagutza igo dezaketen hezkuntza eta hedakuntza. Eta zeregin horiek egokiro betetzen badira, joriagoa izango da gizartea kultura, askatasun, demokrazia, ongizate eta kohesioan.

Argi dago, beraz, Unibertsitateak edozein herrirentzat duen garrantzia zein den. Bestalde, unibertsitate sistema baten egokitasuna balioztatzeko orduan, eta gizartearen zerbitzuan egongo den unibertsitate sistema batek izan behar dituen ezaugarriak definitzeko orduan, argi egon behar da unibertsitate sistema horren esparrua zein den. Ez dut uste luzeegi aritu behar dudarik esparru horrek Euskadikoa izan behar duela aldarrikatzeko. Hori norberaren ideologiaren araberrako aukera da, era batera edo bestera guztiak egiten ditugun aukeren antzera.

Erakundetze maila edo modu egokia duten nazioetania ez da eztabaidarik egiten unibertsitatearen nazio izaeraz. Alderantziz, unibertsitaterako izaera «unibertsala» aldarrikatzen da, eta herrien arteko muga politikoak gainditu behar harko lituzkeen unibertsitatearen aldeko hitzak dira nagusi. Baina kontu horretan, beste hainbatetan bezala, «goserik ez duenarentzat, mahaia prest». Gurean, beraz, garrantzi handikoa deritzot unibertsitate sistemak nazio izaera izateari. Kontu honetaz gero luzeago aritzeko asmoa dudan arren, aldezturik azaldu nahi dut nazio izaera nola ulertzen dudanez, hobeto esateko, nola ez dudanez ulertzen. Uste dut euskal gizartearen —eta ez beste edozein gizartearen— zerbitzuan egongo den unibertsitate sistema bat eraikitzen saiatu behar genukeela, euskal herritarren kultur eta ekonomia beharrei egokiro erantzun egon dien eta euskal nortasunaren alde egingo duen sistema bat. Eta ez naiz ari, ez Euskadi osoari egokituko litzaiokkeen euskal unibertsitate bakarraz, ez hizkuntza bakarrez —euskaraz— jardungo duen unibertsitateaz, ez eta egitasmo politiko jakin eta bakar baten lorpenerako egituraturako den unibertsitateaz ere.

Lehenago azaldu dudanez, Unibertsitateak giza artearen zerbitzuan egon behar du. Beraz, ideia hori izango da unibertsitateari buruz datozen lerroetan egingo dudanez gogoeztaren ardatz nagusia.

Unibertsitateek jakintza sortu behar dute

Iradokia dut ikerkuntza izan beharko litzatekeela unibertsitateen zeregin nagusietariko bat. Praktikan, ordea, hori ez dago hain argi. Horren atzean eragile asko daude, baina hemen kasuan kasuko azterketa zehatza egiteak luze joako lukeenez, nagusitzat dudan arrazoaia baizik ez dut aipatuko: Euskal Herriko unibertsitateak ez dira sortu, egituratu eta antolatu ikerkuntza egiteko. Irakaskuntza izan da unibertsitateen helburu nagusia, bakarra izan ez denean. Hori kasu batzuetan argiagoa izan da, eta ikerkuntzarako joera handiagoa duten unibertsitateetan ere (EHU, UN edo NUP), badira jakintza arloak eta ikastetxeak non gutxiengo batek baizik ez baitu ikerkuntza helburu. Horren adibide adierazgarri bat jartzearen, esan daiteke EHUn diren irakasle guztien heren batek baino ez duela ikerkuntza lanik egiten. NUPen apur bat garaia goa izan daiteke ehuneko hori, baina beste unibertsitateetan ez da heren batera iristen.

Unibertsitateko zeregin nagusitzat dut ikerkuntza, baina horrekin ez dut esan nahi irakasle guztiek ikertzaile izan behar dutenik halabeharrez. Nire iritziz, bideragarria izan beharko litzateke bi eratako irakasleak egotea: ikerketarik egiten ez duena eta ikerketa egiten duena. Ikerketa jardueraren orde, beste era bateko lana egin beharko luke lehenak, eta lan horrek, beti ere, unibertsitatearen zeregin eta helburu nagusiekin bateragarria beharko luke izan. Bigarrenak ikerkuntza egin beharko luke irakaskuntzarekin batera edo irakaskuntzan aritu gabe. Horrek esan nahi du edozein irakasle ikertzailek bi jarduerak egin beharko lituzkeela, batera edo aldika.

Ikertu behar ez duten irakasleak egoteko aukera egonik ere, benetako unibertsitate sistema eraginkorra lortuko badugu, ikerkuntza jarduera suspertu egin behar da. Eta hori lortzeko, ikerkuntza egiteko gogoia eta prestakuntza sustatu behar dira, ikerkuntzarako erabiltzen diren baliabideen kopuruak egokia behar du, eta ikerketa jarduerak egiteko berezko egiturak behar dira.

Unibertsitateetan egiten den ikerkuntza era askotakoa da, bai lortu nahi diren helburuen ikuspegitik, bai eta

jakintza esparruaren ikuspegitik ere. Edozein gai edo ia edozein gai izan daiteke ikerkuntzarako egokia. Hau da, edozein jakintza gaitan lor daiteke dugun ezagutza maila goratzea. Hala ere, ikerkuntzaren ikuspegitik alde nabariak daude jakintza arlo nagusien artean. Batetik, ikerketa «kultura» edo «tradizio» desberdinak daude, eta, bestetik, desberdinak dira, era berean, ikerketan parte hartzearen mailak ere. Hau da, arlo desberdinetan ez zaio ikerkuntza jarduerari balio berbera ematen. Aurrekoekin lotuta, irizpide desberdintasun nabariak daude ikerketa balioztatze-ko orduan eta, horren ondorioz, arlo bakoitzeko ikerketa lerroak era desberdinetara laguntzen dira, zeren, gehiengotan, ikerketari dirulaguntzak emateko erabiltzen diren irizpideak arlo bat edo bitarako baitira faboragariagoak. Izan ere, orain, giza eta, batez ere, gizarte zientzien arloetako ikerkuntza jardueraren garapen maila baxuagoa da beste arloetakoarena baino. Zeresanik ez, arlo desberdinen garapen orekatua bilatu behar da, gizartearentzako ondorio onuragarriak ekarriko baititu.

Nazioartera hedatzeak berebiziko garrantzia du ikerkuntza jarduerarentzat. Batetik, jarduera horren maila edo kalitatea herri aurreratuenen parekoa izatea nahi badugu, ezinbestekoa dugu hemen egiten dena nazioarteko zientzia eta jakintza esparruetan balioztatua izatea. Horretarako, bide bakarra dago: gure ikerkuntzaren emaitzak nazioarteko hedapena duten medioetan argitaratzea. Bestalde, atzerriko ikerketa eta akademi erakundeekiko ikertzaileen elkar-terrukea oso aberasgarria da, eta, beraz, ikertzaileen mugikortasunaren aldeko ekimenak sustatu behar dira.

Ikerkuntza egiteko baliabideak behar dira

Ikerketarako erabiltzen diren baliabideak gutxi dira

Lehen esan dudan bezala, azken urteotako ibilbidea azterten badugu, argi dago gaur erabiltzen diren baliabideak askoz ere handiagoak direla hogeitau urte lehenago erabiltzen zirenak baino. Baina hori horrela izanik, garbi esan behar da oraindik ez gaudela beste esparru batzuetan gure

garapen maila berbera duten herrien parean. Arrazoi bat baino gehiago daude, eta kontu honen analisi egokia egiteko, Euskadin ikerkuntza eta garapenean erabiltzen diren baliabideen tamaina aztertu behar da bere osotasunean.

Oro har, «Ikerketa + Garapenerako» (I+G) Hego Euskal Herrian erabiltzen diren baliabideen kopurua ez da txikia Espainiar Estatuko beste eskualdeetan erabiltzen diren kopuruen aldean. Era honetako erkaketak egin ahal izateko, barne produktu gordina (BPG) hartzen da inbertsioen erreferentzia gisa. Horrela, I+G/BPG zatidurak ematen digu I+Gn egiten den ahaleginaren neurri egokia¹. Esan behar dut, bestalde, Ipar Euskadira datu fidagarririk ez dudala eskuratzerik izan, baina uste dut arrazoi nahikoak daudela Hego Euskadin baino ahalegin txikiagoa egiten dela baieztatzeko.

Espainiar Estatuan BPGren %0'9 erabiltzen da I+G diruz laguntzeko². Ehuneko hori askoz ere garaiagoa da Hego Euskal Herrian, %1'3 ingurukoa. Dena den, gurean ere, alde handia dago Nafarroa eta EAEn artean: Nafarroan %1 ingurukoa den bitartean, 1'4koa da EAEn.

Bestalde, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Planaren helburuak betetzen badira, 2004an 1'7koa izango da ehuneko hori eta Europako Batasunari dagokion balioetik hurbil geratuko gara³. Nafarroako datua, berriz, ez da inolaz ere harro egoteko modukoa, Espainiar Estatuaren balio kaskarraren parekoa baita.

Aurkezturiko EAEn datu horiek, baina, ahulezia handi eta garrantzitsu bat ezkututzen dute. EAEn, I+Gren gastuaren %77 dagokio enpresen alorrari. Oso ehuneko garaia da hori, Japonian edo Estatu Batuetan ohikoa dena baino garaiagoa, hain zuzen ere. Horrek, hala ere, ez du esan nahi EAEn enpresek berebiziko ahalegina egiten dutenik I+Gn. Izatez, herri horietako enpresek I+Gn erabiltzen dituzten baliabideak, herri horien BPGren %1'97 (AEB) eta 2'14 (Japonia) dira, eta EAEn, berriz, BPGren %1'08. Erdia da, beraz, gure enpresetan egiten den ahalegin erlatibo hori. Bestalde, gastuaren %77 enpresei bada-gokie, horrek esan nahi du unibertsitate eta ikerketarako herri erakundeei %23 dagokiela soilik.

Lan honen helburuei begira, azken datu hori da azpimarratzekoa. Izatez, oso murrizta da EAEko unibertsitateek eta ikerkuntzarako herri erakundeek (IHE) erabiltzen duten baliabideen kopurua. Nafarroako egoerari buruzko datu zehatzik ez dago baina ez dut uste oso desberdina denik. EAEko unibertsitateek eta IHEek erabiltzen duten baliabideen kantitatea EAEko BPGren %0'32ren baliokidea da. Kontuan hartzen badugu Espainiar Estatuari dagokion 0'42 dela edo Europako Batasunari 0'66 dagokiola, argi dago gure mailako herrietatik zein urrun gauden arlo honetan.

Ikerkuntza motak

Honaino iritsi garelarik, ezinbestekoa deritzot eragile bakoitzak egiten duen ikerkuntza jardueraz azalpenen bat emateari. Hiru ikerketa mota daudela esan ohi da: oinarritzko ikerkuntza, estrategiazko ikerkuntza eta ikerkuntza aplikatua. Hainbatek laugarren mota bat ere sartzan dute sailkapen horretan, alegia teknologi garapenari dagokion, baina nik horri ez deritzot ikerkuntza, nahiz horren eta ikerkuntza aplikatuaren arteko mugak lausotu samartuak diren. Oinarritzko ikerkuntza da jakintza zabaltzea eta handitzea helburu duena. Hasiera batean behintzat, horren bitartez lortu nahi denak ez du izan behar erabilgarria, epe laburrean bederen. Estrategiazko ikerkuntzaren helburua, berriz, aurkikuntza erabilgarriak lortzea da, baina era horretako emaitzak ez dira epe laburrean espero behar. Normalean, etorkizun handikotzat hartzen diren jakintza arloetan burutzen da ikerketa mota hau. Izenak berak dioenez, epe laburrean aplikatzeko modukoak izango diren jakintzak sortzea da ikerketa aplikatuaren helburua.

Bestalde, lehen aurkeztu ditudan hiru eragile horiek —enpresek, ikerketarako herri erakundeek eta unibertsitateek— ikerketa mota desberdina burutu ohi dute, kontu honetan ere muga zehatzik ez dagoen arren. Horrela, unibertsitateetan egiten da oinarritzko ikerketa gehiena, nahiz gero eta estrategiazko ikerkuntza eta ikerketa aplikatu gehiago egiten den. Enpresek, berriz, ikerketa aplikatua eta

teknologi garapena egiten dute; azken batean, enpresek errentagarritasun ona izan behar dute, eta ahalik eta denbora laburrenean bada, hobe. IHEek egiten dutena ezin sailka daiteke hain erraz, denetariko lan motak baitaude. Euskal Herrian diren ikerketa zentroetan ikerkuntza aplikatua da nagusi, baina hori ez da Europako joera orokorra. Europako herrietan denetariko ereduak daude baina oso ugariak dira bai estrategiazko ikerkuntza bai oinarrizko ikerkuntza egiten duten institutuak. Nolabait, unibertsitateetan egiten den ikerketaren osagarri bat da institutu horietan egiten dena, eta, askotan, erakunde harreman egonkorak daude batzuen eta besteen artean.

Beraz, sailkapen hori aintzat hartuta, lehenago aurkeztu ditudan zehaztapenok agerian uzten dute ikerkuntza aplikatua eta teknologi garapenean gauzatzen dela EAEn egiten den I+Gren aldeko ahalegina. Ahalegin hori, bestalde, ez dago oso urrun European egiten den ahaleginetik. Horren truke, baina, oinarrizko ikerkuntzan eta estrategiazko ikerkuntzan ez da egiten egokitu beharko litzaigukeen ahaleginaren parekorik.

Egoera horren eskasiak zerikusi handia du EAEk ikerketa eskumena bere esku oraindik ez izatearekin. Hau da, eskumen hori gureganatzea oso garrantzitsua da. Baina badago beste arrazoi bat egoera hori azaltzeko. Eusko Jaur-laritzak estrategiazkotzat hartu du EAEko industria alorrari laguntza ematea, eta, horretarako, teknologi ikerketarako institutuen sarea (EITE) sustatzea izan da Industria sailaren bitartez erabili dituen bideetariko bat. Baliabideak, azken batean, mugatuak dira, eta ikerketa aplikatua eta teknologi garapenean erabili direnak ezin izan daitezke erabili oinarrizko ikerketa eta estrategiazko ikerketa sustatzeko.

Unibertsitateetan egiten den ikerkuntzari kalteak ekarri dizkiote aipaturiko gabeziek, baina beste ondorio larriago bat bada tartean, Euskadik ikerketarako herri erakundeen egitura sendorik ez izatea, hain zuzen. Era horretako erakundeak oso garrantzitsuak dira gure inguruko herrietan. Horren adibide argia dira CNRS Frantzian, CSIC Espainian, NERC eta horren parekoak Britainia Han-

dian eta Max Planck Institutua Alemanian. Euskal Herrian ez dugu horren parekorik, eta horrek berebiziko ondorioak izan ditzake hain garrantzitsua den estrategiazko ikerketaren alorrean. Gainera, Unibertsitateetan egiten den ikerketa jardueraren osagarria da institutu horietan egiten dena eta, zeharka, horrek ere baldintzatu egingo du Unibertsitateetan egiten den ikerkuntza.

Laburbiltzeko, beraz, honakoa esan daiteke: azken urteotan asko igo da unibertsitateek erabiltzen dituzten baliabideen kantitatea, baina oraindik ez gara iritsi dago-kigun mailaraino. Gainera, herren dago gure zientzi eta teknologi garapenerako sistema, oinarrizko ikerkuntza eta estrategiazko ikerketaren hanka garatu gabe baitago. Garapen jasangarrirako eta epe luzerako aurrerakuntzarako, ezinbestekoak dira ikerketa modu horiek; beraz, oinarrizko ikerkuntza eta estrategiazko ikerkuntza behar bezala sustatzea da datozen urteotarako erronka nagusia. Azken batean, ikerkuntzaren hiru mota nagusien arteko orekara iritsi beharko litzateke, epe laburrerako teknologi garapenak epe luzerakoa jan ez dezan.

Zer arako behar dira falta diren baliabideak?

Giza baliabideena da unibertsitateetan gaur egiten den ikerkuntzaren eragile mugatzaileenetarikoa bat. Lehen esan bezala, goi mailako irakaskuntzaren zerbitzua ematea izan da unibertsitateen helburu nagusia. Hori dela eta, irakasleen beharrak asetzea hartu izan da xede, eta horrek beste bi ondorio kaltegarri eragin ditu. Batetik, ia ez da egin ahaleginik unibertsitateak ikerkuntzarako teknika-laguntzaileez hornitzeko. Bestalde, beste unibertsitateetan dauden ikertzaile hutsen pareko goi teknikaririk ez dago gure unibertsitateetan. Bi gabezia horiek garrantzi handikoak dira, eta ikerkuntza sustatzeko politika eraginkorrak abian jarri nahi badira, ezinbestekoa da gabezia horiei konponbideren bat ematea.

Giza baliabideen urritasun hori alde batera utzita, badaude bestelako gabeziak ere, baina ikerketa egituren ego-kitasunarekin zerikusia duten kontuak direlarik, hurrengo azpiatalean aztertuko ditut.

Ukiezinezko eragileak ikerketa jardueran

Ikertzaileak prestatu behar dira

Gero eta garrantzi handiagoa eman zaio ikerkuntzari, unibertsitateko irakasleak kontratatzeko orduan. Horrek nabarmenki lagundu du ikerkuntzaren egoera hobetzen, baina hobekuntza horretan zeregin handia izan du ikerkuntzaren baldintzapenek gora egin izanak, oraingo baldintzapenak orain dela hogeituro urtekoak baino askoz ere hobekuntza baitira. Hala ere, oraindik ez da egituratu akademi karrera estandar bat, Europako beste herrietako unibertsitateetan ohikoa denaren parekoa, eta karrera horrek hasierako prestakuntza aldi bat izan behar du.

Ikertzaile berrien prestakuntzaren beharra oso barneratuta dago unibertsitarioengan. Izan ere, gutariko askok hartu eta eman ditugu doktorego programetako eskolak. Egia da, bestalde, ikertzaileak hezitzeko bide bereziak behar direla. Ikertzaileek behar dituzten jakintzak eta, batez ere, abileziak eta gaitasunak bereziak dira. Gainera, beren lan esparruan sortzen diren ezagupen berriak oso gertu izan behar dituzte.

Egun, doktorego ikasketak eskaintzen dituzte unibertsitateek edo, hobeto esateko, «doktorego ikasketak» izena duen zerbait. EHUn, adibidez, berezko baliabiderik gabe eskaintzen diren ikasketak dira, eta, bestalde, barneko ikerketa taldeak autoelikatzeke pentsatuta daude. Eta hori ez da ikertzaileak hezitzeko beharko litzatekeen bide egokia.

Hasteko, giza baliabide gehiago behar dira, eta beste-lako baliabideen beharrea ere bagaude. Baliabideez gain, edukien egitura egokia izan behar dute, eta metodologi ikuspegiei garrantzi handia eman beharko zaie. Bestalde, unibertsitateaz gain, bestelako tokietan ere beharrezkoak dira ikertzaileak, doktore mailakoak, gainera. Oso gutxi dira Euskal Herriko enpresetan egun dauden doktoreak, eta ondorio kaltegarriak ditu horrek. Izan ere, enpresetan lan egiten duten doktoreen kopurua hartzen da herrien zientzi eta teknologi garapenaren adierazletzat; ez dut us-te hori zentzugabekeria denik. Ikerkuntza taldeen autoelikatzen beharra ahaztu gabe, doktorego ikasketen edu-

kiak birdefinitu beharko lirateke unibertsitateetatik kanpoko guneetan ikertuko duten doktoreak era egokian prestatzeko.

Doktorego ikasketen ondoren, prestakuntza aldiari eman beharko litzaioke hasiera, eta, horretarako, oso egokia litzateke laguntzailearen irudiaz edo horren parekoren batez baliatzea. Zoritzarrez, oso gutxi erabili da irudi hori.

Prestakuntza aldi hori amaitu ondoren, irakasle/ikertzaile «osoa» izateko urratsa eman liteke. Herri aurreratuen joerak zein diren ikusita, halabeharrezkotzat jo beharko litzateke horren antzeko karrera bat Euskal Herriko zein bestelako herri bateko unibertsitate batean ere.

Ikerkuntza egiteko egiturak ez dira oso egokiak

Ez dira egokiak edo, besterik gabe, ez dago egiturarik. Lehen esan bezala, irakaskuntza izan da eta da unibertsitateen zeregin nagusia. Beraz, ez da harritzekoa ditugun unibertsitate egiturak ikertzeko egokiak ez izatea. Sailak dira unibertsitateen oinarritzko antolaketa egiturak, baina aski ezaguna denez, bere jakintza arloei dagokien irakaskuntza antolatzea da sailen betebeharr nagusia.

Kontu honi dagokion berritasun interesgarria jasota geratu da ezarri berria den Unibertsitateen Lege Organikoan. Izan ere, ikerkuntza taldearen kontzeptua agertu da lege horretan, eta baliteke hemendik aurrera gauzak apur bat aldatzea, batez ere ikerketarako dirulaguntzak ikerkuntza talde egonkorrei bideratzen bazaizkie.

Euskal Herriko unibertsitateetan zein unibertsitateetatik kanpo ere, ia ez dago ikerkuntza instituturik, eta hori dugu gabeziarik garrantzizkoena. Aurreko azpiatalean mintzatu naiz kontu honetaz, ikerketarako baliabideen kantitatea eta erabilera aztertu dudanean, eta, beraz, ez dut hemen errepikatuko lehen esandakoa. Hala ere, ez ditugun institutu horietaz zerbait gehiago adierazi nahi nuke.

Sortu egin beharko lirateke, ez edonola eta ez edozein gairi buruz ikertzeko, baina sortu. Nire iritziz bi dira horretarako erabili beharko liratekeen irizpide nagusiak:

batetik, unibertsitate institutuak sortu beharko lirateke ikerketa talde indartsuak —nazioartean lehiatzeko modukoak— dauden arloetan lan egiteko. Donostia International Physics Center edo Biofisikako Institutua izan daitezke eredu garriak. Unibertsitatearen parte dira baina autonomia maila garaia dute, eta halabeharrezkoa da hori; bestela unibertsitatearen burokrazia eta eraldokeriaren menpean geratzeko arriskua izango lukete.

Bigarren irizpideak ikerketa gaiarekin du zerikusia. Euskadin ia ez da egiten estrategiazko ikerketarik, eta hori ezinbestekoa izango da etorkizunari begira. Aukera desberdinak egon daitezke ikerketa mota hori bideratzeko, baina nire ustez, institutu berriak sortu beharko lirateke estrategiazkotzat hartu edo hartuko diren lerroetan lan egiteko. Horrek, jakina, ahalegin berezia eskatuko luke, ikertzaile gazteak gai horietan trebatu eta beste herrietatik ikertzaile prestuak erakarri beharko bailirateke; baina beste herrietan egin da hori, eta emaitza onak erdietsi dira. Institutu horiek, bestalde, ez lirateke unibertsitatearen parte izan beharko, nahiz harreman egonkorrak mantentzeko bideak egon beharko liratekeen.

Ikerketa institutu berriak sortzea, azken batean, oinarriko ikerkuntza eta estrategiazko ikerkuntzaren sustapenarekin lotuta dago. Hori dela eta, elkarren arteko neurri osagarriak dira bai aurreko azpiatalean proposatu dudana baliabideen erabilera eta bai azpiatal honetan proposatu dudana ere.

Euskadin egiten den ikerkuntzaz ari gara

Honaino iritsi garelarik, batek baino gehiagok pentsa lezake orain arte egindako azterketa honek berdin balio dezakeela Espainiar Estatuko beste unibertsitateetarako, eta, beraz, ez duela inolako ekarpenik egiten Euskal Herriko ikerkuntzaren beharren ikuspuntutik. Eta neurri batean egia da hori, baina ez guztiz.

Alde batetik, egia da gure unibertsitatearen egitura eta ezaugarri nagusiak besteenak bezalakoak direla; beraz, konpondu beharreko arazoak eta gabeziak ezin daitezke

desberdinegiak izan. Beste alde batetik, baina, Euskadiko zientzi eta teknologi sistemaren ezaugarriak, bere aldeko eta bere aurkakoekin, aztertuta daude, eta ikusi dugu gure egoera desberdina dela, eta, beraz, gure beharrak ere desberdinak direla. Azken batean, herri jakin batean egin behar dena ez da beste herrietan egin behar denetik oso desberdina, prozedura eta baliabide mota eta kantitatearen ikuspuntutik. Helburuetan eta, batez ere, gizarte bakoitzaren beharretara egokitzean egon behar dira desberdintasunak.

Herri erakundeek ezarri behar dituzte gizarte baten zientzia eta teknologiaren garapenerako ildo nagusiak, eta horretarako egiten dira zientzi eta teknologi plangintzak. Plangintza horietan aztertzen da zein den gaurko egoera, zein gizarteak datozen urteetan izango dituen beharrak, eta zein behar horiek asetzeko hartu behar diren neurriak. Hortxe ezarri behar dira estrategiazko lerroak, eta, horretarako, era guztietako eragileak hartu behar dira kontuan. Gizarte baten beharrak ez dagozkie soilik industria eta ekonomiaren alorrei; gizarte integrazioaren, kulturaren eta ongizatearen alorrei ere berebiziko garrantzia eman behar zaie horrelako planak egiterakoan. Unibertsitateek txertatuta egon behar dute Euskadiko Zientzi eta Teknologia Sistematan eta, horregatik, plan horien eragile nagusitzat hartu beharko lirateke.

Euskadin egiten den ikerkuntzaz ari garelarik, gogoe-ta laburra egin nahi dut ikerkuntza horren emaitzak argitaratzeko orduan erabili behar den hizkuntzaz. Nire iritzi-z, argitaratuko diren emaitzen ustezko irakurleen hizkuntza da erabili behar dena, eta idazlea da hori zein den erabaki dezakeen bakarra. Ingelesa da ikerkuntzaren emaitzak hedatzeko gehien erabiltzen den hizkuntza. Bistan da horren arrazoia zein den: ingelesez irakur dezaketen ikertzaileen kopurua handiagoa da beste edozein hizkuntzaz egiten dakitenena baino. Salbuespenak egon daitetzeke, baina hori, lehen esan bezala, idazlearen kontua da. Beraz, horren arabera, euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez idazteak ez luke zentzu handirik izango kasu gehienetan.

Beste gauza bat da, ordea, zientzia eta jakintzaren zabalakuntza egiteko orduan erabili behar den hizkuntzarena. Hor nazio hizkuntzak erabili behar dira, adituak ez direnentzat idazten baitira lan horiek. Gure kasuan, gainera, garrantzi berezia ematen diot euskarazko zientzi dibulgazioari, eta, horregatik, sustatu egin beharko litzateke jarduera hori.

Modu berean, doktore tesiak euskaraz idaztea funtsezkotzat jotzen dut. Adigai eta ideia berriak idazten dira doktore tesietan, ikertzaile gazteen lehenbiziko ikerketa lan garrantzitsuak baitira. Hori dela eta, aberasgarri samarra da tesia euskaraz idaztea, bai doktore berriaren hizkuntz prestakuntzaren ikuspuntutik, bai eta hizkuntzaren komunikazio beharren ikuspuntutik ere. Gaur, euskaraz idazten diren tesien portzentaia %10 baino baxuagoa da Euskal Herrian, eta EHUen egindakoak dira idazten diren gehienak. Oso ehuneko apala da hori, garrantzizko gabezia baten adierazlea.

Unibertsitateek goi mailako profesionalak prestatu behar dituzte

Hau, bai, egiten dugu gure unibertsitateetan. Lehen esan bezala, horretarako daude egituratuak; eta gabezia, arazo eta behar handiak dauden arren, nik esango nuke irakastea dela hoberen egiten dugun unibertsitate jarduera. Baina ez dugu orain galdetu behar irakatsi behar ote den; zertarako eta nola irakatsi behar den dugu benetako gakoa. Goazen, beraz, zer, zertarako eta nola horiek erantzutera. Erantzunak ez dira bistakoak.

Zer eta zertarako irakatsi behar dugu?

Edozein esparrutako goi mailako jakintzak irakatsi behar direla da galdera horretarako erantzun azkar eta errazena. Hala ere, munduan diren goi mailako jakintzak gehiegi dira eta guztiak ezin irakats daitezke munduko toki guztietan. Beraz, aukeratu beharra dago, eta aukera egi-

teko orduan, bigarren galderari erantzun behar zaio; hau da, zertarako irakatsi behar dugu? Bada irizpide bat nagusia izan behar duena: gizartearen oraingo eta etorkizuneko beharrei aurre egin behar zaie unibertsitateko irakas-kuntzaren bitartez.

Bigarren galderari dagokionez, esan behar da goi mailako profesionalen prestakuntza ezinbestekoa dela edozein gizarte aurreraturentzat; eta lan hori unibertsitateari dagokio, neurri handi batean bederen.

Profesionalen prestakuntzak bi alde ditu: batetik, hasierakoa, titulua eskuratzeko bete behar diren ikasketei dagokiena; eta, bestetik, bizitza osorako beharrezkoa den jakintzen gaurkotzeari dagokiona. Hasierako prestakuntzari dagokionez, unibertsitate guztiek eskaintzen dute titulu multzo bat. Izaera ofiziala estatuek ematen diete tituluak, eta gure kasuan, Espainiar eta Frantziar Estatuak dira. Beraz, hau da aztertu behar den lehen kontua.

Hego Euskal Herrian, titulu ofizial gehienak eskaintzen dira Hego Euskadiko unibertsitate guztien eskaintza bere osotasunean kontuan hartzen badugu. Jakina, guztiak ez dira unibertsitate guztietan eskaintzen, baina oso eskaintza zabala da edonola. Zabala bai, baina egokia ote da ordea? Nire iritziz, ez guztiz. Tradizioan eta Espainiako unibertsitateetako talde korporatiboen interesetan oinarritu dira titulu ofizialen definizioa eta tituluen oinarritzko edukien ezarpena. Oso garrantzitsua da hau. Pentsa genazake tituluen eskaintza berdina dela herri aurreratu guztietan, baina hori ez da horrela. Herrien artean desberdintasun nabariak daude, eta, nire aburuz, badira Europan eskaintzen diren zenbait ikasketa, euskal gizartearen beharretarako oso egokiak izango lirartekeen arren gure unibertsitateetan ez daudenak. Honelako arazo baten aurrean, bistan dago tituluak ezartzeko eskuduntza guri egokitu beharko litzaigukeela. Horixe izan beharko litzateke gure helburua, baina hori lortu arte, badira har daitezkeen zenbait irtenbide.

Adibidez, EAEko legedian jasota dago gure unibertsitateek eskaintzen dituzten berezko tituluei izaera ofiziala emateko aukera. Nafarroan berdin egin liteke. Eta aukera

hori jasota dagoenez, erabili egin beharko litzateke. Izan ere, horrelako zenbait titulurain eskaintzen den tituluren bat ordezkia lezake inolako arazorik gabe. Egia da balio ofizialik ez luketela izango Euskal Herritik kanpo, baina hori arazo txikia da gure gizartearen beharretara egokitutako tituluez ari bagara. Gainera, Europako beste unibertsitateek eskaintzen dituzten tituluekin baliokidetuko balira titulu horiek, Europa osorako balio ofiziala izango lukete lehenago ala beranduago.

Beste alde batetik, orain egiten den eskaintzari erreparatzen badiogu, esan behar da izugarritzko desorekak daudela. Tokian tokiko interesen arabera moldatu da, neurri batean behintzat, tituluen eskaintza. Errepikapen ulertezinak daude eta, errepikapen horiekin batera, gabezia nabarmenak ere. Aurreko atal batean esan dudana bezala, Euskadi osoan eskainiko diren tituluen arteko osagarritasuna izan beharko genuke jomuga. Horrela, eskaintza zabala egitearekin batera, modu eraginkorrean erabiliko lirateke giza eta ekonomi baliabideak.

Bestelako kontua da ikasketen edukia zein izan behar den. Eta hori ez da kontu makala. Honetan ere, Boletín Ofizialak agintzen du, ikasketen edukien %60 inguru ezartzen baitu. Beste %40 unibertsitate bakoitzak erabakitzen du. Hala ere, horrek baino garrantzi handiagoa duten bi arazo daude kontu honi dagokionez. Unibertsitarioon interes korporatiboa izan da ikasketen edukien ezarpenean eragin handiena izan duen irizpidea. Izan ere, ikasketa planak egituratzerakoan, geu izan gara plan horien edukiak ezami ditugunak, eta geure interesak bermatzera jo dugu kasu gehienetan. Horrek ez du ondorio onik ekarri, ez unibertsitateentzat ez eta ikasleen prestakuntzarentzat ere.

Hori ihes egiteko aukerak, hala ere, ez dira bistakoak. Adibidez, ikasketak enpresen beharretara gehiago egokitu behar direla aldarrikatzen da enpresa mundutik. Baina hori ere ez litzateke bide ona izango. Hemendik urte gutxitara enpresen beharrak ez dira berberak izango eta unibertsitateko ikasketak ezin alda daitezke epe laburrean.

Konponbidea, beraz, ez da erraza. Nire iritziz, titulu ofizialez ari bagara, oinarrizko jakintzei eman beharko lit-

zaieke lehentasuna, hau da, oinarrizko prestakuntza ego-kiaren helburua izan beharko genuke ikusmiran. Berezitasunek, anizkoiztasunak, enpresen beharretarako egokitzapenak eta abarrek leku txikia izan beharko lukete, eta, beti ere, ikasketen amaierako gaietan eta gaien alde praktikoan.

Horrelako sistema batek eraginkorra izan behar badu, osagarri garrantzitsu bat izan behar du: jakintzak gaurkotzeko ikasketen eskaintza zabala eta indartsua. Beraz, hasierako ikasketetan oinarrizko jakintzak irakasten badira, halabeharrezkoa da osagarria izango den beste eskaintza bat egitea. Gainera, eskaintza oso aldagarria izan beharko litzateke, jakintza bera eta gizartearen beharrak aldagarriak diren bezala. «Master» izeneko ikasketak, enpresa jakin batzuek eskatutako prestakuntza espezifikorako ikastaro bereziak, herri erakundeekin adosturiko gaurkotze ikastaroak eta abar sartu beharko lirateke era honetako eskaintzaren barruan.

Arlo hau ez dago batere garatuta gaur. Horregatik, dagoen urteotan ildo horretatik bideratu beharko litzateke ohiko ikasleen kopuruaren beherapenak askatuko dituen baliabideen alde esanguratsu bat. Izan ere, estrategiazkotzat jo beharko genuke bizitza osorako prestakuntza horretarako eskaintza, honen inguruan sortuko baita unibertsitateen arteko lehia garrantzitsuena. Gainera, Euskaditik kanpoko unibertsitateek ere parte hartuko dute lehia horretan, horren menpean egongo baita, neurri handi batean, unibertsitateen biziraupen duina.

Nola irakatsi behar da?

Hemen ez naiz pedagogiaren ur sakonetan sartuko. Ez naiz nor horretarako. Azpialt honetan aztertuko ditudan kontuak tresna eta baliabideei dagozkie, materialei eta ukiezinezkoei, besterik ez.

Curriculumen egitura

Unibertsitate ikasketen curriculumen egitura sakonki aztertu du Bricall irakasleak «Universidad 2 mil» izenburuko txostenean, eta, azterketaren ondorioz, oso proposa-

men interesgarriak egin ditu ikasketen egitura aldatzeko. Ez naiz gehiegi luzatuko kontu honen inguruan, eta, beraz, ez ditut ekarriko hona txosten horretan ematen diren zehaztasun guztiak. Bat nator proposamen horiekin eta uste dut ahal dugun neurrian bide horretatik joan beharko genukeela.

Beren akademi ibilbidea egiteko, ikasleei ahalik eta malgutasun handien eta aukera gehien ematea zen oraingo curriculumen helburu garrantzitsuenetariko bat, eta, horretarako, eredu bakarrari moldatu zitzaizkion ikasketa gehienak. Baina emaitzak ez dira izan espero zitezkeen bezalakoak. Alde batetik, malgutasun hori ez da lortu, eta, bestaldetik, berdindu egin dira berez oso desberdinak diren eta helburu desberdinak dituzten ikasketak.

Izan ere, bi eratako ikasketak eskaintzen dira unibertsitateetan. Batetik, unibertsitate tradizio luzea duten lizentziaturak daude, zientzi ezagupenen multzoen inguruan egituratuak. Ingeniaritza bezalako beste batzuek lanbideak dituzte helburu; azken hauetan, zientzi ezagupenak eskuratzea baino, prozedurak eta trebetasunak dira lortu behar direnak.

Bereizketa horri eutsi egin beharko litzaioke Bricall irakaslearen arabera, baina inolako zurruntasunik ezarri gabe. Horretarako, ikasketen lau multzo egituratu beharko lirateke. Batetik, hasierako ikasketaldiak egongo lirateke bi ibilbide desberdinekin, eta, bertan, ikasketa mota bietako bakoitza bere ibilbide propio batean antolatuko litzateke. Horiek amaitutakoan, lan mundura igarotzeko moduan egongo lirateke ikasleak, bai ibilbide batekoak eta bai bestekoak. Hasierakoen ondoren, bigarren ikasketaldia etorriko litzateke, berriro ere bi ibilbidetan antolatuta. Horiek amaitzerakoan, ikasketen goi gradua lortuko litzateke. Ezaugarri bereizgarriak izan beharko lituzke ibilbide bakoitzak, euren prestakuntza helburuen arabera.

Sistema malgua izan beharko litzateke, eta horrek esan nahi du ibilbide bakoitzak ez duela itxia izan behar, hau da, aukera errazak egon behar direla batetik bestera igarotzeko, eta ibilbide batean ikasitakoa beste ibilbidean baliokidetzeko aukera egon behar dela. Horrela, ikasleek egindako

lehen aukerak ez luke erabat baldintzatuko beren akademi etorkizuna, eta ate guztiak zabalik izango lituzkete.

Eredu horrek, bestalde, badu beste alde on bat. Eredu egokia dirudi Europako unibertsitate guztietan edo gehienetan ezartzeko, eta horrek aukera emango luke unibertsitateen arteko ikasleen mugikortasuna sustatzeko.

Unibertsitate legeek ezarritako mugak direla eta, gure unibertsitateak baldintzatu samartuta daude horiek bezalako aldaketak egiteko orduan; hori egia da. Hala ere, horixe da lehenago ala beranduago hartu beharko den bi-dea, eta horrek esan nahi du egon daitezkeen aukerak erabili behar direla.

Irakasteko egiturak

Irakaskuntzaren antolaketa egiturak bi dira: goi mailako eta erdi mailako ikastetxeak. Aspalditik dator bereizkuntza, baina ez da betidanik izan den zerbait. Izan ere, hainbat ikasketak profesionali unibertsitate izaera eman zitzaizen unean sortu zen berez oraindik dirauen bereizketa hori.

Hasiera batean behintzat, desberdinak dira batzuetan eta besteetan eskaintzen diren ikasketak. Horrela, goi ikastegietan bigarren zikloko ikasketak ematen dira, eta erdi mailakoetan lehen ziklokoak bakarrik. Bestalde, bi ikastetxe mota horien arteko desberdintasun bat dago irakasleei dagokienez ere. Izan ere, doktoreak izan behar dira bigamen zikloko ikasketak irakasten dituzten irakasleak. Hori dela eta, oso doktore gutxi egoten da erdi mailako ikastegietan.

Nire iritziz, gaur ez du inolako zentzurik bi maila horietan oinarrituriko bereizketa horrek. Gero eta gehiago dira lehen zikloetako ikasketak eskaintzen dituzten goi ikastetxeak, eta alderantzizkoa ere gertatzen da, hau da, erdi mailako ikastetxe askok asmo sendoak dituzte goi mailako tituluak emateko.

Beste alde batetik, unibertsitateen lege berriaren arabera, irakasle funtzionario doktoreak dira *de facto*-ko irakasle izaera izango duten bakarrak. Beraz, doktoreak ez diren irakasleek oso eragin txikia izango dute unibertsitate-

ko kontu garrantzitsuetan. Nire ustez, doktoreak ez diren Eskoletako irakasle askok egingo dute tesia, eta, horrela, gero eta antzekoagoak izango dira erdi eta goi mailako ikastetxeak.

Gauzak horrela, ikastegi mota bakarra egon beharko litzateke, eta ikastetxe horretan era guztietako ikasketak eskaini beharko liriateke. Horrela, ikastetxe motaren arabera behintzat, ez litzateke irakasleen arteko bereizketarik egingo. Gainera, lehen zikloetako ikasketetatik bigarren ziklokoetarako iragaitea errazagoa izango litzateke aukera hori hartzen duten ikasleentzat.

Irakaskuntzarako egiturez aritzerakoan, informazio eta komunikazio teknologiek eskaintzen dituzten aukerak ezin utz daitezke bazter. Unibertsitate birtual edo Campus birtual izena duten ekimen ugari sortu dira azken urteotan, eta gure unibertsitateak ez dira salbuespen izan. Hala ere, eremu berri honi ez zaio eman nire ustez eman beharko litzaiokeen garrantzia.

Estrategiazkotzat hartu beharko litzateke tresna telematikoen bidezko ikasketen eskaintza. Bi dira horretarako arrazoi nagusiak. Batetik, malgutasun ikaragarria eman dezakete, eta malgutasuna, jakina denez, eraginkortasunaren baldintzatzaile garrantzitsua izaten da. Ikasleei heltzeko bide berriak eskaintzen dituzte bide telematikoek. Gainera, unibertsitate irakaskuntzan goi mailako aditu ez-unibertsitarioen zein beste herrietako unibertsitarioen parte-hartzea ahalbidetzen dute. Hori, jakina, onuragarria izango da ikuspegi guztietatik.

Bigarren arrazoiak zerikusi handia du lehenago azertu dudan beste kontu batekin, bizitza osorako prestakuntzarenarekin, alegia. Bizitza osorako prestakuntza, ezagutza eguneratzea helburu duena, lan jarduera arrunta duten profesionaleri zuzentzen zaie, horiek izango baitira horren beharra izango dutenak. Ikasle horiek oztopo gaindiezina izan ditzakete ikastegietara joateko eta ohiko ordutegietan egiteko. Hori dela eta, ezinbestekoa izango da denbora eta espazioarekiko loturak askatzen dituen irakaskuntza sistema bat, era horretako prestakuntza eskaintzari garrantzia eman nahi bazaio.

Esana dut, ordea, ez zaiola garrantzi handiegirik eman irakasteko era horri. Alde batetik, oso urriak izan dira orain arte erabili diren baliabideak. Bestaldetik, unibertsitateen egitura zurrunez ez dute oraindik aurkitu bide egokirik mota honetako irakaskuntza era egokian antolatzeko. Bi horiek dira gaur dauden arazoak. Erantzun egokia eman ezean, kanpotik etorriko dira beste unibertsitateak, eta gurea den esparrua beteko dute guk baino lehenago. Etortzen hasiak dira dagoeneko.

Irakasteko baliabideak

Egiturena ez da irakaskuntza jardueraren baldintzatzaile bakarra, ez eta nagusia ere. Hori baino garrantzitsua goa baliabideak dira, giza eta bestelako baliabideak.

Irakasleen kopurua egokia izatea da kalitatezko irakaskuntzarako ezinbesteko baldintza bat. Ikasle kopurua izugarri igo zen joan den hamarkadaren amaiera arte, eta guztiok ikusi dugu horrek sorturiko masifikazioaren ondorioak txarrak izan zirela, batez ere ikasketen osagai praktikoei dagokienez. Orain, berriz, joera aldatu da eta ikasleen kopurua beherantz doa. Izan ere, gaurko ikasle/irakasle zatidura beste herrietan gertatzen denaren pareko baliora hurbiltzen ari da. Duela bost urte 19 izan zen zatidura horren balioa; gaur 14 ingurukoa da, eta datozen bost urteotan 12 izatera iritsiko da, seguraski. OCDEko herriei dagokien batez bestekoa 12 da. Beraz, homologazioaren bidean gaude la esan genezake.

Hala ere, alde handiak daude unibertsitatearen barneko arloen artean. EHU, adibidez, gizarte zientzien alorrean zatidura hori 20tik gorakoa den bitartean, 4koa da osasun zientzien ikasketetan. Alde batetik, ulergarriak dira desberdintasun horiek; azken batean, ikasle kopuru handiek duten eragina ez da berbera izaten ikasketa guztietan. Baina beste alde batetik, egindako giza baliabideen kudeaketa ez da ondo egokitu ikasleen kopuruaren aldaketekiko. Horrexegatik esan dut lehen irakasleen kopuru egokia bilatu behar dela, ikasketa guztietan lortu ez den zerbait delako.

Baina irakasleak ez dira irakaskuntzan parte hartzen duten langile bakarrak. Teknika-laguntzaileak garrantzi handikoak dira honetan ere, bereziki eskola praktikoetarako. Ikerkuntzaren atalean adierazi dudan modu berean, irakaskuntzarako laguntzaileen urritasunak izugarri murritzen ditu aukerak. Hortaz, Espainiar Estatuko unibertsitate publikoen artean EHU da laguntzaile gutxien duena⁴. Joan den urteotan ahalegin handiak egin dira unibertsitatea irakaslez hornitzeko, baina teknika-laguntzari ez zaio behar zuen beste garrantzia eman. Esan beharra dago, bestalde, NUPen egoera EHUrena baino hobea dela.

Garrantzi handikoak dira azpiegitura baliabideak ere, eta honetan, aurrekoan bezala, denetarik dago gure unibertsitateetan. Ez dut ezagutzen unibertsitate pribatuen egoera eta, beraz, ez naiz horietaz mintzatuko. Ahalegin handiak egin dira unibertsitate publikoetarako eraikinak egiteko. Gure Fakultate eta Eskolek tamaina egokia dute; horietatik asko, gainera, berriak dira, eta zaharkituta geratzen ari diren ikastetxeentzat berrikuntza programak jarri dira abian.

Bestelakoa da, ordea, eraikinak ez diren irakaskuntza azpiegituren kasua. Gabezia kronikoak daude arlo honetan, eta gabezia horiek garrantzitsuak dira lan mundura iritsi diren berrikuntza eta tresna berri asko ezezagunak direlako unibertsitateetako tituludunentzat. Premiazkoa da hutsune hori betetzea, XX. mendeko tresnez trebatutako profesionalak XXI. mendekoak erabili beharko baitituzte lan mundura igarotzerakoan.

Irakaste jardueraren balioztatzea

Lehenago esandako zenbait kontutatik bestelakorik ondoriozta baliteke ere, esan beharra dago irakaskuntza jarduera ez dela era egokian balioztatzen. Egia da irakaskuntza izan dela unibertsitateen helburu nagusia, baina, hamitzekoa bada ere, ikerkuntza jardueraren emaitzen araberakoa izan dira bai promozio bideak, bai ezarrita dauden pizgarri gehienak ere. Irakaskuntza jarduerari ez zaio eman mereri duen garrantzia, eta horrek ondorioak izan ditu.

Nire iritziz, unibertsitate publikoetako ikasleei beren irakasleei buruz gaur egiten zaizkien inkestez gain, beste era bateko neurgailuak erabili beharko lirateke irakasleek ematen duten irakaskuntza balioztatu ahal izateko. Eta horrek, gainera, ondorioak izan beharko lituzke promozioari eta soldata osagarriak eskuratzeari begira.

Kontu korapilatsua da hau, badakit. NUPen, adibidez, ildo horretatik hartu diren lehen erabakiek oso harrera txarra izan dute irakasleen sindikatuen aldetik. Zaila da, baina bide horretatik ez bagara abiatzen, irakaskuntza hobetzeko ahaleginak ezerezean geratuko dira. Ikerkuntzaren ebaluazioak ondorio onuragarriak ekarri baditu, zergatik ez dugu antzeko zerbaitegiten irakaskuntzarekin?

Zein hizkuntzatan irakatsi behar da?

Nire iritziz, Euskadiko hiru hizkuntzatan eta, horiez gain, ingelesez ere. Horrek ez du esan nahi unibertsitate guztietan lau hizkuntza horietan eta neurri berean irakatsi behar denik. Unibertsitate bakoitzak duen kokapenaren eta lurraldearen egoera soziolinguistikoaren arabera egin behar da eskaintza. Hegoaldeko unibertsitateetan euskara eta gaztelania izan beharko lirateke hizkuntza nagusiak, eta frantsesa eta euskara Iparraldekoetan. Gainera, ingeleza ere erabili beharko litzateke, nahiz zenbait gai aukeraturik soilik egin.

Euskaraz, zergatik?

Hasteko, eskaera handia dagoelako. Gaur, EAEko unibertsitateetara datozen gazteetatik %45ek euskaraz egin dute sartzeko hautapropa, eta azkenengo 6 urteotan ehuneko hori urtero %2 hazi bada ere, azken urtean %7 igo da. Hortaz, eskaintza horri erantzutera behartuta gaude, ahal dugun neurrian behintzat. Ehuneko hori %25 ingurukoa izan daiteke Nafarroako unibertsitateetan.

Eskaera handia izateaz gain, unibertsitate publikoen estatutuek euskaraz ikasteko eskubidea aitortzen diete ikasleei, eta nahiz eskubide hori gauzatzeak bere epeak behar dituen, luzeak gainera, hartutako bidetik aurrera ja-

rraitu behar da, eskubide hori urratsez urrats %100ean betetzera iritsi ahal izateko.

Baina unibertsitate ikasketak euskaraz eskaintzeko dagoen arrazoirik garrantzizkoena, nire iritziz, euskal gizartearekiko erantzukizuna da. Gure gizarteak bereziki irakaskuntzan euskara erabiltzearen alde ahalegin izugarria egin ondoren, nekez uler eta onar liteke irakasteko eskaintza goreneko mailan etetea. Bestalde, euskarak berak kaltea hartuko luke unibertsitatean ere erabilia izatera iritsi ezean, bai bere ospean, bai komunikazio tresna gisa.

Askoren ustez, soberan egon daiteke euskararen erabilera aldeko arrazoiak ematea. Baliteke soberan egotea, baina nik nahiago izan dut arrazoi nagusiak zehaztea. Arrazoi objektiboak dira gainera, ez baitut uste inolako ideologia kutsurik dutenik.

Kontu honi dagokionez, bakoitzak baditu norberaren ideologiari loturiko arrazoiak, eta horiek, nire kasuan behintzat, argiak dira, eta argi azaldu nahi ditut hemen. Nire ustez, nazio nortasunaren adierazle eta osagai garrantzitsuenak da hizkuntza. Ama hizkuntza gaztelania dudalarik, ez dut nik neuk esango gaztelania arrotz zaidanik. Baina nazio nortasunaren osagai gisa, gaztelaniak ez du esangura berezirik. Garrantzi handia ematen diot nik kontu honi. Datorkigun aroan, nazio nortasuna izango da kultur berdinkeria erraldoitik salbu mantendu ahal izango gaituen. Kulturen eta, azken batean, bizitza eredu aniztasunak bizirik iraungo dute nazio nortasunak bizirik irauten badute; eta, horretarako, gure herrian, bizirik eta funtzional mantendu behar da beste inorena ez den nazio hizkuntza.

Hortaz, lan honen beste atal batean euskal unibertsitate sistema baten beharra aldarrikatu dudanean, asmo bera izan dut buruan, baina beste esparru batean. Bestetan, gizartearen eta nazio talde baten beharrez aritu naiz orokorki. Hemen, berriz, nazio talde horren nortasunaren adierazle garrantzitsuenaz ari naiz, adierazlea eta osagaia batera nonbait.

Euskara erabiltzen ote da unibertsitateetan?

«Bai, baina gutxi» esan genezake. «Gero eta gehiago» ere esan genezake. Txanponaren bi aldeak dira horiek. Hogei urte luze igaro dira unibertsitate ikasketak euskaraz ematen hasi zirenetik. Ondoko urteetan euskaraz egin daitezkeen ikasketen eskaintza handituz joan da apurka-apurka, eta gaur egun arlo guztietara zabaldu da, nahiz hainbat ikasketatan oso eskasa den oraindik. Alde handiak daude, beraz, arloen artean eta unibertsitateen artean ere.

EHU eta Mondragon Unibertsitatea alde batera uzten baditugu, Euskal Herrian dauden beste unibertsitate guzietan euskara ez da erabiltzen ohikoak diren unibertsitate jardueretan, ez gutxieneko normaltasun batez behintzat. Guztietan ikas daiteke zerbait, bai, baina oso gutxi.

Ikasle euskaldunen ehunekoak garaiak dira EHUn eta MUn, biak EAEn. Euskalduna da ikasleen erdia, eta euskaraz ikasteko moduan daude horietako asko. Euskararen erabilera sustatzeko plangintzak dituzte bi unibertsitate horiek, nahiz plangintzen oinarriak oso desberdinak diren. Dena dela, bi unibertsitateetako euskarazko ikasketen eskaintza handituz joango da datozen urteotan. Nire ustez, garrantzi berezia du EHU bezain handia den eta ikasketen halako aniztasuna duen unibertsitate batean euskaraz ikasi ahal izateak. Izan ere, muga handi baten gainditzearen adierazlea dugu hori. Euskararen unibertsitaterako sarrera horrek, nonbait, adin nagusitasuna ematen dio euskarari kultur hizkuntza gisa.

Hala ere, aurreko horrek ez du esan nahi poz-pozik egoteko moduko egoeran gaudenik. Batetik, oso denbora luzea behar izan da iritsi garen tokiraino iristeko; eta, tamalez, baliteke oraindik egin beharko den ibilbidea luzeago izatea. Era desberdinetako arazo eta oztopoak daude.

Baliabideena da arazoetako bat baina ez dut uste nagusia denik. Behar handiei egin behar diete aurre unibertsitateek, eta, salbuespenak salbuespen, euskararen erabilera bultzatzea ez da izaten goreneko lehentasuna duena. Bestalde, irakasle euskaldunak ez dira erraz lortzen (edo sortzen) hainbat esparrutan. Irakasle euskaldun gutxi daude teknika eta osasun arloko ikasketetan. Hala ere, mugarik handiena, nire iritziz, unibertsitateen barruan dago.

Euskararen erabileraren normalizazioaren kontrako jarre-
rek pisu handia dute unibertsitateen barruan. Hainbat ka-
sutan, lausotuak dira jarrera horiek, era pasiboan adieraz-
ten direnak, baina, azkenean, zama handi baten antzera
jokatzen dute. Hori da, adibidez, EHUⁿ gertatzen dena.
Hainbaten arabera, estatus aldaketa bat ekarriko du euska-
raren normalizazioak, eta beldurrez begiratzen diote alda-
keta horri, galtzaile-edo aterako direlakoan. Euskararen
kontrako jarrerak ezagun samarrak dira Nafarroan, eta
esan daitekeen bakarra honakoa da: Nafarroako unibertsita-
tateak bat datoz agintari politikoen helburu eta asmoekin.
Arrazoi politikoak dira kasu horretan, euskaltzetasuna
abertzaletasunarekin berdintzen baitute bere burua abertzale-
zat ez duten agintari politikoek. Nafarroan, gainera,
bada bestelako arrazoi bat unibertsitatearen ateak euskara-
ri ixteko: unibertsitateko ikasketak euskaraz ezin badaitez-
ke egin, haurrak euskaraz eskolaratzeko joerak ahul daitez-
ke, hizkuntzaren araberrako mozketarik egon ez dadin hez-
kuntza maila batetik bestera igarotzeko unean.

Iparraldean, azkenik, euskara ofiziala ez izateak bate-
tik, eta egoera soziopolitikoak bestetik, erabat oztopatzen
dituzte edozein hezkuntza mailatan euskara erabiltzeko
bideak.

Eta etorkizunari begira, zer?

Euskarak beste hizkuntza ofizialen pareko estatusa
izatea izan beharko litzateke unibertsitate sistemaren hel-
burua. Are gehiago, euskarazkoa da epe luzean bermatu
beharko den ikasketen eskaintza zabala. Azken batean,
munduko eta Europako unibertsitate askotan ikas daiteke
bai gaztelaniaz eta bai frantsesez, baina euskaraz ikasteko
ez dago beste aukerarik.

Euskarari egokitu beharko litzaiokeen estatusera iris-
tea ez da erraza izango. Lehenago eman dut horretarako
dauden oztopoen berri laburra, baina merezi du, hemen,
kontu horretaz luzeago aritzea. Unibertsitateen barruan
diren euskararen aurkako jarrerak oraingoz alde batera ut-
zirik, badira unibertsitateen zenbait egitura ezaugarri,
normalizaziorako oztopo izango direnak. Unibertsitateek

gaur dituzten irakasleen %20 dago eskolak euskaraz ematen, eta, baikorrek izanik, %30era irits liteke ehuneko hori, hainbat baldintza betetzen badira. Bestalde, ikasleen %45 dira, gutxi gorabehera, aukera izanez gero euskaraz ikasiko luketenak. Desoreka hori bere onera ekartzea ez da erraza izango, eta oztopo larria izango dugu aurrean neurri bereziak hartzen ez badira. Irakasle euskaldun gehiago sartu beharko dira unibertsitateetara, baina irakasleen kopurua ezin haz daiteke etengabe, bere goiko egitura mugatik hurbil baitago dagoeneko. Euskaldundu daitezke irakasle erdaldunak, baina oraingo arautegiak ez du bide hori errazten, eta, edozein kasutan, zalantzakoa da bide horren emankortasuna.

Bestalde, ez da ahaztu behar lehen aipatu dudan unibertsitateen barruan dagoen aurkako erresistentzia. Eta horretan ere, gaurko arautegiak ez du erraztasun handirik ematen. Lausotu samartuta dago unibertsitateek eman behar duten zerbitzuaren erantzukizuna. Gauzak horrela, edozein oztopo txiki, erraldoi bihur daiteke. Adibidez, sail batek, edo sail baten gehiengo batek irakasle euskaldunak kontratatzea nahi ez badu, zail samarra da sail horren nahiaren kontra joatea; bide ugari ditu horretarako. Eta horrelako gertaera baten ondorioz, ehundaka ikasle gera daitezke enborreko gai bat euskaraz ikasteko aukerarik gabe. Horixe da unibertsitate publikoetan gertatzen dena.

Irakasleen eta eskolen kontuez gain, hain nabaria ez den baina berebiziko garrantzia duen beste eragile bat baliotatu behar da hemen, testuliburuena alegia. Oso testuliburu gutxi daude euskaraz; irakasgai gehienetarako ez dago bat ere, eta arazo larria da hori. Pentsa litekeenaren kontra, arazoa ez da norberaren hizkuntzaz ez dauden testuliburuetan ikasi behar izatea. Hori askotan gertatu eta gertatzen da eta ez da gauza txarra. Hortaz, ikasleak gai izan beharko lirateke testuliburu gehienak argitaratzen diren hizkuntzaz, ingelesez, ikasteko. Gutariko batzuk horrelaxe egin genuen, eta hainbat herritan horixe da araua. Arazoa, beraz, ez da hori. Testuliburuak dira hizkuntz baliabideak finkatzeko biderik egokienak, eta horrek berebiziko garrantzia du euskarra bezalako hizkuntza baten kasuan. Gai askori buruz ez da

oraindik ezer idatzi euskaraz, eta beste hainbat gairi buruz, pertsona bakar batek idatzi du idatzi den guztia. Kontu honi dagokionez, goraipatzekoa da Deustuko Unibertsitateak egin duen lana, argitaratu dituen euskarazko testuliburuen kopurua esanguratsu samarra izan baita.

Oztopoez aritu naiz orain arte. Eta konponbideez zer? Baliabideak, antolakuntza eta arauak izango dira euskararen erabilera normalizatzeko tresnak. Eta hirurak dagozkie bai unibertsitatei beraiei, eta bai herri erakundeiei.

Baliabide gehiago behar dira, irakasle berriak halabeharrezkoak izango direlako eta testuliburuak euskaraz eduki beharko direlako. Unibertsitate publikoen kasuan, herri erakundeak dira baliabideen iturri nagusia. Baina unibertsitateek erantzukizunez jokatu beharko dute, eta jadanik dituzten giza baliabideen kudeaketa eraginkorra egin beharko da. Zenbait neurri har daitezke, eta hemen zehaztuko ez ditudan arren, agerian utzi nahi dut bi eratakoak izan behar direla. Batetik, unibertsitateak berez duen zurruntasuna arinduko luketen langileen kudeaketaren inguruko neurriak hartu beharko dira. Eta, bestetik, era egokian antolatu behar dira ikasketen eskaintza eta egitura, egiten diren ahaleginak gehiegi ez sakabanatzeko; ez naiz gainera euskarazko ikasketetan egiten den ahaleginaz ari, gatzelaniaz egiten denaz baizik.

Unibertsitateen gaurko arautegia ez da egokiena, gehiegizko zurruntasuna ezartzeaz gain, euskaraz irakasteak dakartzan beharrak kontuan ez baititu hartzen. Egia da estatutu mailako legeriak muga zurrunik jartzen dituela, baina gure esku dago zenbait arau ezartzea. Unibertsitateen estatutuez eta autonomi legeez baliatu beharko ginatke, ahal den neurrian gauzak beste era batera bideratzeko.

Asko idatzi eta hitz egin da unibertsitate sistemaren antolaketari buruz. Hainbatek, euskarak estatus normalizatua izan dezan, ezinbestekotzat jotzen dute euskara hizkuntza nagusia izango lukeen unibertsitate eleanitz bat, baina espreski baztertuta dago ideia hori oraingo lege arautegian. Hala ere, ideiarene beste bertsio bat aldarrikatzen hasiak dira azken bolada honetan, euskarazko Campusarena, alegia.

Gai korapilatsua da hau eta ez dut uste eztabaida amaitutzat eman behar dugunik. Duela gutxi arte, unibertsitate elebidunaren alde agertu naiz ni. Beti pentsatu izan dut egokitu beharko litzaiokeen estatusa izan dezakeela euskarak unibertsitate elebidun batean. Horrez gain, beti uste izan dut unibertsitate elebidunak aukera anitz eta aberasgarriak eskaintzen dizkiela ikasleei. Baina lehengo aurkeztu ditudan arazo eta oztopoen zerrenda ikusita, gauzak ez ditut hain argi ikusten orain. Izan ere, euskara hizkuntza nagusia izango lukeen Campus edo unibertsitate gunearen ideari ez deritzot, hasiera batean, gaizki, eta ez dut uste baztertu beharko litzatekeen ideia denik; besterik izango ez balitz ere, unibertsitateak suspertzeko eta behar bezala aritzeko tresna gisa azter daiteke horrelako Campus baten ideia. Azken batean, ez litzateke onargarria izango hain garrantzitsua den gizarte eskari bati erantzuteko gai ez den eta unibertsitario gutxi batzuen zerbitzuan dagoen egitura erraldoi bat mantentzea.

Nazioarteko komunikaziorako hizkuntzak ere

Jakintza, nazioen artean, ingelesez transmititzen da batez ere. Nazio hizkuntzek badute beraiena den lekua, baina ingelesa da nazioarteko merkataritza, internet, zientzia eta abarreko eremuetan erabiltzen den hizkuntza.

Hori dela eta, ezin pentsa daiteke inola ere ingelesez ondo aritu gabe mundu zabalean ibil gaitzkeenik. Berebiziko garrantzia du horrek hezkuntzaren ikuspuntutik. Gaur ez dago goi mailako hezkuntzaz hitz egiterik, ingelesez aritzeko moduko profesionalak prestatzen ez badira. Hori horrela da bi ikuspegi desberdinetatik begiratuta.

Batetik, ingelesa edo atzerriko beste zenbait hizkuntza ere ezagutzea ezinbestekoa da ikasketen zati bat kanpoko herri batean egin nahi bada. Garrantzi handikotzat jotzen dut Erasmus bezalako ikasleen elkartrukerako programetan parte hartzea. Hezitze balio izugarria du beste unibertsitateetan ikasteak, zeren hainbat herri eta kultura ezagutzeko aukera emateaz gain, beste hezkuntza sistemek eskaintzen dituzten eduki eta irakasteko modu desberdinetara irits baitaiteke horrela. Horretarako, baina,

beharrezkoa da herri horretako hizkuntza ezagutzea; gutxienez, nazioartean gehien erabiltzen den hizkuntza ezagutu beharko da. Hori dela eta, geure unibertsitateetan ingelesez edo beste hizkuntza horiez eskolak jasotzeko aukera ezin hobea litzateke, akademi alorrean hizkuntza hori trebetasunez erabiltzeko oso bide egokia baita.

Bestalde, unibertsitatean ingelesa erabiltzeko aukera izateak beste herrietara joan ahal izateko ateak irekitzen ditu, bai ikasketak atzerrian luzatu nahi badira, bai atzerrian lan egin ahal izateko ere.

Ingelesak eta atzerriko beste hizkuntzek ez lukete toki handiegia izan beharko. Hau da, zenbait gai aukeratu-tan soilik erabili beharko lirateke, eskariaren arabera eta unibertsitateen ahalmenen arabera ere. Eta horretarako ez litzateke ahalegin handiegirik egin beharko, irakasle asko baitaude edo egon baitaitezke eskolak ingelesez emateko moduko prestakuntza dutenak.

Jakintza erabiltzen lagundu behar dute unibertsitateek

Gizartearen ekonomi eta kultur garapena sustatzeko erabil daiteke jakintza, bai unibertsitatean egindako ikerkuntzaren ondorioz sortzen dena, bai eta unibertsitarioek beste iturrietatik bereganatzen dutena. Hau da, irakaskuntzaren bitartez gauzatzen den jakintzaren erabileraz gain, beste era zuzenago batean eragin daiteke ingurukoaren garapena. Eta eragin hori gauzatu ahal izateko, jakintza erabilgarria sortu eta bereganatzeaz gain, gizarte eragileei helarazi behar die unibertsitateak. Gaur gizarte eragileek horixe eskatzen diote unibertsitateari. Izan ere, kontu hau ez da berria. Unibertsitateek beti izan dute eragin onuragarria bere gizarte inguruan eta inguru horren garapenean, baina eragin hori zeharkakoa izan da, bestelakoak izan baitira unibertsitatearen helburu nagusiak.

Hori dela eta, eragin zuzena eta azkarra erdiesteko, zenbait aldaketa egin beharko lirateke unibertsitateen hainbat ezaugarri eta egituratan. Kontu honetan, baina,

bi dira parte hartzen duten aldeak, unibertsitatea bata, eta gizarte eragileak bestea. Gizarte eragile horiek enpresak eta herri erakundeak dira, eta, oro har, unibertsitatearen jakintza produktuez balia daitekeen edozein erakunde.

Gizarte eragileen aldetik bi dira jakintza erabilgarriaren lekualdaketa eragozten duten hesi nagusiak. Batetik, unibertsitatearen ikertzeko gaitasuna ezezagun samarra da enpresa eta erakundeen arduradunentzat. Unibertsitatea, bestalde, bere arau eta balio propioak dituen unibertsitatearen itxiztat hartu ohi da unibertsitate kanpotik, eta bigarren ondorio kaltegarria dakar horrek: gizartearen eskariei erantzuteko ahalmenarekiko mesfidantza handia dago enpresen eta erakundeen arduradunengan.

Unibertsitatea ezezaguna da gizarte eragileentzat, bai. Baina gauza bera esan daiteke unibertsitarioei dagokienez; hau da, unibertsitateko irakasleek ez dute enpresa mundua ezagutzen, ez eta unibertsitateak ez diren beste eratako erakundeak ere. Horren ondorioz, unibertsitateko irakasleek ez dituzte erraz barneratzen edo onartzen enpresa munduaren logika eta balioak.

Bestalde, unibertsitate gehien ezaugarriak pentsatuta daude irakasteko eta, neurri txikiagoan, jakintza sortzeko, baina ez beste nonbaitera helarazteko edo jakintza nonbait erabiltzeko. Bi dira ezegokitasun horren adierazle nagusietarikoak. Batetik, ikerkuntza jarduera ebaluatzeko sistemak ez ditu meritutzat hartzen jakintzaren transferentziaren alde egiten den lana eta lortzen diren emaitzak, eta, bestetik, jakintzaren transferentzia sustatzeko unibertsitateek dituzten baliabideak oso urriak dira.

Lau eratakoak dira jakintzaren transferentzia errazteko eta bultzatzeko hartu beharko lirakekeen neurriak. Batetik, gizarte eragileak eta unibertsitatearen arteko komunikazioa erraztu beharko litzateke, eta helburu hori izan beharko luketen egitura berriak sortu beharko lirakeke. Bigarrenik, bi aldeek elkar ezagutzeko eta balioak partekatuzeko gertatu beharreko kultur aldaketak bultzatu beharko lirakeke. Hortaz, irakasleak enpresetara joateko eta profesionalak unibertsitateara etortzeko bideak irekitzea oso neuri egokia izango litzateke. Hirugarrenik, ikerkuntza-

ren emaitzetan oinarrituriko enpresak sortzeko laguntzak eman beharko lirateke. Eta, azkenik, jadanik existitzen diren enpresei ikerkuntzaren emaitzen eta jakintza produktuen transferentzia helarazi beharko litzaeike.

Unibertsitate guztietarako balio dezake atal honetan aurkezturikoak, baina berezia da Mondragon Unibertsitatearen kasua. Izan ere, MU unibertsitate korporatibotzat har daitekeelarik, bere izaerari berari dagokio bere taldeko enpresekiko harreman eta komunikazio zuzenak izatea. Beraz, salbuespentzat hartu behar da alde honetatik.

Atal honi amaiera emateko, azken gogoeta labur bat egin nahi nuke. Gizarteari unibertsitateek eman behar dioten zerbitzuaren ikuspuntutik bakarrik aztertu dut kontu hau. Txanpon honen beste aldean, ordea, baliabide iturri garrantzitsu modura jakintzaren transferentziak duen balioa dugu, eta unibertsitateek ezin diote muzin egin. Oso ondare baliagarria da unibertsitateek metatua duten jakintza, eta etekin handia atera dakioke ondare horri, herri erakundeen dirulaguntzekiko menpekotasuna arintzeko.

Unibertsitateek gizartera helarazi behar dute jakintza

Jakintza gizateriaren ondarea da, eta Euskal Herrian gaudelarik, euskal herritar oro rena. Oso garrantzi txikia eman zaio kontu honi unibertsitateetan, eta, egia esateko, garrantzi handia izan beharko luke. Gizartearen zerbitzuan egon beharko luketen erakundeak izanik, eta erakunde horien lehengai nagusia jakintza izanik, jakintza hori gizarteratzea izan beharko litzateke unibertsitateen zeregin garrantzitsuenetarikoa. Egia da irakaskuntzaren bitartez eta zientzia eta teknologiaren transferentziaren bitartez egiten dela gizarteratze horren alde handi bat, baina hori ez da nahikoa. Milaka herritar gelditzen dira unibertsitatetik igaro gabe. Gainera, igarotzen direnentzat, beren ikasketen edukiak dira eskuragarri dauden bakarrak. Bestalde, irakaskuntzak ez duen ondorio onuragarri bat izan dezake jakintza hedatzeak: herritar ooren es-

ku egonik, gizarte osoaren kultur maila garaiagoa da, eta hori funtsezko osagaia da gizarte demokratiko, aske eta parte-hartzaile baterako. Lan honen hasieran aldarrikatu dudan bezala, gizartea aberastea da unibertsitate jardueren azken helburua, kultura, askatasun, demokrazia, ongizate eta kohesioan aberatsago izatea.

Kontuan hartzen badugu unibertsitateek ekin behar izan dioten lehen zeregina zein izan den, eta horretarako aurkitu dituzten zailtasunak eta oztopoak nolakoak izan diren, ez da batere harritzekoa hedakuntza jarduerarik ez egitea edo oso gutxi egitea. Bazter batean geratu den zerbait izan da, zalantzarik gabe. Hala ere, eta lehenago eman ditudan arrazoiak direla eta, hori zuzendu beharra dago.

Gai honi dagokionez, ez dago konponbide egitura-tuen zerrenda itxi bat ematerik. Aukera eta bide asko erabil daitezke, batez ere komunikazioaren gizar-tean bizi garen honetan. Dena den, eta adibide gisa, nik hiru jarraibide eskainiko ditut hemen, beste herrietako unibertsitateetan erabili diren eta arrakasta izan duten jarraibideak, hain zuzen ere.

Gizarteratu egin beharko lirateke zientzi eta, oro har, jakintza berrikuntzak, Euskal Herrian sortzen direnak zein beste herrietan aurkitzen edo garatzen direnak ere. Horretarako, ezagutza eskuratzeaz gain, gizarteratzeko tresna eraginkorrak erabili beharko lirateke. Seguraski ez du zentzu handirik gizarteratzeko tresna horien zerrenda bat zehazteak, gaiaren eta aukeraren araberrako aldagarriak izan baitaitezke, baina egokiak izan daitezke horretarako hedabideak, hitzaldiak...

Gizarte gaien eztabaidari dagokio bigarren jarraibideak. Egungo hedabideek kontu garrantzitsu askoren berri ematen digute etengabe. Bestalde, inolako ganorarik edo zuzentasunik gabe iristen zaizkigu horietako kontu asko. Kultura, hizkuntzalaritza, zientzia, teknologia, zuzenbideak, ekonomia eta abar nahastu egiten dira hedabide zurrunbilo zaratatsu baten barruan. Eta zer esan daiteke gure herrian gori-gorian dauden eztabaida etiko, ideologiko eta politikoez? Nire iritziz, zeregin garrantzitsua dute uni-

bertsitateek gizartean dauden eztabaidagai horiei behar bezalako trataera ematen, eta eztabaidarako gune egonkorrak izan daitezke gabezia hori modu egokian konpontzeko tresna onak. Euskal Herriko unibertsitarioez gain, beste herrietatik ekarritako aditu eta pentsalari ospetsuek parte hartu beharko lukete eztabaida gune horietan.

Unibertsitate publikoek duten gabezia kroniko bat konpondu beharko luke hirugarren jarraibideak. Unibertsitateen jarduerak ezezagunak dira gizartean. Milaka lagun aritzen diren arren, herritarrek ezer gutxi dakite unibertsitariook egiten dugun lanaz eta lortzen ditugun emaitzez. Gainera, ezkorrak izaten dira askotan unibertsitariook gizarteratzen ditugun ikuspegi bakarrak⁵. Eta hori arazo larria da. Azken batean, gizartea da, bide batetik edo bestetik, unibertsitatea sostengatzen duena. Bidezkoa dirudi, beraz, horren truke, egiten dugunaz eta lortzen ditugun emaitzez ezagutza egokia eskaintzea.

Oso tresna eraginkorra da komunikazioa. Ondo daki-te hori enpresek, eta, horregatik, komunikazio estrategiak egituratu eta abian jartzen dituzte beren helburuak lortzeko. Baina era profesional batean egin behar da hori, gaur gertu dauden bide eta prozedurak modu egokian erabiliz. Hori dela eta, komunikazio estrategiak egituratu behar dituzte unibertsitateek ere, beren behar eta ezaugarrirei egokituak, noski. Orain arte ez dugu sumatu horren beharra genuenik, baina ingurua aldatzen ari da. Alde batetik, ondare preziatu gisa ikusten ditugu egun ikasleak, eta erakarrri egin behar dira. Beste alde batetik, unibertsitate publikoek erabiltzen dituzten baliabideen nondik-norakoak eman behar zaizkio gizarteari.

Euskal Herriko unibertsitate sistema

Egia esateko, atal honen izenburua ez da bat ere egokia. Izan ere, hobe izango nukeen «Euskal Herriko unibertsitate sistematik eza» izenburua jarri izan banu, zeren gaur ez baitago Euskal Herriko unibertsitate sistema dei daitekeen zerbaiti buruz hitz egiterik.

Erakunde gisa nolabaiteko harremanak dituzten eta elkarren artean osagarriak diren unibertsitate guneen multzoa adierazi nahi dut sistema berbaren bidez. Euskadin, edo Euskal Herrian, zenbait unibertsitate edo unibertsitate gune daude; hori ezaguna da. Baina unibertsitate gune horiek ez duteosatzen lehen definitu dudanaren antzeko egiturarik. Hori horrela izatearen arazoietariko batzuk bistakoak dira: hiru administrazio esparrutan eta bi estatutan banaturik dagoen lurraldean egonik, unibertsitateen lege arauen eta unibertsitate-politika lerroen arteko alde nabariak daude.

Baina badira, egon ere, hain agerikoak ez diren arazoak. Izan ere, lurraldearen araberako zatiketak ez luke, berez, sistema bat edo sistema baten antzerako zerbait egituratzea guztiz oztopatu beharko. Era desberdinetako harremanak ezartzeko ahalmen nahikoa badute unibertsitateek, eta sistema bat osatzeko harremanik ez izatea, neurri handi batean, unibertsitarioon borondate ezari datxekioke zalantzarik gabe.

Gauzak horrela, bi dira erantzun beharko liratekeen galderak. Hona lehena: ba al du zentzurik euskal unibertsitate sistema bat eratzeak? Erantzuna baiezkoa da. Unibertsitateak izan behar lukeen nazio izaeraren ikuspuntutik, nire iritziz, garrantzitsua izango litzateke Euskal Herrian diren unibertsitate guneak sistema baten partaide izatea. Batetik, euskal nazioaren erakundetzeari begira, osagai garrantzitsua izango litzateke partaidetza hori. Bestetik, tresna egokia izango litzateke euskal herritar eta euskal gizartearen kultur nortasuna indartzeko. Eta azkenik, unibertsitate produktuen eskaintza osagarria egiteko biderik zuzenena litzateke. Hortaz, ikasketen eskaintza osagarria egin ahal izateaz gain, ez lirateke ahaztu beharko unibertsitate desberdinetako ikerketa taldeen arteko lankidetzak, edo gizarte eragileen eskura jar daitezkeen jakintza zerbitzuen eskaintza osagarria.

Aurreko hori guztia lortu ahal izateko hainbat bide urratzeko aukera dago. Izan ere, hainbat berba eta ideia potolo plazaratu dira azken bolada honetan kontu horren inguruan. Nik esango nuke berba eta ideia zaharrak dire-

la, baina emankortasun eskasekoak. Horrela, Euskal Herri-rako «Euskal Unibertsitate bat» edo «Euskal Unibertsitate Barrutia» direlako adigaiak entzun eta irakurri ditugu azken hilabeteotan. Bistan dago horiek ez direla epe laburrean lor daitezkeen helburuak. Bestalde, politika asmoez josita dago horien aldarrikapena.

Argudiatzera noa horren ezegokitasuna. Hasteko, unibertsitate bakar batek ez luke zentzurik izango. Zalantzakoa da gaur EAEn dugun unibertsitate publikoa, EHU, unibertsitate bakar bat bezala mantendu ala zatitu beharko litzatekeen. EHUK gaur dituen lurralde antolaketarako arazoak txikiak geratuko lirateke Euskal Herri osoko unibertsitate batek izango lituzkeenen parean.

Bestalde, nik ez dakit zehazki «Euskal Barrutia» aldarrikatzen denean zeren alde egin nahi den. Beste hainbat kontutan bezala, izugarritzko joera dago Espainiako eredu kopiatu egiteko. Azken hogeitun urteotan erabili ez den kontzeptua berpiztu egin da Espainiako Barruti bakarra ezartzeko asmoa plazaratu denetik. Ikasleen mugikortasunari hesiak jartzeko erabiltzen dira barrutiak, eta ez dut uste hori komeni zaigunik. Barrutirik gabeko Europako Unibertsitate esparruko partaideak izatea izan beharko litzateke gure helburua. Ikasleak unibertsitate batetik bestera oztoporik gabe mugitzea, gure unibertsitateen ikasketak eta tituluak Europako beste edozein herritan balio izatea, munduan diren ikertzaile eta irakasle onenatariko batzuk erakartzea, egiten dugun ikerkuntza mailarik onenak izatea; horiexek izan beharko lirateke gure helburuak eta, horretarako, barrutiak soberan daude.

Nire iritziz, helburu «handi» horiek edo horien antzekoak izango liratekeenak lortu ahal izateko, goitik behar-ko aldaketa politikoa gertatu beharko litzateke, eta, gainera, ados jarri beharko lirateke Euskal Herriko unibertsitate guztietako kide gehienak. Eta hori gertatu arte, zer egin behar da? Nik uste dut azpilana dela gaur eta etorkizun hurbilean egin behar duguna. Euskadiko unibertsitate desberdinetako kideon arteko harremanak ezarri, sendotu, eta unibertsitate agintarien arteko erakunde harremanak halabeharrezkoak egingo dituzten behe mailako ekimenak bultzatu behar di-

ra. Horrela, apurka eta azpitik, unibertsitarioon arteko lan-kidetzak sareak sortuko dira eta, egoera politikoak ahalbidetzen duenean, erakundetu ahal izango dira harreman horiek. Hori egin ezean, beste ehun bat urte jarrai dezakegu asmo eta helburu potoloak irudikatzen, hitz ederrak esaten, baina ezertxo ere ez da lortuko, inora ez gara iritsiko.

Bestalde, eta ildo beretik jarraituz, ez legoke gaizki EHUko egungo egituraren aldaketa eragiteko egon daitezkeen aukerak aztertzea. Lehen esan dudan bezala, arazo larriak ditu gaurko antolaketa ereduak, eta *campusak* behar bezain buruaski ez izatetik datoz arazo horiek. Gainera, oraingo sistema erdiratuak ez ditu saihestu nekez justifika litezkeen bikoizketak. Hainbat ikasketa, adibidez, bi, hiru edo lau bider errepikatuta daude. Azken batean, unibertsitate gune bakoitzaren autonomia eta elkarren arteko osagarritasuna lortu beharko lirateke, bai EHUren kasuan, bai eta sistema zabalago batean ere.

Unibertsitateen gobernuak

Unibertsitateen gobernuari gagozkiolarik, bi dira aztertu behar diren kontu nagusiak. Unibertsitatearen autonomia da bata, eta gobernu sistema bera, bestea. Funtsean, elkarekin lotuta dauden kontuak dira.

Unibertsitateak autonomoak izan behar direlako ideiaz ez ohi dute zalantza egiten unibertsitario gehienek. Nik, berriz, zalantza handiak ditut. Printzipio edo oinarri gisa, oso ondo dago autonomiarena. Nork ez du nahi bere buruaren jabe izan? Baina autonomiaren neurria definitzerakoan, badira bi kontu, gutxienez, aintzat hartu behar direnak, bata printzipioei dagokiena eta pragmatiko hutsa bestea.

Unibertsitateek ematen duten zerbitzua publikoa den neurrian, bere oinarriak eta ezaugarri nagusiak definitzea ez litzaieke egokitu beharko unibertsitatei beraiei, herririk erakundeei baizik. Adibide pare bat erabiliko dut ideia hau argitzeko. Demagun gizarte batek telekomunikazio ingeniariak behar dituela eta bere unibertsitateak ikasketa

horiek ez dituela eskainiko erabakitzen duela bere autonomiaren erabilera eginez. Argi dago, nire ustez, ikasketa horiek eskaintzeko ardura nagusia herri erakundeei egokitu litzaikeela; herri erakundeek, beraz, unibertsitatearen autonomiarekiko begirunerik ez lukete izan beharko honelako kasu batean. Eman dezagun, bestalde, Euskal Herriko unibertsitate batek ere ez duela euskarazko ikasketarik eskaintzen edo ez duela egiten gizarteak eskatzen dion neurrian. Kasu horretan ere, herri erakundeen arduraz izan beharko litzateke euskarazko ikasketen eskaintza bermatzea.

Kontu pragmatikoak zerikusia du unibertsitateek behar dituzten baliabideen jatorria rekin. Herri erakundeek emandako dirulaguntzetatik eta, azken batean, herritarren zergetatik datoz unibertsitate publikoek erabiltzen dituzten baliabide gehienak. Hori dela eta, azkenean, herri erakundeei egokitu beharko litzaike baliabide horiek modu egokian eta eraginkorrean erabiltzea bermatzea. Eta horrek ere unibertsitatearen autonomiarekiko begirunerik ez izatea ekar lezake.

Aurreko argudioak, hala ere, ez dira autonomiaren kontratatzat hartu behar. Autonomia halabeharrezkoa da. Iraupen laburrekoak edo gutxi batzuenak izan litezkeen interesen alde egin lezakete unibertsitateek agintari politikoaren zuzendaritza eta kontrol hutsaren pean geratuko babilira.

Beraz, hurrengo bi osagaiak bateragarri egitean dautza erronkak: gizartearen interes orokorrekiko begiruneak eta baliabideen erabilera egokiak bat etorri behar dute unibertsitatearen funtzionamendu autonomoarekin. Euskal Herrian diren unibertsitate publikoetan ez da oraindik lortu bateragarritasun hori. Harrigarria bada ere, unibertsitateen antolaketa eta funtzionamenduaren ikuspuntutik, gaurko lege arautegiak ez du begirune handirik unibertsitateen autonomiarekiko; baina, bestalde, ez du inolako kontrol tresnarik unibertsitateek ematen duten zerbitzuaren kalitate eta egokitasunaren gainean, ez eta baliabideak erabiltzeko eraginkortasunaren gainean ere.

Horrela, eta gezurra badirudi ere, unibertsitate publikoetan hartzen diren erabakiek ez dute inolako ondoriorik ekartzen erabakiak hartzen dituenarentzat, ez onik ez txarrik. Hau da, erantzukizunaren kontzeptua ez da existitzen.

Nire ustez, funtzionamenduari egokitu beharko litzaiokeen autonomiarekin batera, egindako lanarekiko eta hartutako erabakiekiko erantzukizuna bermatzeko tresna eraginkorak egon beharko lirateke. Eta, horretarako, ezinbestekoa da erabaki guneak ondo definitzea. Lege arauak hori bermatzerik ez badute, unibertsitateek beraiek sortu eta erabili beharko lituzkete lehen aipatu ditudan tresna horiek.

Bestalde, autonomia eta erantzukizuna bateragarri eta osagarri egiteko, ezinbestekoa da unibertsitate jarduerak guztiak ebaluatzea eta ebaluazio horrek ondorio zuzentzaileak izatea. Ebaluazioaren printzipio hori, gainera, maila guztietan erabili beharko litzateke, errektore batek hartzen dituen erabakietatik edozein langilek egiten duen lanera arte.

Autonomiaren kontu horrekin erabateko lotura du barne gobernuaren egiturak, eta azkenean ere, lehen aipatu ditudan erabaki gune horien definizioak. Orain, unibertsitariok aukeratzen ditugu unibertsitate publikoetako gobernu organo guztiak, banakakoak eta elkargo izaerakoak.

Nire ustez, erabakiak hartzeko eskuduntza norik izan behar duen erabaki behar da lehendabizi. Eta hori, zalantzarik gabe, erabakien erantzukizunaren kontuarekin estuki lotuta dago. Hori dela eta, zerbitzu publikoaren ezaugarriak ezarri beharko lituzkeenari eta erabiltzen diren baliabideen jatorriari erreparatu beharko genieke. Gauzak horrela, aukerako bi bide har daitezke. Batetik, unibertsitate-kanpoko gizarte edo politika eragileen esku gera daiteke unibertsitatearen zuzendaritza nagusiaren izendapena. Hortik aurrera, agintzaritza nagusiari legokioke unibertsitate maila guztietako arduradunen izendapena eta, beraz, hartutako erabaki guztien eta egindako lan osoaren ardurara. Bide horri jarraituz gero, lehen aipatu ditudan eragile horien esku geratuko litzateke erantzukizuna; horrek on-

torio garrantzitsuak ekarriko lituzke, noski. Demokrati-koa izango al litzateke horrelako prozedura bat? Zalantzarik gabe, bai. Azken batean, demokratikoki aukeratutako herri ordezkarien erabakiaren ondorioa izango litzateke. Prozedura horrek, ordea, hainbat kontrako ditu eta gure tradizio eta unibertsitate kulturaren aurkakoa izatea ez litzateke kontrakorik txikiena izango.

Gure unibertsitate kulturarekin bat etorriko litzatekeen prozedurari jarraitzea da beste aukera. Horixe da, gainera, oraingo lege arauak berretsi duena, prozedurak aldatu dituen arren eta unibertsitario taldeen balizko eragina nabarmenki aldatu duen arren. Nik ez deritzot gaizki unibertsitateen gobernu organoen aukeraketa unibertsitarioon esku geratzeari. Baina horrela eginez gero, hurrengo bi baldintzak bete beharko lirateke: batetik, unibertsitatearen kide «organikoek»⁶ izan beharko lukete ahalmen handiena, haiek baitira hartzen diren erabakien ondorioez erantzun beharko dutenak; bigarrenik, lehenago azaldu dudan bezala, erabaki guztien erantzukizuna nori dagokion argi geratu behar da. Izan ere, erantzukizunarena kontzeptu lausotua izatea da unibertsitate publikoek gaur duten arazorik handienetako bat, eta hori disfunzio larrien iturria da.

Nork finantzatu behar ditu unibertsitateak?

Ematen duena baino erantzun zailagoa behar du galdera honek. Has gaitezen, dena den, oraingo egoera zein den aztertzen. Unibertsitate pribatuen kostu gehienak irakaskuntzari dagozkio, eta horiek ikasleek ordaintzen dituzte gehienbat. Oso bestelakoa da unibertsitate publikoen kasua. Hauetan, herri erakundeek zuzen finantzatzen dituzte langileen soldatei dagokien kostua eta azpiegituraren kostuak ere. Ikasleek ordaintzen dituzte bestelako kostu gehienak, eta, azkenik, enpresak eta herri erakundeek mantentzen dituzte ikerketa egitasmoen eta enpresetarako egiten diren lanen kostuak.

Unibertsitate publikoen finantzazio sistema zuzengabea da oso. Unibertsitate ikasketak dituzten langileen sol-

datak garaiagoak dira beste langileen soldatak baino, eta beren lan baldintzak ere hobeak dira. Izatez, unibertsitateko ikasketek bizitza osorako onurak ekartzen dizkiete ikasketak gainditzten dituzten ikasleei. Beraz, ez dirudi oso bidezkoa denik herritar guztien zergen bidez ordaintzea bakan batzuen onerako izango den zerbait. Egia da ikasleek unibertsitateen kostuen %25 inguru ordaintzen dutela. Egia da, bestalde, unibertsitate jardueren onuren azken hartzailea gizarte osoa dela⁷; baina hori horrela izanda ere, nabarmena da desoreka.

Bestalde, dirulaguntza zuzenen bidez gauzatzen da herri erakundeek unibertsitatei ematen dieten finantzazioa. Hau da, ez da zerbaiten truke ematen; ez da ezer ordaintzen. Zuzen ematen den dirua da, eta ez da bereizkuntzarik egiten jardueren artean.

Nire aburuz, goitik behera aldatu beharko litzateke finantzazio sistema. Hasteko, bereizi beharko litzateke jarduera bakoitzari dagokion kostua. Hau da, unibertsitateek bereizita izan beharko lukete jarduera bakoitzean erabiltzen dutena. Eta, ondoren, jarduera bakoitzak bere dirulaguntza iturri propioa izan beharko luke. Horrela, irakaskuntzari, ikerkuntzari eta bestelako jardueri zenbat dagokien bereizita egon beharko luke. Funtzionamendu orokorraren kostuak ere jarduera bakoitzari esleitu beharko litzaizkioke.

Hortik aurrera, hainbat irizpideren arabera gauzatu beharko litzateke jarduera bakoitzaren finantzazioa. Irakaskuntzari dagozkion kostuak, esaterako, herri erakundeek eta ikasleek ordaindu beharko lituzkete. Herri erakundeek finkatu beharko lukete bakoitzari legokiokeena, baina alde esanguratsu bat ikasleei egokitu beharko litzaieke. Bestalde, eta sistema zuzena izateko, hau da, gairaren ikasle guztiak unibertsitatara joan ahal izateko eta ekonomia arrazoiengatik inor baztertua ez izateko, epe luzeke mailegu sistema publikoa erabili beharko litzateke. Bestalde, dirulaguntza unibertsitateari zuzen eman beharrean, ikasleari eman beharko litzaioke, berak nahi duen unibertsitatara joan ahal izateko. Unibertsitateen arteko ikasleekiko lehia ekarriko luke horrek, noski, baina ondo-

rio onak izango lituzke unibertsitate guztientzat eta, batez ere, eman behar duten zerbitzuarentzat.

Ikerkuntza eta bestelako jardueren dirulaguntzarako ere oinarrizko osagaia ezarri beharko lukete herri erakundeek, eta hori dirulaguntza zuzenen bidez bideratu ere. Baina beste alde garrantzitsu bat kontratupean ordaindu beharko litzateke, emaitzen arabera gauzatuko litzatekeena. Horrez gain, herri erakundeek egiten dituzten ohiko deialdien bidezko egitasmoen finantzazioa mantendu behar da, baina deialdi horiek erabili behar dira Euskaditik kanpoko baliabide gehiago eskuratzeko, batez ere Europako Batasunetik.

Laburbilpena

Oso zeregin garrantzitsuak bete behar dituzte unibertsitateek, eta egin behar dituzte, gainera, gabezia eta arazo asko izan arren. Hainbat konturi dagokionez, mugatua da beharrezkoak liratekeen aldaketak egiteko aukera, estatuiek ezarritako lege arautegiek erabat baldintzatzen baitituzte Euskal Herriko unibertsitateen egitura eta jarduna. Muga larriak dira horiek, eta, etorkizunari begira, unibertsitate kontuetan erabakiak hartzeko ahalmen osoa eskuratu beharraz ez dut zalantzarik egiten. Azken batean, lortzen ditugun emaitzen ondorioak geuk jasango baditugu, geurea izan beharko litzateke erantzukizun osoa. Beraz, etorkizunari begira, unibertsitate alorrean ere, erabaki guztiak hartzeko ahalmena eskuratzeko izan beharko genuke erronka.

Horretarako zioak pragmatikan bete-betean sartzen badira ere, printzipioak eta ideologia, zentzu zabalean hartuta, jokoan daude. Unibertsitateko nazio sistema erakitzea izan beharko litzateke, nire ustez, lortu beharreko helburua. Uste dut argi utzi dudala horretarako ditudan arrazoiak zein diren. Hori, hala ere, ez da besterik gabe egin daitekeen edo lor daitekeen zerbait. Euskal Herriaren eta estatuen arteko harremanaren berregituratze orokorren ondorioa izango da. Beraz, har daitezen hemen emandako argudioak berregituratze horretarako arrazoi gisa.

Baina horrek ez du esan nahi bitartean ezer egin gabe geratu behar garenik. Gauza asko daude gure esku, uste duguna baino gehiago, eta horietako asko txikiak direla dirudien arren, eragin handiak izan ditzakete. Lan hone-tan zehar ideia asko jarri ditut mahai gainean, eta ez dut uste, gainera, inola ere originala izan naizenik.

Gauza batez behintzat seguru nago. Aurrera joateko eta hainbat arazori konponbidea aurkitzeko dauden oztopo nagusiak hauexek dira: unibertsitarioon erosotasuna, inertiak, aurreiritziak eta beldurrak. Gutariko asko ondo bizi gara, seguru samarra den sistema batean, eta aldaketak egiteko arrazoi gutxi ditugula pentsa dezakegu. Baliteke horrela izatea, baina nik, hor, bi arazo ikusten ditut. Bate-tik, ezin utz dezaket alde batera euskal gizartearekiko du-gun erantzukizuna. Eta, bestetik, baliteke aldaketarik egin nahi ez izatea, ez egitea, eta, gutxien espero dugunean, sis-tema guztia gure gainean erortzea edo, bestela, apurka-apurka hiltzea. Unibertsitate batek gauzak behar bezala ez baditu egiten, beste batek egingo ditu, eta une horretan, euskal gizarteak bizkarra emango dio gauzak hain ondo egiten ez dituenari, zalantzarik gabe.

Ez dut esan nahi gauzak gaizki egiten ditugunik. Ez dut uste profesional txarrak hezten ditugunik, eta uste dut hobekuntza handiak izan direla azken urteotan. Bai-na ez gara gai izan hainbat gabezia eta arazori konponbi-de egokia aurkitzeko, eta kontuan hartu behar dugu lehia-kor samarra den mundu batean gaudela. Lehiakortasuna dagoenean, ez da nahikoa gauzak ondo egitea; besteak baino hobeto egin beharko ditugu, edo, behintzat, hobe-to egiten saiatu.

Funtsean, trinkotu samartuta ditugun zenbait eredu eta pentsamolde aldatu beharko ditugu. Erantzukizuna, lehia, malgutasuna, ebaluazioa, emaitzen araberako tratae-ra, horiexek izango dira etorkizuneko «hitz gakoak». Beste alde batera begira dezakegu, baina, horrela, harapatuko gaituen trena ez ikustea da lortuko dugun bakarra. Ez, ez dugu beste alde batera begiratu behar, aukerak ditugu gaurko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko, tamainaz txiki diren neurrien bidez, beharbada. Baina, horrela, iru-

dikatzu joango gara etorkizunerako nahi dugun euskal unibertsitate sistema.

Galdera batekin hasi naiz lan hau, eta horren erantzuna erekin amaitu nahi nuke. Ez, oraindik ez dugu behar dugun Unibertsitatea, baina duela hogeita bost urte baino askoz hobeto gaude, eta lor daitekeen helburua da nonbait behar dugun hori geureganatzea. Neurri handi batean, geure esku dago.¶

1. Egia esateko, nabardura eta zehaztasun asko hartu beharko lirateke kontuan, baina lan honen helburuei dagokienez, behar den informazio guztia ematen du I+G/BPG zatidurak.
2. Egia esateko, zerbaki horren inguruko zalantza handiak daude, armadarako gastu handiak sartuta baitaude hor, eta gastu horiek gastu guztien ehuneko handia izatera irits daitezke (zenbait iturriren arabera I+G gastuen %40 inguru izan litezke gastu horiek).
3. Europako Batasunari dagokion balioa 1'9 da.
4. «Zerbitzuetako langileak/irakasleak» zatidura txikieneko unibertsitatea da EHU.
5. Beldur naiz hau ere ez ote den ezkorregia izango.
6. Kide organiko gisa, unibertsitatearekin harreman etengabea duten kideak dira; beraz, talde horretatik kanpo leudeke iraupen mugatuko lan edo zerbitzu harremana dutenak edo ikasleak.
7. Osoa bai, baina zenbaitentzat onura gehiago ekartzen du.

Euskal Unibertsitatea: K. Mitxelenaren *ghettotik* euskararen *unibertsora*



X A B I E R I S A S I



Euskal herriko Unibertsitatea berehala behar dugu, gero-
ra gabe, eta Euskal herriko Unibertsitate ofiziala. Uni-
bertsitate ofizial osoa, bere barruti eta guzti: barruti legeg-
ak alda daitezke Espainian (*distrito universitario*, izenez
eta izanez, Frantziako *ressort académique*-tik mailebatua
da), baina, lehengoan dirauteino, hor aurkitu beharko
du gureak ere bere bizilekua. Behar bezala jokutzen ba-
dugu, ez da Unibertsitate ofizial hau orain dugun bezain
etsai izango, makurrenean ere. Gure ikasle-gaiak, gure
ikasleak eta are gure irakasleak horren premia gorrian
daude. Hizkuntzak ere sarbidea aurki lezake, neurri apa-
lean aurrenik, ikas- eta irakas-gai bezala, noski, eta agian,
zenbait gaitan, ikas- eta irakas-bide gisa.

Ezin dezakegu hor planto egin, Santamaria jaunak
ederki erakutsi duenez, gure hizkuntza «diglosiaren purga-
toriotik libratu nahi badugu». Berak bi Unibertsitateak le-
rro paralelo gisa ikusten ditu, hots, behar den geometria
hautatzen badugu, nonbait elkar joko duten lerroak. Eta
hor datza ene kezka: non, noiz eta nola? Ez ote daiteke
gerta, elkarganatu joan beharrean, bata bestearengandik
gero eta saihestuago aurkitzea? Orduan, *absit*, euskara, di-
glosiaren purgatorioan egon beharrean, ghettoaren infer-
nuan sartuko genuke (*Jakin*, 1. zkia., 1977, 62-63 or.).

► **Xabier Isasi** EHUKo Psikologia Fakultateko irakaslea da. 2000tik
UEUKo zuzendaria da.

Hogeita bost urte joan zaizkigu Koldo Mitxelena eta Karlos Santamariaren arteko ezbai hartatik gaurdaino. Euskaralariaren itzal luzeak gaur arte dirau, *ghettoaren* mamu beldurgarria utzi zigun ondare, *infernuaren* arriskuaz abisatu zigun. Mitxelena jaunak ez zigun esan, ordea, *ghettoaren infernu* horretan zer gerta zitekeen, nahiago zuen, begien bistakoa da, euskara gaztelania eta frantsesaren *ghettoetan* —handiagoak, baina *ghettoak* azken buru—, euskara txertatzea. Karlos Santamariaren ikuspegia, berriz, *unibertsalagoa* zen euskara beste edozein hizkuntzaren pare jartzen baitzuen. Historiak bakoitzari dagokion lekua damaio. Eta azken hogeita bost urte hauetan agerian geratu dira zer-nolako zailtasunak dauzkan euskarak auzo hizkuntzen eremuetan irauteko eta hazteko. *Ghettoaren* paradigma antzua eta estua pitzatu egin zen 1997ko *Euskaren Unibertsoa* jardunaldietan. Zorionez, euskaldunok euskararen biziraupenerako berezko espazioa behar dugulako ideia hedatzen ari da apurka-apurka.

Erreferentzia horiek, gure ustez, ezinbestekoak dira gertatzen dena ulertu ahal izateko. Mitxelenaren pentsamoldeak, salbuespenak salbuespen, gizaldi osoaren ikuspegia markatu du, eta bere ideiak XX. mendeko azken laurdeneko paradigmaten eustarri sendoenetakoak izan dira. Ideia horiek, neurri handian behintzat, bideratu dute euskararekiko hizkuntz politikaren joana. Euskara *kategoria* bat da, zerbaiten osagarri, ikergai bat, irakasgai bat, dugun beste ezaugarri bat... Horrela ulertu izan dira K. Mitxelenaren ideiak eta horrela ere bere horretan aplikatu.

Alabaina, euskararen gizarteak, euskalgintzaren eraginez batik bat, argi atzeman ditu bere beharrak zeintzuk diren, eta ikuspegi murriztera makurtu barik aurrera urrats esanguratsuak eman ditu. Hezkuntzan eta hedabideetan ikus daiteke argien, horra hor ikastolak, euskal ereduko lerroak, telebista, *Euskaldunon Egunkaria*, aldizkariak eta abar. Ez dabil aparte, jakina, Euskararen Gizarte Erkundearen Kontseilua, eta esanguratsuak dira, halaber, azken urteotan euskararen normalkuntzarako zabaldu diren plangintza orokor eta integratuak.

Hausnarketak hausnarketa, urte hauetan euskalgintzan izan diren aldaketak ezin esan unibertsitateraino iritsi direnik. Unibertsitatean, urteak joan urteak etorri garai bateko eztabaidak indarra galdu du. Egia esan, UPV/EHU sortu zenez geroztik *Euskal Unibertsitatean* gaiak ez du grina handirik sortu unibertsitarioen artean; kasurik onean euskararen auzia *normalizazioaren* problema besterik ez da izan, hezkuntza politikatik baino hizkuntza politikatik bidera zitekeen problema alegia.

Unibertsitatearen behineneko eginkizuna: tituluak

Jakina denez, unibertsitatearen behineneko eginkizuna goi mailako tituludunak prestatzea da. Titulua da, «persona batek lanbide- edo ikasketa-maila bat erdietsi duela egiaztatzen duen agiria» (*Hiztegi entziklopedikoa*, Elhuyar, 1993). Unibertsitateko tituluak ematea Espainiako Gobernuaren eskuduntza da.¹ Horra hor, bada, unibertsitateko funtsezko betebeharra: tituludunak prestatu, lan merkatuan sortzen diren eskakizunei erantzuteko. Unibertsitateetara datozenak, ehuneko laurogeitik gora esan genezake, lanpostu on bat eskuratzeko titulu baten bila datoz. Lanpostu kualifikatuetarako hautagaienezako, salbuespenak salbuespen, lanpostuaz jabetu ahal izateko ezinbesteko baldintzetariko bat unibertsitate mailako tituluduna izatea da; unibertsitate mailako titulurik ez duenak ez du goi mailako lanposturik eskuratzen, ez alor pribatuan ezta publikoan ere. Jende xeheak badaki jakin, unibertsitate mailako zenbat eta titulu gehiago —eta *hobeak*— eduki orduan eta lanpostu itxurosoagoak eskura daitezkeela.

Estatuak onartzen dituen tituluak kudeatu behar ditu unibertsitateak. Autonomi Erkidegoek ez daukate eskuduntzarik alor honetan, ez Autonomi Erkidegoek ezta unibertsitateek ere, jakina. Unibertsitateek bana ditzaketen diploma eta tituluek, titulu *propioek* (*espezialista, master...*), ez dute besteen adina baliorik. Hori, hain zuzen

ere, Euskal Herrian problema larria da, gure beharren araberako titulazio-mapa eratzeko eskuduntza ebatsi egiten zaigu eta. Horrela, herriaren garapena baldintzatu egiten da, eta euskararen normalkuntza prozesuan eragiten du bereziki. Tituluen gabeziak dakartzan ondorio txarrez ondo baino hobeto dakite ikastoletan eta euskaltegietan. Ahaztu zaizkigu ikastola eta euskaltegietako irakasleak *homologatzeko* izan diren problemak? Sarri askotan, *homologazio* eufemismoaren itzalean ezkutatu ohi da titulazioaren problema.

Tituluen auzia, ordea, problema formal bezala landu izan da, *iturazko* problema alegia. Tituluari agiri ofizialaren balioa eman zaio, besterik ez. Prestakuntza zer-nolako zen ez du axola gehiegi izan, paperak balio du, aitorepen ofizialak alegia. Jakina denez, Madrilgo irakasle eskola batean lortutako tituluak —gaztelaniaz jakina—, Bilboko irakasle eskolan lortutako tituluaren adinako balioa du —euskaraz bada ere—; nahikoa da, horregatik hain zuzen, Madrilgo tituludunak bere *euskara gaitasuna* egiaztatzea D ereduko lanpostu publikoa eskuratu ahal izateko; euskaraz ikasi duenak horren aurrean, berriz, dena euskaraz ikasiagatik, ez du inolako balio erantsirik bere tituluan. Hausnarketa honen harian, galdera bat baino gehiago datozkigu gogora; jarduera profesionalean —euskaraz— berdinak dira erdaraz eta euskaraz prestatutako irakasleak? Berdinak izango balira, zertarako euskarazko ikasketak?

Berriro esan dezagun, Unibertsitatera doazenak, gehien-gehienak behintzat, titulu bila doaz. Tituluak erakartzen du ikasleria. Nahiko genuke unibertsitatea *jakintzaren jaungia* izatea, ikasteko eta ikertzeko eremu izatea alegia. Baina, gustukoa izan ala ez, unibertsitateak, batez ere, tituluak kudeatzeko erakundeak dira, irakaskuntza eta ikerkuntza bigarren mailako jarduerak dira. Gauzak dauden moduan, euskaldunok, onenean, Espainiako Gobernuak onartzen duen titulu baten edo besteren ikasketa plana euskaraz izatea lor dezakegu, harago deus ez. Ageri-agerian geratu da problema hori *Euskal Herrirako Unibertsitate Legea (Uniekimena)*, herri ekimen legegile bidez, Iruñeko eta Gasteizko Legebiltzarretan aurkeztu izan denean.²

Unibertsitatearen behineneko eginkizuna tituludunak prestatzea dela esatean, jakina, ez dugu esan nahi eginkizun bakarra duenik. Ezta gutxiago ere. Getatzen dena, unibertsitateari buruzko ohiko diskurtsoetan gutxiegi aipatzen dela; gehienetan unibertsitatea ikerketa gune eta jakintza zabalkunderako erakunde gisa aurkezten zaigu. Hori horrela da eta ondo dago horrela adieraztea. Ostera, artikulua horretan tituluen auzian indar berezia egiten badugu ez da bestelako alderdiak gutxiesten ditugulako, inondik inora ere, tituluen auziak duen garrantziagatik baino.

Azken urteotan euskararen normalkuntzan izandako aurrerapenak agerian uzten du formazio bereziaren eta titulazio propioaren beharra. Hezkuntzan, hedabideetan eta, oro har, gizarte zientzietako hainbat alorretan, oso nabarmena da formazio jakineko profesionalen beharra. Irakasleak, kazetariak, administrariak, normalkuntza-teknikariak eta abar behar ditugu. Saihesbideren bat aurkitu behar diogu Estatuak ezarritako bide makurrari.

Lege-diaren bide hertsia

Unibertsitate mailako lehenengo eta bigarren zikloetan (diplomaturak eta lizentziaturak) euskarak oso bide hertsia du. Aipatu dugunez unibertsitate mailako titulazioen onarpena eta ezarpena Estatuaren eskuduntza da, soilik Estatuarena. Autonomi Erkidegoek oso eskuduntza urriak dauzkate unibertsitate alorrean eta, kasurik gehienetan, Estatuarekin berarekin partekatutako dira. Espainiako lege berriak dioenez, unibertsitate publikoak sortzea Autonomi Erkidegoen Legebiltzarren eskuduntza da, beti *Consejo de Coordinación Universitaria* delako organoak aldeko informea ematen badu. Euskaldunontzat oso zaila beraz. Unibertsitate pribatuak sortzea legez samurragoa bada ere, ezartzen diren baldintzek eta kontrolerako irizpideek ez dute prozesua gehiegi errazten. Edozelan ere, kasurik onenean sortutako unibertsitateen jarduera-esparrua dagokion Autonomi Erkidegokoa izango litzateke, ez

Euskal Herria. Gaur egun, beraz, *Euskal Unibertsitatea* sortzea ezinezkoa izango litzateke, legez behintzat.

Tamalez, bizi dugun abagune politikoak ez digu itxaropenerako arrazoi askorik ematen. Badirudi aldaketa esanguratsurik ikusi artean luze itxaron behar dugula. Ustekabeko aldaketa etorri ez eze, *Euskal Unibertsitatea* ez da dekretuz etorriko, legeak ez du ekarriko alegia. Une honetan, behin eta birritan diogunez, ezinezkoa da, ez baitago Euskal Herri osoa barnebiltzen duen administrazioerik. Euskal Herri osorako unibertsitate-lege bakarra eskatzea *politikoki zuzena* bada ere, alferrikakoa da. Are gehiago, legeren batek edo dekreturen batek, egingarria izateko, *Euskal Unibertsitateak* behar dituen oinarriko baldintzak ez ditu beste barik ekarriko. *Euskal Unibertsitatea* behar dugula aldarrikatzea ez da oso eginkizun zaila, ez ikuspegi politikotik, ez kulturaren ikuspegitik ezta hizkuntzaren ikuspegitik ere. Ez da zaila agerian uztea indarrean dagoen egitura juridiko-politikoak *Euskal Unibertsitatea* sortzea eragozten duela. Zailena, ostera, *Euskal Unibertsitatea*, orain eta hemen, egingarria dela frogatzea da. Komunitate unibertsitario euskalduna badela, *Euskal Unibertsitatearen* beharra badela eta unibertsitate mailako proiektua bideragarria egin daitekeela erakustea. Nekagarria da behin eta berriz entzutea *inposatzen* diguten unibertsitateari buruzko erretolika, unibertsitate horrekiko alternatibarik ez daukagunean. Bi hitz horiek, *Euskal Unibertsitatea*, egoki isla dezakete behar dugun unibertsitatea, baina ez dira aski. Guk uste dugu unibertsitate espainol eta frantsesarekiko alternatiba posible dela, baina *alternatiba* diseinatu eta egin gabe dagoela. Sumatzen baditugu ere, ez dakigu zehaztasunez unibertsitario euskaldunen egoera zertan den, ez dakigu euskararen nomalkuntzaren arian goi-mailako formazio beharrak zeintzuk diren, ez dakigu abiatzeko unibertsitate *generalis* edo *espezializatua* behar dugun, ez dakigu *urruneko* unibertsitatetik, edo *telematikotik*, abiatu behar dugun, ez dakigu egungo unibertsitateetan noraino irits gaitzkeen...

Esanak esan, Espainiako unibertsitate-bamuti itxiak eta indarrean dagoen legeriak euskara *ghettora* kondentatzen dute. Dagoeneko, lege berriak 2002ko urtamiletik hasi eta

6 hilabetera, Espainiako unibertsitate guztiek, UPV/EHU eta UPNA/NUP barne, euren claustroak berritu behar dituzte (UPV/EHUn maiatzean bertan dira hauteskundeak); claustro berri horietan, besteak beste, ikasleek murriztuta ikusiko dute euren ordezkaritza. Claustro berri horiek, berriz, estatutuen egokitzapenari heldu behar izango diote lege berriari egokitzeko. Nafarroako unibertsitate publikoko errektoreak argi adierazi du, adibidez, euskara *amotza dela bere* unibertsitatean. Ikusiko dugu UPV/EHUko estatutu berrietan euskara eta euskaldunei ematen zaien tratamendua zertan geratzen den. Legeria eta oraingo UPV/EHUn eraketa ezaguturik zaila izango da orain indarrean dauden estatutuei eustea. Litekeena da okerrera jotzea, ikusiko dugu.

Unibertsitate pribatuen kasua, berriz, ez da oso desberdina izango. Lege berriak dakartzan aldaketetara egokitzeko euskaldunok ez dugu onurarik aterako.

Eta zurrumbilo horretan, eztabaida politiko hutsalak ez digu gehiegi laguntzen *Euskal Unibertsitatea* eraiki nahi dugunoi. Egia da aldeko gizarte mugimendu sendoa behar dugula, baina ez da nahikoa. Abiapuntua jarri behar dugu. Eta abiapuntua unibertsitario euskaldunen komunitatea da, irakasleak eta ikasleak, batik bat. Komunitate hori bildu eta artikulatu gabe ez dago urrats esanguratsurik ematerik. Batzuetan *Euskal Prentsa*ren adibidea erabili izan dugu argibide gisa. Urteetako prozesua izan zen *Euskaldunon Egunkaria* a rgitara ekarri zuena. Eta ez zen, hain zuzen ere, euskarazko egunkaria aldarri soilak *Euskaldunon Egunkaria* kioskoetara ekarri zuena. Ez, batez ere, kazetari eta euskaltzale ausarten lanak ekarri zuen. Urteetan metatutako lan, formazio eta esperientziak egin zuen bideragarria euskarazko prentsa. Hori gabe gaur ez legoke *Euskaldunon Egunkaria*rik; politikariek, gogora dezagun, lagundu barik zaildu egin zuten prozesua. *Euskal Unibertsitatearen* auzia antzera ikusten dugu. *Heltze* p rozesuan gaude oraindik, erreferentzialtasun guneak eraiki behar ditugu, proiektu zehatzak aurrera eramateko aukerak arakatu, azken buruan, unibertsitario euskaldunak bildu eta lanean jarri.

Egoera politikoak eta antolaketa administratibo-juridikoak, nola ez, eragiten dute prozesuan. Hori begien bis-

takoa da, zaila da oso. Baina ezin eragotz dezake. Irakaspen hori ondo baino hobeto mamiturik beharko genuke euskaldunok. Sistema politiko guztiek daukate zirikituraren bat edo beste herrigintzan jardun ahal izateko, eta, izango ez balute, sasia egin zitezkeen herrigintza lanak frankismo garaian bezala. Hala ere, oraingo egoera ez da, inolaz ere, klandestinitate garaia. Ezin ahantz dezakegu euskaraz egin dugun gehiena, ikastolak, aldizkariak, irratia, elkarteak eta abar, euskaldun batzuen auzolanean daukatela sorburua. Militantzia esan ohi zaio horri. Lan horrek ematen die bideragarritasuna eta zilegitasuna euskaldunen proiektuei. *Euskal Unibertsitateak* izan ahal izateko hori da, hain zuzen, ezinbesteko duguna, euskaldunok gutxi garelako eta baliabide urriak ditugulako.

Erealitatea gordin, den moduan, agertu nahi izan dugu, baina ez etsipena sortarazteko, dauzkagun oztopoak zeintzuk eta nolakoak diren jakiteko baizik. Datozen urteotan Europako bilakabidea izango dugu alde; ez Espainiak ezta Frantziak ere ezin izango diote luzaro eutsi euren itxikeriari eta horretan izan dezakegu aukera.

Unibertsitateak ikasle bila

Iritsi da jaitsiera demografikoa unibertsitateraino. Azken urteotan unibertsitateetako matrikulak esanguratsuki behera egin du. Honek, jakina denez, eragin handia dauka unibertsitateen garapenean. Unibertsitateak, matrikula-tasari eutsi nahian, merkatu berrien bila abiatu dira. Unibertsitateko ikasleriaren ohiko adin-tartea (19-29 urte) zabaltzen ari da, batik bat, 3. ziklo, gradu ondoko eta masterren eraginez. Espainiako unibertsitate-barruti itxiak, beste alderditik, Estatu osoko ikasleriaren esku jarri ditu Euskal Herriko unibertsitateak. Dagoeneko, unibertsitateak elkarren lehian hasi dira inguruko edo urruneko lurraldeetako ikasleak erakartzeko.

Balizko unibertsitario euskaldunak —20.000 inguru—, hutsaren hurrena dira unibertsitario erdaldunen eremu zabalean. Gainera, unibertsitario euskaldunei euska-

razko eskaintza duina egiteak izugarrizko inbertsioak eskatzen ditu (irakasleak, ikasmateriala eta abar). Horrela, bada, unibertsitateei, ez publikoei eta gutxiago pribatuei, ez zaie interesatzen unibertsitario euskaldunen merkatua. Ikuspegi horretatik askoz interesgarriagoa zaie Hego Amerikako merkatua; unibertsitateak jakitun daude han milioikako ikasleen aukera dagoela eta hasi dira, teknologia berriak lagunduta, hango merkatua jorratzen.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek errotiko aldaketak ekarriko dituzte. Unibertsitateek goi-mailako formazioan eta ikerkuntzan daukaten garrantzia galduko dute. Goi-mailako formazioaren merkatua ireki da eta unibertsitateek egokitu behar izango dute euren jarduna lehiakorragoak izan ahal izateko.

Erakaskuntza

Interneteko ingurumarian garaturiko teknologiak zabaltzen hasi besterik ez dira egin, baina, esan bezala, unibertsitateetan euren eragina nabarmena da. Dagoeneko, informazioaren hedapenetik harago formazioaren hedapenera iritsi da; *e-learning* edo norbanakoaren ikaskuntza informazio eta komunikazio teknologien bitartez noranahi zabaltzen ari da. Gero eta enpresa gehiagok bideratzen ditu bere formazio planak ingurune horietatik. Erakaskuntza, ohiko irakaskuntzaren aldetik konparaturik, merkeagoa, bi-ziagoa, arinagoa, denboran zehar moldakorragoa, egokitzailea ikasleentzat eta aldatetarako malguagoa da. Abantaila horiek eta beste zenbait baditu ere, *e-ikaskuntzak*, epe motzean behintzat, ez du ohiko irakaskuntza ordezkatu.

Azken datuen arabera Euskal Autonomi Erkidegoan biztanleen %25ek baino gehiagok lortu du Interneteko sarrera etxetik bertatik. Bizpahiru urtearen buruan %50etik gora izango dira Interneteko sarrera zuzena izango duten biztanleak. Etxetaraino zuzen-zuzenean iristeko moduan gaude beraz. Honek, jakina, goi-mailako formazioari begira aukera berriak ekartzen ditu. Alderdi honetatik, bitxia da Eusko Jaurlaritzak berriki aurkezturiko *Euskadi Informa* -

zio Gizartean Planean unibertsitateak duen protagonismo urria. Berrogeita hamazortzi programen artetik bakarrean agertzen da unibertsitatea: *Unibertsitate Campus Birtuala*. Unibertsitatea, hitzetan behintzat, berrikuntza sorburua izan da; adierazgarria da ikustea azken urteotako berrikuntza prozesu zabalenean unibertsitateak eginkizun handirik ez duela. Itxuraz, Eusko Jaurlaritzak nahiago du *e-prestakuntza* enpresetara zuzenean bideratzea unibertsitatearen bitartez baino.

Eremu honetan euskaldunok ahalegin berezia egin behar dugu. Momentua da. Orain ez badiogu heltzen garesti ordain dezakegu atzerapena, lehia horretan buru-belarri murgildu behar dugu. Zenbait faktore behintzat alde daukagu: euskaldun eskolatuen gizaldi berriak, gero eta gehiago izateaz gainera gero eta maila jasoagokoak dira. Euskaldun gazteei zabaldu behar diegu bidea. Gazte horiek gidatu behar dute digitalizazio-prozesua. Goi-mailako irakaskuntza telematikoa euskaraz aukera bat baino beharra da dagoeneko.

Interneteko amaraunean goi-mailako formaziorako (euskaraz) eskaintza duina jar daiteke. Teknologia aldetik ez dago arazo handirik, teknologia egokia eta ez oso garestia aurki daiteke. Problema dira edukiak, proiektuak eta kudeatzaileak. Eta hor sekulako lana dago. Unibertsitatean eta euskalgintzan dihardugun eragileek sinergiak bilatu beharko genituzke *goi-mailako erreferentzi gune bakarra* eraikitzeko. Bidea zabalik dago.

Goitik behera errazago

Etengabeko prestakuntza sehaskatik hilobiraino, honela ei da ezagueraren gizartean. Aldaketa arau bihurtzen ari da. Etengabeko formazioa aldaketetara egokitzeko bide bakarra agertu zaigu. Dagoeneko, ezagueraren gizartean unibertsitate-titulua ez da aski, horregatik *gradu ondokoak* (250 eta 500 eskola-ordu artekoak) eta *masterak* (500 eskola-ordutik gorakoak) perretxikoen antzera sortzen ari dira nonahi. Unibertsitateko goi-mailako formazioaz ari gara,

hezkuntzaren erpina batzuen esanetan; euskararen normalkuntzaren ibilbide linealean azkeneko helmuga hain zuzen. Baina euskararen normalkuntzaren ibilbidea ez da lineala, ezin izan daiteke lineala. Paradoxikoki, gure ustez, hezkuntzaren erpin horretan aurki dezakegu euskaldunok irtenbidetariko bat, gradu osteko titulazioetan alegia. Bate-tik, malguagoak dira ez baitute Estatuaren galbahetik igaro behar; bestetik, dauzkagun formazio beharrei eurei erantzuteko propio diseinaturik izan daitezke. Edozein unibertsitatek eskaini ditzake titulazio horiek. Are gehiago, azken urteotan izugarri hazi da horrelako titulazioen eskaintza —ikasturte honetan, 2001-02, UPV/EHUk horrelako 80 bat titulu eskaini ditu—. Egia da, bestetik, eskaintza zabal horretatik asko bertan behera geratu izan direla matrikula ezagatik, baina ez, ostera, euskaraz eskaini izan dena. Itxura denez, joera hori zabalduko da datozen urteetan. Izan ere, beste modutan ezin uler baitaiteke *etengabeko formazioaren* kontzeptua. Horrela gauzatuko da, unibertsitatearen bitartez itxura batean, formazio eta informazioaren kudeaketa. Tituluak eskuratzeko bat edo bi urteko ikastaroak, gaurkotasan handiko gaien inguruan antolatuak eta, kasu askotan, teknologia berrien laguntzaz bideratuak.

Ez da kasualitatea, bada, ikasturte honetan gradu osteko alorrean euskaraz izan den eskaintza: *Hizkuntza, informazioa eta komunikazioa* (Giza zientziak, UPV/EHU), *Hizkuntza Teknologia* (HIZTEK, Irakaskuntza Teknikoak, UPV/EHU, UEU), *Informazio eta komunikaziorako teknologiaren formazioan masterra* (Euskara zein gaztelania ikaslearen aukeran, MU), *Gizarte Komunikazioa Euskal Herrian* (3. zikloko doktorego programa, Gizarte Zientziak, UPV/EHU), *Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia* (3. zikloko doktorego programa, Giza Zientziak, UPV/EHU), *Hezkuntza Zentroen Gestiorako Masterra* (*Ikasgu Nagusia*, HUHEZI MU), eta *Hizkuntza Plangintza Ikastaroa* (HIZNET, Eusko Ikaskuntza, Soziologia Saila UPV/EHU, UEU, SEI). Bost master edota gradu ondoko tituluak euskaraz!

Hirugarren zikloan (doktorego ikastaroetan) eta gradu osteko eta masterretan ikasturte honetan izan den bezainbesteko eskaintza sekula ez da izan. Horietan guztie-

tan, salbuespenak salbuespen, euskalgintzaren eragile bat edo beste ibili da bultzagile eta antolakuntza lanetan, UEU, *Euskaldunon Egunkaria* edota Ikastolen Elkartea kasu. Modu honetan erantzun nahi zaie euskalgintzak dituen formazio beharrei.

Unibertsitate-inudea

Orain artean saiatu izan gara laburbiltzen unibertsitatearen egoera zertan den eta zein aldaketa datozkigun. Gaiak artikulu xumea baino dossier zabala beharko luke. Hala ere, ideia bi, gutxienik, argi utzi nahi genituzke: bat, unibertsitatea aldaketa prozesuan dagoela, eta bi, euskararen normalkuntzan izandako aurrerapenak alor desberdinetan (hezkuntzan, hedabideetan eta abar) goi-mailako teknikarien beharra agerian uzten duela. *Euskal Unibertsitatea*, bada, aldarrikapen hutsala izatetik beharra izatera iritsi da. Hori argi adierazi nahi dugu.

Euskara Batuaren ibilbide laburrean —35 urte ozta-ozta—, gauza asko egin izan dira, egia da, baina askoz gehiago behar dira *Euskal Unibertsitatearen* oinarriak jartzeko. Unescoren azken adierazpenetan euskara desagertzeko arriskuan dagoen hizkuntza gisa hartu da. Hori horrela da, euskara desagertzeko arriskuan dago. Hari horretatik, Gotzon Garate Deustuko Unibertsitateko irakasleak dioen lez, desagertzeko arriskutik ateratzeko euskarak unibertsitateetan ezartzea lortu beharko luke. Euskararen biziraupenerako unibertsitatea gune estrategikoa da; eta gune estrategiko hori euskararen alde jartzeko irakasleria da giltzarria.

Euskal Herrian dauzkagun unibertsitateek, UPV/EHU, UPNA/NUP, Deustu, MU, Nafarroako Unibertsitatea eta Baionako campusekoa, beren hasieran irakasleri gabeziari aurre egin behar izan diote. Egia esan, erraza izan dute, Espainiatik edo Frantziatik irakasleak ekarri zituzten eta horrela eman zituzten aurreneko urratsak. Tamalez, euskaldunok ez daukagu aukera hori.

Irakasleak eta ikasleak dira unibertsitate-erkidegoko ezinbesteko kideak. Ikasle euskaldun nahikorik badago

egon; irakaslerik, ostera, ez. UPV/EHUK bere bigarren normalkuntza-plana aurrera eramateko pairatzen dituen gabeziak benetakoak dira. Irakasleen gabezia eta unibertsitate mailako ikasmaterialen falta dira, hurrenez hurren, dauzkagun hutsunerik handienak. Lan eskeraga egin beharra dago gabezia horiek arintzeko.

Euskarazko irakaskuntzak presente egon beharko luke Euskal Herriko unibertsitate guztietan, horrekin bat gatz. Baina, dirudienez, datozen urteotan kolokan jar daiteke orain artean lortutako apurra. Gorabehera horietan euskaldunok ezin egon gaitezke eroso, aurrerapenak izaten badira ere ez dago ziurtasunik lortutakoa egonkortuko denik. Bide horretatik ez zaie erantzuten euskararen hizkuntz komunitateak dituen goi-mailako formazio beharrei eta ez dago esaterik inoiz erantzungo zaien.

Hori horrela bada ere, dauden irakasleekin eta dauzkagun bitartekoekin egiten dena baino zerbait gehiago egin daitekeelakoan gaude. Alderdi horretan, dudarik ez, ausardia eta babes politikoa beharrezkoa da. Baina, batez ere, azken urteotan unibertsitate desberdinetan egindako lana metatzean dago giltzarria. Apurka-apurka azken urte hauetan unibertsitario euskaldunen kopurua emendatuz joan da. Dagoeneko, unibertsitateko irakasle euskaldunak mila baino gehiago gara. Unibertsitate, fakultate, eskola eta sail askotan sakabanaturik gaude, bakoitza bere txokotan.

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) sarri aipatu izan dugun erreferentea edo bilgunea izan daiteke. Euskara unibertsitateetako *ghettotik* atera behar dugu, *Unibertsitate-inudea* eratu behar dugu. Proposamena, printzipioz, sinplea da: UEUren inguruan bildu unibertsitate desberdinetan sakabanaturik dauden irakasleak, ikasleak eta euskaltzaleak, goi-mailako formazio proiektuak aurrera eraman ahal izateko. Gauden egoeran gaudela, legediak eta unibertsitateen antolakuntzak zabalik uzten dituen zirrikituetatik, berandu baino lehen, titulu, ikastaro, ikerketa eta formazio-proiektu propioen eskaintza trinkoa eratu behar dugu. Lankidetzak, sinergia eta indarren metaketa, batetik, eta antolaketa malguta, bestetik, izan behar ditugu oinarritzko irizpideak. *Uda* -

ko Euskal Unibertsitateak bere egin du proposamena. Hasi gara gradu ondoko eta masterretan, hastekoak gara 3. zikloan, eta aurki, irakaskuntza telematikoan murgilduko gara. UEUK, bere historiagatik, 30 urte dagoeneko, eta bere ekarpenengatik, udako ikastaldiak, argitalpenak eta jardunaldiak, bilgune lanak egin ditzake. Une honetan kudeatzen ditugun proiektuak, antolatzen ditugun jardunaldiak eta ikastaroak kalitatearen bermea daukate. Sinesgarritasuna lortu du UEUK, goi-mailako formazioa euskaraz posiblea dela erakutsi duelako, unibertsitate mailako kalitatezko argitalpenak egin dituelako. *Euskal Unibertsitatea sortzen laguntzea* da UEUren xede nagusia. Horretan daukagun konpromisoak urrats berriak ematera eroaten gaitu. Sortu dugu *Inguma* (Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea, www.inguma.com). Horri esker jakin ahal izan dugu azken urteetan lau mila eta bostehun pertsona baino gehiagok zerbait egin izan dutela euskaraz (hitzaldiak, aldizkari-artikuluak, liburuak eta abar), *Inguma* datu-basean 17.000 erregistrotik gora dago dagoeneko. Sortu dugu Euskarazko Software Katalogoa, Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntza proiekturik handienean (*Ulibani* programa) elkarte aholkularia gara, urteko 10-12 liburu eta Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria (*Uztaro*, www.uztarocom) argitaratzen ditugu, urteko bi jardunaldi berezi (glotodidaktika, informatika, historia eta abar) eta hogeita hamar urte dira (orain Iruñean eta Miarritzen) udako ikastaldiak antolatzen ditugula. Milaka pertsonak ezagutu du UEUren lana.

Hori da, hain zuzen ere, *Euskal Unibertsitaterantz* hurbiltzeko, arestian aipatu *heltze* lana. Eraketa modu desberdinak har ditzakegu, izan daiteke *Ikasgu Nagusian* (Ikastolen Elkartearekin eta AEKrekin batera) Mondragon Unibertsitatearekin lankidetzan jarduteko, izan daiteke unibertsitate desberdinetako sailekin eta irakasleekin gradu ondokoak, masterrak eta 3. zikloko ikastaroak kudeatzeko, eta beste aukera batzuk egon badaude. Edozelan ere, helburua bat bera da: bilgune zabala eta eraginkorra aurkitzea. Bilgune horretatik, lan eginez, posible da administrazio desberdinekin negoziatzea eta antolakuntza modu berriak zabaltzea. Zaila da jakitea bide horretatik *Euskal*

Unibertsitatea etorriko denetz, baina ziurra da *Euskal Unibertsitatea* sortzekotan pilatutako esperientzia eta ekarpenak erabakigarriak izango direla.

Soilik egindako lanagatik UEUK mereziko luke administrazio publikoaren babes eta bultzada handiagoa. UEUK hautsi du K. Mitxelenak aipatzen zuen *ghettoa* eta erakutsi du euskaratik bertatik ere unibertsitatea egin daitekeela. Unibertsitateetako euskararen normalkuntza politiketan sakondu beharra dago, irakaskuntza telematikoaren eremu hasi berrian berezko antolakuntza posible ote den aztertuta beharra dago, titulazio propioetan euskarazko eskaintza bateratua eraiki behar da, baina, batez ere, orain artean egindako lana metatu, ditugun baliabideak banatu eta bilgunea sortu. Hori da bidea.¶

-
1. «Ley Orgánica de Universidades. Artículo 34. Establecimiento de títulos universitarios (...) 1. Los títulos universitarios que tengan carácter oficial y validez en todo el territorio nacional, (...) serán establecidos por el Gobierno, (...) 3. Las universidades podrán establecer enseñanzas conducentes a la obtención de diplomas y títulos propios. Estos diplomas y títulos carecerán de los efectos que las disposiciones legales otorguen a los mencionados en el apartado 1 anterior».
 2. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak arrazoitu zuen Uniekimenaren proposamenak «Espainiako Estatuarentzat bermatutako oinarriko araudiei» eragiten diela; besteak beste, homologatzeari, tituluak emateari eta ezagupen, gobernu organu, irakasleriaren estatuaren oinarri eta pareko kontuei (*Euskaldunon Egunkaria*, 2002-02-27).

Irakaskuntza hizkuntzaren hautaketa Unibertsitatean



T X I L L A R D E G I



euskararen erabilpena, unibertsitatearen mailan, gertakari berri xamarra da.

Oro har, XX. mendera arte euskara ez baita irakats eta ikas tresna izan.

Eta XX. mendean bertan ere, euskara bidezko Unibertsitate irakaspena azkeneko hamarkadetaraino ez da funtsez errotu, osatu eta bideratu.

Hori dela-eta, zalantzak, errakuntzak eta atzerapausoak, aurrerakada harrigarriekin batera mamiturik, gure begien aurrean daude.

Giro honetan, horregatik, onuragarri izan dakiguke atzerriko kontuen berri ematea.

Europakoak eta Ipar Ameriketakoak bereziki, arrazoi argiengatik guk orain jasaten ditugun zorabioa eta hautatu-beharraren larria herri horietan berriki jasan baitituzte.

Baina azterkizunaren zabalak berak zuhurtziara eramaten gaitu ezinbestean.

Ikuspegi orokor bat ematen saiatuko gara ondoko le-
rro hauetan.

Ongi dakigu, jakin, informazioa ez dela beti nahi genukeen bezain zabala edo zehatza. Eta dagoen horietan ere, egin beharreko bilaketa eta hautaketa nekez egin daitezkeela hutsik gabe.

► **Txillardegi** idazlea eta soziolinguista da, eta EHUko irakasle emeritua.

Izan bedi aitor hau, beraz, abiapuntu apala. Ondokoak oraingo honetan baino sakonkiago eta hobeki bildu ahal daitezten.

Joera orokorrak European barrena

«European barrena» idatzi dugularik, Ameriketako Kanada (edo Quebec zehazkiago) erantsi behar genukeen.

Guk ezagutu eta erabili dugun informazioaren oinarrian, joera orokor batzuk aurkitu ditugu.

Eta gu gatzekion irakaskuntzaren alorrari dagokionez, eta ondoko lerroetan xehekiago azalduko denez, hau esan bide daiteke: *lehenengo bi zikloetan*, oro har, *bertako nazio-hizkuntza* hartu ohi dela irakats-tresnatzat.

Eta *hirugarren zikloan*, aldiz, nazio-hizkuntzarekin batera, edota berau gaindituz eta ordezkatzuz ez gutxitan, *ingelese* datorrela indarrean eta hazkor; gero eta herrialde zabalagotan.

Ikerkuntza burutzeko Bibliografiaren beharrak, bate-tik; eta kanpo-harremanetarako baldintzek, bestetik, ingelese hautatzera bultzatzen dute.

Baina goazen orain polikiago.

Ēskualde elebakarrak vs. eskualde elebidunak

Normalean, eta gure inguruko politika ofizialak sinetsarazi nahi duenaren kontra, eskolako eta lizeoko irakaskuntzan gertatzen denaren bidetik, eta Unibertsitatearen mailan ere bereziki, *lurraldetasuna* bihurtu da glotopolitikaren ardatza.

Alegia, eskualde batean, *hizkuntza bakar bat* izaten da irakaskuntzako mintzabide eta tresna. Ez bi edo hiru. Nahiz ikasleak (proportzio honetan edo hartan) elebidunak izan. Edota, irakas-gaietan, halabeharrez, atzerriko hizkuntzak noiztenka erabili beharra gertatu.

Suitzan, adibidez, *elebakarrak* dira Unibertsitateak: Zurich-ekoa alemanieraz ari da, Genevakoa frantsesez. Erabat Hanburgon edo Lyon-en bezala.

Bat aldizkarian eta bestetan ere askotan neronek azpimarratu izan dudanez, hauxe izaten da Soziolinguistikaren alorrean jantziak ez diren pertsonen jasan ohi duten lehenengo ezustea: hemen txalotzen eta bultzatzen den «Unibertsitate elebiduna»... ez dela inon aurkitzen!

Elebidun fama (merezia) duten eskualdeetan (Belgi-ka, Suitza, Suomi), biztanlerik gehienak elebakarrak izaten direla; eta ez elebidunak. Eta bide beretik Unibertsitateak: beren irakaskuntzan eta beren bame-martxan, elebakarrak izaten direla.

«Eskualde elebidunetan denak elebidun» leloa, beraz, errentagari gerta daiteke, agian, boto-emendiorako; baina *osoki elebidunez*, eta ez bestez, osatutako herririk... ez dago.

Are gutxiago *elebidun orekatuz* soilki osatutakorik.

1. Komunikazioaren mailan, hizkuntz ordezkapenerako trantsizio gune berezi eta igarokorretan salbu, hizkuntza bat agertzen da gailen.

Gehien-gehienez, nola-halako diglosi egoera gerta daiteke (orain «diglosia» hitza Ferguson-en jatorrizko barioaz erabiltzen dugularik). Zeren-eta kasu hauetan ere, elkarren ondoan bizi diren bi hizkuntzok *funtzio desberdina* betetzen baitituzte.

W. Mackey kanadarrak aspaldidanik aurreikusi zenez, gizatalde berean bi hizkuntza egokituz gero, *eta biok funtzio berberekin*, biotako bat erredundante gertatzen da, soberan dago; eta suntsitu egiten da, gizataldeak erabiltzen ez duelako. Bi hizkuntzok biziko badira, plangintzaz edo halabeharrez, funtzio hautaketa egin behar da, eta zeini bere funtzioa esleitu.

Unibertsitatearen arloan, beraz, joera horietxek aurkitzen ditugu gailen.

2. Herrialde elebakarretan ere, zientzien garapenari eta bibliografiaren arazoari erantzuteko, Unibertsitatearen alorrean batez ere, nola-halako elebitasun funtzionala agertzen eta indartzen da.

Suedian, eman dezagun.

Suedia Estatu elebakarra da, eta hizkuntza ofizialtzat suediera du. Iparraldeko suomieradunen eta langile etor-

kinen kasuak at utziz, Administrazioan, mass-medietan, ospitaletan, dena egiten da suedieraz. Baina bigarren hizkuntza bat ongi ezagutzearen abantailak ezaguturik, ingelesa bihurtu dute bertako A-hizkuntza.

Eskolan gaur ingelesa ikasten dute ikasle guztiak (bigarren hizkuntza gisa). Eta eskolaldia amaitzean, *suediar guztiak* dira ingelesez poliki irakurtzeko, idazteko eta mintzatzeko gai.

Suediarrek, hala ere, ez dute, *beren artean eta mintzagai arruntetan*, ingelesa erabiltzen. Nahiz suediarrek ingelesez, esan dugunez, polito jakin, beren artean komunikatzeko tresna bakarra suediera dute.

Eta alde honetatik, Suediakoa agertzen da biharko glotopolitikaren adibide paradigmatico.

Ingelesak Suedian *beste funtzio bat du*. Ikerkuntzarako, goiko ikasketarako, atzeritarrekiko harremanetarako, informatikaren irakurketetarako, turismorako, *ingelesa* erabiltzen dute suediarrek.

Gainerakoetan, *suediera*.

Oso egoera antzekoa dute beste bi Estatu «ipartarrek»: Norvegiak eta Danimarkak, alegia. Norvegiarrek eta daniarrek ere, oro har, ongisko erabiltzen dute ingelesa.

Baina ohiko funtzio arruntetarako (familia, auzoa, herria, lagunartea, lankideak, nazio barruko eginkizunetarako) norvegiara zein daniera darabilte, hurrenez hurren. Eta ez ingelesa.

Badago halako letrarik gabeko akordio irmo bat, denek onartua.

Suomi-Finlandian ere egoera antzekoa dute. Baina suomiera ez baita hizkuntza germanikoa, eta elkar ulertzeko erabat desberdina denez, multzo «nordikotik» at jartzea komeni zaigu oraingoz.

Konplexutasunean barrena

Dagoeneko idatzia dugunetik ondoriozta daitekeen bezala, Unibertsitateko irakats-hizkuntza hautatzerakoan, hautua ez da batere erraza izaten.

Alde batetik, gizartean erabiltzen diren hizkuntzen *corpus*-ean egoeren aniztasuna dago. Zenbait aldiz, zeharo normalizatuta dauden bi (edo gehiago) mintzairaren artean aukeratu behar da. Bestetan, aldiz, gerta daiteke (eta gertatu egiten da) hizkuntzon arteko bataren «corpusa» zeharo finkatuta egotea, eta bestearena ez.

Aniztasun bertsua topatzen dugu maiz bi hizkuntza horietako *estatus* soziolinguistikoak alderatzean. Oso maiz gertatzen baita hautagai den hizkuntzetako bat debekatuta egotea, edota kulturaren eta administrazioaren eginkizunetatik at luzaz egona izatea; eta horretaz «herdoildurik» edo «zaharkiturik» nolazpait.

Bestea, berriz, luzaz ere gobernamenturako edo irakaskuntzarako tresna egonik, prest eta gaurkoturik.

Bide beretik, *demografiak* ere badu hautuan bere eragina.

Beste alde batetik, hizkuntza horrek ofizialtasuna Estatutatu bakar batean izateak (edota ofizialtasun hori bizpahiru Estatutan batera) ondorio nabarmenak ditu, gisa denez, irakaskuntza osoaren alorrean. Eta, beraz, gauza bera Unibertsitatearenean.

Hitz batez, ikuspegia anitzegia da azkarregi ondorio orokorrak ateratzeko.

Eta, hori dela-ta, orokorkerietatik ihesi, banaka aztertuko ditugu kasu adierazgarri batzuk. Hauxe iruditzen baitzaigu irakurlearentzako onuragarriena.

Suedia

Bihur gaitezen Suediaren kasura (jadanik laburki aipatua).

Suediako 19 Unibertsitateetan *suediera* da oinarrizko irakats tresna. Eta, ondorioz, ezinbestezko baldintzapena da, Unibertsitateko ikastaroak jarraitzeko, suedieraz ongi jakitea. Alegia, azterketak eta abar gainditzea.

Salbuespen bakar bat (berbera Estatu ipartar «nordiko» guztietan): gainerako herri kideetako baten hiztuna izatea. Alegia, eta Suediari bagagozkio, Danimarkakoa, Islandiakoa, Faroe uharteetakoa, Norvegiakoa izatea. Eza-

guera pasibotik elebitasun osora pasatzeko ibia oso erraza delako.

*Karlstad*eko Unibertsitatean, adibidez, dena irakasten da suedieraz (atzerriko hizkuntzak eta datxezkien literatura eskolak ez ezik).

Orebro-koan, eskolen %90 suedieraz; eta gainerako %10a ingelesez azaltzen delarik.

Stockholm-go Unibertsitatean, %72 inguru suedieraz, gainerako %28a ingelesez (bereziki, irakurtzen dugu, «atzeritikako ikasleen zerbitzutan»).

Uppsala-ko famatuan, %92 suedieraz, %8 ingelesez.

Kungl Teknisk Högskola Politeknikoan, %98 suedieraz.

Linköpings Universitet-ean, 1. edo 2. zikloak, dena suedieraz; 3.a ingelesez.

Hain zuzen ere, eta atzeritikako ikasleak suedieraz trabatzen, dohainezko ikastaldiak eskaintzen ditu Unibertsitateak; ikasle guztiek hasieratik suedierazko eskolak trabarik gabe jarrai ahal ditzaten.

Eta jakintza alor askotan bibliografiarik gehiena ingelesezkoa denez, gaur egun Suediako bai irakasleek bai ikasleek ingelesaren ezaguera ona izaten dute. Eta elebitzagaitasun hori gorantza doa.

Askotan badago ikaskizunak ingelesez ikasteko aukera, baita ingelesez azterketak egiteko ere. Atzeritarren zerbitzutan, noski; baina baita zenbait aldiz dena ingelesez burutu nahi duten suediar ikasleentzat ere.

Ohar bat: Suomi-Finlandiako Unibertsitateetan suedierak eskubide garrantzitsuak baditu ere, Helsinkikoan barne, simetriarik batere ez dago. Eta suediar suomieradunek ez dute suomieraren aldetik inolako hobaririk.

Danimarka

Antzekoa izanagatik ere, interesgarri izan daiteke Danimarkako kasua begiratzea.

Danimarkan 8 Unibertsitate daude (Far-Oer uhartetakoa barne); eta irakats hizkuntza *daniera* da. Salbuespen bakarra, uharteetako. Hauetan danieratik oso hurbil da goen *faroerak* hartzen baitu berorren lekua.

Atzerritarrek danierazko gaitasun azterketa gainditu behar dute matrikulatzean.

Eta, Suedian gertatzen denaren bidetik, ipartar multzoko hizkuntza batez edo bestez mintzo direnek (norvegiarrek, suediarrek, islandiarrek, faroetarrek) ez dute hizkuntza froga hori pasatu behar.

Irakurleak badakike agian, ipartar germaniko guztiek aisa lortzen dutela elkar-ulerkuntza. Hain zuzen, «Ipartar Kontseiluko» bilera internazionaletan bakoitzak bere hizkuntzaz egin ohi du hitz; eta aldibereko itzulpenik ez dago.

Aarhus Universitet delakoan eskuarki ikastaroak danieraz ematen dira.

Gauza bera *Roskilde Universitet*-ean (%80 danieraz, %15 ingelesez).

Zifra bertsuak ematen dira *Politeknika*-ko hizkuntz erabilpenari buruz, nahiz hauetan ingelesak kurtsoen herena iritsi.

Norvegiaren kasua guztiz antzekoa da (ipartarrekiko salbuespena barne).

Estonia

Estonian 4 Unibertsitate daude.

Nahiz sobietar garaian, mende erdi batez, Moskutik errusiera osoki bultzatzen zelarik, eta «eesti» edo estoniera baztertzen, gaur egun nazio hizkuntza horixe da Unibertsitateetako irakats hizkuntza 1. eta 2. zikloetan; eta bertan ikasi ahal izateko, ezinbestezko baldintza da estoniera ongi ezagutzea.

Hau egiaztatzeko legeak agintzen duen gaitasun-froga gainditu behar da.

Ohar txiki bat: *estoniera* (hizkuntza uralo-altaikoa izanik) suomieraren lehengusua da. Eta egituraz eta tradizioz osotara errusiera eslabotik urruti.

Letonia, Lituania

Letoniera ez da uralo-altaikoa. Baina urrun dago errusieratik.

Gaur egun, sobietar garaiko errusiar inmigratio gaitza ren ondorioz, errusiera da nagusi alor eta barruti batzuetan; bai Letoniaren Ekialdean, baita hirietan eta Riga hiriburuan bertan ere (ikus *Bat* 7-8, 1992).

Hala ere, Letoniako 4 Unibertsitateetan letoniera da irakats hizkuntza nagusia: 1992-1996 lau-urtekoan %90 letonieraz; errusiera %6 baizik erabili ez zelarik.

Matrikulatzen diren ikasleek, *letonieraz gain*, beste bi hizkuntza ezagutu behar dituzte. Berrikiago (2002ko Otsailko komunikazio pertsonala) horren egiaztapena izan dugu. *Latvia* aldizkariaren zuzendaria den Viktors Ivbulis irakasleak hau adierazi baitu: «Now courses at the University of Latvia are taught *in Latvian only*».

Lituaniako 7 Unibertsitateetan, era berean, irakats hizkuntza *lituaniera* da.

Hori dela-eta, beste leku batzuetan bezala, dohainik eskaintzen zaizkio ikasleari lituanieraz trebatzeko saioak; kurtsoen hasieratik ikaskizunak atzeritarrek arazorik gabe jarrai ahal ditzaten.

Irakats hizkuntza lituaniera izatea Estonian eta Letonian baino ulerterrazagoa da. Inmigratioa hemen txikiagoa izanik, egoera soziolinguistikoa beste biotan baino aldekoagoa baita bertako hizkuntzarentzat.

Bai irakasgai batzuetan, bai bibliografiaren mailan, askotan atzerriko hizkuntza batzuk erabiltzen dira; ingeleza bereziki.

Oso ohar antzekoak egin daitezke *Txekia* eta *Eslova-kiako* Unibertsitateei buruz: nazio hizkuntza dagoela nagusi, are matrikulatzeko aurre baldintza ere.

Aipu labur bat Eslovakiari buruz: eslovakiera eta txekiera hizkuntza antzekoak izan arren, Eslovakiako Unibertsitateetan txekieraren bazterketa osoa da.

Suomi

Suomi-Finlandia Estatu elebiduna da.

Gehiengoa (%94) suomieraz mintzo da gaur, eta gutxiengoa (%6), suedieraz.

Gutxiengo horrek, hala ere, XIX. mendean komunitate nagusia izan ondoren, eta Helsinki-Helsingfors hiriburuan bereziki, indar handia atxiki du gaur arte.

Eta Unibertsitatearen alorrean nabarmen dago behinola izandako gorentasun horren arrastoa (ikus *Bat* 30, 1999).

Suomiko Unibertsitaterik zaharrena Abo-koa da (1640), eta suediera hutsez sortu zen. Suomitarrek suomiera erabiltzen zuten familian, lagunartean, beheko mailako egin-behaketan, B hizkuntza gisa.

Baina goiko zereginetan eta alorretan, suediera erabiltzen zuten (bertako A hizkuntza gisa).

Diglosi giro hura zela-ta, Aboko Unibertsitatea, esan dugunez, *suedieraz* abiatu zen; nahiz itsasotik kilometro gutxi urrunduz gero, inguru suomieraduna topatu.

Eta suedieraz jarraitu zuen XIX. mendean barrena: bai jatorrizko gunean, Abo-Turku, Mendebaldeko kostaldean, eta 1827an hiri eta Unibertsitatea bera erre ziren arte; eta bai Suomiko hiriburu berri bihurtu zen Helsinki-Helsingforsen, Hegoaldeko itsasertzean.

1. Suomitar mugimendua XIX. mendean abiatu eta azkartu ahala (1865etik aitzina, eman dezagun), Unibertsitatearen suomiertzea izan zen xede nagusietako bat. Eta suomieraren «ulerkuntza» bederen hasi zen eskatzen; eta gerora ezaguera osoa.

1894ko Urtarrilaren 10eko Dekretua izan zen oso adierazgarria, honi buruz: «Tout candidat à un poste universitaire doit être *capable d'enseigner en Finnois*», irakurtzen dugu Gambier-en luman (Gambier 1986, 226).

1903az geroztik Unibertsitatea elebiduna da legez.

Areago Suomi Estatuak, gerratearen ondoren, burujabetza lortu zuenean.

Suediar gutxiengo aberats indartsuak alde aurretik sumatu zuen suomieraren hedakundea etorriko zela. Eta 1920an gauzatuko zena alde aurretik igarririk, aurrea hartzera deliberatu zen.

Turkun gehiengo zen suomieraduna (%63,6 suomieradun elebakarra, %14,9 suedieradun elebakarra, eta %20,4 elebiduna, 1920ko datuek erakusten dutenez).

Suedieradunek, Unibertsitatera ere suomieraren olautua iritsiko zela jakinik, eta intuizioz ez baitzuten inolaz ere nahi Turkun Unibertsitate «elebidunik», suediera hutsezko *Abo-Akademi* izenekoa prestatu zuten, finantzaketa pribatuaz bultzatuz.

1917-1918 urteetan, horretara, Suomiren burujabetza mamitu baino lehenago (Suomiren askapena 1918koa izanik), Abo-Akademi delakoa abiatu zuten.

Abiapuntuko ikaslegoaren hizkuntz egitura adierazgarria da:

- 3.245 ikasle: 1.397 suedieradun (%73,9), 848 suomieradun (%26,1).

Gehiengo nabarmena zuten suedieradunek. Ez baita batere harrizkekoa: oro har, Suomi osoan, suomieradunak ziren gehiengoak, bai; baina Unibertsitatearen alorrean ez.

Dirudunak suedieradunak ziren, nolazpait esateko.

Handik 3 urtera (1920), aurrez aurre eta hiri berean, *Abo-Turkuko* Unibertsitate ofiziala sortzean, ikaslegoaren hizkuntz egitura guztiz desberdina zen:

- 8.570 ikasle: 8.492 suomieradun (%99,1), 78 suedieradun (%0,9).

Eta honako puntu hau azpimarratu nahi genuke bereziki: 1920an suomieradun finlandiarrek ez zutelara, *Helsingfors-Helsinki* mistoaren bidetik, Unibertsitate misto edo *elebidunik* sortu; edota gehiengo suedieradun baten ondoko «adar» bat, orokorraren «barruan».

Barne mugidaz edo Soziolinguistikaren legeak eta hizkuntz gehiengoaren baldintzapenak ongi ezaguturik, suomiera hutsezko Unibertsitate oso bat eraiki zuten Turkun, Abo-Akademirekiko parez pare.

Suedieradunek berdin jokatu zuten bi urte lehenago, esan dugunez.

Eta hiri berean bi Unibertsitate sortu ziren horrela: desberdin eta burujabe, eta irakaskuntzaz eta administrazioz *biga*. Ez bat.

1.1. *Helsinki-Helsingfors* Unibertsitatean ezin berdin jokatu. Eta hemen Departamentu mailan bederen gune suediar bat salbatzen saiatua ziren suedieradunak. Eta 1947az geroztik 23 «katadera» (departamentu edo sail,

gutxi gorabehera) ari dira suediera hutsez; gainerakoetan (hirurehun bat orain) suomiera darabiltelarik.

Gaur egun, bestalde (1981az geroztik) Abo-Akademi suedieraduna finantzaketa publikoaz bizi da.

1.2. Ondoko urteetan finkatuta gelditu da egoera orokorra.

Eta 20 Unibertsitate edo Ikasgu gorenen balantzea hau da (ikus McRae 1997, 295) 1990eko datuak oinarritzat hartuz:

Helsinki-Helsingfors Unibertsitatea. Handiena (28.200 ikasle). Gehiengo nabarmena suomieradunek osatzen dute; suedieradunak %5,3 baizik ez direlarik (1.500 ikasle).

Legez manatua denez, *Helsinki-Helsingfors* Unibertsitatea elebiduna da.

Baina «de facto» suomieraduna da hein handi batez. *Yliopisto* (=Unibertsitate) agerkari ofizialean, ia suomiera hutsez argitaratua, aisa egiazta daiteke esaten ari garena.

2. Suedieradun ikaslegoa Abo-Akademira biltzen da; baita beronen menpeko ikasguetara:

1978-1979: 3.200 ikasle (laurden bat elebidun, jatorriz suedieradunak nahiz jatorriz suomieradunak).

Eta gainerako Unibertsitateak —*Turku, Tampere, Oulu, Joensuu, Otaniemi, Jyväskylä, Kuopio, Rovaniemi* (Laponian)— suomiera hutsez ari dira.

1984ko zifrak hauek ziren:

- *Helsinki-Helsingfors*, FS, 24.267 ikasle (28 sail suedieraz).

- *Abo* zaharra, S, 4.052 ikasle; *Turku* berria, F, 8.753 ikasle.

- *Tampere*, F, 8.976 ikasle.

- *Oulu*, F, 7.281 ikasle.

- *Jyväskylä*, F, 6.257 ikasle.

- *Helsinki Politeknikoa*, F, 7.966 ikasle.

- *Helsinki Ekonomi Fakultatea* bikoiztuta dago: 4.086 ikasle suomieraz, 1.480 ikasle suedieraz.

3. Hizkuntza «internazionalei» buruzko erabilpenaz, azkenik (bigarren edo hirugarren irakats hizkuntza, kasuen arabera), ikasleen %97,6k aukeratzen du *inglesa* (1992).

Proporzio hori gorantza joan da eta gorantza doa. 1956an, adibidez, %44,8koa zen. Garai hartan lehen-tasuna alemanierari ematen zitzaiolako (%51,5).

Belgika

(Ikus, nolana ere, hemen errepikatuko ez ditugun datu batzuk *Bat* aldizkarian, 1990-XI, 49-66).

1. 1815-1830 urteetan irakats hizkuntza latina izan ondoren, belgikar erresuma 1830ean sortzean, frantsesak kendu zion lekua orduko 4 Unibertsitateetan: Ganten eta Lovainan (*Gent* eta *Leuven* jatorrizko izenez), Flandrian beraz; Liejan (*Liège*), Walonian, eta Brusela hiriburuan (*Brussel, Bruxelles*).

Eta gauzak ez baitziren 1930era arte aldatu, hau esan daiteke: Flandriako Unibertsitateetan irakats-hizkuntza *frantsesa* izan zela mendebetez, bertako nederlandera bazterturik egon zelarik.

Ganteko Unibertsitatean, Flandria betean, irakaskuntza osoa frantsesez gauzatzen zen. Salbuespen txiki eta bakarra, nederlanderazko *Hizkuntza eta Literaturari* buruz 1855ean estrainatu zen ikastaroa.

1.1. Flandriar gizarteak onartuta zeukan egoera diglosiko hura: *nederlandera dialektala* (tokian tokiko «flamenkera» mota) etxeko eta eginkizun apaletako mintzabidea; goiko arloetan, berriz, eta Unibertsitatean bereziki, *frantsesa* erabiltzen zelarik.

Honetaraz gero, puntu garrantzitsu bat azpimarratu behar da: flandriarrek prest zeukatela, funtsean, beren hizkuntza estandarra. Holandako hizkuntza ofiziala, hain zuzen.

Aita *Guido Gézelle*-ren jarraitzaileen jarrera ultraflandriar eta hiperkatolikoa gaingiduz gero bederen, arazorik ez hizkuntzaren mailan. Frogarik handiena, jakina, Holandako Unibertsitateen kasua. Hauetan nederlandera erabiltzen zen jadanik.

XIX. mendean flandriar abertzaletasuna piztu zenean, irakaskuntza nederlanderatzeko asmoa indartuz eta heda-

tuz joan zen. Eta 1890etik aurrera, nederlanderen aldeko elkarteek gero eta ozenkiago eskatzen zuten *Ganteko Unibertsitatea* nederlanderatu beharra.

1896an, *Jules Mac Leod* Ganteko irakaslearen zuzendaritzapean, «Flandriar Unibertsitate Batzordea» izenekoa sortu zen; eta ondoko urtean (1897) bere Agiria kaleratu zuen, helburu nagusizat hau hartuz: Ganteko Unibertsitatearen nederlanderaketa. Salbuespen bakar batez: Fakultate teknikoetan frantsesa erabiliko zela ordukoz.

Ludowic De Raet bruselarrak hartu zuen orduan bultzatzaileen gidaritzaz; eta batera *irakaskuntzaren eta administrazioaren* nederlanderatu beharra aldarrikatu zuen.

Ohar garrantzitsu bat: Ganterentzako «*Unibertsitate elebidunaren*» aurka kokatu zela De Raet hasieratik beretik, eta frantsesaren erauzketa osoaren alde. Eta 10 urtez (1897-1907) iraun zuen proiektu-borroka gogorra hasi zen.

1.2. Urte horretantxe agertu zen Flandriar Unibertsitate Batzordearen bigarren Txostena.

Giroa ez zen batere nederlanderatzearen aldekoa.

Flandriarrak, oro har, katolikoak izanik, traba gaitza zitzaien Elizaren agintaritzaz nederlanderen kontra paratzea.

Hots, eta adibidez, pisu handikoak izan ziren Mercier Kardinalaren hitzak (1906): «*Quiconque comprend le rôle de l'Université ne peut raisonnablement pas prétendre de mettre le français et le flamand sur un pied d'égalité*».

Nahiz jarrera honek, jadanik idaroki dugunez, ez bururik izan ez hankarik gorabeheren *Rijksuniversiteit Gent Estatuarena* zen.

Lovainakoa, aldiz, katolikoa, Elizarena.

Eta 1910ean, desberdintasun politiko guztien gainetik, baturik jokatu zuten Belgikako Parlamentuan Ganteko Unibertsitatearen arazoaz hiru diputatu flandriar gaztek: *Louis Franck* liberalak, *Frans Van Cauwelaert* katolikoak (moderatu eta belgikazalea) eta *Kamiel Huysmans* austro-marxistak.

1911ko Martxoaren 31n, 1916-1917 ikastarotik aurrera Unibertsitatea osoki nederlanderatzeko lege-proiektua aurkeztu zuten orduko 6 parlamentari flandriarrek.

Artean 1914ko mundu-gerla hasi zen, eta Ganteko Proiektua bazterturik geratu zen. Hain zuzen ere, alemanen okupazio pean abiatu zena, iseka-nahiz, «Von Bissing Unibertsitatea» birbataiatu zuten flandriar abertzaleek; sorkuraz maingu eta «collabo» kutsuaz gaitzetsiz.

Xeheki kontatzea luzeegia litzatekeen gorabeheron ondotik, 1929ko Irailaren 10ean aurkeztu zuen gobernuak lege berria. Beronen arabera, 1930-1931 ikastarotik aurrera Ganteko Unibertsitatea *nederlandera hutsez* ibiliko zen, bai irakaskuntzaren bai administrazioaren alorretan (1930-IV-05eko legea).

Berriro ere salbuespen bat gelditu zen zintzilik: Ganteko Fakultate teknikoek frantsesez jarraituko zuten 1935-1936 ikasturtera arte.

Flandrian egonik, eta lurraldetasuna Belgikan hertsiki ezartzen delarik, patua garbi ageri: 1932ko lurraldeketa legeztatzean, nederlanderatzea zetxekion Ganteko Unibertsitateari, gainerako instituzio ofizial guztiei bezala.

Eta horrela izan zen. Eta geroztik *nederlandera hutsez* ibiltzen da Gante.

2. Ganteko Unibertsitatea Estatuarena zen, *Rijksuniversiteit Gent* izenak berak adierazten duenez. Lovainakoa, aldiz, pribatua, Elizarena: *Katholieke Universiteit Leuven*.

Beronen nederlanderkuntza, hitz batez, beste modu batera bideratu behar. Oraingoan Apezpikuaren eskutik, oro har, edo beronekiko borrokan.

Ganteko arrakastaren ondoren, giroa aldatzen ari zela sumatu zuen Elizak, jakina; eta flandriar ikasleek mordoka joko zutela Lovaina aldera.

Eta 1930-1931n *Lovainako* Unibertsitatea *bikoizten* hastea erabaki zuen. Alegia, *bi lerro* paralelo egongo ziren aurrerakoan elkarren ondoan: bata «moda zahararen» araberrakoa, *frantsesez* ari, eta bestea, berriz, berria, *nederlanderaz*.

1935-1936 ikastaroan bide bera hartu zuen *Bruselakoak*.

3. Eta 32 urtez, bikoizturik, baina leku beretan, bi Unibertsitate elebidunak izan ziren: bai Lovainakoa, bai Bruselakoa.

Hizkuntzari dagokionez, elkargainkako egoera horrek ez zuen ondorio txarrak izan Bruselan.

1939rako bikoiztuta zegoen Lovainako irakaskuntzaren %74a; 1955erako, %84raino iritsi zen kopuru hori. Eta ikasle kopuruari dagokionez, hein bera zuten ikasle frantsesdunek eta nederlanderadunek.

Baina leku berean bi «sailak» egoteak alderdi txarrak zituen Lovainan. Populazio oso bat (milaka ikasle, irakasle eta funtzionario) bizi zen frantsesez nederlanderadunek inguratutik, Flandrian *frantses uhartea* zen. Elebidun bakarrak normalean flandriarrak izanik, nederlanderaren erabilpena oztopatuta zegoen.

Soluzio bakarra «bi sailak» (orduko hizkera erabiliz) *erabat bereiztea* zen. Unibertsitate nederlanderaduna, *Katholieke Universiteit van Leuven* izenekoa, Lovainako kokaleku zaharrean gelditu zen, hizkuntz mugaz Iparraldean.

Bi Unibertsitateok, horretara, elkarretatik aparte gelditu ziren (eta horrelaxe daude gaur ere); tartea 25 bat kilometrokoa delarik, eta elkarren agerian ari direla.

Urratsa oso garrantzitsua zen; besteak beste Belgikako Unibertsitaterik handiena, urrundik, eta famatuena, Lovainakoa zelako.

Erdibiketatik 5 urtetara hau zen egoera:

Nederlanderaz

• Rijksuniversiteit Gent	11.053 ikasle
• Katholieke Universiteit Leuven	16.052
• Vrije Universiteit Brussel	3.507
• Univ. Depts. Antwerpen	4.700

Frantsesez

• Université d'Etat (Liège)	7.775 ikasle
• Univ. Catholique de Louvain	12.642
• Univ. Libre de Bruxelles	8.635
• Depts. Univ. Mons	1.739

Lurraldetasunaren ideiaaren ildotik beti (ez baitzen onartu Belgika «elebiduna», Flandria nederlanderaduna *gehi* Walonia frantsesduna baizik) Unibertsitatea *bikoiztu* egin zen.

Kas Deprez flandriar irakaslearen hitzak errepikatuz esatekotan:

Le pays avait opté pour un *double unilinguisme*; et non pas, ce qui eût été une autre possibilité, pour un *bilin-guisme généralisé* dans tout le pays.

4. Zer egingo Bruselako ULB-VUB delakoaz?

Bide bera hartu zuten: bikoizketarena.

Eta berau ere *bikoiztu* egin zen 1969an; aurreko urtean Louvain&Leuven bezala.

Biak Bruselako lurralde zabalean gelditu ziren (hiriak 162 km² ditu), gune desberdinetan sakabanaturik.

Gaur egun nederlanderazko Fakultateak hiru kokagune nagusitan daude: Etterbeek-en, Rode-n eta Jette-n.

Gehienak Campus Oefenplein-en daude, Bruselako hego-mendebaldean. Beste batzuk Jette udalerrian, iparraldean; eta gainerakoak, Biologiaren alorrekoa oro har, St. Genesius Rode udalerrian, hegoaldean.

ULB frankofonoa, bere aldetik, Ixelles-ko batimendu zaharretan dago (Solbosch-en). Medikuntza, berriz, Anderlecht-en, mendebaldean.

Ezin hemen xehetasun askotan abia.

5. 33 urtez, beraz, 1935-1968, bai Bruselan bai Lovainan, *bi Unibertsitateak* elkarren ondoan bilakatu dira, *paraleloki*, inolako nahas-mahasik gabe nolazpait esateko, eta gaur egun horretan daude.

Baina 1968-1969az geroztik, gaiztotuta zegoen giroa erauzteko, eta bakea lortzeko, bikoizketa funtzionalari *be-reizketa geografikoa* ere erantsi zaio: ikasle frantses eta nederlanderadunek ozta-ozta dute elkarrekiko harremanik.

Hasierako 4 Unibertsitateak 6 bihurtu dira hertsiki.

ULB delakoak, 1843ko Azaroaren 20an sortu zenean, 96 ikasle zituen.

Gaur, berriz, hauxe da bi Bruselako Unibertsitateon egoera, zenbaki larritan: *U.L.B.*, frantsesez, 18.000 ikasle; *V.U.B.*, nederlanderaz, 8.500 ikasle.

Suitza (C.H.)

1. Suitzan lau «nazio hizkuntza» izanik (alemaniera, frantsesa, italiara eta erromantxera), aniztasun hori Unibertsitatearen alorrean ere nabaritzen da.

Nolanahi ere, *erromantxera* (erretorromanieraren suitzar adarra) ez da Suitza guztian erabiltzen, eta ofiziala ere Graubünden kantoian bakarrik. Honetan ere hedadura txikikoa baita (22.000 hiztun, 1980), denak elebidun, oro har; kantoiko hizkuntza nagusia alemaniera izanik (%36).

Hori guztia dela bide, Unibertsitatearen alorrean erromantxerak ez du lekurik.

1.1. *Italierak*, berebat, orain dela gutxi arte, ez du leku hori izan.

Suitzar italierradunek, Unibertsitatera heltzean, Italia-ra jo behar izaten zuten. Eta han bazuten, hori bai, halako tratu berezia; eta ikasketak amaitzean, italiar titulazioak bazuen bere lege-balioa *Ticino* kantoitaliarrean.

Aldatu egin da egoera oraintsu, ondoko lerroetan ageriko denez.

Hitz batez, eta Unibertsitateari gagozkiolarik, hautua hau izan da luzaz: alemaniera vs. frantsesa. Edozein eskualde elebidunetan bezalatsu.

2. Suitzako Glotopolitika erabat *luraldetasunezkoa* izanik (Belgikakoaren antzera, beraz), eskolaren alorrean bezala Unibertsitatearenean ere, kokaguneak erabakitzen du irakats hizkuntzaren hautaketa.

Kantoia alemana baldin bada, Unibertsitatean alemanieraz irakatsiko da, eskolan bezalaxe; eta frantsesa baldin bada, frantsesez.

Unibertsitateak, hitz batez, *elebakamak dira* Suitzan; Frantzian, Suedian edo Argentinan bezala.

2.1. Hona hemen, hitzez hitz, Interneten *Lausanne*-ko Unibertsitateetik irakats hizkuntzari buruz guk egindako galderak jaso zuen erantzuna: «La langue d'enseignement est le français. L'anglais est utilisé dans certaines formations postgrades et les troisièmes cycles».

Eta, oraino argiago: «Nous sommes une université de la partie francophone de la Suisse, et nous *ne sommes donc pas bilingues*».

Halaz ere, «la plupart des membres de la communauté universitaire ont appris une ou plusieurs langues étrangères à l'école».

Hori dela-ta, hauxe zen egoera oraintsu arte:

Genève, Lausanne eta *Neuchâtel*-go Unibertsitateak (hurrenez hurren, Geneva, Lausana eta Vaud beren kantoiei lebakarreen kokaturik) frantsesez gauzatzen dira.

Era berean, *Basel* (Basilea), *Zürich* eta *Bern*-ekoak (Berna), alemanieraz ari dira, dagozkien kantoiak bezala.

Bernakoan, dena dela, Berna Suitzako hiriburua delako, eta bertan bizi diren frankofonoen zerbitzutan, gaien %3 azaltzen dira frantsesez.

Friburgoko Unibertsitate Katolikoa, azkenik, *Fribourg-Freiburg* kantoiei elebidunari egokitzeke (frantsesa-alemaniera), Unibertsitate elebiduna da.

Baina bikoizketaz elebidun, *bi Unibertsitate elebakar paraleloz Leuven-Louvain* edo *Abo-Turku*-ren bidetik; eta ez gure herrian legez tatu denaren bidetik nahas-mahasean...

Horrez gain, bi Unibertsitate Politekniko daude, federalak. Bata, zaharrena (1854) eta handiena, *alemaniera hutsez* ari da *Zürichen: Eidgenössische Technische Hochschule* izenekoa. Eta bestea, berria (1968), Vaud kantoiei frantsesean dago kokatua: *Université Polytechnique de Lausanne*. Eta *frantses hutsez* ari da.

2.2. Azkeneko urte hauetan, hala ere, egoera aldatu egin da.

Alde batetik, alemanierazko beste bi Unibertsitate elebakar sortu direlako: *Luzern*-ekoa (1985), hiru Fakultaterekin; eta *St. Gallen*-goa (1988).

Eta bestetik, italierazko Unibertsitate berri bat sortu delako (1996): *Università della Svizzera Italiana* delakoa (Ticino kantoiko hegoaldean), beste hiru Fakultatetan: bata «Accademia di Architettura» izenekoa, Mendrisio; eta beste biak Luganon, Ekonomi Zientzietakoa bata, eta Komunikazio Zientzietakoa bestea.

Gure artean zenbaiti harrigami gerta badakioke ere, italierazko elebakartasun horrek ez du zalantzarako zirikiturik uzten: «Lingua ufficiale d'insegnamento è italiano».

Eta 2001-2002ko Gida-liburuan espreski gaztigitzen denez, «agli studenti d'altra lingua può essere chiesto di superare un esame di comprensione, come requisito d'ammissione».

3. Halako bilduma eginez gero, beraz, hau dago:

- Unibertsitate bat italieraz, elebakarra;
- Unibertsitate bikoiztu bat, bi lerro paralelotan ari, frantsesez eta alemanieraz;
- 3 Unibertsitate + Politeknika bat, elebakarrak, frantsesez;
- 5 Unibertsitate + Politeknika bat, elebakarrak, alemanieraz.

4. Suitzako Unibertsitate elebidun bakarra delako, aipamen zehatzagoa merezi du *Fribourg-Freiburg*-ekoak.

Friburgo kantoiairen egoera soziolinguistiko orokorra, hasteko, hau da:

- 113.697 biztanle frantsesdun (%61,4).
- 59.824 alemanieradun (%32,2).
- 11.725 (beste).
- Guztira: 185.245 biztanle kantoi osoan.

(Kopuru horiek «Institut National Genevois» izenekoak eman zituen ezagutzera, eta 1980 urteari dagozkio).

Suitzako sistemaren bidetik jokatzuz, Friburgo kantoi elebiduna bera ere, geografikoki, 7 eskualde elebakarretan zatituta dago; taula honetan agertzen denaren arabera:

- 5 eskualde frantses, elebakar: *Sarine, Glâne, Broye, Veveyse* eta *Gruyère* (udal alemanieradun bakar bat, dena dela, azkenekoan);
- eskualde alemanieradun bat, elebakarra: *Sense*;
- eskualde elebidun bat: *Lac/See* izenekoa. Beronek 39 udal ditu, denak elebakarrak: 17 udal frankofono, elebakar; eta 22 udal germanofono, elebakar. Hauek ere, jakina, *geografikoki*, udal elebakarretan banatuak.

Kokapen horretan, bistan denez, Friburgoko Unibertsitateari elebitasuna zegokion. Baina suitzar modura.

Lehenengo hurbilketa batean hau esan daiteke: Friburgoko *Fakultate guztiak bikoiztuta daudela*. Edozer ikas daiteke bertan bai alemanieraz, bai frantsesez. Salbuespen bat: soziologia ikasketak frantsesez bakarrik egin daitezke.

Oro har, beraz, dena bikoiztuta eta simetria osoan:

On y trouve des facultés bilingues; mais elles le sont dans ce sens que les cours sont donnés *parallèlement*

dans chacune des deux langues, et que les étudiants ne fréquentent que ceux qui sont donnés *dans une d'elles*.

Fama denez, hala ere, Ikasketa Teknikoak hobeki burutzen bide dira Friburgon alemanieraz, frantsesez baino; eta, alderantziz, Soziologia eta Kazetaritzaren alorrekoak, frantsesez burutzen direnak agertzen bide dira gailen.

5. Hitz batez, Friburgoko Unibertsitatearen antolakeran, suitzar moldea hartu da gidari:

Les deux communautés linguistiques du canton coexistent dans une paix relative, mais ne vivent pas ensemble.

Elebitasunaren aldeko jarrerak ere desberdinak dira bi hizkuntz-komunitateetan:

Le fribourgeois de la part alémanique est manifestement plus disposé à apprendre le français, que le fribourgeois romand ne l'est à étudier l'allemand.

Friburgoko Unibertsitatearen bikoizketa kantoiaren adibidea da.

Suitzan (Suomin, Belgikan eta abarretan bezala), eskualde «elebiduna» izanik ere, hiritarrak *elebakarrak* izaten baitira.

Ikus, adibidez, McRae-ren liburuko 16. taula (68. orr.): alemanieradunen artean %40 elebakar daude; frankofonoen artean, berriz, %50. Frantzian sumatzen den joera ere pikatuz.

Ohar labur batzuk Quebeci buruz

Kanadako Unibertsitateen azterketak urrutira eramango gintuzke, eta beste lan berezi bat mereziko luke; eta hemen ez dugu egingo.

Ohar batzuk bakarrik *Quebecoei* buruz.

Quebecen bi hizkuntza erabiltzen dira Unibertsitatearen mailan: ingelesa eta frantsesa.

Ikaslerik *gehienak frantsesez* mintzo dira: 184.914 ikasle (1977); eta *gutxiengoa* osatzen dutenak *ingelesez*: 57.446 ikasle.

Unibertsitateak *elebakarrak* dira.

Hiru dira *ingelesez* ari direnak:

- *Bishop's University* (%96 ingelesez, %4 frantsesez).
- *Mc Gill*.
- *Concordia*.

Eta beste hiru *frantsesez*:

- *Laval*.
- *Sherbrooke*.
- *Université du Quebec* (lehengo «Montreal» barne).

Frantsesaren erabilpen maila %97 eta %100 artean dago.

Quebecekoak 6 irakasgune ditu, erabilpen maila haue-
tan:

- *Montréal* %98,9
- *Trois Rivières* %98,39
- *Chicoutimi* %97,-
- *Rimouski* %99,49
- *Hull* %99,45
- *Abitibi* %100

«Como en Bélgica y, en menor grado en Finlandia, las dos lenguas utilizadas casi nunca se mezclan» (*Pompeu Fabra* Unibertsitatearen Txostena, 1997-1999).¶

Bibliografia

Oinarrizko idazlan batzuk:

Deprez, Kas: *Le Néerlandais en Belgique*, itz. Armel Wynants, 1987.

Dessemontet, F.: *Le Droit des langues en Suisse*, Bibl. Nat. Quebec, 1984.

Estudio sobre los usos lingüísticos, Bartzelona, Univ. Pompeu Fabra, 1997.

Gambier, Yves: *La Finlande Bilingue*, Quebec, Documentation de la langue française, 1986.

Mabille, Xabier: *Histoire Politique de la Belgique*, Brusela, Ed. CRISP, 1997.

Majorités et Minorités en Suisse, Institut National Genevois, 1986.

McRae, Kenneth D.: *Conflict and Compromise in Multilingual Societies: Switzerland*, W. Laurier University Press, 1983.

McRae, Kenneth D.: *Conflict and Compromise in Multilingual Societies: Belgium*, W. Laurier University Press, 1986.

McRae, Kenneth D.: *Conflict and Compromise in Multilingual Societies: Finland*, W. Laurier University Press, 1997.

McRae, Kenneth D.: *Conflict and Compromise in Multilingual Societies: Canada*, oraindik ez da kaleratu.

Ruys, Manu: *Les Flamands*, Ed. Lanoo, 1973.

Bat aldizkaria (SEI, Martin Ugalde Parkea, 20140 Andoain): 2. zb., 1990, *Belgikaz*; 30. zb., 1999, *Suomiz*.



Zer~nolako Euskal Unibertsitatea?

bigarren aldiko ibilbidearen abiapuntuan bertan, *Jakin* aldizkariak Euskal Unibertsitatearen gaia plazaratu zuen. 1977. urtea zen, eta gaia pil-pilean zegoen. Arazo bizienetako bat zen zer-nolakoa behar zuen sortzear zegoen unibertsitateak. Sortuko dena Euskal Herriko Unibertsitatea da, ez Euskal Unibertsitatea.

Lehen zenbaki hartatik 25 urte igaro dira, eta orduan eskakizun zena orain ere eskakizun eta eginkizun da, euskal unibertsitatea, alegia.

Euskal Unibertsitatearen definizioak zehaztaperen eta kolore desberdinak izan ditu urte hauetan guztietan. Guk hemen, elkar ulertze aldera, definiziorik oinarritzeko edo arruntena hartuko dugu abiapuntu gisa: euskaraz ari-tuko den unibertsitatea da Euskal Unibertsitatea.

Duela 25 urte atera genuen zenbaki monografiko hura gogoan, gaiak ez du gaurkotasunik galdu. Ildo horretatik, euskal unibertsitatearen egitasmoaren egingarritasunaz, onuragarritasunaz eta proiektuaren izaera eta estrategiaz iritzia eskatu dugu. Galdeketa hau berrogei bat lagun-aren artean zabaldu dugu: horien artean daude Euskal Herriko unibertsitateetako errektore izan diren eta diren euskaldun guztiak, unibertsitateetako euskara arduradun izan diren eta diren guztiak, UEUko zuzendari guztiak, eta horiekin batera hainbat gizarte-eragile (sindikatuak, hezkuntza munduko erakundeak) eta komunikabideetan eta

gai honen inguruan iritzia plazaratu duten beste asko. Azkenean, hogeita zortzi erantzun jaso ditugu guztira.

Ondoren, aditu horiei egin dizkiegun hiru galderak datoz:

- 1.- Egingarritasuna. Euskaraz arituko litzatekeen unibertsitatea eraikitzeko gai al gara? Era guztietako baldintzak kontuan hartuz: akademikoak, jakina, baina baita ere juridikoak, ekonomikoak, sozialak, politikoak, demografikoak...
- 2.- Onuragarritasuna. Onurak eta abantailak aipatzen dituzte batzuek: irakaskuntza sistema osatu eta burutzea, euskal hezkuntza komunitatearen premiei erantzutea... Joerazko ariskuak edo kalteak seinalatzen dituzte beste batzuek: ghettoa, EHU euskal irakaslez hustutzea... Zer azpimarratuko zenuke zuk?
- 3.- Izaera eta estrategia. Nolakoa beharko luke, zein izaera eta zein helburu izango lituzke, eta nola bideratu beharko litzateke? Bestela esanda: publikoa, pribatua, bestelakoa?; indarrean dagoen unibertsitateren bati lotua, autonomoa?; osoa, berezitua?; eraikin konbentzionaletan kokatua, birtuala?;...



AEK

1.- Aldez aurretik, azpimarratu behar da AEKren ikuspegia be-rezi samarra dela. Jakinaenez, helduen euskalduntze alfabetatzea da AEK-k jorratzen duen arloa, hau da, pertsona nagusiei euskara irakatsi eta euskaldunak euren hizkuntzan alfabetatzea. Beraz, begi-bistakoa da AEKren zeregina irakaskuntzaren arloan kokatzen dela bete-betean, eta, hortaz, euskal irakaskuntzarekin zerikusia duen oro interesgarria zaio AEKri. Euskal unibertsitatearen auzia ez da salbuespen bat, eta, horregatik, interes handiz ikusten ditugu euskal unibertsitatea abian jartzeko egindako ahalegin guztiak. AEK UEUko partaidea da aspalditik, Ikasgu Nagusiaren egitasmoaren inguruan lanean aritu da hasiera-hasieratik, eta euskal unibertsitatea helburu izan duten eta duten ahalegin guztietan bere ekarpen xumea egiten saiatu da orain arte, 2002ko hasieran aurkeztu zen plataforma legegilearen kasuan, berbarako. Hala ere, argi dago AEKren lehentasunak beste batzuk direla; guk jorratzen dugun irakaskuntza-mota ez dagokio zehatz-mehatz unibertsitate-ereduari eta, beraz, unibertsitatearekiko gure harremana tangenziala da. Irakasleriaren prestakuntza edo titulazioa bezalako gaietan oso lagungarria suerta daiteke harreman hori; eta, jakina, euskararen normalizatorako onuragarria den neurrian, interes handiz ikusten ditugu euskarazko unibertsitatea lortzera zuzendutako urratsak oro, baina kanpotik luzatutako soa da gurea, eta hala izan behar da ezinbestez.

Beraz, gu ez gara adituak, eta zaila egiten zaigu fruitua behar bezain heldua dagoen baloratzea. Ekimen legegilearekin gertatu denak eta joan den abenduan Alderdi Popularrak onartu zuen LOU lege berriak erakusten bide dute oztopo politiko eta juridikoak oraindik ere handiak direla. Hala ere, euskal gizarteak oro har, eta euskalgintzak bereziki, behin baino gehiagotan erakutsi du oztopo

guztiak gainditzeko edo saihesteko gauza dela, aurrera egiteko erabaki irmoa hartuz gero. Frankismoaren garaietatik euskalgintzak jakin du legalitateak uzten zituen zirrikitu eta hutsune guztiez baliatzen bizirik iraun eta aurrera egiteko. Hor dago gakoa: ea benetan euskal jendarteak, instituzioek, irakaskuntza-munduko agenteek euskarazko unibertsitatea eraikitzea lehentasuntzat hartzen duten, eta zeregin horretan noraino inplikatzeko prest dauden. Teknologia berrien garapenak, mugaz gaindiko unibertsitate-egitasmoek, goi-mailako irakaskuntza ulertzeko modu berriak, Katalunian izandako esperientziek erakusten digute marko juridikoek ezarritako mugak gorabehera gauza asko egin daitezkeela horretarako borondate eta erabakitasuna egonez gero.

- 2.- AEKren iritziz, euskal unibertsitatea guztiz onuragarria izango litzateke euskal irakaskuntzaren eta euskararen beraren normalizazioa lortze aldera. Goian aipatzen diren abantaila guztiez gain, AEKren ikuspegi espezifikotik begiratuta, bestelako onurak ere topatzen dizkiogu: euskal profesionalak (gure kasuan, euskara irakasle trebatu eta jantziak) sortzeko bide ezin hobe izango litzateke, irakasleentengabeko prestakuntzan eta gaurkotzean izugarri lagunduko luke, ikerkuntzari bultzada ederra emango lioke, testugintzan eta ikas materiala sortzekotan aurrerapauso itzelak emango genituzke eta, maila sinbolikoan, euskal komunitatearen eta hizkuntzaren prestigioa sendotu eta euskara ikasteko motibazioa indartuko luke. Arriskuak ere badaude, noski, gauza guztietan bezala, baina euskarazko unibertsitatearen aldean eskaintzen zaizkigun alternatibak ere arriskuz josiak daude. Esperientziak erakusten digu elebitasunaren ereduak (euskara erdararen baten aldamenean/menpean jartzea) porrot egin duela, eta prentsa dugu horren adibiderik argiena: elebidunak izateko bokazioz jaio ziren komunikabideetan, erdarak bere nagusitasuna indartu du eta euskara apaingarri edo kontzientzia-lasaigarri soila izatera mugatu da. Soilik euskarazko prentsaren esparrutik abiatuta lortu dugu arlo horretan ere gure hizkuntzaren normalizazioan aurrera egi-

tea. Eta unibertsitateari gagozkiola, antzeko zerbait esan dezakegu.

Ghettizazio arriskua aipatzen dute batzuek, bai eta gaur egungo unibertsitate-irakaskuntza hizkuntza bakar batean baino gehiagotan garatu behar dela ere. Azken hori egia ukaezina da, baina aurrekoa bezain egia da ustezko eleaniztasun horren atzean erdaren nagusitasuna bermatzeko eta mozorrotzeko trikimailua aurkitu nahi duela zenbaitek. Gure ikasleek hizkuntza bat baino gehiago jakin beharko dute, jakintza zientifiko modernoaren iturritik bitartekaririk gabe edango badute; baina hori ezin da aitzakia izan gure hizkuntzaren menpetasun egoera betikotzeko. Litekeena da gai baten inguruko bibliografia guztia ingelesez baino ez egotea, baina gai horretaz espezialduko diren euskal profesionalek Euskal Herrian, euskal gizartean murgilduta egin beharko dute lan, eta horretarako euskara ezin alboratuzko lanabesa izango zaie nahi eta nahi ez. Bi premisa horiek egoki uztartzean datza erronkaren arrakasta.

- 3.- Lehen aipatu ditugun arrazoiak direla-eta, jakin badakigu gurea baino iritzi sendoagorik badagoena, euskal unibertsitatearen zer-nolakoaz eta hara heltzeko egin beharreko pausoez dihardugula. Dena dela, gauza bat nabarmendu gura genuke: teknologia berriek eta munduan irakaskuntzaren arloan indarrean dauden joerek unibertsitatea ulertzeko orain arteko moduak kolokan jarri dituzte, eta begien aurrean ditugun aukerak izugarri ugaltu. Orain arte, unibertsitateaz hitz egiten genuenean, honako hau zen gutxi gorabehera burura zetorkigun irudia: eraikin erraldoia, irakasle eta ikasle kopuru handia duena, non eskolak era klasikoan ematen diren (irakasleak esan eta ikasleek aditu) eta inbertsio izugarria eskatzen duena. Gaur egun badakigu gauzak ez direna derrigorrez horrela izan behar, eta hori gure helburua lortzeko baliatu beharreko abantaila handia dugu, dudarik gabe.¶



Joseba Agirreazkuenaga

1.- Une honetan, EHUUn behintzat, Unibertsitateko lehen eta bigarren zikloko ikasgaiak euskaraz irakasteko gai garelakoan nago. Baina, jakina, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez buruturikoa baino xumeagoa eta murriztagoa litzateke. Euskaraz landu ahal diren kreditu akademikoak oinarri-oinamizkoa liriateke. Akademikoki ez dago beraz arazorik, eta, hein handi batean, EHUUn lortu dugu. Hautazko kredituen arloan, aldiz, euskarazko eskaintza ez litzateke hain zabala izango, baina imajinazioari ekinez, enpresa publiko eta pribatuko baliabideak erabiliz, txukunago izango litzateke eskaintza. Baina 2002ko euskal unibertsitarioak hiru hizkuntzetan ikasgaiak lantzeko eta ikasteko gauza izan behar du. Euskal Herriko Unibertsitatean %21ek baino ez du euskaraz ikasgairen bat egiten eta, uste dudanez, euskal hiztunen kopurua goragokoa da. Euskal unibertsitatearen lehen helburua kopuru hori %50era igotzea litzateke, Euskal Herriko Unibertsitatea euskal unibertsitatearen ildoan bideratzeko.

Hirugarren zikloari dagokionez, euskaraz burutzeko, aldiz, ez dut uste oraindik orain arlo guztietan prestatu gaudenik. Euskaldunen kopuru kritikorik ez dugu lortu, hau da, ez dugu eskakizunik hirugarren zikloan euskarazko eskaintza ohizkoa bihurtzeko. Kasu honetan, edukien araber, erritmo desberdina izan beharko genuke. Hala ere, ziklo honetan bestelako hizkuntzetan aritzea premiazkoa da.

Unibertsitatea esaten dugunean hezkuntza sistema ulertzen dugu. Juridikoki posible da euskal unibertsitatea eta bideratzen ari gara EHUUn behintzat. Etorkizunari begira, demografikoki ez daukat hain argi ikasleriarik ote dugun euskaraz burutzeko. Ezin ahaztu unibertsitatea hautazkoa dela.

Baina argi gera bedi! Ikastolen ereduazko euskal unibertsitateaz ari naiz, ikastolak eleanitzak bihurtu diren ga-

raikoak eta ez 1975ekoak alegia. Ikastoletan hiru hizkuntza erabiltzen badira edukiak lantzeko, universitasen baitako euskal unibertsitatea lortzeko premiazkoa dugu euskal unibertsitatean ere beste horrenbeste egitea ziklo guztietan. EHUren baitan euskal unibertsitatearen egitasmoa ez da etorkizuneko, abian dugun gaur egungoa baizik. Baina dekretuak alferrikakoak lirateke euskal komunitate unibertsitariorik gabe.

2.- Euskal Unibertsitatearen proiektuak onurak eta abantailak ekartzen dizkio euskal komunitateari. Lurraldez juridikoki bere esparrua zein den nire ustez azken arazotxo baina ez da. Unibertsitateen arteko lankidetzat da garrantzitsua, eta desberdinak izatea onuragarria da Euskal Herriarentzat. Edukiz euskal izatea da arazo nagusia, euskal komunitatea zazpi herrialdeetatik at ere badago egon eta.

3.- Epe laburrera, adibidez, Euskal Herriko Unibertsitatean ikasle guztiak kredituren batzuk euskaraz burutu behar izatea aurrerapausorik nabarmenena litzateke euskal unibertsitaterantz, unibertsitate eleanitzaren baitan. Euskalgintzan, argi eta garbi, unibertsitate publikoa da erantzukizun nagusia hartu duena, eta gaurko euskal hiztunen kopuruari begiratu gero ez dago beste irtenbiderik. Oraindik, tamaina eta prestakuntza irabazi behar dugu unibertsitateko gaiak euskaraz lantzeko, euskal komunitate unibertsitario sendoa eratuz. Aurrekontuari begiratu euskalgintzaren aldekoa bideragarriagoa eta berezkoagoa litzatekeelako gure gizaratean.

Aldi berean, «College» bezalako izaera pribatukoak lehen eta bigarren zikloko zenbait unibertsitate lerro lantzeko posible eta beharrezkoak dira, eta bide horretan ekitea erabat praktikoa. Baina delako College horietan ere eleaniztasuna premiazkoa litzateke. Hirugarren zikloan aritzeko Fundazio edo College berezia ere, pribatua alegia, ondo legoke, arlo batzuk baino ez lantzeko izan arren, adibidez humanitateak eta gizarte zientziak.

Azken batean, etorkizuneko munduan profesionalizatze ganorazkoa lortzeko, eleaniztasuna ezinbestekoa du-

gu. Gure gizartearen eta inguruko gizarteen izaera arakatzeari ez dugu. Ikerkuntzan eta unibertsitatean bertan aritzeko, zer esanik ere ez dago.

Irakaskintza birtualak malgutasuna erakusten du eta beste aukera bat da. Egitear dugun proiektua da Euskal Herriko Unibertsitate zabala edo irekia.

Laburbilduz, euskal unibertsitatearen egitasmoak helburu bi landu beharko lituzke: alde batetik, ahalik eta ikaslerik gehien kredituren batzuk euskaraz lantzerantz bideratzea Unibertsitateko bere jardunean. Bestetik, ekimen kualitatiboan, lerroka, lehen ziklo bietan oinarritutakoak eta hautazkoak diren ikasgaiak euskaraz burutzeko aukera bermatzea. Hizkuntza gutxitua garenez, ez dugu zalantzarik izan behar etorkizunean ere geure ekimenez baino ez dugula euskal unibertsitatearen egitasmoa aureratuko, eta une honetan isileko etenbako oihartzun handiko lana dugula premia-koena. ♪



Mikel Aizpuru

- 1.- EIREko Kongresuan emandako datuek erakusten dutenez badago masa kritiko nahikoa Euskal Unibertsitatea sortu ahal izateko, kopuruari erreparatu badiogu, behintzat, 1.200 irakasletik gora eta 25.000 ikasle inguru ari baitira euskaraz lanean une honetan Euskal Herriko unibertsitateetan. Behe-mailetakoa irakaskuntzaren datuen bilakaerak ikasle euskaldunen etengabeko hazkundera iragartzen digu, eta alde horretatik ez dirudi arazo asko egongo litzatekeenik ikasleak lortzeko.

Bestelako kontua da ikasle eta irakasle horien gaitasun eta praktika linguistikoa; nabarmena baita, gutxienez nire ikasle askoren artean, gaztelaniara jotzeko joera eta adar euskalduneko irakasle ugari euskara beren klaseetan bakarrik erabiltzea. Unibertsitate euskaldun bat sortzeak

konpaktazio-efektua edukiko luke, kasurik onenean. Irakaskuntza-materialaren urritasuna ere oso nabaria da arlo guztietan. Hots, bihar bertan lortuko bagenu Euskal Unibertsitatea, klasean erabiliko liratekeen eskuliburu gehienak gaztelaniaz egongo lirateke.

Gauzak ez dira hobetzen baldintza politikoak eta juridikoak aztertzen ditugunean. Gaur egun, legez, ezinezkoa da, baldin eta europar izaerako unibertsitate-erakunderen bat sortuko ez bagenu, Euskal Herri osoa hartuko lukeen unibertsitatea sortzea; Nafarroa eta EAE bilduko litzatekeena ere ezinezkoa litzateke. Are gehiago, EAEko Euskal Herriko Unibertsitatearen zatiketa ezinezkoa izango litzakete, erkidego honetan indarrean dagoen legedia aldatu gabe. Alde horretatik, ia inorengan ikusten ez den borondate politikoa beharko litzateke unibertsitate berria eta euskaraz funtzionatuko lukeena sortu ahal izateko. Bi dira aukera hori eragozten duten faktoreak: bata Euskal Herriak bizi duen egoera politikoa, oinarritzko adostasuna ezinezko egiten duena eguneroko bizitzaren gai gehienetan. Bigarrena, une honetan Eusko Jaurlaritza osatzen duten alderdien jarrera eta ahalmena. Talde horien une honetako apustua gizarte eta unibertsitate elebidunaren aldekoa da. Ez EAJk, ez EBk, ezta ziurrenik EAK ere, ez lukete onartuko unibertsitate berri baten sorrera, EHU lurraldeka antolatutako hiru unibertsitatetan zatitzea behin eta berriz plazaratzen denean. EHU hizkuntzaren arabera zatitzeak ez luke adostasun gehiago sortuko; elebitasuna auzitan jartzeaz gain, UPV erabat sektore antiabertzaleen eskuetan uzteko arriskua izango lukeelako eta desoreka nabarmena egongo litzatekeelako bi unibertsitateen baliabide eta kopuruen artean.

Badago gainditu beharreko azken esparrua, gizartearena. Ez da nahikoa masa kritikoa edukitzea. Masa horrek, irakasle eta ikasleek, prest egon beharko luke unibertsitate berri horretan parte hartzeko, eta ezezko asko egongo litzatekeelakoan nago. Euskal Unibertsitatearen aldarrikapena, nagusiki, joera politiko jakin batekin lotu izan denez, irakasle asko beldur da erakunde berria joera horren lan-esperamu bilakatuko ez ote den. Guraso askok, beren aldetik,

ez lukete onartuko seme-alabak istilu ugari eduki lezakeen unibertsitate batera bidaltzea, ezta lan-merkatuan bigarren mailan geratzeko arriskua eduki lezakeen erakundera.

2.- Euskaldun baten ikuspegitik Euskal Unibertsitateak, teoriarik, onurak baino ez lituzke izango. Gaur egungo abantailak biderkatuko lirateke, era honetan irakaskuntza sistema osatua edukiko genuke eta profesional euskaldunen prestaketa indartuko luke. Euskaraz funtzionatuko lukeen gune garrantzitsua izango genuke, bestetik, EAEko kasuan administrazioan oraindik sortu ez den moduan. Gaur egun, nazioarteko zientzia-sisteman integratutako irakasleek ez lituzkete galduko harreman horiek, are gehiago, indartzeko aukera izango lukete. Ghettoaren arriskua badago, baina gehiago lotuko nuke bere kideen joera eta jarraera politikoekin, eta ez hainbeste hizkuntzarekin.

3.- Arestian idatzitakoak irakurri ondoren, nekez pentsa daitezke egingarria dela epe motz edo ertainean Euskal Unibertsitatea, Euskal Herri osoa hartuko lukeen Unibertsitate fisikoki berri moduan ulertzen badugu behintzat. Une honetan horrelako unibertsitatea esku pribatutik edo nahi bada herri-ekimenetik baino ezin da etorri. Baina, nork bidera dezake horrelako proiektu bat? Non lortuko du beharrezkoa den diru-kantitatea (2-3 milioi euro gutxienez lehengo urterako, eraikuntza alde batera utzita)? Non bilatu legeek finkatzen dituzten baldintza zorrotzak (doktore-kopurua adibidez) beteko dituzten irakasleak?

Euskal Unibertsitatea eraikitzeke aukerak handiagoak izan daitezke bere ezaugarriak beste era batera definitzen baditugu. EIREk bere Kongresuan, adibidez, «euskarazko unibertsitate modura» definitu du eta «euskaraz egiten den unibertsitate irakaskuntza, ikerkuntza, kudeaketa eta egitura oro hartzen ditu bere baitan». Ikuspuntu horretatik abiatuz Euskal Unibertsitatea une oro eraikitzen ari den egitura izango genuke, eta aurreko bideak itxita dituen ate asko zabalik izango lituzke.

EIREk emandako definizioaren emaitzak antzuak eta mugatuak izango lirateke, ordea, gaur egungo unibertsita-

te-gune bakoitzaren garapenera mugatuko bagina. Bigarren galderaren erantzunean azaldu ditudan abantailak lortu nahi baditugu, ezinbestekoa da euskaraz lan egiten duten guneen koordinazioa eta elkarlana. Lankidetzak arlo eta esparru desberdinak jorratu behar ditu; errazena testugintza, materialen prestaketa eta irakasleen formazioa ditugu. Badago zailtasun handiegirik gabe jorra daitekeen beste bide bat: graduondoko irakaskuntza (UEU hasi da lanean bide horretan). Gure munduan gero eta garrantzi handiagoa duen etengabeko prestakuntza esparru egokia dugu unibertsitate desberdinetako irakasle eta ikasle euskaldunak biltzeko eta elkarrekin lanean aritzeko. Elkarlanaren hurrengo maila Urruneko Unibertsitatea edo, zehatzago esanda, Unibertsitate Telematikoa izan daiteke. Azaletik ezagutzen badut ere, urrutira jo gabe oso adibide aproposa dugu Kataluniako Generalitateak sortutako Unibertsitat Oberta de Catalunya (UOC). Finantzazio publikoko erakunde pribatu horrek pertsonal propio gutxi dauka, baina lurralde hartako unibertsitateetako irakasleekin sortutako harremani esker, ikasketa asko eskaintzen ditu eta zabalkunde handia izan du azkeneko urteetan. Horrelako zerbait egiteko Euskal Herrian, Eusko Jaurlaritzak ez du muga legalik EAEn; edozein tokitatik lotzeko modua izango lukete ikasleek; gastuen aldetik, unibertsitate presentzialak baino askoz ere txikiagoak edukiko lituzke; eta EHUren izaera eta egiturak aldatzen ez direnez, ez luke bestelako arazorik gaur egungo unibertsitatearen agintariek. Bide egokiagoa edota gutxienez egingarriagoa dirudi, nahiz eta unibertsitate berria gustukoagoa izan askok, neuk barne.¶



Kepa Altonaga

Orga idien aitzinean, baina zelako idien aitzinean?

Euskal Unibertsitatearen inguruan ez nau horrenbeste arduratzen ea zer-nolako *erakundea* gauzatu beharko genukeen. Nire aspaldiko kezka, izatez, euskal unibertsitate hori hezurramituko duen *komunitatea* da, alegia, jakintza euskaraz landuko duen giza taldea; lañoki esanez, balizko unibertsitate horretan arituko lirатеkeen ikasle-irakasleak.

Irakasleek luzaroan sortu didate ezinegona. Hortik etorri da nire kezka nagusia, irakasleen bizkar joaten baita ikerkuntza eta irakaskuntzaren zama gehiena, eta bai eskuliburuaren idazketa ere. Fisika nuklearra euskaraz irakastea posiblea zen eta da, jakina, baina ez da erraza jakintza-alor guztietan aditu euskaldunak edukitzea. Izan ere, euskal unibertsitateari begira hor dugu gainditu beharreko oztopo handienetako bat: edozein diziplinatarako irakasleak. Alde horretatik asko aurreratu da, eta gaur-gaurkoz milatik gora dira Euskal Herriko unibertsitateetan irakasgairen bat euskaraz azaltzen duten irakasleak, gehien-gehienak UPV-EHUn.

Nolanahi ere, sasoi batean Goirienak, orduko UPV-EHUko errektoreak, «zenbait asignatura jakinetarako ez dugu aurkitzen kualifikazio handikoa izateaz batera euskara menperatuko duen irakaslerik» zioen bezala, Manu Montero egungo errektoreak beste horrenbeste diotzu hainbeste urteren bueltan. Eta ezin da bestela izan, euskaraz arituko diren irakasleak prestatzeko ganorazko plangintzarik inon egon ez denean. Ereiten ez denean nekez biltzen da uzta oparoa, eta ikuspegi horretatik Paleolitotik irten eta Neolitora igaro ezinik gabiltza. Edozelan ere, irakasle-eza nabarmena dugu hainbat alorretan.

Daukagunari erreparatuta ere, ezin dugu ahaztu irakasle-multzo hori ia-ia gauetik goizera inprobisatu dela.

Hau da, gaztea da gehienbat eta jarrera positiboa du oro har, baina oso lan-baldintza eskasetan aritzen da, hainbat eta hainbat zailtasun aurkitzen baititu: dela jakintza-alor gehienetako euskarazko tradizio-falta, dela irakasgai desberdinak aldi berean azaldu beharra, zein eskolen prestaketan ordu asko eman beharra, edo tesia egiteko (eta, beraz, norberaren promoziorako) denbora-eskasia, eta beste.

Gaztetasun horrek badu bestelako ondorioak: euskal irakasleak ez daude ondo kokatuta aginte-guneetan, eta hori, zer esanik ez, oso garrantzi handikoa da hartzen diren erabakiei begira, edozein mailatakoak direla. Adibidez, ikasketa-planen aldaketa zein irakasle berrien kontratazioak eta beste makina bat kontu, euskaraz diharduten irakasleen eraginpetik kanpo gelditzen dira, eta sarri askotan bestelako «optikak» dira garaile ateratzen direnak. Esate baterako, UPV-EHUko kontratazio berrietan sarritan gertatzen da, euskararen interesak barik, departamentu-interesak lehenesten direla, lanpostu elebidunak plantilla handitzeko zirrikitu ia bakarra direnetik hona.

Arazoak arazo, kontua da irakasleen eredugarritasuna nahikoa zalantzazkoa izaten dela, nahi baino sarriago.

Ikasleen kontuak bestelako bidea egin du nire golkoan. Sasoi batean ez ninduen larregi kezkatzen ikasle-kopuruaren laburrak, izan ere, denbora aurrera joan ahala kopurua dezente handituko zela adierazten zuten aurreikuspen gehienek. Halaxe suertatu da: ia hogeita bost mila ikasle ditu euskarazko komunitate unibertsitarioak. Halandaze, iritsita ei gaude euskarazko unibertsitate bat sortzeko masa kritikoraino, eta horrek nola-halako euforia ekarri du plazara, neuk behintzat ederretsi ezin dudana. Izatez, momentu honetan ikasleen aldetik dator nire kezka nagusia, eta, areago, egoera nahiko ezkorrean nauka. Arrazoiak era bitakoak dira.

Alde batetik, euskal lerroetako ikasleen euskara-mailak ez du baikortasunerako leku handiegirik uzten. Horixe ondoriozta daiteke bost ikasturtetan zehar UPV-EHUko leerro euskalduneko ikasleekin buruturiko azterketatik. Fakultateka, karreraka eta ikasmilaka aztertu ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak euskal lerroetako ikasleen euska-

ra-maila, 92-93 ikasturtean hasi eta 96-97 ikasturtera arte. Emaitzak bihotz-erdiragamiak izan dira urte batean bai, eta hurrengoan ere bai. Esate baterako, Biologiako ikasleen artean, soilik %34k eduki zuen EGA tituluari dagokion euskara-maila 96-97 ikasturtean; urtez urteko emaitzak hauek izan ziren: %34 (92-93), %31 (93-94), %36 (94-95), %40 (95-96), %34 (96-97). Aldeak alde, oso antzerako emaitzak lortu ziren leku gehienetan. Konparaziorako, ikus ditzagun EGA mailadun ikasleen ehunekoak Informazio Zientzietan: %46 (92-93), %37 (93-94), %33 (94-95), %36 (95-96), %26 (96-97). Beste makina bat datu eman daiteke, baina bihotza lurreraino eroriko litzaiguke. Baten batentzat azken esperantza izan daitekeena ere lorrinduta dugu: Euskal Filologiako ikasleen artean soilik %34k eduki zuen EGA maila 96-97 ikasturtean (adi: EGARI dagokion maila esaten ari gara, eta ez EGA titulua edukitzea).

Negarria da: unibertsitatean euskaraz ari diren ikasleen ezta erdiek ere ez dute EGA mailarik. *Ikasle horiek unibertsitate mailako buru-lanak eskatzen duen zorroztasunez eta fineziaz hitz egin eta idazteko gaitasuna izatea, ez da batere probable* irakur daiteke urtez urteko emaitzen txostenetan. Oso zalantzakoa da, beraz, ikasle gehienen gaitasun linguistikoa, unibertsitateko jardunak eskatzen duen abstrakzio-mailan erosotasunez aritzeko. Hori horrela delarik, zer da, ba, benetan jazotzen ari dena euskal lerroetako irakaskuntzan? Zenbat dira, izatez, *euskaraz* ikasten ari direnak?

Nolanahi ere, emaitzok are eta okerragoak izan zitezkeelakoa daukat. Sarritan espekulatu da ea zer gertatzen den unibertsitateko hautaprobetara euskaraz aurkeztu, eta gero erdaraz matrikulatzen den ikasleen %10arekin. Hainbat azalpen plazaratu badira ere, nire ustez norberaren hizkuntz gaitasunaren eskasiaren kontzientzia izango litzateke «desertzio» horien arrazoi nagusia.

Beste ohar etsigarri bat erantsi gura dut. Askotan entzuten dugunez, Euskal Unibertsitatea, berez, gure hezkuntza-sistema propioaren goi-erpina osatzera etorriko litzateke. Erpinaren gaineko gogoetan dihardugun arren, oso kezagarria iruditzen zait ikasle horiek hainbeste urtez euskaraz ikasi eta gero horren euskara-maila eskasa

edukitzea. Zerk egin du huts irakaskuntzaren behe-mailetan, unibertsitateraino iritsitako ikasle gehienek hain euskara narrasa erakuts dezaten?

Kantitatea eta kalitatea atzean utzita, badago ikasleei dagokien beste arlo bat nire ezkortasuna naharo elikatzen duena, hain zuzen ere, hizkuntzarekiko atxikimendu txikia.

Hasierako urteetan ikasleak gutxi izaten ziren eta euskaraz eskolatubakoak, baina euskaldun gogotsuak, hori bai. Gaur egungo ikasle gehien-gehienek euskaraz burutu dute ikasketa-prozesu osoa, baina geletan eta karrajuetan erdaraz entzungo duzu para-para. Izatez, erdararen erabilera asko nabarmendu da azken urteotan fakultateetan, eta fenomeno arraroa eta isilgordekakoa izaten zena guztiz natural bihurtu da, ia berezkoa talde batzuetan. Ikasgelako asanblada erdaraz ikusita nago ni neu.

Hainbat azalpen egon daitezke euskararekiko atxikimendu-falta horretarako, soziologikoak-eta, baina, unibertsitatea ez da ikastola, edo ez luke izan beharko behintzat. Unibertsitateko ikasleak pertsona helduak dira, argiak dira, eta kontsekuenteak ere. Eta horietako askok erdaraz egiten dute euskal taldeetan. Erabilera hori are eta deigarriagoa suertatzen da lerro euskaldunen errebindikazioen aldeko erradikalismoa-edo ikustean; ze, baldin eta (Joseba Sarrionandiaren hitzetan esateko) euskara bada gure territorio libre bakarra, orduan zergatik ez gerizatu territorio horretan eta euskaraz egin? Zergatik urruntzen da ikasleen praxi librea aldarrikatzen duten kontsignatik? Kontuak kontu, erdaraganako joera indartsu horrek barru-barrutik pipiatuko luke Euskal Unibertsitatea.

Laburtuz, aspaldi honetan nahikoa sinesgogor nago Euskal Unibertsitatearen epe ertaineko erakundetzearen gainean, zeren, gaur-gaurkoz eta besteak beste ikasle eta irakasleen gaineko datuek ez baitute, nire ustez, horretarako garantiarik eskaintzen, kontrakoa baino. ¶



Mila Amurrio, Jose Inazio Basterretxea,
Ane Larrinaga, Txema Ramirez de la Piscina

1.- Euskaraz arituko litzatekeen unibertsitatea eraikitzeko gai bagara. Esparru akademikoan, arlo ugari dira beharrezkoa den irakaslegoa prestaturik dutenak, gaur bertan. Giza eta Gizarte-zientzietan jende prestua eta jantzia badago —irakasletza- eta komunikazio-ikasketan (beste batzuen artean edozein gizartetan estrategikoak diren arloen arteko bi horietan, adibidez) euskal lerroek tradizio handia daukate—. Bestelako zientzietan, agian, gaur-gaurkoz, irakasle/ikasle kopurua murriztagoa da; hala ere, epe labur batean, gaurko euskal ikaslegoa eta irakaslegoa trinkotzen diren heinean, egingamitasuna hurbilago dagoela ematen du.

Marapila juridikoak eurak ere erraz aska daitezke, baldin eta Euskal Unibertsitateak aterpe publikoa bilatzen baldin badu, baldin eta egungo EHUn markoaren baitan sortzen baldin bada, campus autonomo gisa antolatuturik.

Beste askoren artean, arrazoi ekonomikoak ere badaude EHUn baitatik sortzeko unibertsitate euskalduna: egiturak nahiz giza-baliabideak hortxe daude —ikasle eta irakasle euskaldunak EHUn daude beste inon baino gehiago—. EHUn arrautza erruteak zerotik abiatu behar ez izatea bermatzen digu. Hankak lurrean jartzeak —pragmatismoak nahi baldin bada— honoko hauxe eskatzen du: euskal unibertsitatea EHUn erditzea, horixe baita bideragarriena.

Demografia bera ere gure alde dator. Egia da epe labur batean, ikasle kopurua, zenbaki absolutuak kontuan hartuta, behera etorri dela —eta halaxe jarraituko duela hamar-kadaren batean edo—; baina hori bezain egia da euskaldunek gero eta presentzia portzentual eta absolutu handiagoa garatu dutela unibertsitatean —eta horrek ere horrela segituko du baldin eta lehen eta bigarren hezkuntza sistemek orain arte bezala funtzionatzen baldin badute—.

Euskaraz arituko litzatekeen unibertsitatea eraikitze-ko gai bagara, izan; dudarik ez dago. Ikasleria badago. Irakasleria badago. Eskaria badago. Hazia hartuko lukeen baratza ere badago.

- 2.- Euskaraz arituko litzatekeen unibertsitatea onuragarria litzateke, erabat. Ze kalte dakarkioke gizarte eleaniztuna izan nahi duen bati hizkuntza-komunitate bateko kideek hezkuntza-sistema bere osotasunean euren hizkuntzan izateak? Kalterik al dakarkie erdaldunei erdaraz ikasi ahal izateak? Euskal hizkuntza-komunitatearen premia ugariri egoki erantzutea ahalbidetuko luke euskaraz funtzionatu-ko lukeen unibertsitate batek.

Beldunik ez: euskaraz biziko den unibertsitatea eraikitzea ez da ghettoa sortzea. Kulturantzitza izatea eskatzen dio bere buruari gizarte modernoak; bada unibertsitate-sistema igualitario eta aurreratu batek kulturantzitasunaz eta eleaniztasunaz eztabaidatzeaz gainera, horiek biak praktikan jarri behar ditu etxe barruan.

Kontua ez da hizkuntza unibertsitatean normalizatzea; ezpada, unibertsitatea bera normalizatzea, komunitate linguistiko desberdinen beharizanen arabera. Ez da euskararena hutsa, unibertsitatearena berarena baizik, euskararekiko. Eta gizarte-zorrak kitzatzea onuragarria da.

Diglosia eta sasitutelajearen aurrean, euskaldunok eredu autozentratua nahi dugu: espazio sozial autonomo bat non hizkuntza minoritarioa, euskara, zentrala izango baita.

Oro har, demokrazia eta berdintasuna nahi ditugu egungo gizartea gidatzeko, balio sozial handiko hitzak dira horiek biak mundu aurreratuetan. Demokrazia eta berdintasun linguistikoak errebendikatzen ditugu guk unibertsitate euskalduna sortzeko unean. Komunitate linguistiko batek duena besteak edukitzeak ez luke inor mindu beharko, alderantziz baizik. Eta berdintasun linguistikotik dator gizarte-onuretarik handienetako bat. Beste bat, komunitate bakoitzari duintasun soziala aitortzetik eta praktikatzeko aukera ematetik.

Onuraren izenean, bada uxatu beharreko beste beldur bat: multzo hutsarena. Alegia, EHU ez litzateke euskal

irakaslez nahiz ikaslez hustuko, baldin eta euskaraz arituko litzatekeen unibertsitatea —campus berezitu eta autonomo hori— bere baitan sortuko balitz. Indar dozentea hobeto antolatu ahal izatea lekarke horrek, gainera.

3.- Euskal unibertsitatearen izaera eta estrategia. Horiek dira betiko gakoak. Urrun ditzagun mamuak eta egin dezagun argi berba.

Izaera publikoa beharko luke izan unibertsitate euskaldunak. Oinarrizko hezkuntza-sistema publikoak ongi erantzuten dio euskaldungoari, D ereduaren arrakasta hor dago. Euskaldunak zergak ordaintzen ditu, eta erakunde publikoek zor diote unibertsitatea. Unibertsitate euskalduna, beraz, izan dadila publikoa: denon artean kontrolatu ahal izateko bere jarduna; eta, gure ustez, EHUK izan behar du abiapuntua.

Euskaraz biziko den campus autonomoak beste unibertsitate, eskola eta hezkuntza- nahiz prestakuntza-erakundeetako euskal lerroekiko harremanak garatu beharko lituzke modu preferentzial batean; beste unibertsitateekikoak ahaztu gabe: euskaldunak gara, berebat unibertsalak.

Euskarazko campus autonomoaren zeru-mugak herri euskalduna du bere helburuan; euskalduna bizi den erki-degoa ez dadila arazo izan, berdin dadila ikaslea edo irakaslea hegoaldekoa zein iparraldekoa izatea, mendebalekoa nahiz ekialdekoa.

Hasteko, euskaraz funtzionatuko lukeen campus autonomoa eraiki beharko litzateke, oraingo unibertsitate-egituren babesean. Hasteko, giza eta gizarte-zientzietan jarri beharko luke abiaburua; berehalako batean bestelako zientziak eta teknologia-ikasketak bereganatzekotan.

Epeak ere marka daitezke: bi urte letretarako, lau zientzietarako. Arrazoa? Legedi berriaren arabera hautatuko den EHUKo hurrengo errektoreak mahai gainean edukiko dituen zeregin estrategikoen artean lehentasunezko baten moduan euskal campusaren sorketaren gaia izan dezan. Eta Jaurlaritzako hirukoak ondare dozentea eta ikertzaile estrategiko aparta utz dezan euskaldunon eskuetan hauteskunde berrietarako deia egin aitzin.

Unibertsitate euskaldunak bere eraikin propioak behar lituzke. Ez basoan, ezpada hirian, kalean. Pragmatismo unibertsitarioak euskal unibertsitatea hiriguneetara eramatea eskatzen du, eta lekuak badaude.

Hona proposamen bat. Unibertsitate euskaldunak hiria konkistatu behar du, Bilbo da inguruko hiririk urbanoena, eta gaur modan dago, nola Euskal Herrian hala mundu zabalean. Bestalde, Bilbo bere ibaiertza berrantolatzen ari da, gizarte urbanoarentzat berkonkistatu gura ditu eremu enblematiko izandako horiek —enpresagune karakteristikoak izandako horiek—. Bada, jar dezagun hor euskal unibertsitatearen lehen harria.

Euskal unibertsitatearen izaeraz galdetzen zaigu behin eta berriro, hona erantzuna modu laburrean: publikoa, autonomiaduna, demokratikoa, partizipatiboa, bere curriculum eta ikasketa-lerro propioak sortzeko ahalduna, moderna eta europarra.

Ausarda politikoa baino ez da behar. Gogoia badago. ¶



Baleren Bakaikoa

- 1.- Euskal Unibertsitatea sortzearen alde nago, nahiz eta zenbait ñabardura egin behar diren. Akademi ikuspegitik jakintza arlo guztiak ezin izango ditu bere gain hartu unibertsitate honek; beraz, tituluak aukeratzekoan arreta handiarekin aritu behar da, merkatuaren bilakaera ongi aztertu beharko baita porrotik ez dadin egon.

Borondate politikorik baldin badago Euskal Unibertsitatea sortzeko, alderdi juridikoak gaintzea ez da arazo, ekonomikoak izango ez diren bezala. Baina egoera horretara heltzeko, euskal gizartearen eragileek bultzatu edo presionatu behar dituzte erakunde politikoak unibertsitatea gauzatu dadin, baita finantzabideak proposatu ere. Azken atal honi dagokionez, diru iturri mistoak izan behar-

ko ditu, pribatuak eta publikoak. Lehenengoak, batik bat, unibertsitatearen bezeroek ordaindutakoak eta fundazioen bidez erdietsitakoak izango dira.

Arazo politikoa, gauzak aldatzen ez diren bitartean eta epe ertainean ez dirudi honela izango dela, Unibertsitateen (Koordinakundea) Kontseiluan egongo da. Izan ere, Unibertsitate bilakatzeko onespena Kontseilu honi dago-kio eta organo honek, normalki, oztopo ugari ipintzen du, are gehiago publikoa ez baldin bada. Eta ez dut pentsatu nahi ere zer-nolako eragozpenak egongo diren hizkuntza nagusia euskara izango delako, nahiz ingelesa ere hizkuntza arrunta izan beharko lukeen, garaiok eskatzen duten legez. Beraz, ez da lan makala izango onespén hau lortzea, Espainiarekiko harremanak honetan dirauten bitartean.

Euskal gizartearen eragileen artean, *Udako Euskal Unibertsitateaz* gain, gutxienez, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Ikastolen Elkartek, euskararen munduko erakunde gehienek edo Kontseiluak ordezkaturakoak eta abar egon behar lukete unibertsitatearen proiektua bideratu ahal izateko. Gizarte erakunde hauek osatu behar dute Euskal Unibertsitatearen Kontseiluaren *nukleo gogorra*. Erakunde horiez gain, langile sindikatuak eta enpresarien ordezkariak ere bertan inplikatu behar dira.

Arazo handiena demografiaren bilakaeran ikusten dut. Unibertsitateko ikasle kopurua izugarri murriztu da, eskaintza ugaldtu den bitartean. Halaber, Lanbide Heziketara doan ikasle kopurua ere kontuan hartzekoa da azken zifrek adierazten duten bezala. Beraz, ikasleak erakartzeko lehia gogorra izateko prestatu beharko da Euskal Unibertsitatea, are gehiago euskararen aldeko militantzia behera egiten ari dela nabarmentzen delako. Ikasleria, normala denez, eta gaur egungo administrazio publikoen egitura, epe ertain-luzean, aldatzeko modu errealistik ikusten ez dudanez, EAEkoa izango litzateke gehiengoa, baina Iparraldetik eta Nafarroatik erakartzeko bideak ireki beharko lirateke.

- 2.- Hezkuntza sistema osaturik geratuko litzateke, hizkuntza-
ren normaltasunari dagokionez. Euskal Unibertsitatea eus-
kal sistemaren erdigunean kokatuko genuke, publikoa ez

dena, ezta pribatua ere, *parte-hartzailea* baizik. Honela, unibertsitate publikoak EHU, UPNA eta Iparraldekoa (sortzen baldin bada) izango lirateke. EHUri dagokionez, eta gaur egun daukagun unibertsitate publiko garrantzitsuena denez, elebiduna eta publikoa izaten jarraitu behar du, erakunde legitimatzaileak behar baitira gaur egungo ongizateko estatuan, eta unibertsitateak, pertsona kualifikatuak prestatzeaz gain, aipatu paper legitimatzaile hori ere bete behar baitu. Gainera, gaur egungo euskal irakasle gehienak ez lirateke prest egongo Euskal Unibertsitate-rantz jauzia egiteko.

Unibertsitate publiko elebiduna edukitzeak unibertsitateen arteko lehia areagotuko du eta hori onuragarria izango da ikasleentzat, sistemak eta irakasleagoak etengabe bermitzen eta jakintza eguneratzen aritu beharko baitute. Hala ere, Euskal Unibertsitateak arretaz jokatu beharko du ikasketa planak zehazterakoan, finantza baliabideak urriak direlako eta eskaintza publikoa eta parte-hartzailea ezin direlako bata bestearen gain jarri.

Euskal Unibertsitateak, hasiera batean bederen, eskaini behar lituzkeen titulazioek giza- eta gizarte-zientzietan oinarrituak egon behar dute, giza kapital asko eta kapital fisiko eta teknologiko (laborategiak garestiak dira) gutxi eskatzen dutenak. Lehentasuna iraupen laburra eskatzen duten ikasketek izango dute, nahiz lizentziatuentzat eta hirugarren zikloarentzat ere irekita egon behar duten.

Euskal Unibertsitatearen abantaila nagusia bere malgutasunean egongo da. Izan ere, unibertsitate publikoan tituluen eskaintza aldatzeko prozesu konplikatuak burutu behar izaten dira. Aldiz, Euskal Unibertsitatean arras arin burutu daitezken tituluak izango dira, bi eskaintzetan, presentzian eta birtualean. Beraz, herrialde aurreratuetan ematen diren aldaketen gainean egon beharko da, berehala geure errealitatean ipintzeko. Hau izango da benetako abantaila, geure inguruan dauden eskaintzei aurre hartzea alegia.

- 3.- Euskal Herri osoan garatu den ikastola sistemaren erpin bilakatu behar du Euskal Unibertsitateak. Euskara oinarri

izango duen hezkuntza sistema osaturik geratuko da, baina beste hizkuntza garatuak bazterteke, batik bat ingelesa. Nire ustez, oinarrizko gaiak, lehen urteetan ematen direnak, euskaraz izan beharko liriateke eta hautazkoak eta espezialitatekoak, poliki-poliki, ingelesez eskaini beharko dira.

Izaera juridikoak eredu parte-hartzailea ahalbidetu behar du, eta formula egokiena *kooperatiboa* dateke, oinarrizko zentroak (jakintza arlo bakoitzeko zenbait titulazio) lehen mailako kooperatibak eta unibertsitatea bigarrenekoa. Honela, zentroetako maila guztietako *autokudeaketan* irakasleek, ikasleek (hautatutako ordezkariak) eta administrariak parte hartuko lukete. Sistema parte-hartzaile hau bidegarria dela deritzot; batetik, ikastolak ere antzeko ereduaren pentsatuta baitaude, nahiz eredu parte-hartzailea denboraren poderioz ahuldu den; bestetik, Mondragon Unibertsitateak eredu kooperatiboa hartu du. Gainera, autokudeaketa ez da oso zaila izango, neurri handikoa ezin baita izan aipatu Unibertsitatea. Hala ere, kooperatiba izateak ez du bermatzen parte-hartzailea izango denik; beraz, autokudeaketak etengabe sustatu beharreko zeregina izan beharko du Euskal Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluarentzat.

Euskal Unibertsitatea Gipuzkoako erdigunean kokatuko nuke: Azpeitia-Azkoitia tartean. Inguruan dauden eraikin erlijioso ugari erabil daitezke unibertsitatearen funtzionarako; eta ikasle batzuk urruti samarrekoak izango direnez, ikasle egoitzak ere egin beharko dira egunero etxeratzea zaila dutenentzat. Beraz, ikasleek eta irakasleek euskal ingurune aproposa izango dute, *euskal jakitunen historia* alegia, geure Krutwig lagunak amesten zuen bezalakoa.

Euskal Hezkuntza Sistema honen alboan, akademi aholkulari gisa, *Zientzien Euskal Akademiak* egon behar du. Berau, batik bat, euskal irakasle emerituek osatuko dute, eta zientziaren jarraipena egiteaz gain, testuliburu eta erakusteko material egokiak prestatu, arlo bakoitzeko kongresuak antolatu eta edozein motatako akademi lanak egiten lagunduko lukete. Era honetan, irakasle jubilatuek, gaur egun ez bezala, zeregin baikorra eta koordinatua izango lukete geure gizartean, eta aukera ona sinergia intelektualak jakintza maila hobetzeko. ¶



ELA

1.- Aurrean ditugun arazoei heldu baino lehen, geure erantzunak egokiak izan daitezen, heziketa sistemari buruz gure organizazioan jarre ren inguruko gogoeta labur bat egin behar dela uste dugu. ELA-Irakaskuntzan euskal gizartearen beharrei eta eskariei erantzungo dien heziketa sistema propio baten alde gaude. Sistema honek euskal hiritar orori kalitatezko heziketa bat ziurtatu behar dio, 0 urtetik aurrera eta bizialdi osoan zehar jarraipena izango duena, unibertsitate mailako irakaskuntza barne dagoelarik. Unibertsitatearena hezkuntzaren beste maila bat da, nahiz eta, dudarik gabe, berezko ezaugarri eta berezitasunak izan, bai eta orokorreko heziketa sistemaren barruan estatus zehatz bat ere. Ez baita ahaztu behar unibertsitateak izan behar duela gure gizartearen erreferente kulturalik nagusietariko bat.

Horiegatik «Euskal Unibertsitateaz» aritu beharrean, bat bakarra eta bereziaren ideia garamatzana, ELAn uste dugu praktikoagoa eta errealistagoa dela «Euskal Unibertsitate sistemari» buruz hitz egitea; eredu-sistema honek lurraldearen arabeko eremu desberdinetan garapen desberdina izan dezake, hala nola, diren errealitate desberdinen arabeko formulazio desberdinak ere bai.

Geurea, euskalduna, izango den unibertsitate-sistemarantz eman beharreko aurrerapausoak, gainera, anean dugun errealitatetik «abiatuz» soilik eman daitezkeela uste dugu, eta ez errealitate honen «aurka».

Sarrera honen ondoren eta euskara erabiltzen edo erabiliko duen unibertsitate bat, epe laburrean, eraikitze-ko gai ote garelako galdera zehatzari erantzunez, ELAren erantzuna baiezkoa da; gai izan behar dugu, unibertsitate hori eraikitzen gai izatera beharturik gaude, borondate desberdinak batuz eta denon laguntza eta esfortzuarekin: botere publikoak, gizartea, eta nola ez, unibertsitateko langileak, irakasle zein ez-irakasle izan.

Ildo honetan aurreratzeko gaur egungo egoeran oztopo eta zailtasun asko dagoela egia izanda ere, baikor izan gaitezen daturik ere badugu.

Dauden baldintzak aztertzekotan, indarrean dagoen esparru juridiko-legalak arreta berezia eskatzen du. Oraintsu onartu den «LOU» delako legeak mugatzen du bereziki esparrua; lege honek eremu unibertsitarioan Autonomia Erkidegoek dituzten eskuduntza urriak ezeztatzen ditu, beren unibertsitatea kudeatzeko eskubidea kendu eta, aldi berean, autonomia unibertsitariao murrizten du, Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan, zalantzarik gabe, geure berezitasun linguistikoa behar bezala lantzen eta euskara unibertsitateko hizkuntza bezala garatzen oztopatuko duelarik. Honen guztiaren aurrean botere publikoek erantzun gogor eta sendoa eman beharko lukete, gizarte mailako eztabaida zabal eta parte-hartzaile baten ondoren, geure gizarteak eskatuko ligukeen eredu unibertsitariao garatzeko beharrezkoak diren ekimen legislatiboak eskuratuz.

Aurrekoa honela izanda ere, nahiz eta gaur egungo esparru juridiko-legal baldintzapen bat izan, ez da ordea gainditu ezinezko oztopo bat; eta hortxe dugu Katalunian Autonomia Erkidegoaren eredu, non gaur egungo esparruak ez duen galarazi Katalunian unibertsitateak izaera katalan sendo bat izatea. Eta puntu honetan bete-betean sartzen gara gure ustez arazo honen inguruko alderdi erabakigarria denarekin: alderdi soziala, unibertsitatearen eta berau txertatzen den gizartearen arteko elkarrekintza.

Euskara normaltasunez erabiliko duen unibertsitatea eraikitzeke izango dugun gaitasuna erabat loturik dago euskal gizarte osoaren eremu orokorrean gertatzen denarekin. Gizartea bera izan behar da presionatuko duena, unibertsitate euskaldun bat eskatuko duena.

Eta zentzu honetan uste dugu badagoela gizartearen aldetik konpromisoren bat, epe laburrera gero eta nabariagoa izango dena, azken urteetako unibertsitate aurreko irakaskuntzaren matrikula datuen eboluzioaren ondorioz, non garbi ikusten den gaztelania hutsezko eredu atzerapena euskara duten eredu aurrean. Honela adibidez,

nabarmena da EA Eren eremuan A ereduaren ia 20 puntu-ko atzerapena B eta D ereduaren aurrean, nahiz eta onartu egin behar den oraindik ere desberdintasun handiak daukela lurralde, sare eta hezkuntzaren aldeen arabera.

Zuhurtzia guztiarekin bada ere, datu hauek itxaropena ematen digute; uste dugu, epe laburrean, unibertsitatearen aurretiko mailetan dagoen errealitatearen ondorioz, gizartearen bera izango dela unibertsitate euskaldun bat eskatuko duena.

Azkenik honakoa azpimarratu nahi genuke: honelako unibertsitatea ez da posible izango baldin eta zuzenki nahiz zeharka berarekin ahalbidetu behar duen pertsonala, hau da, irakaskuntzan eta ikerketan diharduen pertsonala hala nola administraziokoa eta zerbitzuetakoa, euskaldundu ez bada. Beraz, langile guztien euskalduntzea —ezagutza eta gaitasuna— bermatu behar da, hizkuntza normal-kuntzaren egitasmo integralak bultzatuz eta bere garapenerako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ezarrituz.

- 2.- Arestian aipaturiko ideiak berrartuz, Unibertsitate-sistema euskaldun bat osatzeak, azaldutako terminoetan, honako abantailak izango lituzke: gizartearen eskariari erantzun, «herria egin», «gizartearen egin» eta heziketa sistematik datorenari erantzun, heziketa sistema propio bat osatuz bere osotasunean.

Hori bai, 4. unibertsitate bezala osatuko litzatekeen unibertsitate euskaldun bat planteatzeak, berria eta bereizita, eskolak euskaraz soilik ematen dituen, «euskalduna ez den» Unibertsitate bati kontrajarria, euskal hiztun direnen eta ez direnen arteko gizarte zatiketa areagotzearen arriskua lekarke.

Horregatik ELAn gizartearen edozein ikuspegi zatikatua gaitutako duten formula integratzaileagoak bultzatzen ditugu, epeko bidea jorratuz.

- 3.- Aurreko erantzunetan aurreratu dugu zenbait ideia geuk aurreikusten dugun sistema unibertsitario euskaldunaren ereduaren inguruan.

Errealitate batetik abiatzen gara, non badiren unibertsitate publiko zein pribatuak, gaur egungo unibertsitate-sistema osatzen dutelarik. Honela, bada, errealitate hori onartu beharra dagoela uste dugu, eta eredu edo sistema unibertsitario euskalduna, badagoen errealitate horretatik «abiatuz» eraikitzen hasi behar dela, sistema honetan dagoeneko ondo dagoena jasoz eta eraldaraziz, bitzta unibertsitarioaren eremu guztietan euskararen erabilpenaren hizkuntz normalkuntza osoko egoera batera iristeko: irakaskuntza, ikerketa eta administrazioa eta zerbitzuak. Beti ere ahaztu gabe azken finean botere publikoei dagokiela heziketaren eskubidea bermatzea, unibertsitatearena bame.

Dagoen zatiketa administratiboa ere ezin dugu ahaztu —EAE, Nafarroa, Iparraldea—, ezta lurralde desberdinetan dauden errealitate politiko, sozial eta indar korrelazio desberdinak ere; prozesu honetan kontuan hartu beharrekoak direnak eta sistema unibertsitario euskaldun honen garapen desberdin batera daramatenak.

ELAn zilegitzat jotzen ditugu alternatiba desberdinak, baina daukagun horretan aurreratzearen aldeko apustua egiten dugu: hau da, berriztatzeko bideak ireki, euskaldundu, ikerketak lehenetsi, euskarazko materialak eta testuak garatu.

Ondorioz, Euskal Unibertsitate Sistematzat, gure gizartearen berezko dinamikari, eskariei eta beharrei erantzungo dien heziketaren goi maila jotzen dugu. Beheko mailetan nagusitzen ari den hizkuntzaz, hots, euskaraz, formakuntzako eskaintzak eskatzen dituen gizartea; presentziatzeko eremuan oinarritutakoaz gain beste aukeretako eskaintza formatiboak eskatzen dituen; etorkizuneko beharrei aurrea hartuko dieten eskaintzak eskatzen dituen; integratua eta finantzaketa publikoaren erabilpen eta xedea kontrolatuko dituen, dagozkien eta geureak egin ditugun organo publikoen bidez.

Bukatzeko, esan behar da egungo unibertsitatearen eredu hierarkizatua kritikatu dugula, boterearen banaketa gobernu organoetan eta lan harremanen negoziatio normaldua bertan uztartzeko zailtasuna. Gurea bezalako erakunde sozial bati ez dio balio egungo unibertsitateak al-

derdi honetan dituen akats berak errepikatuko dituen unibertsitate motak: oso euskalduna izan arren, jakinduria gizartearen eskura jarri ordez eliteak sortzea helburu duen unibertsitatea, non lan harremanak arautu behar dituzten printzipioak errespetatuko ez diren...

Sinetsita gaude unibertsitate euskaldun batek benetako unibertsitate soziala izan behar duela, ikasleen, langileen eta gutxiengoaren eskubideekiko begirunea bere izaeraren duelarik.¶



Jose Ramon Etxebarria

1.- Duela hogeita bost urte ez nuen zalantzarik euskarazko unibertsitatea egingarria zela esateko, eta gaur egun are zalantza gutxiago dut. Izan ere, tarte horretan eginiko bidea ikusita, gure inguruko UPV-EHU bera ia ezer ez izatetik ia munstroizatera —tamainaz— pasatu da, UPNA ezerezetik sortu da, eta hasieran lanbide-heziketarako zentro txikia eta lokala zena, poliki-poliki, Mondragon Unibertsitatea bihurtu da. Bistakoa denez, elementu eragingarri funtsezkoak egon dira tartean unibertsitate horiek sortzean eta sendotzean, baina, funtsezkoa eta oinarrizko den giza elementuaz gain, borondate politikoa eta finantzazioa —publikoa zein pribatua— egon direlako izan dira posible. Zeren hasiera hartan ez zegoen baldintza akademiko egokirik, eta ez zeuden gaur egun nonahi ikusten diren ikasle eta irakasleak; baldintza horiek urte hauetan gauzatu dira, eskari demografikoei erantzunez borondate politikoa eta bitarteko egokiak jarri direlako, alegia, finantzazioa, egoitzapen juridikoa, etab.

Euskaraz maila unibertsitarioan arituko diren pertsonak falta zaizkigula entzuten da behin baino gehiagotan. Baina gaudenak hain gutxi ez gara. Gainera, lehenagotik zetorren baina azken hogeita bost urteotan gauzatu joan

den euskal mugimenduaren eraginez, giza elementuaren oinarriak irauli egin dira. Beren jakintza-arloan euskaraz erostasunez jardun zezaketen irakasleak ia ez egotetik, gaur egun mila irakasle euskaldun —beren lan unibertsitarioa euskaraz egiteko gai direnak eta egunero horrela dihardutenak, alegia— baino gehiago izatera iritsi gara. Euskaraz ikasten ari diren ikasleen kopuruak erraz gainditzen du hogeita milaren maila. Eta lizentziatura eta doktoretza egin ondoren euskarazko unibertsitatean jarduteko deika dabiltzan irakaslegaiak ehunka konta daitezke. Non da tamaina kritikoaren sasiarazoa? Aspaldi gainditu genuen muga hori, munduan hainbat eta hainbat baitira hori baino tamaina txikiagoko unibertsitate onak eta kalitatezkoak. Gakoa euskarazko unibertsitatea sortzeko pausoa ematean datza. Alegia, horrelako proiektu bat bideratzeko borondate politikoan eta hori gauzatzeko behar den finantzazio egokian.

Ausartak izan behar dugu, eta konbentziturik egon behar dugu, herri bat garen aldetik, unibertsitate hori funtsezko elementua dela geure etorkizuna oinarri sendotan finkatzeko. Hortik aurrera, erabakia hartzea besterik ez zaigu falta. Logika sinplea du gure konfiantzak. Aurreko hogeita bost urteotan euskaldunok zenbait unibertsitate abiarazteko —nagusiki gaztelaniaz funtzionatu duten unibertsitateak izanik ere— gai izan bagara, egindako gauza guztiak euskaraz ere egin daitezkeenez, zergatik ez gara, bada, gai izango nagusiki euskaraz funtzionatuko duen unibertsitate bat sortzeko? Non da arazoa?

- 2.- Onurak eta abantailak hain dira nabarmenak, ezen ia-ia aipatzerik ere merezi ez duten. Labur esanda, euskal irakaskuntza- eta ikerkuntza-sistema propioa osatetik datoz horiek guztiak. Hain dira nabarmenak ezen etorkizunean herri modura bizirik segitu nahi duten herriek eta kulturak, guzti-guztiek, beren unibertsitatea izan nahi dutela; eta behar dutela. Gehiago oraindik, eskubidetzat dutela beren irakaskuntza-sistema izatea eta kudeatzea, goiburuan unibertsitatea jarritz. Mundu osoan herri guztiak onurak baino ikusten ez badituzte, zein da arazoa? Horre-

tan ere euskaldunok salbuespena ote gara? Non dago horren logika? Ez naiz, bada, itsuek ere ikusten dutena azpimarratzen luzatuko.

Nolanahi den, «ustezko» arrisku eta kalteez zenbait ohar egin nahi nituzke. Galderan bertan ustezko bi arrisku aipatu dira: ghettoa bihurtzeko arriskua eta EHU euskal irakaslez hustutzea. Nire iritziz, ez bata eta ez bestea ez dira benetakoak. Oraingoan ere ustea erdi-ustel —edo osorik—.

Gogoan dut behinola ikastolen aldeko mugimendua gerarazteko erabilitako ghattizazioaren «arriskua», denboraz *boomerang* modura itzuli dena, batetik erdararen erre-suma zen eskola publiko/pribatua poliki-poliki gero eta euskaldunagoa izatera eraman duena, eta azkenean euskarari ateak zabaldu nahi izan ez dizkion A eredu ghetto arriskuan jarri duena. Izan ere, eredu euskaldunaren premia egon baita elebitasuna premiatzat hartzeko, euskara guztion eskubidea baita —baita euskara ikasi nahi ez duten euskal herritarrena ere—, eta ez elebidunen guraria betetzeko bidea. Praktika aipatu dugunez, bestalde, ez dago tokitik kanpo esatea ezen aukera hori egin dutela arrakastaz hizkuntza bi edo gehiago dituzten herrialde batzuetan, unibertsitateak bikoiztuz, eta hizkuntza minorizatuari zor zitzaizkion unibertsitateak eratuz (Flandria, Quebec, etab.). Eta, nik dakidala, herrialde aurreratutzat dauzkagu horiek.

EHU euskal irakaslez hustuko delako hori ere argudio ustela dela uste dut. Gaur egun, oso ondo prestaturiko irakaslegai euskaldun ugari egoteaz gain (doktoretza egitakoak, bekadunak, doktoregaiak...), gero eta gehiago hedatzen ari da irakasleen higikortasuna edota unibertsitate desberdinetan lan egitearena. Unibertsitateen arteko kolaborazio-ekimenak gero eta zabalagoak izango dira etorkizunean. Gainera, demografia dela eta, asko dira EHU berandu baino lehen irakaslez gainezka egongo delako kezka dutenak. Non dago arazoa?

- 3.- Estrategiatik hasita, bidea eginez egiten delako ziurtasunaz, lehenik eta behin Euskal Unibertsitatearen inguruko

kezka zabaltzen duten ekimenak bultzatu behar direlakoan nago, unibertsitario euskaldunak biltzen dituzten elkarteak eta ekimenak lagunduz eta indartuz (UEU eta EIRE kasu), Euskal Unibertsitateranzko kongresuak eta ekimenak bultzatuz..., horrela lehenik eta behin gaia gizareratu, eta erabaki politiko estrategiko garrantzizkoen mailara eramanez. Gaia seriotasunez planteatzea erabaki estrategikoa da.

Izaerari dagokionez, gai hori hainbat dokumentutan (Uztaritzeko UEUren agirian hasi eta EIREk antolaturiko kongresuan, besteak beste) askoz zehatzago aipatu denez, modu telegrafikoan aipatuko ditut ene ikuspuntutik oso kontuan hartzeko diren zenbait ezaugarri. Ene ustez, lehenik eta behin euskal herritar guztiei irekita egon behar duen unibertsitateak zerbitzu publikoa ideologia-diskriminaziorik gabekoa eskaini behar du, diru publikoz zein pribatuz finantzatua dela. Espreski onartu behar litzateke herri-ekimenaz sorturiko unibertsitatearen posibilitatea, lehenago ikastolen mugimenduak irekitako bidetik, talde herritarren ekimenaz herritar guztientzako zerbitzu publikoa (eta ez talde baten interes pribaturakoa) eskaintzeko borrokatuz. Gobernuarekiko erakunde autonomoa izan behar luke, hain debalaturik dagoen «autonomia unibertsitaria» kontuan hartuz, zeren gobernuak finantzazioari dagokionez ardura handia izan behar duen arren, azkena bailitzateke «gobernuaren unibertsitatea» izatea, gaur egun sarritan «publiko» kontzeptua erabiltzean moztotzen den aukera, alegia. Bestalde, lehenik eta behin eraikin konbentzionaletan kokatu behar dela uste dut, unibertsitate birtualaren kontu hori aukera gehigarri eta osagai modura kontsideratuz.¶



Mikel Fernandez (LAB)

Historiari erreparatzen badiogu, Euskal Herriko Unibertsitate zein Euskal Unibertsitateari buruz luze eta zabal hitz egin eta idatzi izan da, beti ere, hori bai, asmo, gogoe-ta, behar edota eskubide mailan, gehienetan teoria mailan, askotxotan intentzio eta hasperenean soilik geratuz. LAB sindikatuak ere gai honen inguruan hainbat hausnarketa zein eztabaida egin izan du. Hari horri jarraiki, beraz, *Jakin* aldizkariak Euskal Unibertsitatearen inguruan plazaratu nahi duen enplazamendu berri honi guztiz ego-ki deritzo, Euskal Herrian zabaldu berri den eraikuntza nazionalaren bidean Euskal Unibertsitatearen diseinua definitzea eta bideratzea zutabe garrantzizkotzat jotzen baitu.

Horrela, bada, eta kontuan izanda 1977an aldizkari horiek zenbait adituren eskutik gai honi modu eta alde desberdinetatik heldu ziola, beharbada ezagutza edota historia arloan zentratu-rik, garaia litzateke oraingo honetan aldarrikapen hutsetik egingarritasunera, praktikara nola eraman aztertzea eta sakontzea, ea behingoz Euskal Herriak behar duen Unibertsitatea, amesten dugun Unibertsitate delako hori, piztu eta itzali egiten zaigun izar horren orde-z eguzki distiratsu zein iraunkor bilakatzen dugun.

Ez da erraza hitz bitan azken 25 urteko ibilbide zurrunbilotsu honetan eman diren elementu guztiak modu sinplean adieraztea, baina gaurko errealitatearekin lotuz bai esan genezakeela, funtsean urriak izan badira ere, zubi gisa baliagarri izan direla eta aurrerapausoa suposatu dutela; horren lekuko gai hau Unibertsitatean bertan eztabaida guneetan erdi-erdian pil-pilean egon izana, euskararen presentzia (UPVn behintzat) eremu zabalagoetara hedatzea, EIRE erakundearen sortzea, UEUren egonkortze eta sendotzea, ikasleen kontzientziazte eta altematibak

plazaratzea... Eta hori guztia Unibertsitatetik bertatik eman izan bada, ez dira makalak izan gizarte zein arlo politikotik egindako eta eskainitako ekarpenak, aldarrikapenak, baita alternatibak ere (Uniekimena...).

Hala ere, aurrera begira oraindik arantzaz jositako eginbide luze bezain latza dugula argi daukagu. Ezin dugu ahortzi zein kontestutan mugitzen garen, zein den gure Unibertsitateen errealitatea, bi Estatuko legedi arrotzen menpe, hiru Administrazioetan zatikaturik, batzuk publikoak, besteak pribatuak, bi hizkuntza boteretsuen erdi-erdian... Errealitate honek behetik gorako lan nekeza egitea eta, inertzia zein patxada direla medio, indar korrelazioaren eskasiagatik edo, etengabeko errebindikazioan murgiltzera eramaten gaitu.

Gure ustez euskaraz irakatsi, ikasi eta ikertu behar duen Euskal Unibertsitatea osatu behar dela guztiz argia da. Horrela, erreferentzia, eredu bat izango genuke, bere helburuak elebitasunean jartzen dituztenek nora begiratu izango lukete, ez baita elebitasun hitz ponpoxoarekin euskalduntasuna bermatzen, areago oraindik euskara hutsaren hurrengoa den Deustun, UPNan, Opusen, MCCn... Aldiz, erdarak badu, oro har, erabateko ofizialtasuna, euskararen kaltetan; eta bestela begira euskararen egoera eta tratamendua Unibertsitate edo lurralde desberdinetan. Euskara normalizatua, naturaltasunez onartua eta ezarria beharko genuke.

Ditugun Unibertsitateek ez diete erantzuten gizarte honen gehiengoak eskatzen duen beharrei, aitzitik, interes pribatu, merkantilista eta atzerriko kulturei egiten diete men. Jauzi kualitatiboa eman beharrean gaudela uste du LABek. Badago bai gizarte mailan eta baita Unibertsitate esparruan ere aski jende, nahikoa masa kritiko euskaraz arituko den Euskal Unibertsitatea antolatzeko. Alde bateatik, bitarteko bideak badirela konturatzen gara; baina, bestetik, baita ere badakigu oraindik amesten dugun Euskal Unibertsitate euskaldun eta integratzaile hori eraikitzea kosta egingo dela. Horregatik helburu horretara heltzeko ezinbesteko dakusagu indar guztiak zentzu horretan ipintzea. Ideia zein alternatiba guztiak, zintzoak bederen,

onargarriak iruditzen zaizkigu. Hori bai, epe laburrean elkar metatzera jo behar dugu, hezuramitzen ari diren inizatiba guztiak elkarganatzera, delako Euskal Unibertsitatea erreferentziala izatera.

Ildo honetatik esparru publikoan campus euskalduna, Ikasgu izan zenaren ildotik egon litezkeen mugimenduak, UEUK udazkenean egingo duen Biltzarra, Uniekimena, barruti bakarraren proposamenak... horren lekuko ditugu. Ezin dugu, ordea, horretan bakarrik geratu; horrek guztiak eskola beharko du: hain zuzen, gizarte eragile, sindikatu, alderdi politiko eta, azken finean, instituzio publikoen eskola, sinesgarritasuna eta egingarritasuna izan dezan, bere marko juridiko eta guzti.

Zati hauek guztiak norabide horretan txertatuz joateko premia larria ikusten ari gara, ze, inertziaren eta moteltasunaren ondorioz, Euskal Unibertsitatearen erreferentzialtasunik gabe, egun diren esparru elebidun urri horiek ere usteltze bidean sartzeko arriskuan leudeke, sinboliko hutsean bihurtzeko arrisku bizian.

Esandakoaren karira, Euskal Unibertsitatearen erai-kuntza premia eta eskubide natural gisa hartu behar dugu, ez inoren aurka, geurearen defentsan, mamuak ekidinez, errespetuan oinarrituz, norbanakoaren aukerak eta eskubideak onartuz. Oraingo guretzat euskararen gune normalizatuak sortzeak du lehentasuna eta Euskal Unibertsitatearen bidean sortzen diren inguruko inizatiba guztiak errespetatuko ditugu, batik bat sare publikotik bideratzen direnak eta baita zerbitzu publiko gisa antolatzen direnak ere bultzatuz. Euskal Unibertsitatea, bai elebidun bidean direnak erakargami izateko, bai euskararen garapen zein iraupenerako eta baita gure herriaren tresna kultural bezala mundura begira herri honen izaera jakinarazteko, ezinbestekoa zaigu. Azken finean, 1977an aldarrikatu genuen bezala, gure jakintsuek, artistek eta herri osoak beren irekitasuna eta unibertsaltasuna nabari dezaten.

Amaitzeko esan ondorengoak liratekeela LABen iritzi-z Euskal Unibertsitatearen ezaugarri nagusiak:

- Unibertsitate publikoaren izaera, Administrazioek sor dezaketena zein herri ekimenetik ere gauza daitekeena.

- Euskaraz irakatsi, ikasi, ikertu eta bizi. AZPkoek, irakasleek eta ikasleek horretarako bermeak izan beharko lituzkete. Ezinbestekoa litzateke euskaraz funtzionatuko lukeen markoa eratzea, gainontzekoetan eleaniztasuna bermatuz.

- Unibertsitatearen autonomia errespetatu beharko luke eta demokratikoa izan, non parte-hartze eta ordezkarritza orekatua onartuko lirakeen, baita sindikatu zein eragile sozialena ere.

- Euskal gizartearen zerbitzura izan beharko luke, berari atxikia, mundu zabaletik datorkiona jasotzeko gai alde batetik, eta bertara aporta dezakeena bestetik.

- Ikerkuntza eta irakaskuntza modu bateragarrian ulertu beharko lituzke, Europan kokatu eta ezagutza ekoizten zein garatzen den sareetan izan.

- Eredu honi egokitutako irakaslego propioa, beti ere esku zabal izanik kanpotik letorzkgukeen ideia zein ekarpenak baloratuz, kritikatur eta behar izanez gero integratur.

- Administrazio eta Zerbitzuetako langilego berezkoa izan behar du, leudekeenei, nahi izanez gero, integratzeko bideak eskainiz.

- Negoziazio kolektiboa bermatu beharko luke.

- Euskal Unibertsitateen egungo errealitatetik abiatuz eta erritmo desberdinak eta egokituak erabiliz, Euskal Herri osoko Euskal Unibertsitatea egituraturuko lukeena sortu.

- Adierazpen askatasuna eta pentsamendu kritikoa errespetatu beharko lituzke eta gutxieneko kalitatezko irakaskuntza zein ikerkuntza eskaini ahal izateko baliabideak jarri.♣



Marije Fullaondo (Sortzen-Ikasbatuaz)

Lehenik eta behin, aipatu beharra dugu Unibertsitatea ez dela Sortzen-Ikasbatuaz lan esparrua, irakaskuntza ez-unibertsitarioaren eremuan burutzen baitugu geure eguneroko eginkizuna.

Hala ere, *hezkuntza* —eta, kasu honetan, araututako ikas/irakaskuntzari bakarrik lotutako hezkuntzaren zatiaz ari gara— bere osotasunean baino ez dugu ulertzen, hau da, 0 urtetik hasita lanbide heziketa edota unibertsitateko ikasketak bukatzeraino, adin mugarik gabe.

Ikuspuntu honetatik abiatzen da hemen azaltzen zaiuzen iritzia; beraz, irakurle hori, ez ezazu pentsa aditu baten iritzia aurkituko duzunik lerro hauetan; ez ezazu inolako ikerketaren emaitzik edo hausnarketa mamituren ondoriorik espero; euskararen egoeraz, hezkuntzaz eta euskal ikas/irakaskuntzaz arduratuta eta kezkatuta dagoen kaleko euskal herritar batzuen iritzia baino ez baituzu aurkituko.

1.- Hel diezaiogun, bada, gaiari. Egingarria al da Euskal Unibertsitatea?

Baietz erantzungo genioke galdera honi, baina, gure aburuz, proiektu hau eraikitzeke bi ezinbesteko baldintza eman beharko liriateke, batetik, Euskal Herriko herritarren onespina eta prozesuan parte hartzeko aukera izatea; bestetik, borondate politikoa.

Lehen baldintza betetzen ari da, gure ustez. Gizarteak, derrigorrezko hezkuntzari dagokionez, euskara hutsez ari diren ikastetxeak ez bakarrik onartu, exijitu egiten ditu, inplizituki, D eta murgiltze ereduetan matrikulatutako ikasle kopurua etengabe gora doalarik. Inertzia honi jarraituz, hurrengo etapetan, batxilergo, lanbide heziketa eta unibertsitatean eredu euskaldunen jarraipena ezinbestekoa da.

Aldi berean, eta parte-hartzeari dagokionez, hezkuntzako eragile desberdinen arteko elkarlana gorpuztuz doa.

Ikasleria ere prest eta prestatuta dago goi-mailako ikasketak euskaraz egiteko. Ikasleen mugimendua ikasketa euskaldunen alde egiten ari den lana dugu lekuko.

Irakasleriari dagokionez, gaitasun eta gogo faltarik ez dago. Formakuntza falta dutela adierazten dute irakasle batzuek. Formakuntza-gabeziak baliabide egokiekin sendatzen dira.

Datuetara etorrita, 15.000 ikasle eta milatik gora irakasle ari dira, egun, euskarazko ikas/irakaskuntza unibertsitarioan. Euskal Unibertsitatea eraikitzeke masa demolin-guistiko nahikoa dago, beraz.

Bestalde, hutsuneak hutsune, testugintzan ere aurre-rapauso handiak eman dira eta lanek aurrera dihardute. Bide onean gaude, zalantzarik gabe.

Honenbestez, Euskal Herrian baldintza sozio-linguistiko-demografikoak egon badaude Euskal Unibertsitatea sortzeko.

Bigarren baldintzari helduta, borondate politikoari, alegia, azken aldi honetan, hitz politikak entzuten ditugu EAEko administrazio autonomoaren aldetik, baina, momentuz, hitzak baino ez; Nafarroako administrazioak, aldiz, kolpez eta atxiloketez erantzuten ditu unibertsitate euskaldunaren aldeko aldarrikapenak; Frantziako estatuak, bere aldetik, ez du euskararen inolako eskubiderik onartzen, eta gorrarena egiten du euskal irakaskuntzaren eskaerei dagokienean.

Dirudienez, hezkuntza ez da errentagarria politikarako; ez berezko euskal hezkuntza, bederen.

Klase politikoaren erantzukizuna saihestezina da gai honekiko. Bizitzen ari garen egoerari behar duen erantzuna ez ematea akats historikoa litzateke; Euskal Herriko hizkuntza eta kulturaren bizi-indarra eta, ondorioz, biziraupena, daude jokoan. Ez dezagun ahaztu, hala ere, gizarteak ematen diola boterea klase politikoari, ez beste inork. Gizartearen behar eta eskaerei erantzuna emateko daudela gobernuak, ez beste ezertarako. Eta gizartearen lehenetarikoa, beharrik handienetakoa, hezkuntza dela.

Gizartekideok hezkuntzaren lehentasunean sinisten badugu, badago zereginik alor honetan ere. Baina euskal gizarteak ozenki eta irmoki aldarrikatu beharko ditu bere hezkuntza eskubideak eta dagokionari, dagokionean, dagokion erantzukizuna eskatu.

Baldintza juridikoei erreparatuz, oso urrutira joan gabe, Espainiar estatuaren barruan, Katalunian, hain zuzen, badaude unibertsitate katalan elebakarrak, Generalitateak berak sortuak.

Zer adierazten digu honek? Euskal Herriko zati baten egoera administratiboari dagokionez, Espainiako marko juridikoaren barruan, legalki bideragarria den proiektua dugula Euskal Unibertsitatea, edo, behintzat, euskarazko Unibertsitatea, ez baitira gauza bera. Euskal Unibertsitateak Euskal Curriculuma izango luke oinarrian; euskarazko Unibertsitateak ez luke hori bermatuko derrigorez.

Euskal Herrian euskara hutsez arituko den Unibertsitatea sortzea legala da, beraz, Hegoaldean kokatuta egon beharko balu ere.

2.- Bestalde, onuragarria ala kaltegarria litzateke Euskal Unibertsitatea? Kolore guztietako erantzunak entzun dira galdera honen inguruan. Badira proiektu honetan onurak baino ikusten ez dituztenak eta baita arriskua besterik ez dakusatenak.

Gu lehenengo taldean kokatzen gara. Abantailak baino ez ditugu antzematen. Batetik, Euskal Herriko herritarren zati handi baten eskubideak, beharrak eta nahiak errespetatzeko bidea irekita legoke, beste inorenak ikutu gabe. Bestetik, euskal kultura eta hizkuntzaren biziraupena ren bermea litzateke, euskarak hizkuntza gutxituaren estatusari utzi eta goi-mailako hizkuntz funtzioak lor eta gara ditzan ezinbesteko tresna gisa. Hirugarrenez, Euskal Herriak behar duen berezko Hezkuntza Sistemaren bidean urrats garrantzitsuak litzateke. Azkenik, euskal curriculum osoaren garapena eta gauzatzea ahalbidetuko lukeen instituzioa martxan legoke.

Arriskuak ikusten dituztenen artean, Euskal Unibertsitatea ghetto bihur daitekeela aipatzen dute. Adibide bat

jartzearren, hori esaten duen inori burutik pasatu al zaio Suomin (Finlandia) dauden suedierazko unibertsitate elebakarrak ghetto direla esatea? Suedieradunak %6 baino ez dira Suomin; hala ere, Unibertsitate propio elebakarrak dituzte. Besteak beste, euren Hezkuntza Sistema propio elebakarra izateak (elebitasuna ez ezik, eleaniztasuna bermatzen duena) eman die suedieradun suomiarrei, gutxiengo nabarmena izanik ere, euren hizkuntza eta kulturari heltzeko aukera.

Edo, etxera etorruta, ghetto kontsideratzen al dira Euskal Herriko irakaskuntzan denok ezagutzen ditugun eta hain prestigiotsuak diren gaztelaniar ikastetxe elebakarrak?

Inork sinistu al dezake Euskal Unibertsitatea onerako baino kalterako izan daitekeenik edota norbaiten eskubi-deak urra ditzakeenik? Nire buru gogorrean, behintzat, ez da horrelakorik sartzen.

3.- Bukatzeko, izaera eta helburuei dagokienez, aipa dezagun Euskal Unibertsitatea nolakoa ikusten dugun.

Zalantzarik gabe, Euskal Herriaren eta bere kultur nortasunaren erroetan oinarritutako hezkuntza-egitasmoa sustatzen duena, euskal gizartearen beharrei erantzungo diona, berdintasunean oinarritua, publikoa, autonomoa, osoa, demokratikoa, berritzailea, irekia, ikasleriaren garapen integrala bermatuko duena, euskararen eta euskal kulturaren hedapena ahalbidetuko duena, ikerkuntzari leku zabala eskainiko diona, langileria propioa izango duena, eraikin konbentzionalean kokatua eta ikas/irakaskuntza prozesua ikas/irakasgela birtualen bidez aurrera eramateko aukera emango duena, Euskal Herriko mugen gainetik mundu osoko beste herrialde eta kulturekin harreman zuzena izango duena, ekarpen propioak eginez eta bestee-nak jasoz.

Euskal gizartearen eskubidea ez ezik, Euskal Herriaren beharra da Euskal Unibertsitatea, Euskal Herriko berezitasun linguistiko-historiko-kulturalak ikertuak, zainduak, garatuak eta hedatuak izan daitezen.¶



Xabier Garagorri

Euskara ardatz duen ele askotariko Euskal Unibertsitatea

Euskal Unibertsitatearen izaera, ezaugarriak eta egitasmoak ezin dira era isolatuan eta endogamoan ulertu, euskal gizartearen izaera, ezaugarri eta egitasmoen isla modura baizik. Euskal Unibertsitateaz ari garenean, beraz, euskal gizartearen iragan, orainaldi eta bereziki etorkizunari buruzko ikuspegiak dira erreferenteak, eta euskal gizartearen barruan hezkuntza-sistema osatzen duten lehen eta bigarren hezkuntzaren jarraipen eta gailur modura. Topikoaren itxura duten ebidentzia horiek aipatzen ditut, unibertsitatean ari garenok aparteko kasta garela eta aparte jokatzeko joerak sarritan izaten ditugula uste dudalako.

Gaia horrela planteatuta, Euskal Unibertsitatearen izaera, ezaugarriak eta egitasmoak zein izan behar diren esatea zaila da eta are gehiago adostasunez erabakiak hartzea. Esaerak dioen bezala, «zenbat buru hainbat aburu». Baina ez dago bakoitzak bere aldetik asmatu beharrik; kontuan hartzekoa da badaudela ikastoletan, eta oinarrizko euskal irakaskuntzan, oro har, Euskal Unibertsitateari bidea erakusteko baliagarriak izan daitezkeen lorratzak. Badira hamar urte ikastoletan, eta jarraian baita beste eskola sareetan ere, elebitasun planteamendutik ele askotariko planteamendura aldaketa egiten hasi zirela. Ikastoletako ikasleek Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza bukatzerakoan (16 urte), Dekretu ofizialetan *euskarari* eta *gaztelaniari* buruzko gaitasunak gaintitzeaz gainera, ahozko eta idatzizko harremanak *ingelesez* mantentzeko gai izan behar dute elkarren arteko komunikazio arrunt batean, baita ingelesa transmisio-hizkuntza bezala alde aurretik seinalatutako eskola-gaiak jorratzeko ere. Atzerriko bigarren hizkuntzari dagokionez, hau da, *frantsesari* eta kasu bat-

zuetan *alemanari* dagokionez, hizkuntza horrekiko lehen hurbilpena egiten da egun. Euskaraz, gaztelaniaz ala frantsesez ondo dakien eta ingelesez ondo moldatzen den belaunaldi berria datorkigu, beraz.

Zerk eraginda hasi ziren ikastoletan berrikuntza hau egiten? Batetik, Europako Batasuneko esparru ekonomiakoan, politikoan eta soziokulturalean integratu beharra eta honek europar gizabanakoengan izan zuen eta izango duen eragin nabarmena. Argi ikusten genuen European bizitzeko eta bertan integratzeko, euskara eta gaztelaniaz ala frantsesaz aparte, euskaldunok beste europar hizkuntzak menderatzea ezinbestekoa genuela. Bestetik, aurreko egoe-rarekiko aurrerapausoa izanik ere, elebitasunaren planteamendu ofizialaren mugak epe ertainera argi dira, ezinezkoa baita gaztelania edo frantsesa bezalako estatus internazionalako hizkuntzak egoera minorizatuan dagoen euskararekin batera, bata bestearen ondoan egoera orekatuan bizitzea. Euskarak iraungo badu, bere hizkuntza eremuan hizkuntza nagusi izatera iritsi behar du, baina argi dago era berean euskaldunok euskaraz aparte beste hizkuntzak erabiltzeko gauza izan behar dugula, bestela euskara bera ere arriskuan bailegoke. Lortu nahi duguna, beraz, bi elementu hauek uztartzea da, hots: alde batetik, euskarak bere hizkuntza eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, beste hizkuntzen ezagutza eta erabilera beharrezkoak erdiestea. Hori lortzeko era bakarra eleaniztasunaren eskutik dator.

Aurreko planteamendu hori baliagarria izan daitekeela uste dugu Euskal Unibertsitatearentzat ere. Etorkizuneko Euskal Unibertsitatea euskara ardatz duen ele askotari-ko gune modura ulertzen dugu. Irakasteko, ikasteko, ikeritzeko eta eguneroko harremanetarako hizkuntza nagusia euskara izango duena, baina lurralde bakoitzean ofizialak diren hizkuntzak (gaztelania-frantsesa) eta gaur egun «lingua franca» bihurtu den ingelesa ere euskararekin batera irakasteko eta ikasteko eta bereziki kanpoko harremanetarako eta ikerketen argitalpenetarako erabiliko lirakekeen hizkuntzak izan beharko lirakekeela uste dugu. Euskal Unibertsitatearen eredu honetan ez luke lekurik

orain UPV/EHU indarrean dagoen euskararen eta gaztelaniaren bide paraleloaren ereduak, are gutxiago oraindik ere nagusia den ele bakarreko ereduak. Denboraren erdia baino gehiago muin bakarreko euskarazko unibertsitatea izango litzateke, baina lekuan lekuko hizkuntza ofizialak eta ingelesa beharrezko hizkuntza osagarriak lirateke.

Gaur egun eredu hori orokortu ahal izateko ez ditugu behar adinako baldintzak betetzen, baina ez dago baldintza horiek lortu arte itxaroten egon beharrik Euskal Unibertsitatearen etorkizuneko eredu horretara hurbiltzen eta bidea irekitzen hasteko. Euskaraz, gaztelaniaz ala frantsez eta ingelesez moldatzen den masa kritikoa badago, eta, oinarritzko hezkuntzan egiten ari den ele askotariko planteamenduaren eraginez, gero eta gehiago izango dira ezaugarri horiek betetzen dituzten ikasleak. Eredu hori indarrean jartzeko gauza asko behar dira, eta horien artean guztiz oinarritzkoa da ikasleek eta irakasleek euskaraz, gaztelaniaz ala frantsesez eta ingelesez irakasteko eta ikasteko gaitasuna izatea.

Euskal Herriko Unibertsitateak eta euskara

	Kopuruak erotara		Euskaraz dakitenak		Euskaraz ikasten- irakasten dutenak	
	Ikasleak	Irakasleak	Ikasleak	Irakasleak	Ikasleak	Irakasleak
Unibertsitate publikoak	66.831 (%69)	4.535 (%74)	32.268 (%48)	1.469 (%32)	19.538 (%29)	981 (%22)
Unibertsitate pribatuak	30.130 (%31)	1.616 (%26)	15.154 (%50)	333 (%21)	5.371 (%18)	252 (%16)
GUZTIRA	96.961 (%100)	6.151 (%100)	47.422 (%49)	1.802 (%29)	24.909 (%26)	1.233 (%20)

Unibertsitate publikoak: UPV/EHU, UPNA/NUP, Pabe-Aturri.

Unibertsitate pribatuak: MU, UD/DU, UN/NU.

Iturria: EIRE, «Euskal unibertsitatearen egoera gaur egun, 2000-01. ikasurtean», *Euskal Unibertsitatea 2021 Kongresua*.

Autoreak egokitutako taula.

Erabilitako iturrien arabera, ikasleriaren erdiak (47.422 ikasle, %49) euskaraz daki eta erdi horren erdiak (24.909 ikasle, %26) euskaraz zerbait ikasten du. Datu hauek bi eratara gutxienez irakur daitezke: a) 47.422 ikas-

le zeuden 2000-01 ikasturtean unibertsitateko irakaskuntza euskaraz jarraitzeko gai zirenak; b) Euskaraz ikasteko gai ziren horien artetik 22.512 ikaslek ez dute ezertxo ere euskaraz ikasten. Galera horren arrazoiak era askotakoak izan daitezke, baina argi dago ikasleek ezingo dutela euskaraz ikasi irakasleek ez badakite. Euskaraz dakiten ikasleen kopurua %49koa da eta irakasleena aldiz %29koa, eta dakiten horien artean euskaraz zerbait irakasten dutenak %20. Hau da, Euskal Herriko Unibertsitateetan ez dago euskaraz dakien behar adina irakaslerik eta daudenak ez dira euskaraz irakasteko probetxuz erabiltzen. Datu horien alde ezkorra ezaguna da; baina niri hemen datu horien alde baikorra, hau da, unibertsitatean euskaraz dakien masa kritikoa 2000-01. ikasturtean 47.422 ikaslekoa izan dela interesatzen zait. Euskaraz dakiten ikasle horiek gaztelania ala frantsesa ezagutzen dute, eta, lehen esan bezala, gero eta gehiago izango dira ingelesa ikasten lau urte rekin hasitako ikasleak ingelesez komunikatzeko gai direnak eta ikasgaiak ingelesez ikasi dituztenak. Ikas arlo bat ingelesez erakutsiko duen irakaslea ikastoletan aurkitzen bada, nahiz eta ez izan erraza ingelesez ikas arlo bat erakutsiko duenik aurkitzea, Unibertsitate mailan honelako irakasleak izatea errazagoa litzateke.

Ez da, ondorioz, ameskeria hutsa jite honetako Euskal Unibertsitatea indarrean jartzen hastea, bidea egiten hasia den egitasmoa baizik. Mondragon Unibertsitateak hautu hori egina du eta lehen urratsak ematen hasia da. Badakigu horrelako berrikuntza indarrean jartzeko, giza baliabideak, baliabide materialak eta aurreko egoera aldatzerakoan erresistentzia handiak gainditu behar direla, baina pauso garrantzitsua eta egokia egiten ari dela uste dut. Berriro ere, Euskal Herrian beste askotan gertatu den antzera, ez da halabeharrez gertatzen gizarte ekimena aurrea hartzen duena izatea.

Euskal Unibertsitatearen eredia definitzeko alde asko daude eta oraingoan hizkuntzari lotutakoa jorratu dugu, baina bada besterik ere, hots, Euskal Unibertsitatearen eta euskal kulturaren arteko lotura zein izan beharko litzatekeen aztertzea. Hau hurrengorako.¶



Gotzon Garate

1.- Euskal unibertsitatea eraiki liteke. Hau da, gai guztiak euskaraz erakutsiko diren unibertsitatea.

Horretarako nahitaez bi alderdiok elkartu behar dira: ikaslegorik aski eta ikaslegoari erakusteko irakaslegoa. Hots, *ikasleak eta irakasleak*.

Euskal Herriak badu ikasle nahikorik. Gero eta ikasle gehiagok daki euskaraz. Ikastoletan ez ezik, institutuetan eta beste ikastetxeetan D ereduan neska-mutil askok ikasten du.

Gurasoek garbi ikusten dute: gure haurrek, Euskal Herrian biziko badira, euskaraz jakin behar dute.

Irakaslerik ere ez da falta. Gai guztietan? Ez dakit. Humanitate fakultateetarako bada irakaslerik, dudarik gabe.

Beste aldetik gaztetxoak matematika, fisika eta kimika ikastetxeetan hasten dira ikasten. Unibertsitateko irakaslea, beraz, ez da hutsetik hasi behar.

Euskaraz ongi dakien batek, bere espezialitatean pare bat urte (edo gehiago) preparatuz gero, zientzia-gaia euskaraz irakasteko gauza da.

Beraz, guztira, irakasleak ere badira. Koska hementxe dago: euskaldun irakasleak *kontratatzean*.

Irakasle elebidunak kontratatu behar dira. Ez naiz teoria hutsez ari.

Ni 35 urtean Deustu Unibertsitateko irakasle izan naiz. Orain 25 urte sinadura asko bildu eta zuzendaritzari, arren eta otoi, irakasle elebidunak kontratatzeko eskatu genion. Ez ziguten jaramonik egin. Erdal irakasle hutsak kontratatu zituzten.

Gero etengabeko soka (*circulum vitiosum*) gertatu da. Erdal irakasleek, dekanook barne direla, beren interesak defendatzeko, beste erdal irakasle kontratatu dituzte.

Eta estudianteei, gai bat euskaraz irakasteko eskatuz gero, dirurik ez dela ihardesten diete. Profesore berri bat

kontratatu beharko litzatekeela eta horrek diru asko eskatzen duela.

Irakasleak elebidun izanez gero, ez legoke problema hori.

Orain desoreka izugarria dago Deustu Unibertsitatean. Ikasleak %70en bat euskaldun dira. Irakasleak, berriz, %10 ez.

2.- Euskal unibertsitatearen eztabaida guztia honetan biltzen da: zin-zinez Euskal Herririk izatea merezi al du?

Batzuek ezetz diote. Denok gazteleraz badakigula. Berraz, zertarako euskal unibertsitatea? Zertarako horrelako alferrikako gastuak?

Guk, berriz, beste usteak ditugu. Geure notasunari eutsi nahi diogu. Gu geu izatea nahi dugu.

Eta hauxe ikusten dugu garbi baino garbiago. *Ez dago Euskal Herririk euskal unibertsitaterik gabe.*

Niri unibertsitate nahikotan ikasi beharra gertatu zait. Bartzelonan (filosofia lizentziatura), Madrilgo Complutensean (filosofia doktoregoa), Innsbrucken (teologia lizentziatura), Friburgon (marxismo ikasketak bi urtean), New Yorken (udako literatura ikasketak) eta azkenean Deustun (Filologia Erromanikoa).

Toki guztietan hauxe entzun dut eta egia dela garbi ikusi dut: *gizartea zuzentzen dutenak unibertsitatetik ateratzen direla.*

Nazio guztietan gobernadoreak, ekonomistak, zientzia gizonak, pentsalariak, medikuak, abokatuak.... unibertsitatetik atera dira.

Euskal Herrian negargarria da: medikurik gehienak, ekonomistak, zientzia gizonak... erdaldunak dira.

Zergatik? Unibertsitatean erdaraz ikasi dutelako. Euskal Herriko gizartea erdaldunek zuzentzen dute. Euskal Herriko ekonomian eta pentsamenduan euskaldunok ez dugu ia tokirik.

Beste puntu bat, nik Deustu Unibertsitatean urte askotan ikusi dudana.

Gazte asko etortzen dira Deustura, herri ttipietatik batez ere, euskaraz egiten. Hemen giroa erabat erdalduna

delako, espainolez hitz egiten ohitzen dira eta beren herrietara itzultzen direnean, erdaraz egiten dute.

Izugarritzko eredu txarra herriko gaztetxoentzat unibertsitariook parra-parra erdaraz ari direla ikustea. Gaztetxoek ere azkenean ez dute euskara aintzakotzat hartzen.

Goitik eta behetik euskal unibertsitateak ez izateak hondamendira garamatza, hots, Euskal Herria Erdal Herria bihurtzera.

3.- Ahal izanez gero, orain zutik dauden unibertsitateak erabat euskaldundu beharko genituzke.

Deustu Unibertsitatea euskalduntzea oraingoz ezinezkoa dela iruditzen zait. Pribatua denez gero, hemen bertakoek bakarrik alda dezakete egoera. Eta ez da ikusten egoera aldatzeko gogorik dagoenik. Aitzitik.

Nafarroako Opus Deiren unibertsitatearekin ere berdintsu gertatzen da.

Beraz, oraingoz publikoa bakarrik izan liteke euskal unibertsitatea.

Ze unibertsitate? Dagoena euskaldundu ala berri-berritik hasi?

Hemen ere, beste eginkizun askotan bezala, diruaren kontua dator.

Teorian berri-berritik hastea izango litzateke hobereana. Tokiaz denaz bezainbatean ere berria. Nondik atera dirua, ordea? Zein tokitan berria?

Berri honetan, jakina, euskaraz dakiten irakasleak bakarrik onartuko liriateke. Ikasleen aldetik ez legoke problemarik.

Erabat berria den unibertsitatea sortzea oraingoz zailtxo da. Ez dut uste Euskal Gobernua asmo horretan dabilenik.

Beraz, daukagun unibertsitate publikoa euskalduntzen jardun behar. Eta jakina, behin eta berriz esan behar da: *problema nagusia irakaslegotik dator.*

Erdal irakasleek ahaleginak eta bi egingo dituzte barruan gelditzeko, estudianteez euskal irakasleak eskatzen badituzte ere. Soldata tartean dagoenean, gauza harigarriak ikusten dira.

*Bukatze*ko hauxe gelditu behar da ageri-agerian:

Euskal Herrian espainol estudianteei espainolez irakastea ondo dago. Maitasuna biderik egokiena da beti.

Baina *geure etxean euskal estudianteei* gazteleraz ikastera *bortxatzea injustizia handia egitea da* eta geure gizartea, geure herritarrak eta geure herria hondatzea. ♪



Pruden Gartzia

1.- Bai. Gaur egungo gizartean edozein ekimenetan erabiltzen den metodologia arruntari segituz, aditu talde batek bide-
ragaritasun-txosten bat osatu beharko luke, alderdi horiek guztiak kontuan hartuz; baina ziur naiz Eusko Jaurlaritzak baduela eskurik eta dirurik proiektu hori bere gain hartu eta aurrera ateratzeko. Besteak beste, 1918an lau diputazioek Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu zituzten bezala, edo 1980an Eusko Jaurlaritzak ETB. Borondate politikoa da gakoa, ez besterik.

Jakina, borondate politikoa ez da hutsean sortzen eta egitasmorik zoragarrienek ere baldintza sozial eta politiko batzuk behar dituzte mamitzeko. Baina hausnarketaren une jakin honetan lehenengo eta behin komeniko litzai-guke argitzea zein den Eusko Jaurlaritzaren sostengatzen duten alderdien asmoa euskarari buruz, alegia, euskararen normalizazioa nahi dute, bai ala ez? Noizko? Nola? Unibertsitate elebakar bat beharko litzateke horretarako? Bai? Ez? Baina ba ote dago munduan unibertsitaterik gabeko hizkuntza normaldurik? Posible ote da hizkuntzaren normalizaziorako beste eredu bat asmatzea? Asmatzen ari gara dagoeneko? Zertan ari gara? Beldur naiz EAEko botere autonomikoaren inguruan mugitzen diren eragile ugarien artean bat bera ere ez dela gai izango galdera horiei ganoraz erantzuteko, ohiko lau topikoetatik haratago. Hemen erre-pide berriak, trenbide berriak, parke teknologiko berriak,

portu berriak, museo berriak, parke tematiko berriak... denetarik aurreikusten da, denetarako ikerketa serioak egiten dira, denetarik sartzen da agendan. Denetarik?

Nago Euskal Unibertsitate bat egiteko oztopo nagusia euskararen normalizaziorako testuinguru teoriko sendo baten gabezia dela. Ahulezia politikoak baino ahulezia intelektualak dira oztopo. Ez da harriztekoa. Gogora dezagun, besteak beste, euskararen ezagutza linguistikoan aurrera egiteko ezinbestekoa izan zela bi fakultate oso sortzea orain dela hogeit bat urte (bata Deustun, bestea EHU); imajinatzen duzue zein litzatekeen egungo egoera Koldo Mitxelena Salamancan geratu izan balitz eta Patxi Altuna Erromara bidali izan balute (adibidez), bi fakultate sendoren garapena gidatzeko eskua izan beharrean? Bada, Sozio-linguistikari dagokionez, horixe da daukaguna.

- 2.- Galdera okerra da. Zertaz hitz egiten ari gara, erakunde unibertsitario berri bat sortzeaz edo lehendik dagoen bat (EHU, jakina) hizkuntza-irizpideen arabera erdibitzeaz? Bi gauza arras desberdin baitira.

Euskal Unibertsitatea sortzeko inoiz aipatu den asmo bideragarri (nire ustez) bakarra Joxerra Etxebarriari entzun nion, duela zenbait urte, hitzaldi batean. Esaten zigun orduan bidea ikastetxe berri bat sortzea zela, txikia hasieran, poliki-poliki garatuko zena. Non sortuko zukeen ere esan zigun, baina ez dator harira orduko xehetasunak errepikatzea. EHU erdibitzeaz, txintik ez. Baina inork planteatu ote du gaur egun arte EHU erdibitzea? Proposamen zehatzak entzun beharko genituzke ez pentsatzeko OVNIen agerpenei buruz ari garela, hots, bolo-bolo korritu arren inork sekulan ere serioski ikusi (planteatu) ez duen kontu bati buruz hizketan.

- 3.- Nik *unibertsitate* hitzaren barruan bi kontzeptu bereiziko nituzke: *erakundea* eta *komunitatea*. Alegia, jatorrizko esanahiari erreparatuz, *unibertsitatea* komunitate bat da, jakintza lantzeko biltzen diren ikasle eta irakasleen *komunitatea*, Behe Ertaroan lehenengo aldiz *erakundetzen* dena Bolonian, Parisen, Salamancan... Euskal Herrian ere, Oña-

tin, XVI. mendean. Jakina denez, *erakunde* unibertsitario horiek XVII. eta XVIII. mendeetan krisialdi latza pairatzen dute; baina horrek ez dakar jakinzaleen *komunitateen* desagerketa: putzu beltzetan hondoratuta dauden *erakunde* horien alboan bestelako batzuk sortzen dira: akademiak, zirkulu literarioak, proiektu editorialak... Euskal Herrian ere, XVIII. mendean Azkoitiko zalduntxoek mota berri honetako *erakunde* arketipiko hainbat sortzen dute: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte edo Bergarako Erret Mintegia. *Era-kunde*en izenak gorabehera (unibertsitate, akademia, elkar-te, mintegi...), jakinzaleen *komunitateak* aurrera darrai, eta egituratzeko formula berriak asmatzen ditu.

Unibertsitatea, *erakunde* gisa, XIX. mendean berpizten da, eta berriz ere jakinzaleen *komunitatearen* eusle nagusi bihurtzen. Baina XX. mende hondarrean *erakunde* nagusi horren inguruan sistema oso bat eratzen da: aldizkari zientifikoak, kultur elkarteak, mintegiak, fundazioak, institutu autonomoak, enpresak... Gaur egun kultur emaitzarik distiratsuenak, sarri, sistemaren sateliteren batean gauzatzen dira, ez bere zentroan.

Eman dezagun datu erabakigarri bat: azken hogeihogei-hogei urteetan euskal komunitate zientifiko-intelektual bat sortu eta garatu da, ia-ia ezerezetik abiatuta. UEUren *Inguma* proiektuan egiazta daitekeen bezala, une honetan gutxienez lau mila pertsona dago unibertsitate mailako kultur produkturen bat (liburu, artikulua, hitzaldi) sortu duena euskaraz. Datu hori publikoa da eta internet bidez kontsulta daiteke (www.inguma.org). Lau mila lagun produzitzen, euskaraz, eta unibertsitate mailan. Beraz, *komunitaterik* badugu, baina (eta hemen dago gakoa): nola lortuko dugu *komunitate* hori egituratzea? Ezen, une honetan, lau mila lagun horiek sakabanatuta daude, dozenaka leku desberdinetan lanean, elkarren arteko komunikazioa nahikoa murrizta delarik. Ezinbestekoa ote *erakunde unibertsitario* berririk bat sortzea? Edo aski litzateke gaur egun daudenetan euskara bultzatzea eta, beraien ondoan bestelako *satelite* batzuk (Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, UEU, Arantzadi, Elhuyar, Jakin, eta abar eta abar) sendotzea? Euskara *erakunde* berezi batzuetan gotortu behar da,

edo guztietan zabaldu? Denetan neurri berean, edo aukera estrategiko batzuk egin behar dira?

Gorago esan dudanez, gure ahulezia nagusia teorikoa da. Ildo honetan, *Euskal Soziolinguistika Institutuaren* sorrera datu esperantzagarria da. Eta proposamen zehatzak beti eskergarriak direnez gero, horra bat: Soziolinguistikak EHUⁿ leku berezirik ez duenez gero, eta Euskal Herrirako gai bereziki garrantzitsua denez, Eusko Jaurlaritzak Ikastetxe Unibertsitario berezi bat sortu beharko luke epe laburrera, eta baliabidez ondo hornitu. Berdin dio izenak, Madrilgo Ministerioen hatzaparretatik kanpo badago. Hartara, gure *komunitatearen* erakundetzean pauso erabakigarri bat gauzatuko luke. Horra bide bat. ¶



Andoni Ibarra

1.- Bai eta ez. Bai, Euskal Unibertsitatearen (EU) abiapuntutzat Hegoaldean UPV/EHU eta UPNarekin identifikatzen dugun espainiar unibertsitatearen eredu publikoa hartzen badugu. Aipatu unibertsitateekiko alternatiboki definitzen dugu EU, eta haien antzeko zerbait, unibertsitate bat, campus bat, normala, estandarra, baina euskaraz, sortzea dugu xede. Eredu posible horri EU1 deritzot. Beronen osagai bereizgarria eta desberdintzailea linguistikoa da funtsean.

EU1 proiektua erabat lotuta dago gizabanakoen goiari, ustez arazo bakoitzeko irtenbidearen estrategia egitura sortu edo eraldatzean datzala. Sortze edo eraldatze bakarra gainera («unibertsitate bat, hizkuntza bat») eta «ahal da, beraz egin behar da» printzipioari jarraitzen diona.

Gogoak eraldakuntza prozesuetan duen garrantzia ukatu gabe, azken hogeita bost urteetako esperientziak ostera aurreko planteamendua erlatibizatzeraz garamatza, alegia, antolaera estruktural ezin hobearen existentzia oro har zalantzan jartzera, eta bereziki berori dela goi mailako

euskarazko hezkuntzak dituen arazoentzako irtenbide printzipioa.

Zeren zer gerta lekiguke EUren egingarritasuna Hegoaldean dagoen eredu publikoaren inguruan —agian era kaskarrean errepikatu guran— planteatu beharrean, beste eredu posible, etorkizunaren ereduaren inguruan planteatuko bagenu? Bestelako unibertsitate mota batez gogoetatu behar dugu orduan, eta *bestelakotasun* horretan datza EUren bereizgarria. Beste unibertsitate horri EU2 deritzot; hizkuntza faktorea ez da EU2ren funtsezko osagai bereizgarri bakarra. Euskara hizkuntza mosaiko baten erreferente funtzionala izango da. «Euskal» da EU2 erreflexiboki etengabe problematizatzen duelako hizkuntzaren arazoa, unibertsitatean euskarak duen erreferentzialitatea, alegia. Baina sinetsita nago EU2 erakargarria izango dela baldin beste unibertsitate eredu horietara lerratzen bada, eta ez soilik euskaraz delako.

Zeren jokoan dagoena ez baita EU1 eredia, EUren zentraltasuna Berrikuntzaren Euskal Sistemari baino, hau da, jakintza eta praktika sortze, hedatze eta erabiltze prozesuak ahalbidetzen duten edonolako ezagupenek, berrikuntzek eta erakundek osatzen duten multzo konplexuan. Ezin dugu EUren egingarritasuna eta iraungikortasuna aztertu berau testuinguru horretatik isolatuz. Eta hemen irtenbideak eta erantzunak baino zalantzak areagotzen zaizkigu. Zeren EURI gertatzen zaiona beste gizarte eragileekin elkareraginez gertatuko zaio, berauen interesek eta gogoek moldatuko dute, bai eta «EU nola ikusten dutelako» irudikapenak, harengatik zer espero, edo nolako eta zenbateko eragina eduki dezaketelako usteek ere. EUren egingarritasuna beretik eta enparauetatik aztertuz zehazten da. EU2 egingarri da gizarte erreferente bilakatzen bada, gizarte pertzepzioen erreferente. Hori ezean, egun ez den bezala, EU2 ez da egingarri, baldintza juridikoak, ekonomikoak, sozialak, politikoak eta akademiko-instituzionalak gaindigarriak izan arren.

- 2.- Zail dateke EUren onuragarritasuna aztertzea ezagutzaren sortze, erabilera eta zabaltze eratan gertatzen ari diren alda-

keta prozesu konplexuak kontuan hartu gabe. Ez dut hemen baloratuko aldaketa horiek gure inguruko unibertsitateetan duten eraginaren egokitasuna. Azpimarratu nahi dudana da ezagutza-sortze prozesuetan ematen ari diren aldaketan, eta unibertsitateen betekizun berrien eta beren kanpo harremanen artean dauden elkarreraginak. Hortaz, ekonomiaren oinarritzat zientzia eta teknologia duten herrialdeetan bortizki eragiten dute nola enpresa moduko rolak hartzera unibertsitateak behartzen dituzten joerek, sortutako ezagutza kapital bilakatzen den heinean, hala unibertsitateen eta gobernu eta enpresen arteko lotura estutzera, ezagutza sortu eta komertzializatzerakoan.

Sortuz doan planeta-ekonomia berria ezagutzan oinarritzen da, eta berrikuntzak eragiten du. Gizateria osoa dago, nola edo hala, zuzenki edo zeharka, «ezagutza gizartean» murgilduta. Eta testuinguru global horretan euskal gizartea *ikas-gizarte* gisa uler dezakegu. Ikas-gizarteak dira gizakiaren jardueretan etengabe ikasteko, egokitzeko eta berritzeko ahalmen kolektiboak handiki hedatu dituztenak, gizartearen lankidetzeta/gatazka harremanak zuzenki baldintzatzeraino. Ikas-gizarte bilakatzeke geratzen diren herrialdeek honakoa dute amankomunean: ezagutza gizartean menpeko edo marjinazio posizioa dagokie.

XXI. mendeko EUren onuragarritasuna euskal ikas-gizartea eraikitzen elkarlanean ari izateko gaitasunei lotuta dago. Hortaz, EU1ek izango duen zeregin soziala ez da garrantzi handikoa izango: bigarren maila ondoko hezkuntza fabrikaren beharra beteko du. EU2ren onuragarritasunak ardatz bi dauzka: batetik, haren ekarpena «heziketa integralerako», eta, bestetik, kanpoko instantziekiko harremanetan sartzea, orientabide, modalitate eta ondorio jakinetan.

3.- *Zein helburu du EU2k?* Normatiboki honela definitzen da:

(1) Hiru zeregin ditu: (i) mailarik garaietaraino irakaskuntza berezitua, ezagutzan zuzenki oinarritzen diren jardueretarako, eskaintzea; (ii) ikerkuntza eta sorkuntza, jakintza eta kultura arlo guztietan; eta (iii) lankidetzeta kanpo eragileekin, ezagupenak sortuz, berauen erabilera so-

zialki erabilgarri eginez, eta ikas-gizartearen ahalmen kolektiboak hedatuz.

(2) Hiru zeregin horiek batu eta era egokian elkar lotuz bakoitzaren burutzapenak besteenak eginaraziko ditu, ikasleen heziketa integrala —laugarren zeregina— lortuz, lan mundurako, hiritartasunerako, eguneroko bizitzarako eta kulturarako.

Nolakoa behar du izan EU2ak? Labur esanda, hiru esparrutan beharko lirateke egitura eraldaketak:

(1) Finantzaketa. Unibertsitate publikoaren ikusmoldea zaharkituta dago, baldin eta horren pean gobernu finantzari bakartzat agertzen bada, funtsezko itzulkin ekonomikorik espero gabe. EU2k finantzaketa publikoa izango du, baina hasiera-hasieratik ziurtatuko du aurrekontuko %15-20 tarte bestelako iturriez: zentro autofinantzatuak, zerbitzu ematearen bidez lorturiko baliabideez, nazioarteko lankidetzan izandakoez, etab.

(2) Gizarte harremanak. Harremanak estutzea sektore sozio-produktiboekin, irakaskuntza, ikerkuntza, hedakuntza eta zerbitzu ematea artikulatuz.

(3) Ebaluazioa eta kreditazioa. Eraginkortasunaren hobetzea, autoebaluazioa eta etekin minimoen helburuak ahalbidetzen dituzten prozedurak finkatuz, giza baliabideen (irakasleak eta AZPkoak) zein baliabide materialen eraginkortasun nahikoa lortuz.

Estrategia. Nola lortu bestelakoa, EU2, gaurkotik abiatuz? Ez dut errealista ikusten dagoeneko zazpi unibertsitate dituen herrialde honetan unibertsitate sistemaren dibertsifikatze estrategia. Bai osterik ikasketen dibertsifikatzearena. Estrategia horrek ardatz bi dauzka: (i) goi mailako ikasketen dibertsifikatze eraginkorra bultzatzea; (ii) maila ezberdinetako arkitektura instituzionala sortzea. Biak argituko ditut zertxobait.

(i) Gaurdaino euskal ikasketak erdal ikasketen morroi dira gure unibertsitate publikoetan. Erdaraz sortzen dena euskarara «itzultzen» da. Aipatutako dibertsifikatzean, titulazio mapa berrietan titulazio batzuk euskaraz sor daitezke, kalitatez eskain daitezkeenak, eta gure errealitatera lotuta daudenak. Hori litzateke UPV/EHUko Euskararen

Normalizaziorako III. Planaren erronka, erdal «kalkoaren» ideia antzutik aldendu nahi badugu.

(ii) Gaurko unibertsitate publikoen eredu tubularra ekidinez, ikasketen eta titulazioen arteko arkitekturak malguagoa behar du izan, eta hori bultzatu beharra dago. Edozelan ere, arkitekturak maila bi ziurtatuko ditu titulazio guztietarako: bata, ezagupen orokorrez osatua; bestea, ikasketari dagozkion ezagupen berezituagoez.

Gutxi da, baina bide horrek estrategia posible bat erakusten du. Jaurlaritzak iragarritako Unibertsitateen Euskal Legea eta UPV/EHUren estatutu berrien egitea (bai eta UPNArenak ere, beste maila batean) bitartekoak ditugu Euskal Unibertsitatea ezagutzen dugun eredutik ezberdindu dadin. Legeak eta estatutuek araudi zabalak eta malguak egin behar dituzte, kudeaketa errazteko egintzarako autonomia handiagoa eman, erantzukizunean oinarritutako autonomi irizpideak bultzatu, eta emaitzen ebaluaziorako mekanismoak finkatu. Eta euskararen zentraltasuna ezagutu, joerak eta helburuak zehaztuz (i) zein (ii) ardatzetan. Abiapuntu egokiak EU2 eraikitzen hasteko, alegia, euskaraz artikulatutako irakaskuntza aurreratu, kalitatezko eta etengabe berriztagarirako tresna izango dena. ¶



Inaki Irazabalbeitia

Hogeita bost urte atzera begira errazagoa zirudien denak, baita euskal unibertsitateak ere. Orduan *Jakin*-ek orain plazaratutako galderak paratu egin izan balizkigu, 'euskal unibertsitatea?', 'Noski, baietz' erantzungo genukeen. Prozesu logiko baten atzen urrats moduan kontsideratuko genukeen eta ez genukeen oso urruti ikusiko. 'Hogeita bost urte igaro baino lehenago? Bai, jakina!'. Orduko beste anitz gazetan bezala, leloek eta ideiek zeukaten indarra. Zailtasunak ez genituen antzematen, edota, ilusioak eta esperantzak bidea egingarria zela erakusten ziguten.

Alta bada, *Jakin*-ek gai bera jarri digu mahai gainean mende laurdenaren ostean eta, hain segur, tentu handia- goz erantzungo dugu gehienok, ez behintzat duela hogeita bost urte erantzungo genukeen bezain baikor, ez baitira 25 urte alferrik pasatu.

Atzera begira guztiz bestelakoa da orduko eta oraingo unibertsitate-egoera, bai unibertsitatearen beraren egoeratik baita euskarak berak bertan duen estatusagatik ere. Sei unibertsitate ditugu orain Euskal Herrian, bertan erro- tuak eta gizarte-ospe adierazgarrikoak. Horietako bitan, EHU eta MUNIn hain justu, euskarazko eskolen eskaintza adierazgarria da. Unibertsitate-irakasle euskaldunen multzoa aipagarria eta kalitatezkoa da. Ikasliburuak nahi bezain ugariak ez badira ere, bibliografia esanguratsua da- go. Hala ere, euskal unibertsitatea orduan baino zailago eta urrutiago ikusten dugu batzuok, garai hartan giroan zegoen ereduari jarraituz burututakoa behintzat: berariaz antolatutako egitura berezia, hain justu. Zergatik? Ares- tian aipatutako unibertsitatearen indartzea eta errotzea da a rrazoirik sendoenetako bat. 1970eko hamarkadaren bu- kaeran unibertsitatea, publikoa bederen, basamortuaren parekoa zen. Kanpo-unibertsitateen menpe zegoen. Balia- bide urriak zituen. Pribatuen aldean ospea ere hala modu- koa zuen. Unibertsitate-mailan den-dena egiteko zegoen. Ia hutsetik abiatu zen Euskal Herriko Unibertsitatea. Be- raz, ezein bide esplora zitekeen EHU eratzeko eta neurri handi batean bide batetik ala bestetik abiatzea borondate politikoaren menpe zegoen.

Gaur egun, aitzitik, EHU, askogatik gure unibertsitate- rik handiena bidenabar, errealitatea da. Baliabide aski ego- kiak ditu, gabezia adierazgarriak baldin baditu ere. Irakas- kuntzan eta ikerketan unibertsitate pribatuen inbidiarik ez du eta, alor askotan, gaingitu egiten ditu. Ikerketa-taldeak, sailak eta erlazio-sareak osatu dira. Unibertsitatea egina da- go eta elebitasunaren bidea aukeratu zen. Egoera hori al- datzea ez da erraza. Orduan euskal unibertsitatea aldarr i- katzen zuten asko EHUko irakasle dira egun, eskolak eus- karaz ematen dituzte, tesinak eta tesiak euskaraz zuzent- zen dituzte... Euskal unibertsitatea aipatzen zaienean ez-

kor azaltzen dira horietako batzuk. 'Zertarako?', galdetzen dute, 'Unibertsitatea zatitzea kalterako izango litzateke'.

Arduradun politikoen artean ez dago gaiari buruz giro. Gehienentzat EHU eta euskal unibertsitatea gauza bera dira. Ez dituzte bereizten. Unibertsitatea euskalduntzearen alde daude, horretarako baliabideak jartzeko prest. Alabaina, horizontea gorago aipatutako elebitasuna da.

Horixe da egoera, errealitate gordina. Euskal Unibertsitatea, euskaraz jardungo duen unibertsitate-egitura alegia, behar du euskarak etorkizuna bermatu nahi badu. Egungo elebitasun-eredua adabakia da, beharrezko adabakia segur aski, baina praka zaharrak bota eta berriak nola lortu planifikatu behar dugu.

Nire iritziz beste unibertsitate bat sortzea ez da bidea. Horretarako nahikoa baliabide ekonomiko egonik ere, a riskutsua deritzot. Unibertsitate-komunitate sendo bat sortu beharko litzateke hasiera-hasieratik gainerako unibertsitateekin lehiatzeko gai izateko, eta nago unibertsitate-komunitatearen zati adierazgarri batek abenturatan sartzeko gogorik ez duela. Nola, bada, ailegatu euskal unibertsitatera? EHUren transformazio gradualetik letorke euskal unibertsitatea.

EHUren egiturek euskaraz lan egitea izango litzakete helburua, EHU osatzen duten pertsonen hizkuntza-aukera errespetatuz beti ere. Alegia, pertsona eleanitzez osatutako euskarazko egitura baterantz joan beharko ginateke. Prozesu planifikatu baten bidez, enpresetan euskararen erabilera areagotzeko prozesuen antzeko baten bidez, oraingo lan egiteko ohiturak eta moldeak aldatu beharko ditu. Izan ere, euskal unibertsitatearen erronka nagusia ez dago irakasle egokiak prestatzean, terminologia osatzean edo bibliografia ugaritzean, orain arteko ahalegin gehienak hortik joan badira ere, horiei eusten dieten egiturak aldatzean baizik.

Ikasle belaunaldi berriak euskaraz heziak datoz; unibertsitaterako samera-froga euskaraz egiten dutenen kopurua haziz doa etengabe; ikasketen lehen ikasturtean euskal taldea erdal taldea baino handiagoa hasi da gertatzen hainbat tokitan... Horrek domino efektua ekarriko du, bi-

garen mailako irakaskuntzan bezala. Ikasle horiek atenditzeko irakasleak kontratatzea berez etorriko da eta hortik terminologia eta bibliografia. Bien bitartean, adinak ez baitu barkatzen, irakasle erdaldunak jubilatuz joango dira. Oro har, gazteago diren irakasle euskaldunek ardura gero eta handiagoa hartuko dute... Baina horrek ez du euskal unibertsitatea ekarriko, beharrezko oinarria izanik ere. Berriazko ahalegina egiten ez bada, egiturak antzera jarraituko du lanean: gaztelaniaz. Enpresa-mundua euskalduntzen abiatu ginenean, badira dagoeneko hamazazpi urte, laster ohartu ginen lan-egiturak eta -prozedurak euskaldundu ezean pertsonak trebatzen alferrik ari ginela, irabazitako trebetasun hori lan-giro erdaldunean mugiltzean berehalakoan galtzen zutelako. Lezio hori euskal unibertsitatearen bidean ere aplikatzekoa dela iruditzen zait.

Irakasleak formatu behar dira, jakina. Ikasle onenak atzerrian trebatzeko programak indartu behar dira. Gero, ikasle horiek unibertsitatean integratzeko manerak antolatu beharko dira. Irakaslego propioa osatzeko neurriak paratu beharko dira. Terminologia eta bibliografia osatuz joan beharko da. Hori guztia beharrezkoa da. Unibertsitatean sartzen diren ikasleek euskarazko eskaintza izateko presioa egin beharko dute. Gizartean, euskal unibertsitatearen mezua argitu beharko dugu. Alabaina, unibertsitatearen egituretan egin behar dugu bereziki ahalegina, nik uste, gaurtik aurrera horizonte onargarri batean euskal unibertsitatea izan dezagun.

Bien bitartean, ez genuke begi bistatik kendu behar Mondragon Unibertsitatearen asmoen bilakaera. Eskolak ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz emateko helburua dute. Egokia nik uste. Ekarriko al du horrek MUNI euskal unibertsitate bihurtzea? Ez, arestian aipatu ditudan puntuak kontuan hartzen ez badira. Hala ere, errazago egin ditzakeela urratsak iruditzen zait hiru arrazoi medio: tamaina, kooperatiba mugimenduaren oinarri filosofikoak eta kokaera geografikoa. Adi egon beharko dugu. ¶



Xabier Isasi

1.- Oraindino ez. Ez behintzat, *Euskal Unibertsitatea* ulertzen dugun moduan. Oinarrizko baldintza akademiko (irakasleria eta ikasleriaren aldetik), demografiko eta, neurri batean, sozialak nahikoak izan arren, juridikoki eta, batez ere, politikoki ez dago behar besteko kondiziorik *Euskal Unibertsitatea* bideragarria izateko.

Ikuspegi akademikotik azterturik, unibertsitatez kanpoko hezkuntza eredu euskaldunen garapenak ziurtatzen du, kantitatez eta kalitatez, ikasle kopuru nahikorik iristen dela unibertsitateraino. Kopuru hori, gainera, urtez urte handituz doa eta hazkuntza joera horri eutsiko zaiola dirudi. Euskaldunen gizaldi berriak euskaraz eskolatuak eta lehen baino maila jasoagokoak dira, euskararen estandarizazioak Euskal Herriko unibertsitate mailako ikasleria izatea ekarri du. Demolinguistika, neure ustez, alde daukagu.

Dagoeneko bada irakasleria euskalduna. Ez da oso zabala, mila irakasle inguru, baina esperientziaduna eta ondo formatua da; jakintza alor anitzeko eta unibertsitate irakaskuntza maila guztietako irakasleak dauzkagu (lehenengo zikloetatik doktoregoraino). Irakasleriaren banaketa aztertu gabe badago ere, dauzkagun datuen arabera giza eta gizarte zientzietan hobeto gaude osasun zientzietan eta zientzietan baino, nahiz azken hauetan oso txarto egon ez. Problema da irakasleria euskalduna gain zamaturik eta sakabanaturik dagoela, baina horiek ez dira arazo konponezinak.

Alderdi soziala korapilatsuagoa da. Euskalgintzan, unibertsitateari dagokionez, salbuespenak salbuespen, ez dago ikuspegi argirik. Unibertsitateko ikasleak izan dira zuzen-zuzenean gaiari heldu diotenak, Ikasle Abertzaleak, *Euskal Adarra*, *Euskal Herriko Unibertsitate Barrutiaren* aldekoak eta abar; UEUren urteetako jarduerak, batetik, eta EIREren sorrerak, bestetik, bultzada berria ekarri diote;

Ikastolen Elkarteak zertxobait hurbildu da. Baina sindikatuei erabat arrotz egiten zaie gaia, eta gainontzeko elkarte eta erakundeentzako *Euskal Unibertsitatearena* garrantzi gabeko gaia da.

Ostera, alderdi politiko eta erakunde publikoetan, oro har, oso jarrera itxia dago. Unibertsitatea estatuen ia erabateko eskuduntza da eta antolaketa juridiko administratiboak ez du zirrikitu handirik uzten Autonomia eta Foru Komunitatetik zerbait egin ahal izateko. Gauzak horrela, bada, politikari gehienek ez daukate inolako interesik *Euskal Unibertsitatearen* gai honetan.

- 2.- Onurak eta abantailak besterik ez ditut ikusten. Euskara desagertzeko arriskutik ateratzeko unibertsitatea, *Euskal Unibertsitatea* hain zuzen, funtsezko tresna da. Euskararen komunitateak lortzear duen garapen mailak, hezkuntzan, hedabideetan, lan munduan eta abarretan, eskatzen du aurrera urratsak egitea. Bestela gerta liteke abiatutako normalkuntza prozesua tupustean geldiaraztea eta zikiratzea. *Euskal Unibertsitatea* euskararen komunitatearen goren mailako eragilea dela ulertu behar dugu, euskararen normalkuntza bizkortu eta egonkortzen duen eragilea alegia. ETB1, *Euskaldunon Egunkaria*, herri-aldizkariak, irrati euskaldunak, *Euskaltzaindia*, *Kontseilua*, Ipar Euskal Herriko *Hizkuntza Kontseilua*, ikastolak, unibertsitatez kanpoko hezkuntza gune euskaldunak, administrazio publikoetako euskara zerbitzuak... horiek dira, oraingoz behintzat, euskararen komunitatearen hezurdura eta ardatza, eurek bariarik gauden egoeran baino askoz okerrago geundeke; *Euskal Unibertsitatea* amaraun horren beste atal bat osatzera letorke.

Ghettoa orain dagoena da, irakasleria eta ikasleria euskalduna kateaturik eta bazterturik dago. Indarrean dagoen ereduak sakabanaketa, interes partikularren nagusigoa eta irizpide bateraturik ez izatea dakar. Unibertsitario euskaldunei ez zaie, oro har, inolako berezko estatusik aitortzen, ez daukate ez eskuduntzarik ez tresnarik sare propiorik eratzeko. Frantzia eta Espainiako unibertsitateetan lortzen dena izaten da, gehienbat, hizkuntza eskubideen

aitorpena, hori kasurik onenean, baina garapen murritzean eta beti agintarien kontrolpean. Are gehiago, Espainiako unibertsitatean ezarritako aldaketak orain arte ibilitakoa atzera bidean jartzen du.

- 3.- *Euskal Unibertsitatea* izango bada, unibertsitate *normala* izango da edo, besterik gabe, ez da izango. Gure xedea, neure iritziz behintzat, *Euskal Unibertsitatea*, erakunde publikoa, osoa, integrala, autonomia, hein handian finantzabide publikoz hornitua, herri garapenaren zerbitzuan, generalista —jakintza alor guztiak lantzen dituen— eta unibertsitate-hezkuntza maila guztiak lantzen dituen —diplomaturak, lizentziaturak eta doktoregoa—; berritzailea, bai irakaskuntzari dagokionez —ohiko lanabesak eta telemati-koak darabiltzana—, zein ikerkuntzari dagokionez.

Hori lortzeko, jakina, bide luzea ibili beharra dago. Neure aburuz, hiru bide desberdin jorratu beharko genituzke datozen urteotan. Aurrena, Euskal Herriko unibertsitateetan —publiko zein pribatuetan— euskararen normalkuntza politika garatzea eta sakontzea, xede horren kariaz jartzen diren baliabideen erabilera optimizatu, ekimenak koordinatu eta unibertsitateen arteko lankidetzak bultzatzea (UPV/EHU eta UPNA/NUPen arteko hitzarmena, EIRE eta abar). Bigarrena, partaidetza sozialeko ekimenak sortu eta garatzea, euskal hezkuntza alorrean diharduten eragileak bildu eta goi-mailako formazio proiektuak antolatu eta garatzea (Ikasgu Nagusiaren antzeko proiektuak). Eta, azkenik, antolakuntza autonomo eta malguetan indarrak metatu eta bilgune erreferentzialak eraikitzea (UEU), eragin alor sozial eta politikoan *Euskal Unibertsitatea* bideragarria izan dadin. ¶



Roldan Jimeno

1.- Momentu hauetan gai gara euskaraz arituko litzatekeen unibertsitatea eraikitzeko, baina arazo larriekin. Gainditu beharreko lehena politikoa da, eta lurraldetasunaren zati-keta politiko-administratiboarekin zerikusirik dauka. Euskal Unibertsitateak Euskal Herriko lurralde historiko guztien ispilu izan behar du, horrek dakarren eztabaidarekin. Teorian proiektuak EAeko erakundeetan harrera ona izan dezake, baina ez horrela Iparraldekoetan eta are gutxiago Nafarroakoetan. Errealistak izanda eta epe motzera, baldintzapen politikoek euskal unibertsitate publiko baten proiektua eragozten dute. Honekin batera, Euskal Unibertsitatea sortzeko dagoen arazo juridikoa agertzen zaigu, egungo lurraldetasunaren koskak hainbat eta hainbat oztupo baitakartza: Euskal Unibertsitate publikoa aurreko errealitate batetik edo batzuetatik sortuko balitz (EHU, EHU+NUP, EHU+NUP+Pabe eta Aturriko Unibertsitatea), erakunde horiek dauzkaten egoera legalak proiektu berri-
ra egokitu beharko liriateke. EHUren izaera legala EAera mugatzen da. Bestalde, NUPekin daukan hitzarmena ezin da Euskal Unibertsitate baten oinarri legala izan eta, edozein kasutan ere, Pabe eta Aturriko Herrialdeen Unibertsitatearekin proiektu bateratu bat egitea egitasmo utopikoa izango litzateke, egun ditugun baldintzetan behintzat.

Unibertsitate pribatuari dagokionez, egoera zeharo ezberdina da. UEUren proiektuak hazi emankorra eman dezake, benetako Euskal Unibertsitatea bilakatuz, baina horretarako bere egitura juridiko eta akademikoa goitik behera aldatu beharko luke. Bestelako iturburua Ikastolen Elkarteak izan daiteke, hainbat urte dituen proiektu sendo hau hezkuntzaren maila gorenera aplikatuz. Azkenik, sasi-euskal unibertsitatea dugun Mondragon Unibertsitatearen aukera Nafarroara eta Iparraldera zabalduko balitz, euskaraz burututako eredu «nazional» baten aurrean egongo gi-

nateke. Aukera hau gauzatuko balitz, euskara hizkuntza nagusia izango litzateke, baina gaztelania-frantsesa eta ingelesak ere bere garrantzia eduki beharko lukete. Tamalez, Arrasatekoen egitasmoa enpresa mundura mugatzen da, hainbat eta hainbat ikasketei ateak itxiz. Euskal Herrian ditugun beste bi unibertsitate pribatuetatik ateratako proiekturen batean pentsatzea zientzia fikziozkoa da, bai Deustutik eta are gehiago euskofobia den Nafarroako Unibertsitatetik.

EIREk antolaturiko «Euskal Unibertsitatea-2021. Egiten ari garen euskarazko unibertsitatea» kongresuan (Bilbo, 2001) agerian gelditu zen bezala, baldintza akademikoak geroz eta hobetoak dira. Arloka salbuespenak aurkitu baditzaiegu ere, epe laburrera gaindi daitezke, are gehiago Unibertsitate bat eratzea momentu bateko gauza ez dela jakinik. Arazo larrietarikoa estatu espainol eta frantsesaren hezkuntza-eredu ezberdina da, ikaslegoari eragiten zaizkion eragozpenekin. Irtenbidea ez dago Erasmus eta antzeko programetan, baizik eta ikasleek campus ezberdinetako Euskal Unibertsitate berean ikasketak arazo administratiborik gabe burutu ahal izatean. Europa mailan unibertsitate sistema berberara joaten ez den heinean, Espainia eta Frantziako estatueta hezkuntza sistemak ezberdinak izango dira. Gogoratu beharra dago, besteak beste, kalifikazio sistema ezberdinak daudela, Iparraldeko *Maitrise*-ak Hegoaldean baliokiderik ez daukala... Horregatik, Euskal Unibertsitate «nazional» baten proiektuaren gauzatzea zaila izango dugu, hau Pirinioetako bi aldeetara luzatu nahi badugu, behintzat.

Ekonomi arazoei dagokienez, unibertsitate publiko baten gastua Hegoaldeko herrialdeetako erakunde publikoek bere gain har dezakete, beti ere borondate politikoa- ren baitan mugituz. Iparraldeko kasua ordea oso bestelakoa da. Eredu pribatuaz ari bagara, dirulaguntza publiko garrantzitsu batekin kontatu beharko genuke, proiektu hau elitistegia izan ez zedin.

Demografia da Euskal Unibertsitatearen giltza eta zentzua. Iparraldeko euskal gaztediaren murriztapenak bertako euskarazko unibertsitatearen proiektua baldint-

zatzen du, baina Euskal Unibertsitate bateratu bat eraiki-ko bagenu, arazo horiek desagertuko lirateke, Pirinioen alde batetik bestera ikasleen mugimendu handia sortaraziz. Hegoaldeko etorkizuneko gazteek ordea Euskal Unibertsitatearen premia dute. Baikorra badirudi ere, euskal hiztunen hazkundeak egungo egoera politiko krispatuarekin bukatuko duela uste dut. Nafarroako kasuan argi eta garbi agertzen zaigu. UPNko gobernuaren euskararen kontrako politika beldurrak eragiten du. Hots, Nafarroako agintariak uste dute lehen hezkuntzan euskararen eredu hazkundeak etorkizunean eragingo duen hiztunen potentzialak nabarrismo eta espainolismoari aurre egingo diola, eta horregatik indartzen dute euskararen kontrako jarrera bortitza lehen hezkuntzaren matrikulazio garaian. Etorkizunean, ordea, euskal hiztunen kopuruak orduan egongo den gobernuaren eta unibertsitateen hizkuntz eta kultur estrategiak aldatzera behartuko ditu, beti ere, euskara eta euskal kulturaren onerako.

- 2.- Hizkuntza bera da proiektuaren onuragarritasunik nagusia. Euskal Unibertsitateak egun existitzen diren azpiegituren etorkizuna —EHUrena batez ere— baldintzatu dezake, baina horrek ez du proiektu berriaren sorrera gelditzeko arrazoia izan behar. Alde batetik, agerian da Euskal Herrian unibertsitate sistemaren garapen itzela —eredu pribatuan zein publikoan— daukagula; bestetik, arazoi demografikoengatik ikaslegoaren kopurua beherantz joanez, gure unibertsitateak ikaslego urri hori erakartzeko lehian sarturik daudela. Egoera honetan, beste unibertsitate baten sorrera burugabekeria bat dirudi. Ordea, ikasle euskaldunen kopuruaren gorakadaren beharrei ditugun unibertsitateek askotan erantzuten ez dietela pentsatzen badugu, Euskal Unibertsitatearen proiektua guztiz onuragarria dela iruditzen zait, beste unibertsitateei ikaslegoa kentzen badiete ere.

Arriskuei dagokienez, aipatu den EHU euskal irakasleez hustutzearekin ez nator bat. Erakunde publikoa sortzen bada, EHUko postuak utzi eta Euskal Unibertsitatera pasatuko lirateke. Pribatua bada, irakaslegoaren kopuru

teorikoa EHUtik kanpo aurkitu daiteke eta, behar izatekotan, EHUko irakaslegoa erabili, orain Deustun eta EHUen era berean irakasten duten hainbatek bezala.

Euskal Unibertsitatearen ereduak izan dezakeen arriskurik nagusia frantses —Iparraldean— edo gaztelania —Hegoaldean— tekniko menderatzen ez duten profesionalak ateratzea da. Bere ikasleak euskara tekniko txukun eta akademiko bat erabiliko duten profesionalak izango dira, euskal gizarteak eskatzen duen modura. Baina gure lan esparruan, orokorrean, Euskal Herria banaturik dagoen bi estatuetakoz hizkuntzekin elkar bizi behar dugu, eta arlo tekniko horretan ezin gara alfabetatugabeak izan. Mundu globalizatu honetan ere, ingelesak bere esparrua eduki beharko luke, honetan Mondragon Unibertsitatea eredu garrantzirik delarik.

- 3.- Euskal Unibertsitateak espirituz publikoa beharko luke izan, baina arestian aipatu dudak bezala egoera politikoa-
ren aferak bide hau eragozten du. Proiekturik hobere-
na herrialde guztiak bateratuko lituzkeen Unibertsitate pu-
bliko bat izango litzateke, baina hau, tamalez, ezinezkoa
da. EHUtik sortutako proiektu batek Nafarroa eta Iparral-
dea alde batera utziko lituzke, baina ezer ezean, ideia ho-
nen bultzada bilatu beharko litzateke. Paraleloa EITBn
aurkitzen dugu. Euskal Irrati eta Telebista herrialde guztie-
tarako irrati eta telebista publikoa izatea komeniko litza-
teke, baina hau ezinezkoa denez, oraingoz EAetik susper-
turikoarekin moldatu behar dugu. Edozein kasutan ere,
EHUk egun dauzkan egitura juridiko-akademiko eta bote-
re-indarrek bertatik ateratako Euskal Unibertsitate hipote-
tikoa eragozten dute.

Egoera honetan eta praktikotasunera begira, Euskal Unibertsitateak pribatua behar du izan. Aipatu bezala, UEU eta Ikastolen Elkarteak sorburuak izan daitezke, bi erakunde hauen esperientziak gure proiektuari sendotasuna eman diezaiokelako. Unibertsitatea eraikin konbentzionaletan kokaturik egon beharko litzateke, baina teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak erabiliz, hainbat kreditu ikasketak birtualen bidez jasotzea ahalbi-

detuz. Karrerak herrialde ezberdinetan banaturiko campusen arabera banatu beharko lirateke, EHUren adibidea jarraituz, baina sistema honen okerrak zuzenduz: ikasleentzako erresidentzia merkeak sortu, garraio publikoen dohaintasuna, sail bereko irakaslearen nomadismoarekin bukatu... ♪



Jesus Mari Larrazabal

Beste hogeitabost urte?

Duela 25 urte idatzi nuenarekin hasiko naiz:

Unibertsitatea, guk ezagutu eta ezagutzen dugun unibertsitatea, sistema kapitalista eta desnazionalizatzaileen aparatua ideologiko eta sostengu politiko trinko den unibertsitatea, zeharo desprestijiatu dago gure artean. Eta arrazoinenez. Desprestijiatu eta hiltzorian... Haatik, guk ez dugu, ez, unibertsitate hitza saihesten. Inoiz baino ozenkiago aldarrikatzen dugu euskal unibertsitatearen beharra.

25 urte pasa dira eta orduan esandako hori, zoritxarez, gaur ere errepikatu beharra daukat, euskal unibertsitatea eraikitzeko oinarri efektiborik ez baita tarte honetan jarri, ez aginte politikoaren aldetik (batez ere EAEkoaren aldetik), ez ekimen pribatutik, ezta hainbesteko bokazio publikoa duen hainbat erakunde pribaturen aldetik ere. Zerbait azpimarratzekotan honako hau seinalatuko nuke: unibertsitatearen esparruan Eusko Jaurlaritzak segidismoaren politika egin du unibertsitate publikoari dagokionean, euskaraz irakasteko irakasleen kopurua asko gehitu bada ere, momentuan momentuko hutsuneak betetzera mugatu baita, plangintzarik gabe eta, okerrago dena, unibertsitatearen egitura bere horretan utziz. Hiru urte barru Gasteizen kokatutako Eusko Jaurlaritzak 25 urte beteko ditue-

nez, gauza ona litzateke Jaurlaritza honen historian unibertsitateaz ardura efektiboa izan dutenen zerrenda ongi aztertzea, egindakoa, egin gabekoa eta egin beharrekoa behar bezala bereiziz. Nire ustez, gertatutakoa ez da harritzekoa, alderdi politikoek (jakina, abertzaleek batez ere, alderdi abertzale guztiek!) ez baitute herriaren aldetik behar adina presio jaso euskal unibertsitatearen arazoari aurre egiteko.

Natorren orain *Jakin*-ek egindako galderei erantzute-ra. Euskal unibertsitatea eraiki dezakegu eta eraiki egin behar dugu. Ikusi egin behar da urratsez urrats zein titulazio jarri eta zein ez, gizartearen eskabideen arabera. Gizartea diot, bere konplexutasun osoan, eta ez merkatua. Soilik merkatuaren arabera eraikitako unibertsitate batek ez luke merezi, merkatuaren premia aldakorrei besterik gabe erantzuteak unibertsitatearen izaera sakona deuseztuko lukeelako eta, arriskutsuago litzatekeena, merkatuan mugatutako balioek aginduko luketelako unibertsitateko irakaskuntza eta ikerkuntzan. Puntu honetan ez dut hemen asko insistitu nahi. (Edonola, begiratu Euskal Herrian dauden unibertsitate publiko nahiz pribatuen merkatuarekiko ajuste akritiko etengabeak egiteko joera.) Titulazio horien aukera egiterakoan alderdi demografiko-akademikoak hartu behar dira kontuan eta irakasle ongi prestatuen existentzia. Honetaz oso argi hitz egin behar da: euskal unibertsitateak, zerbait izatekotan, lehenik eta behin Unibertsitatea izan behar du, ahalik eta unibertsitaterik onena Europa mailan, geure kondizio ekonomikoak eta politikoak kontuan hartuz. Irakasle onak ez dira goizetik gauera sortzen eta, nire ustez, oraindik bide asko egin behar da euskal irakasle onak sortzeko. Egia da euskal irakaslegoa kopuruz handitu dela azken 15 urte hauetan, premia larri erantzuteko, baina orain kalitatean hazi behar luke, honetarako neurri egokiak eskainiz nazioarteko ikerketan sar dadin eta aurrera egin dezan. Itxura guztien arabera, Euskal Herriak badu gaur behintzat bitarteko ekonomikorik aski euskal unibertsitatearen oinarri ekonomikoa ziurtatzeko. Ez naiz ekonomia publikoaz bakarrik ari, pribatuaz ere bai (esaterako, hor ditugu aurrezki kut-

xak, hainbat kooperatiba eta enpresa berezi...). Badakit hau diodanean zertaz ari naizen, oinarri ekonomiko sendoak behar baititu unibertsitateak, ez martxan jartzeko bakarrik, aurrera begira garatzeko batez ere.

Esan dezadan baita ere kondizio politikoak hobe edo txarragoak izan daitezkeela euskal unibertsitatea egiteko. Aitor dezadan era berean azken 25 urte hauetan kondizio politiko onik apenas izan dugula. Kondizio politikoak hain onak ez izan arren, hainbat eta hainbat ekimen atera dira aurrera jende askoren laguntzarekin eta erakunde batzuen sostenguarekin. Kondizio politikoak direnak direla (eta egia da politika mailan biolentziak guztia estaltzen duela), gaur, gauden honetan, posible da ditugun baliabide juridiko eta politikoak erabiltzea euskal unibertsitatea egiteko, urrats errazenetatik hasi eta goi mailakoenetaraino heltzeko, go-goan izanda kondizio politikoak aldakorrek direla eta hobera jotzeko desio zabala sumatzen dela heritarren artean. Printzipioak garbi eduki behar dira eta irmo eutsi. Bidea egiteko, ordea, printzipio horien arabera hartu beharreko erabakiak zirkunstantziak oso kontuan izanez hartu behar dira. Eguneroko erabakietako pragmatismoa ez da garai batean hainbeste errepikatzen ziguten «posibilismoaren» zozokeria. Aspaldi ikasi genuen pragmatikoki nola gainditu posibilista entregatuen inposibleak.

Bistan dago euskal unibertsitateak, «Euskal» adjektiboa berea izanda, euskaraz izan beharko lukeela lehen eta bigarren zikloetan. Hirugarren zikloan, aldiz, ikasleak ikerkuntzarako prestatzen direnez, ingelesak izan beharko luke hizkuntza nagusia. Ez du honek esan nahi hizkuntza hau eta beste batzuk (frantsesa, gaztelania, alemana...) titulazio bat egiterakoan ikasleek ikasi behar ez dituztenik; alderantziz baizik, lan mundu globalizatuan behar-beharrezkoak direlako. Joera hau segitzen dute Europako hainbat herri txikien estatuek eta fruituak onak dira. Gure kasuan gaur honelako zerbait egin dezakegu, euskaraz (eta ingelesez) irakasteko gai diren irakasleak baditugulako eta belaunaldi berrietan ikerketa serio egiteko gogoia ikusten delako. Bide batez, aipa ditzadan bi gauzak: bat, euskal unibertsitatea egiterakoan behetik gora egingo litzatekeen

heinean egingo litzateke goitik behera ere, alegia, berehala ikerketa zentroak irekiz eta doktorego programak bultzatuz, hain zuzen lehenbailehen barne-erreproduktzioa lortu ahal izateko. (Ez dut konfiantza handirik gaur Euskal Herrian dagoen unibertsitateetako irakasle euskaldun asko honelako proiektu batean sartuko litzatekeenik: bizi-modu on samarra daukate, egiten duten lanarekiko ordain ekonomikoa ez da batere txarra eta, jakina, euskal unibertsitatea hutsetik eraikitzeak militantzia gogorra eskatzen duen ekintza da. Esaterako, iaz Euskal Herriko Unibertsitateak ateratako 500 irakasle funtzionario plaza betetzen direnean, unibertsitate horren irakaslegoaren %75 inguru funtzionarioa izango da. Esan funtzionario hauetako askori militantziara bueltatzeko!); bi, aurrekoaren arabera, ondoko hau ere urratsez urrats mugatu beharko litzateke: unibertsitatearen ikasle egituraren ehuneko zenbat ikasle egongo liratekeen lehen eta bigarren ziklotan eta ehuneko zenbat hirugarren zikloan.

Azkenik, honako puntu honi heldu nahi diot. Gaur-gaurkoz badirudi administratiboki zatitutako Euskal Herri honetan inondik ez dela posible euskal unibertsitate publikoa lortzea. Batek itxaropena izan zezakeen EAEko administrazioan, batez ere EAJ eta EAK Hezkuntza saila izan duten garaietan. Ez da, ordea, alderdi horien aldetik oraingoz norabide horretako mugimendurik sumatzen, ezta oposizioan hainbeste urte daraman (Herri) Batasunaren aldetik. Lehenago esan dudana bezala, arazoa herriaren presio faltan legoke. Horregatik erabat beharrezkoa litzateke, 25 urte pasa ondoren, berriro ere kanpaina zabal bati ekitea, oraingoan «Euskal Unibertsitatea, Bai» lelopean izan beharrean, «Euskal Unibertsitatea, Orain» aldarrikatuz. Aldarriak aldarri, nik gai honetan alderdi politiko abertzaleekiko konfiantzarik apenas dudanez, ez dut dudarik egiten hasteko behintzat euskal unibertsitateak pribatua izan beharko lukeela, irabazi asmorik gabeko fundazio baten babesean-edo eraikia, laguntza publiko nahiz pribatuak jasoz, Euskal Herriko geografian campus gutxi batzuetan estrategikoki eratua, informazio teknologia berriak ikasle eta irakasleen arteko harreman presentzialaren menpean

jarriz. Nola egin hau? Ikasi besteengandik: hasteko, poli-ki-poliki titulazio ongi aukeratuak eta ikerketa zentroak martxan jarri, hurbileko eta ez hain hurbileko unibertsitateekin adskribatze-hitzarmenak sinatuz. Gogoratu Mondragon Unibertsitatearen sorrera nola egin den.¶



Juan Jose Larrea

Euskaraz arituko litzatekeen unibertsitatea eraikitze-ko gai al gara? Horra hor *Jakin*-ek proposatzen digun lehenengo galdera. Zilegi bekit aditzaren pertsona aldatzea, «gu» hori nor den ez baitakit. Egingarritasunaren auzi hutsari lotuko natzaio. Litekeena da euskaraz arituko litzatekeen unibertsitatea? Ezetz ez nuke esango nik. Azter ditzagun zenbait datu. Euskal Herriko Unibertsitateko plaza elebidunetan 1.020 irakasle daude egun —irakasle euskaldunak gehiago dira jakina, denek ez dute-eta euskaraz irakasten—. 2000-2001 ikasturtean 11.576 ikasle matrikulatu ziren euskaraz eskaintzen ziren irakasgaietako-
ren batean —hemen ere euskaldunak gehiago dira, denek ez dute-eta euskaraz ikastea hautatzen—. Irakasle-ikasle multzo hau aise erka daiteke inguruko zein etxeko beste unibertsitate batzuekin. Kantabriako Unibertsitateak, adibidez, lehen eta bigarren zikloko 13.248 ikasle hartu ditu oraingo ikasturtean; irakasleak 1.054 dira. Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasgeletan 600 bat irakasle aritzen dira 10.000 ikasle inguru prestatzen.

Masa kritikoa badagoela defenda daiteke, beraz. Berriki aldarrikatutako legeak, Unibertsitateen Lege Organikoak alegia, nahi adina erraztasun ematen ditu unibertsitate pribatuak sor daitezen. Iniziatiba publikoari so egingo diogu? Probatzia batekoak alde batera utzita, gu gara unibertsitate publiko bat baino ez daukan autonomi erkidego bakarra. Gure populazioarekin, Espainiako ratio arruntak erabilita,

besteren bat izango genuke ezbairik gabe. Borondate politikoan egongo zen gakoa, jakina, baina ez beste inon.

Demagun une batez, inizatiba pribatuak bultzatua edo gobernuan dauden indar politikoen erabaki batek sortua, euskaraz soilik aritzen den unibertsitatea eratzen dela. Demagun une batez EHUtik hainbat irakasle pasatzen direla (ia erdia kontratatua dira, ez funtzionarioak). Gainera, balizko unibertsitate hori irakasle harrobia dugun jakintza-arloetatik has liteke: letrak, gizarte zientziak... Eta ez luke beharko ikasle kopuru handiegia ibiltzen hasteko. EHU bezalako unibertsitate handi batera ohituta, ez gara sarritan konturatzen askoz ere txikiagoak badaudela.

Badakit jakin pare bat paragrafotan garbitu dudala balizko prozesu bat zein izango baita, mundu errealean inoiz gauzatzen bada, korapiloz beteriko zorroa. Ez da arinkeria. Defenditu nahi dudan ideiarra hainbat arinen iristeko modua besterik ez da izan. Izan ere euskaraz soilik arituko zen unibertsitatea onuragarria izango zenik ez dut uste.

Hau sustatzeko lehen arrazoia ez da agian oso sendoa, baina ez dut ezkutatu nahi. Gure gizartearen ikuspegiari dagokio. Izena eta izana ere tartean dabilta. «Euskal unibertsitate» etiketan nik nahiago dut «euskal gizartearen unibertsitatea» irakurri, jakin arren «euskal»-en esanahiak etimologiari itsatsia dirauela gure hizkuntzan. Eta euskal gizartearen elebiduna den bezala, euskal unibertsitatea ere, nire gogoan, unibertsitate elebiduna da. Zertan datzan hau, horra hor beste auzi bat. Nire aburuz unibertsitatea ez da gizartearen isla izatera mugatu behar, ez hizkuntzaren kontuan ez beste edozeinetan. Unibertsitateak urrats bi aurrerago joan behar du, hizkuntza bien arteko berdintasun errealerara hurbilduz, euskarari esparruak zabalduz, diglosia gaindituz. Ez naiz ordea luzatuko honen gainean, hau ez da eta proposatu zaigun gaia.

Hurrengo arrazoia unibertsitario batena da. Unibertsitatea dioenak ikerkuntza dio. Nire unibertsitatean nire komunitateko ikerlari onenak nahi ditut —eta, ahal dela, edonongoak ere—, jakintza-arlo guztietakoak. Nola uzartu hau euskararen ezagutzak dakarren iragazkiarekin? Bazertertu beharko genituzke ezinbestez profesional prestu as-

ko. Hori bai hautaketa tristea gure ikasleentzat! Gauza ziu-rra baita beste unibertsitateetan irakasle euskaldunak izango zirela, onak eta ez hain onak. Baina balizko euskal unibertsitatean irakasle erdaldun onak ez ziren inolaz ere egongo. Eta edozeinek daki hamaika jakintza-arlotan ospeko profesionalak urriak direla oso. Jaits gintezke abstrakzioetatik eta unibertsitatean (*universitas* komunitatea) bizi garenok aurpegiak ipin geniezazkieke aieru hauei. Era batera edo bestera, denok osatzen ditugu ikerkuntza taldeak, denok ehundu ditugu harreman zientifikoak gure irakaskideekin. Ikerkuntza elkarlana da, edo komunikazio jariora bederen. Ez dut inor ezagutzen harreman sare hauek eraterakoan hizkuntza ezertarako kontuan hartu duenik (honezkero esan dut, nonbait, gizarte elebidunean bizi garela...). Hautsiko genituzke orain euskaldunok bakarrik osatutako sailetan aritzeko? Nik ez behintzat. Eta irrealia deritzot gure komunitate akademikoa bitan zatitzeari.

Borgesek nostalgiaz gogoratzen zuenaren oroigarri, badira oraindik latinez argitaratzen duten suediar irakasleak. Gutxi, jakina; gehiago dira ingelesaz edo alemanaz baliatzen direnak. Suediera ordea, etxetik kanpo, ez dute erabiltzen. Kasu berean egon dira beti hungariarrak, nederlandarrak, norvegiarrak... Gaztelaniak maiz itsutzen gaituelakoan nago. Badirudi hori dela gure erreferentzia bakarra. Hark daukana, hura dena, guk ere nahi dugu euskararentzat. Eta ez diegu so egiten beste hiztungo txikiei. Zenbat eta txikiagoak, zenbat eta urrutiago euren hizkuntzak ingurukoetatik, orduan eta hedatuagoa –eta naturalagoa– eleaniztasuna. Egia da gaztelania ez dagoela Europako komunitate zientifikoak erabiltzen dituen hiruzpalau hizkuntzaren artean. Baina euskalduna baino askoz ere hedatuagoa eta zaharagoa da gaztelania erabiltzen duen komunitatea, eta, besteak beste, guk euskaraz sekula izango ez dugun masa bibliografikorako ateak zabaltzen dizkigu. Hau badaukagu, saia gaitezen orain hizkuntza gehiagoz jabetzen unibertsitateko jardunean. Kentzeari ez diot abantailarik ikusten.

Buka dezadan ohar birekin. EHUko euskaldunek urteak daramatzate normalkuntzaren erronkari aurre egiten: egunero, irakaskuntzan, ikerkuntzan, kudeaketan, euskara

izan dadila hizkuntza bizia. Hots, elebitasuna benetakoa izan dadila. Orain euskararentzako erreserba egitea ez al da partida galdutzat ematea? Beste oharra galdera batez ere aurkeztuko dut: *Erasmus*-eko ikasleak nola etorriko ziren balizko euskal unibertsitate horretara? ¶



Xabier Mendiguren Bereziartu

1.- Sortzeko borondatea egonez gero, egingarria da: irakasleak eta ikasleak badaude eta etorkizuna ere badu, zalantzarik gabe. Ezinbestekoa borondatea da, eta ahalik eta zabalena edo pixkanaka zabalduz joango dena. Iraganean, Ikastolen mugimendua da horrela sortutako errealitatearen eredu-tako bat.

Bestalde, gizarteak behin baino gehiagotan adierazi du euskarak esparru guztietan bere presentzia ziurtatua izan behar duela, eta esparru unibertsitarioa ezin liteke inondik ere salbuespen izan.

Baina hori egin ahal izateko instituzioek neurri eraginkorrak jarri behar dituzte abian.

Egia da arlo juridikoan arazoak egon daitezkeela, baina euskarak bere premiak ase behar ditu eta horretarako beharrezko egokitzapenak egin beharko dira.

Gero eta gazte gehiagok euskara ikasten duelarik, erabat zentzugabea litzateke ikaste-prozesuaren gailurtzea den Unibertsitatean ikasketak eten eta beste hizkuntza batera pasatzea. Hala ere, horrek ez du esan nahi ingelesa edo beste hizkuntzaren batzuk erabili behar ez direnik.

Hizkuntzaren egoera ez normalizatua duten beste herri batzuetan ere gisa horretako neurriak hartu dituzte unibertsitatea osatzeko eta horien eragin eta garrantzia nabariak dira. Gugandik hurbil katalanen jarraibidea du-gu eta Unibertsitate katalanaren bidez etorri zaizkien fruituak ukaezinak dira.

- 2.- Herri guztiek dute beren hizkuntzen babes eta sustapenerako neurriak hartzeko eskubidea. Beraz, euskaldunok ere goi mailako ikasketetan euskaraz egiteko eskubidea dugu. Horrela, euskal hezkuntza komunitateak duen hutsunea bete behar du euskal unibertsitateak.

Euskara prestigiatzeko eta gizarte esparru gehiagotara zabaltzeko tresna egokia izango litzateke.

EAEko gazteek hezkuntza prozesua amaitzean euskara jakin behar duten bezala, irakasleek ere ikasgaiak euskaraz emateko gaitasuna izan beharko lukete.

Edozein herritan unibertsitateko irakasleek bertako hizkuntza jakin behar dute, eta Euskal Herrian ere hori gertatzea izango litzateke normala, eta, ondorioz, hizkuntz normalizaziorako ezinbesteko urratsa den hori egitea.

- 3.- Izaerari dagokionez, ereduak gizartearen parte-hartzea ziurtatuko duena izan beharko luke. Gure gizartearen sus-traiturik eta, aldi berean, erronka berriei erantzuteko prest egon beharko luke. Jakina, globalizazioak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzeko gaitasun osoa izan beharko luke, horrela euskarari bost eraentza juridikoez ezartzen dizkioten mugak gainditu ez ezik euskal diasporarekin etengabeko harremanean ere egon dadin.

Azkenik, eraikinak euskal lurraldeetan kokaturik egotea da bidezkoa, euskal gizartearen kultur aniztasuna kon-tuan izanez. ¶



Antxon Mendizabal

- 1.- Egingarritasunari dagokionez, euskaraz arituko litzatekeen unibertsitatea gizartearen beharrei begira hartutako «erabaki politikoaren» ondorioa izango da. Batetik, euskal ikasleen eskaria daukagu, gure unibertsitateko testuinguru ez aproposean dauden hogeita bost mila euskal ikasleek is-

latzen duten moduan; eta horrek, ahal dezakeena askoz gehiago dela erakusten digu. Bestetik, mila irakasle inguru, elebidun edo euskaldunak direnak, unibertsitate estatal eta pribatuetan ditugu. Jakina, testuliburu eta oinarrizko materialak falta zaizkigu, baina horien sorkuntza dinamika berriaren ondorioa eta Euskal Unibertsitate berriaren eginbeharra izan beharko litzateke.

Erabaki politiko hori gauzatzeko bi bide orokor daukagu. Gizartetik sortutako herri-ekimenaren bitartez lehena. Eta heziketaren edo komunikazioaren arloetan badauzkagu Euskal Herrian horrelako esperientzia eredu-garriak. Dagoen unibertsitate-sistematik, unibertsitate estataletik bereziki, bideratutako euskal unibertsitatea, bigarrena. Jakina, UPV-EHU hartuko dugu horretarako erreferentzia nagusi gisa.

Baina honekiko egin dezakegun diagnostiko-azterketak argi erakusten dizkigu bide horren mugak. Arlo horretarako estatu biek ezarritako legeria lehena, estatuen botere eta funtzionamendu unibertsitario zentralizatuak inposatzen dizkiguna; LOU izanez, gure kasuan, erreferentzia argigarria. EHUK barneratu duen Estatuaren logikarekiko dependentzia, inperioaren logika, bestela esanda. Horrela, Unibertsitate ofizialak berrindartzen ditu gure gizartea menperatzen duten harreman sozial, politiko, kultural eta ideologikoak, interes propio eta pribilegiatuak dauzkan burokrazia erdi teknokratikoaren barnean egituratuz.

Funtzionarioztan eta bereziki katedradunen inguruan egituratzen den botere pertsonalizatu horrek bere intereserako den «sartze/esklusio» sistema ezartzen du, jarduera endogamiko eta pribatizatzailea ezarritz; agintearen argudioaz eztabaidaren kultura ordezkatzuz, jarrera kritikoak legalitatearen izenean ezabatuz eta disidentziaren aurka estamentuen demokrazia erabiliz. Horrela azal daitezke gaur egungo unibertsitatean berrikuntzan, sorkuntzan, pentsamenduan, heziketan eta ikerketan nabariak diren mugak.

Dinamika horren ondorioz, indibidualismo, korporatibismo eta elkartasun ezarekin batera, erdal irakasle hutsaren «zentralitatea» ezarri dute euskara ez dakiten irakas-

leek unibertsitatearen oinarrian; funtzionamendu arrunta e rdara hutsean ziurtatuz eta irakasle elebiduna ghetto-bantustan baten eremuan bigarren motako irakasle bihurtuz. Halaber, euskal irakasleak botere-dinamikaren periferian kokatuz. Horrela, unibertsitate estatalak pilaturiko dinamika historikoak euskara ez dakiten irakasle pila bat kontratatu ditu, unibertsitatearen euskalduntzea ezinezko bihurtuz. Gainera, testuinguru horretan, irakasle despedituen auzian, hain lotsagarri izan den irakaslego propioa defenditu dutenen aurkako irtenbide erre presibo eta militarizatuak kontsolidatu egin ditu aipatutako balio eta jarduera guztiak. Laburbilduz, gaur egungo UPV-EHUn, oztopo objektiboez gain, ez da existitzen Euskal Unibertsitatearen aldeko dinamika sortuko lukeen «subjekturik».

Gelditzen zaigun bide bakarra hasieran aipatutakoa da: herri-ekimenaren bitartez bideratzea. Izaera soziala edo herritarra eta funtzio publikoa eta finantzazio publikoa eduki beharko lukeen Euskal Unibertsitatea. Gure gizarteko zenbait mugimendu sozialetan oinarrituta eta zenbait erakunde publikoren laguntzaz bidera daitekeen herri-ekimenak «borondate politikoa» behar du; unibertsitate propioa hizkuntza propioan eraikitzeko, Euskal Herriak duen eskubidea aldarrikatuz.

- 2.- Onuragamitasunari dagokionez, hausnarketa txiki bat egin beharko genuke. Garapena, zentzu integral batean, hazkunde ekonomikoa, gehi soziala, gehi politikoa, gehi kulturala, gehi linguistikoa, gehi ekologikoa; eta orekatua bada, Euskal Unibertsitatea garapen horren ezinbesteko motorra eta osagarri izango litzateke. Hauxe da galdera: garapenak, zentzu integral horretan kontsideraturik, onurak ekar ote ditzake? Jakina, garapen integral hori herri eta pertsona guztien helburu eta helmuga da. Laburbilduz, denok daukagun eskubidea.

Euskaraz funtzionatuko lukeen unibertsitateak onura handiak ekarriko lituzke. Alde batetik, gaur egungo euskarazko hezkuntza-sistema osoa biribilduko luke, euskarren normalizaziorako ezinbesteko bihurtuz; eta, bestetik, gure nortasun ekonomiko, sozial, politiko eta kulturala

berrindartuko luke, balio propioak hedatuz, nazioa eraikiz eta demokrazia sakonduz. Zalantzarik gabe, gainera, unibertsitatearen eta gizartearen arteko uztartze sinergetiko berria erakutsi beharko liguke.

Euskaraz funtzionatuko lukeen unibertsitatea ez da izan behar gaur egungo unibertsitate estatal eta pribatuen hizkuntz hutsunea betetzen duen unibertsitate indigena; euskara hutsean funtzionatuko lukeen unibertsitate nazionala baizik. Gaur egungo testuinguruan unibertsitate indigena hori aurrerapauso handia izango litzateke. Baina homen aplikazio zuzenak baditu «ghettismoarekin» zeri-kusirik duten arriskuak ere: ez da Euskal Herriko errealitate soziologikoari dagokiona, ez irakasleria garatzeko sistema onena, ezta proiektu integratzaileena ere.

Horrela, ghettismoa ekidinez, euskal unibertsitatea euskara hutsean funtzionatuko lukeen hirueletako unibertsitate nazionala (Ipar Euskal Herriko errealitatea integratuz) izan beharko litzateke (adibide gisa: nederlanderaz funtzionatzen duen Lovainako unibertsitateak ingelesez ere eskaintzen ditu karrera guztiak). Egoera linguistikoa- ren arabera, irakasle eta ikasleak integratzeko formula ezberdinak asma ditzakegu, baina beti euskararen beharra eta oinarritzko erabilpena bermatzeko, diskriminazio positiboan oinarritutako arauak ezarriz. Jakina, hizkuntzen mundu askotariko batean, gero eta eleanitzagoa izan behar da irakaskuntza; iraunkorra izango litzatekeen bertako hizkuntza oinarrian ezarriz eta nazioarteko zenbait hizkuntza gainean erabiliz.

- 3.- Izaerari dagokionez, izaera estatala eta publikoa gaindituz, izaera soziala sakondu beharko luke euskal unibertsitateak. Izaera herritarra eta soziala eta funtzio publiko eta unibertsala dituen. Autonomia unibertsitarioaren hasipena errespetatuko lukeen unibertsitate berria. Euskal erakunde publikoetatik finantzatuta eta, aldi berean, instituzioetatik autonomoa. Irakasleria propioan eta botere-sistema propioan oinarritutakoa.

Horrez gain, irakaskuntzaren, ikerketaren eta pedagogiaren arteko zatiketa gaindituz, euskal unibertsitateak

gure gizarteak eta gure herriak dituzten balio kulturalak berreskuratu beharko lituzke. Gure gizarteak dituen arazo ekonomiko, sozial, politiko, kultural, ekologiko, linguistiko eta etikoak konpontzeko, sorkuntza tekniko eta zientifikoa ekoitziz.

Funtzionamendu demokratikoa eta parte-hartzailea sakonduz eta nazioarteko irakasle euskalduna gauzatu. Eztabaidaren kultura, pentsamendu kritikoa, ekimenak eta sorkuntza garatuko lituzke euskal unibertsitateak, sumisioaren kultura gaingiduz eta boterearen aldeko jarrera zaharrak herriaren aldeko jarrerekin ordezkatu. Askatasunaren aldeko aukera, elkartasunaren aldeko etika, herriaren aldeko maitasuna eta ezagutzaren aldeko grina garatuko lituzke unibertsitateak.

Estrategiari dagokionez, lehen aipatutako bi bide horiek ditugu. Eta nahiz eta bigarren bidearen mugak lehen ezarri, bi bide horietan batera jardun beharko genuke. Esanguratsuen den herri-ekimenaren bitartez bidera daitkeen euskal unibertsitaterako estrategia ezin da definitu. Aitzitik, zenbat eta zehatzago definitu bide hori, hainbat eta errealitatek aldentzeko arrisku handiagoa dago. Administrazioan, unibertsitateetan, euskara munduan, alderdi politikoetan eta mugimendu sozialetan jarduten duten zenbait eragile herri-ekimen horren barnean egon behar direla esatea daukagu soilik. Eta prozesu horrek «inperialismoaren» inposizio eta koldakeria gaindi ditzakeen «borondate politikoa» eskatzen duela.

Dagoen unibertsitate-sistematik ere bi norabide jarrai ditzakegu. Gaur egungo unibertsitateetan irakasle elebidunak eduki beharko lukeen «zentralitate» estrategiko berria aldarrikatzea lehena. Politika horrek euskararen aldeko «frontea» eskatzen du (kontratazio berriaren alde, IRALE berriaren alde, erdal irakasleen birziklatzearen alde, irakasleen promoziorako irizpide berrien alde...). Tamaina handiko sailetan, irakasle euskaldunekin osaturiko sail euskaldun berriak sortzea bigarrena. Norabide biek dagoenarekin haustura eta aurrerapausoa ekar dezakete. ♣



Martin Orbe

1.- Euskal unibertsitaterik ez dugunez, ez garela gai aitortuz hasi beharko dugu; ala, orain arte gutxienez, ez garela gai izan. Unibertsitate hori izateko ahaleginetan ari ote garen eta ahaleginok zertan diren aztertzea izango litzateke, beraz, kontua.

Euskal unibertsitaterik ez dugula esateko dugun adina arrazoi dugu unibertsitate hori gauzatzeko ahaleginak badirela esateko.

Euskaraz arituko den unibertsitatea dela Euskal unibertsitatea onartuz, eta euskarak izan dituen eta oraindik dituen gabeziak eta ajeak kontuan hartuz, bi eremutan banatu beharko genituzke euskal unibertsitatearen aldeko ahaleginak.

Ikuspegi honetatik, bada, aipatu beharko genituzke, lehenik, euskararen irakaskuntza eta erabilpena helburutzat duten erakunde eta talde guztiek egiten dituzten ahaleginak eta aportazioak; ez dago zertan talde guztien aipamena eta zerrenda egin. AEK, HABE, Elhuyar, Labayru, Oinarriak, EHE eta abar bezalako taldeak lirateke hor; eta, noski, Ikastolak eta D ereduko irakaskuntza eta, oro har, euskara normalizatzeko eta eraberritzeko literatur sorkuntzan, hedabideetan, administrazioan... burutzen diren lan eta kreazio guztiak. Eta lantzen duten sailetakoek beraien ez bestek, hedabideetan azaltzen direnetan edo izan ezik, ezagutzen ez ditugun zenbait talde fin eta zintzo askok egiten duten lana.

Eremu zabal eta desberdin horretan ari da birsortzen eta lantzen unibertsitatean lehiatzeko lotsarik izan behar ez duen euskara hizkuntza.

Badira, bestetik, euskal unibertsitatea eraikitzeari zuzen-zuzenean lotutako talde eta ekimenak. Hor ditugu, besteak beste, UEU, UZEI, Euskal Adarra, EIRE, EHUBAM... bezalako talde eta ekimenak.

Zein puntutan dira euskal unibertsitatea eraikitze bidean talde eta ekimen hauen guztien ahalegin eta aurre-
rapenak? Euskaraz arituko den unibertsitate bezala defini-
tuz gero euskal unibertsitatea, euskarak berak pairatzen
dituen ezintasun eta trabekin gehi euskal unibertsitatea
eraikitzeak dituen oztopo eta zailtasun guztiekin egiten
dute topo aipatutako ekimen hauek. Bizpahiru besterik ez
ditugu aipatuko.

- Euskal unibertsitateak euskal eremu osoari eta eus-
kal hiztun guztiei irekia izan beharko luke, definizioz.
Eremu eta hiztun hauek bi estatu eta hiru administrazio-
tan sakabanatuta izateak askoz ere zailago bilakatzen du
euskal unibertsitatearen eraikuntza. Administrazio desber-
dinen arteko elkarlanak berez dituen zailtasunei gehitu
egin behar zaizkie bi estatuetako zenbait erakundek eus-
kalgintzaren kontra hartutako jarrera beligerantea eta hi-
ru administrazioetako erakundeen jokabide arras desber-
dinak, baten ausentzia eta beste baten kontraktotasun na-
barmena tarteko.

- Ekimen herritar eta sozialak dira, gehienbat, euskal
unibertsitatearen alde ari direnak. Eta, tamalez, ez dute
bat egiten ekimen hauek eta arduradun politiko eta uni-
bertsitarioen jarrerak. «Uniekimena» izenaz oraintsu egin
nahi izan den apartazioak bai Iruñekoan eta bai Gasteiz-
ko legebiltzarrean jaso duen ezezko erantzuna izan daite-
ke elkargune ezaren adibiderik penagarriena.

- Madrilgo gobernuak onartutako LOUren alternati-
ba izango omen den euskal lege unibertsitarioa ere aipatu
beharko genuke hemen. Euskal unibertsitate legea egiteko
borondate irmoa badagoela, baina beste ezer gutxi dakigu
egitasmo horretaz.

Dena dela, lege horrek Gasteizko Legebiltzarrak era-
gina duen herrialdeetan soilik balio izango luke. Beste era
batera esanda, Euskal Herriko Unibertsitatearen kudeake-
ta arautuko luke eta ikusteko geldituko litzateke, beste
behin, hortik euskal unibertsitaterako biderik egiterik da-
goen.

Laburbilduz edo, esango nuke baldintza akademikoak
direla gehien hobetu direnak; unibertsitate-maila itxuro-

soa izateraino ausartuko nintzateke esatera; baldintza sozialek trantsizio garaiko urteetan bezalatsu irauten dutela ematen du; orduan sinisten zuten kapa sozial berdintsuek sinisten dute orain ere euskal unibertsitatearen ahalbideetan; baldintza juridiko eta politikoak berdintsuak dira, okerragoak ez esatearren; eta beste baldintza batzuk, ekonomikoak kasu, planteatu ere ez dira egin.

2.- Onurak eta abantailak eta arriskuak eta kalteak aipatzera-koan, ezingo dugu, bada, euskalgintzaren alorretik arrisku eta kalteen biran ari. Izango da horiek, errukirik gabe, haizatuko dituenik.

Halaz ere, eta nahiz eta auzi honetan irudien bidez ezer argitzen ote den ez dakidan, euskaldunen eta euskaltzaleen artean ere arriskutzat jotzen den «ghettoari» buruz zerbait komentatu nahi nuke.

Ghettoa edo ghattizazioa aipatzeak ematen du Euskal Herria euskararik gabe ere izan daitekeela edo erdal hizkuntzek Euskal Herrian duten nagusigoa Euskal Herria euskaldun izatea bezain bidezkoa dela, eta, beraz, euskaraz ari diren hiztun eta eremuak direla egoera normalizatutik at ala legitimatutako egoeraren kontra, korrontearen gora, ari direnak.

Honenbestez, hizkuntza nagusiek ematen duten mai-lari eta erosotasunari muzin eginez hizkuntza minorizatuaren aldeko apustua gutxiengoan jokabide setatiaren adierazpide besterik ez litzateke izango, ghetto besterik ez diren ekintzetan indarrak xahutuz.

Irudiekin jarraituz, zergatik ez aldarrikatu euskarak bizi behar duen basamortuan euskal unibertsitatea, euskararentzat irabazitako beste eremu guztiak bezalaxe, «oasi» dugula? Oasi hauei esker iraun du euskarak bizirik eta ditugunei eustea eta berriak sortu eta hedatzea izango da biziraupenerako eta indarberritzeko bidea.

Dena dela, euskal unibertsitatearen onura eta abantailen kontu hau ez dakit nik onura eta abantailetatik haratago ala honatago dagoen. Izan ere, ba al du irauterik partzialki eta eremuka soilik erabili eta baliatzen den hizkuntzak? Noraino da praktikan bideragarria elebitasun oreka-

tuaren kontua? Infernuak zein purgatorioak ekar ditzakeen kalteak aipatu zituen aspaldi gure maisu filologoak; baina nago diglosia amaigabeko purgatorioa dela, eta hori eta infemua gauza bera dira.

Auzi honetan, bada, hizkuntzak maila batetik gora egitekotan eta aldameneko hizkuntza indartsuen itsasoan itota amaitu nahi ez badu, unibertsitatea funtsezko eta ezinbesteko zutabe eta eremua du, herri euskaldunaren aldeko hautua egin nahi baldin bada.

- 3.- Euskal unibertsitatearen izaerak argitu beharreko alde asko ditu, dudarik gabe. Nire ustez, oinarrizkoenak diren bi puntu besterik ez ditut aipatuko, hots, dagoen unibertsitatearen bati lotua ala autonomoa izango litzatekeen.

Euskal unibertsitatearen alde azaldu direnen artean, bi aterabide dira posible modura gehien aipatzen direnak.

Euskal Herriko Unibertsitatearen barruan euskara hutsez ariko litzatekeen campus autonomo berria aldarrikatzen dute batzuek. Ikasketa desberdinak, administrazio-lurraldean beharizanak, ikasleen migrazio-joerak eta abar kontuan izanda, unibertsitatea zenbait campusetan eratu dago. Hautu honen aldekoen ustez, unibertsitatearen deszentralizazio honetan, faktore garrantzitsua falta da, hots, deszentralizazio linguistikoa, eta horixe eskaini behar du unibertsitateak campus euskaldunaren bitartez.

Gizarte-ekimeneko unibertsitatearen aldeko aukera hobesten dute, aldiz, beste batzuek. Ikastolek bere garaian egindako aukeraren eredia legoke eredu honen defendatzaileen gogoetan. Formalki pribatua, baina zerbitzu publiko gisa ulertutako unibertsitatea litzateke.

Are gehiago. Oso oker ez banago, UEUK, Ikastolen Federazioak eta zenbait kultur taldek planteatu ere egin dute bide honetatik euskal unibertsitatea bultzatzea. Halaz ere, uste dut izoztuta ez, baina geldirik dagoela asmo hori.

Bata zein bestea bide egokiak izan daitezke eta elkar aberasgarriak. Hor dugu ikastolen eta D ereduko irakas-kuntzaren konbidentzia.

Unibertsitate publikoak ikasle guztiei, bai euskaldunei bai erdaldunei, beraien hizkuntz eskubideen murriz-

ketarik gabe, zerbitzu osoa eta berdina eskaini behar diela kontuan izanda, euskal campusaren aldeko hautua izango litzateke bidezkoena. Baina gaurko baldintza juridikoak eta egoera politikoa kontuan izanda, oso zaila inuditzen zait, ia ezinezkoa ez esateagatik. Halaz ere, bertan behera utzi ezinezkoa eta etengabe landu beharreko errebindikazioa izan behar duela pentsatzen dut.

Gizarte-ekimeneko unibertsitateak, indarrak behar bezala biltzeko gai bagina, administrazio desberdinetan barreiatutako euskaldunen ekarpenak egokiago bideratzeko aukera eman dezake; eta eredu berria izanik, unibertsitateak dituen makurrak eta hipotekak gainditzeko aukerak izango lituzke, Euskal Herriaren beharrezanezi eta erronkei erantzuteko moduko unibertsitatea eraikitzea posible izango litzateke eta gizartea unibertsitateko arazoetan engaiatzeko aukerak zabalduko lituzke.

Batak zein besteak esparru akademiko soilen eskumenak gainditu egiten ditu, eta bideragarritasunaren giltza aukera politikoen arabera dago. Eta, tamalez, politika alorrean elkargunerik finkatu ezinean gabiltzanez, euskal unibertsitatearen arazoak, beste askok bezala, dagozkion instantzietan planteatu ere egin gabe jarraitzen du.

Beste unibertsitatearen bati lotua ala autonomia euskal unibertsitatearen izaeraren alde oinarritzat jotzen dugu. Agian hori baino funtsezkoagoa den zerbait planteatu beharko litzateke: euskal unibertsitatearen beharrez eta urgentziaz debate sozial serioa eta euskal unibertsitatearen bideratzeko erabakigune eraginkorra. ♪



Javier Retegui

Euskal Unibertsitateari buruz dugun ikuspuntua azaltzeari ekin baino lehen, beharrezkoa da zerbait argitzea, hau da, gure herriaren zatiketa politiko-administrati-boa hiru errealitate desberdinetan eta Euskal Herriko hiz-kuntzatzat euskara hartzeari buruzko borondate politiko ezberdinak.

Hezkuntza sisteman ezarritako politikak, egoera so-ziolinguistikoak eta gizartearen berezko eskaerak, badiru-di adierazten digutela EAEn baino ez direla gutxieneko baldintzak ematen euskaraz biziko den unibertsitate ba-ten asmoarentzat.

Hasierako argibide hau kontuan izanik, hurrengo hauek luzatzen ditugu, bai bideragarritasunari zein egoki-tasunari buruz, baita EAEko goi mailako hezkuntzarako planteamendu linguistiko egokia deritzoguna ere.

1. Garai batean hezkuntza ez-unibertsitarioaren gara-pena euskaraz planteatu zen legez, uste dugu baditugula baldintza politikoak, legalak, demografikoak zein akade-mikoak proiektu unibertsitario euskaldun baten mailaz mailako ezarpena hasi ahal izateko.

2. Sistema publikoak baino ezin izango du aurrera eramán unibertsitate euskaldunaren proiektu globala, es-kaintza akademiko osoari eragingo liokeena eta gaztela-niaz burutzen diren ikasketekin baldintza ekonomiko pa-rekoak izango lituzkeena.

Modelo hau aukeratzen dutenen funtsezko diskrimi-nazio ekonomikoa egitea edota titulazio batzuetara mu-gatzea zaila izango litzateke sostengatzea; honek egungo unibertsitate publikoaren sistemaren bikoizketa ekarriko luke, eta honekin batera ondorio akademiko, ekonomiko eta demografikoak.

3. Unibertsitatea goi irakaskuntzarako akademia bat baino gehiago dela ulertuz, hau da, graduco titulazioak era-

kusteaz gain, unibertsitatean ikertu, berritu, zientzia ekoiztu, langileen hezkuntzan gehiago eragin, sare ekonomiko-produktiboarekin erlazioak izan... Zaila dirudi hizkuntzaren planteamenduan euskara baino ez hartzea kontuan.

4. Oraingo egoera honetan badirudi unibertsitate berean EAEko hizkuntza ofizialen lerro bien bateragarritasuna dela egokiena, beti ere bermatuz ikasleek aukeratzen duten hizkuntzan egin ahal izango dituztela beraien ikasketak, egoera eta baldintzak batean zein bestean berberak izango direlarik.

5. Gizarte honek hezkuntza estrategiak aldatzera behartzen gaitu, bereziki goi-mailako hezkuntzan.

Unibertsitateak ekintza profesional zehatz baterako eduki espezifikoak eskaini behar ditu, eta ikasleek elkar bizi ahal izateko, ikasteko eta komunikatu ahal daitezen ahalmenak garatu behar dituzte. Honek, hizkuntzaren perspektibatik, atzerriko hizkuntzen ikasketa baino zerbait gehiago eskatzen du; hauek ezagutza jasotzeko eta lan jarduerarako tresna arrunta bihurtu behar dute.

Hau guztia dela eta, MU, unibertsitate euskalduna den heinean, eta gure herriaren garapen sozial zein ekonomiko eta kulturalarekin konprometituta dagoenez, euskaraz ikasi ahal izatea bultzatzen jardun izan da ahal izan duen neurrian. Honetaz aparte, euskara gure bizitza unibertsitarioko ahozko zein idatzizko ohiko hizkuntza dugu. Gaur egun, gure titulazioetan %70-90 artean euskaraz ematen dira eskolak; tartea ikasleen borondatearen eta irakasleriaren euskalduntasunaren arabera da.

Aurrera begira, hiru titulaziorekin pausoka hasiko den prozesu batean, Mendeberrri proiektua garatuko dugu. Honek hezkuntza eskakizun berriei erantzun nahi die: curriculumaren aldaketak, ikasleen eta irakasleen rol aldaketa eta baliabide didaktiko berriak.

Hizkuntzen ezagutzari dagokionez, planteamendu eleanitza egin dugu, gure ikasleek euskara eta gaztelaniaz gain ingeleza ere erabil eta jakin dezaten.

Ikaskuntzarako tresnatzat ikasleak hiru hizkuntzak erabil ditzan eskatu du modelo honek, barne komunikaziorako orain arte legez euskara mantenduz. ¶



Fito Rodriguez

Arazoa politikoa da. *Jakin* aldizkariak trantsizio politikoaren garaian jakin izan zuen Unibertsitatearen gaia behar bezala plazaratzen. Aldaketa politikoen tenorea zen. Espainiar estatuan diktaduratik demokraziara eman beharreko urratsak gehiengoaren onespena eskuratzeko nahiko izan baziren ere, Euskal Herrian, berriz, ez du ematen eragindako aldaketa politikoak jende guztia asetzeko aski izan zirenik. Aitzitik, espainiar herriarekin aldeaturik, ezin esan euskaldunontzat trantsizio berdina burutu zenik. Espainiako Estatua politiko-administratiboki berrantolatu zen bitartean, Euskal Herriak ez zuen lortu politiko-kulturalki behar bezalako gizarte adostasuna bideratzea. Garai hartan irekitako eztabaiden artean Unibertsitatearena ez zen txikiena. Euskal Herritik kanpo ikastera behartuta zeuden askok parte hartu zuen aipatu eztabaidetan. Unibertsitatea eduki ahal izana funtsezkoa suertatu zen Europako beste herri, hizkuntza eta nazioen eraketa modernoan. Hala nola, Norvegia (1905), Finlandia (1917), Txekia (1919) eta abar. Gurean, oster, politika arloan garatu ez zena Unibertsitatearen garapen bidean ezin izan zen burutu. Garai hartatik datorkigu egun eztabaida berdina pausatzearen beharra.

Gernikako Estatutuak (Ley orgánica 3/1979) nahiz Nafarroako Foruaren Hobekuntzak (Ley orgánica 13/1982), beraz, ez dute balio izan Euskal Herria egituratzeko, ez dute behar adinako kontsentsurik eskuratzea lortu. Gernikako Estatutuaren bozketan (1979-10-25) %53k baietza eman zuen soilik (gogora dezagun Lizarrako Estatutuak %84ko baiezkako bozkek bildu zituela). Nafarroako Foruaren Hobekuntza, jakina denez, ez zen bozkatu. Gernikako Estatutuak bere 6. artikuluan, hizkuntza koofizialak jartzen ditu euskara eta gaztelania (Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluekin erkatuz espainiera jakitea derrigorrezkoa ba-

da ere, euskara erabiltzea eskubidea besterik ez da eta ezin da inor baztertu ez jakiteagatik), 10. artikulua kulturaz dihardu eta azkenik, 16.ak irakaskuntzaren eskumenak garatzen ditu.

Nafarroako Foruaren Hobekuntzarako Legeak, aldiz, hurrenkera berean gai berak hartzen ditu artikulua haue-
tan: 9.ean (espainiera da Nafarroa osoan hizkuntza ofizial
bakarra), 44.ean (kultura) eta 47.ean (irakaskuntza). Bi Es-
tatutuek, eta bereziki irakaskuntzaren arloko kompetent-
ziaz, honako muga politiko legalak jartzen dituzte:

A. Konstituzioaren 27. artikulua (orokorki, irakas-
kuntzari buruzko askatasunaz, zehazkiago hezkuntzari
buruzko eskubideaz eta, 10. paragrafoan, Unibertsitateen
Autonomiari buruz aritzen dena, hain zuzen).

B. Konstituzioaren 27. artikulua garatu dituzten lege
organiko desberdinak. Orain arte, LRU (1983), LODE
(1985), LOGSE (1990), LOPEGCE (1995), LOU (2001) eta
Kalitatearen Legea (onartzeke).

C. Konstituzioaren 149. artikulua, alde batetik Esta-
tuaren menpeko Funtzionariotza arautzen duena eta Esta-
tuen menpean tituluak eskuratzeko baldintzak ezartzen
dituena.

D. Estatuaren menpeko goi mailako ikuskaritza.

Honetaz gain, bistan denez, Frantziako irakaskuntza-
ren egitura jakobinoak, eraketa politiko zentralistaren on-
dorioa bestalde, ez du biderik ematen Euskal Herriko eza-
gutza ezertan gauzatzeko.

Edozein modutara ere, duela 25 urteko arazo politi-
koa behar bezala gaingitu ez zen neurrian dugu egun eus-
kal kultura, euskal irakaskuntza eta, ardatz haietan koka-
turik, euskal unibertsitatearen arazoa bizi-bizia.

- 1.- Hala ere, duela 25 urteko aldarria (Euskal Unibertsitateare-
na) nekez gauzatu zitekeen leloa zen. Izan ere, ez zegoen
horretarako inolako baliabiderik, ez eta baldintza demo-
linguistikorik ere. Egun, ordea, bakarrik Euskal Herrian
aritzen diren Unibertsitateen artean egon badago nahiko
irakasleria, ikasleria, testugintza eta abar Euskal Unibersi-
tatearen asmoa dena egikaritzeko. Asko dira espainiar es-

tatuan bertan sortu diren unibertsitate txikiak (hamar mila baino unibertsitario gutxiago biltzen dituztenak: Lleida, Malaga, Alacant...). Aipatu hamar mila haiek, duela 25 urte ez bezala, biltzerik badago egun eta Euskal Unibertsitatea sortu. Hori egin ezean, euskaldunon multzoa espainolaren itsasoan urtutako eta gutxitutako hiztun taldea izatera kondenaturik egongo gara.

Kataluniaren bideak erakutsi digunez (Llei 7 de Normalització Lingüística 1983an), bertako hizkuntza irakaskuntzarako hizkuntza ofizial bakarra bihurtzea ahalezkoa da eta, horren arabera, Unibertsitate berriak sortzea (Pompeu Fabra, Unibersitat Oberta de Catalunya...).

Beraz, soziolinguistikoki Euskal Unibertsitatea sortzeko inoiz izan ez den egoera onik badugu egun. Erreferentziak, ereduak eta bideak, berriz, gertu daude. Egiterik badago.

2.- Euskararen aldeko hautua irakaskuntzan etengabe gora doan aukera den bitartean, unibertsitateak ezartzen du muga euskal ikasketak bermatzeko bidean. Euskal irakaskuntza bermatzeak eremu ez unibertsitarioan ez du ekarri inolako ghetizaziorik euskararen osasuna hezkuntzan sendotu duela baizik. Orain arte demografia gora joan arren, dagoeneko jaiotze tasaren beheraldia unibertsitate-ara ari da heltzen. Euskal Unibertsitatearen jarduna ziurtatzeko urratsak ez baldin badira ematen, orain arte irakaskuntza ez unibertsitarioan erdietsitakoa galtzeko zoria badago. Unibertsitatearen funtsezko zereginak ez dira soilik goi irakaskuntzarekin lotuta daudenak, ikerketa eta hedakuntza ere unibertsitate lanak dira. Egungo «Ezagutzaren gizartean» (A. Toffler 1986an) unibertsitatea eduki ahal izatea ezinbestekoa bihurtu zaigu. Beraz, ez genuke esan behar onuragarria denik soilik, herri eta kultura bezala iraun ahal izateko ezinbestekoa dela baizik.

3.- Goian aipaturiko LRU Legeak ez zuen aukerarik eman irakasleria behar bezala antolatzeko, ez eta Euskal Herria bere baitan hartuko lukeen barrutia eratzeke ere. 1998an Eusko Jaurlaritzak erabakitako Unibertsitate Legeak Espai-

niako markoa onartzen zuen bete-betean eta ez zuen euskararen presentzia Unibertsitatean bermatzeko balio izan. 2001eko Espainiako Unibertsitate Lege berria aurreko guztiak baina zentralistagoa dugu. Frantzian ez dago honi buruzko ekarpen onik.

Egun Euskal Erkidegoak Unibertsitatea gauzatzeko inoiz baino behar eta aukera handiagoak baditu ere, horretarako eman beharreko urrats politiko-administratiboak lehen bezain geldoak ditugu. Anjeles Iztuetak Unibertsitate Legea egingo duela behin baino gehiago adierazi arren (*Hik Hasi* 63, 21. or.; *Gara*, 2001-11-18, 10. or.;...), 2002ko urtarrilaren 10ean Euskal Herrirako Unibertsitate Legea tramitatzeko Herri Ekimenari ezetz borobila eman zaio. Aurretik Nafarroako Parlamentuko Mahaiak gauza bera egin zuenean argi geratu zen bere borondate eza, baina Eusko Legebiltzarreko Mahaiak emandako erantzunean (2002ko otsailaren 5ean) Euskal Unibertsitatea izeneko Lege Proposamenean «Espainiako Estatuaren eskuduntzak urratzen direla» eta Autonomia Erkidegoari dagozkion «eskumenetatik harantzago doala» irakurtzea kezagarria da.

Herri honek bere hezkuntza eremu guztietara garatzeko eskubidea du (1948ko Giza Eskubideen aldarrikapenaren 26. artikulua). Euskal Herriko Unibertsitate Publikoen artean, gutxienez, batek Euskal Unibertsitatea behar du izan. Egun, gure historian lehen aldian akaso, behar bezalako baldintza soziologikoak ditugu, baina politikoki ez da aurrerapenik sumatzen. Gaiaren garrantzia kontuan harturik, euskalgintzak (eta, zehazkiago esanda, unibertsitatearen eremuan aritzen diren UEUK eta EIREK) honekiko erakutsitako jarrera ez da, tamalez, beharraren neurrikoa izan. ¶



Jose Maria Rodriguez Ibabe

1.- Azken urte hauetan unibertsitate eta fakultate berri asko sortzen ari dira estatu mailan. Euskal Herria ere ez da egoera horretatik at gelditu. Fakultate berri horiek zein erraz irekitzen ari diren ikusita, ez dirudi gaur egun praktikan oztopo juridiko eta ekonomiko asko daudenik. Beraz, gauzak horrela izanda, ez dirudi euskal unibertsitatea sortzeko arazo praktikoak lege aldetik eta betebeharrak ekonomiko minimo batzuetatik etorriko liratekeenik.

Bestalde, unibertsitate berria aipatzerakoan, zer-nolako unibertsitateari buruz mintzatzen ari garen kontuan hartu beharko genuke. Gure herrian, beharbada behin baino gehiagotan estatuaren eskemak jarraituz, askotan fakultateak baino gehiago akademiak daude. Hau da, irakaskuntza bat testuliburu batzuetan oinarrituta, baina era berean ikerketa eskasa duena. Azken eskema hau, gutxienez hasiera batean, estatuko zenbait unibertsitate berritan susmatzen ari da.

Beraz, gure helburu «bakarra» karrera batzuk (klase batzuk) euskaraz ematea baldin bada, gaur egun dugun eskarmentuarekin eta hizkuntza bera esparru gehienetan zabaldua dagoenez, orokorrean arazorik gabe martxan jar litekeela esan daiteke. Aldiz, benetako unibertsitate bat, ikerketak garrantzi handia duena eta hirugarren ziklo sendo batekin sortu nahi baldin badugu, arazoak nabarmenak izango dira.

Niretzat, unibertsitatea ikerketarekin lotuta dagoenez, nahitaez euskal unibertsitatea akademiatik urundu beharko litzateke. Horrek esan nahi du ikerketa-taldeak hasieratik antolatu beharko liratekeela eta hori izan daiteke benetako arazoa. Talde bat ez da bat-batean sortzen eta bi aukera desberdin har daitezke: talde gazteak antolatu eta epe luzera jo ala ikerlari seniorrak beste unibertsitate-tatik ekarri taldeak epe laburrean lanean aritzeko.

Lehenbiziko aukeraren kasuan, inguruko unibertsitateekin konparatuta, unibertsitate berri horrek urteetan ospe apalagoa edukiko luke, lehiakortasunaren aldetik egoera hori oso arriskutsua izanik. Onartzen baldin badugu gero eta arazo gehiago dagoela «bezeroak» lortzeko (zenbait fakultatetan ikasle-kopurua nabarmenki jaitsi da; bestetan, nahiz eta kopurua mantendu, sartzeko behar den nota minimoa dezente jaitsi da), ospe apaleko euskal unibertsitate bat sortzea oso arriskutsua izango litzateke. Bigarren aukera hartzeko, orain beste unibertsitate eta ikerketa-zentrotan lanean diharduten irakasle euskaldunei eskaintza argiak eta funtsezkoak egin beharko litzazkieke. Kontuan hartu behar da aldaketa hori askorentzat bere ikerketa-jardueran etenaldi nabarmena suposatuko lukeela.

Laburbilduz, nire ustez, hizkuntza nabarmenki landuta dagoela ikusita, euskal unibertsitatea eraikitzeko arazo nagusia goi mailako klaustro bat osatzerakoan aurkituko dugu.

- 2.- Euskal unibertsitatearen onurak nabarmenak izan daitezke irakaskuntza sistema osatzerakoan. Hala ere, osaketa hori titulazio batzuetan bakarrik izango litzateke, ia ezinezkoa izanik fakultate ugari osatutako unibertsitatea eraikitzea (gutxienez hasierako urteetan).

Arriskuak ere nabarmenak izan daitezke, gauzak oso ondo egiten ez baldin badira. Duela hogeit hamar urte egoera guztiz desberdina zen, baina orain unibertsitateen arteko lehia oso handia da, ikasle kopurua nabarmenki murrizten den bitartean. Egoera horretan, kalitatezko unibertsitatearen apustua (ikerketa barne) egiten ez baldin bada, unibertsitatearen sorrerak kontrako efektua eduki dezake, euskal hezkuntza sistema kaltetuz.

Unibertsitate euskalduna sortzean beste galderak ere azaltzen dira; horietariko bat: zer gertatuko litzateke beste unibertsitateen euskalduntze prozesuarekin? Kontuan hartu beharra dago unibertsitate «zahar» horiek nahikoa finkatuta daukatela bere merkatua. Beraz, nahiz eta epe laburrean merkatu horren zati bat unibertsitate berrira bideratu, zalantzarik gabe, euskal gazteriaren gehiengoak ohiko

bidetik jarraituko luke. Ondorioz, ezingo litzateke inoiz «euskal unibertsitatea» versus «ohiko unibertsitateak» binomia planteatu. Hau da, euskal gizarte osoari zuzendutako goi mailako irakaskuntza batean, euskal unibertsitatearen sorrerak ez luke bukatuko ohiko unibertsitateen euskalduntze arazoekin.

- 3.- Unibertsitateak gizarteari eman behar dio zerbitzua. Gure kasuan, bere berezitasuna hizkuntza izanik, aurreko baldintza ere bete beharko luke. Beraz, unibertsitate horrek, zalantzarik gabe, ondo formatutako gazteak gizarteratu beharko lituzke. Hori egiteko, baliabide handiak eta gizartearen esparru ekonomikoekin harreman zuzenak eduki beharko lituzke.

Euskal gizartearen joerak ikusita, nahiz eta gaurko egoeran aukera egokiena askatasunaren ikuspuntutik unibertsitate pribatua sortzea izan, zaila dirudi halako proiektu bat martxan jartzea erakunde publikoen babesik gabe.¶



Pello Salaburu

Uste baldin badugu, jende askok pentsatzen duen bezala, unibertsitatea akademia baten antzeko zerbait dela, ez da batere zaila galdera hauei zuzen eta labur erantzutea. Baina uste baldin badugu, eta nik hala uste dut, unibertsitatea errealitate konplexu eta aberatsa dela (eta munduan zehar hala gertatzen da: oso errealitate konplexu eta aberatsa da), orduan gauzak ez dira hain errazak. Eta ez dira hain errazak funtsezko arrazoi bategatik: unibertsitate proiektu bat ezin delako oinarritu hizkuntza kontuetan bakarrik. Horrek bakarrik ez du balio, horrekin batera beste zenbait gauza ere definitzen ez badira aldi berean: unibertsitate kompetitibo bat nahi dugu, beste unibertsitateen parean jarri eta lehiari beldurrik izango ez

diona? Hala baldin bada, zer alorretan nahi genuke lehiakor izatea? Unibertsitate handia nahi dugu? Txikia? Non kokatuko da? Eta hola jar genitzake hemen beste galdera anitz. Hori dela eta, aski orokorrak diren ohar batzuk jarriko ditut hemen kontu honetaz.

- *Unibertsitate euskaldun bat eraikitzea posible da.* Unibertsitate euskalduna eraiki daiteke, jakina baietz. Munduan zehar unibertsitate mota asko daude: onak eta txarrak, handiak eta txikiak, gizontzat edo andrentzat bakarrik, erlijiosoak eta laikoak. Nola ezingo genuke, bada, guk ere hemen unibertsitate bat sortu, eskolak euskaraz emango lituzkeena? Eta gainera Estatu Batuetako unibertsitatearen batekin erkatzeko modukoa izango litzateke. Herri hau aipatzen dut han dagoelako, nire ustez, unibertsitate eredu hoberena gaur egun. Zerrenda bat egingo bagenu munduko unibertsitate hoberenekin, segur naiz lehenbiziko hogeien artean hamarretik gora Estatu Batuetan aurkituko genituzkeela. Txarrenen zerrenda egingo bagenu, segur aski ere gauza bera edo oso antzekoa gertatuko litzateke. Han denetarik baitago. Orduan, jakina egingarria dela euskal unibertsitatea! Kontua da zerrenda horietan nora begiratu nahi dugun. Eta gure begiek lehenbiziko zerrendara begiratu nahi badute, hoberenen zerrendara —ez dut esango hoberenen artean sartzeko baizik hoberenei begiratzeko bakarrik, hori aski baitzait—, orduan ez dut uste hain erraza den euskal unibertsitatea egitea. Garantia akademiko minimoak betetzekotan zerbait oso txikia eta berezia egin beharko litzateke, oso gai eta titulazio aukeratuak emango lituzkeena eta ez, normalean gure joerak erakutsiko ligukeen gisa, zerbait oso orokorra. Hori bi arrazoiengatik: ikasle kopuruagatik eta diru iturriek jarriko dituzten mugengatik. Baina zerbait txikia egiten bada, oso neketan konpetituko genuke, eta oso neketan erakarriko genuke kanpotik behar den jenderik hoberena. Zeren zerbait txikia egiten badugu, eta akademikoki hoberena ez den jendea ekartzeko gai ez bada unibertsitate hori, hortik sortutako unibertsitatea guztiz bigarren mailako zerbait izango baita. Eta ez nuke nahi nik bigarren mailako euskal unibertsitaterik.

- Baina unibertsitate euskaldun bat eraikitzen badugu, lehiakortasunean bere hizkuntza batasuna galduko du. Hau da esan nahi dudana: euskal unibertsitate batean irakaskuntza euskaraz emango litzateke, eta ikerkuntzaren ondorioak ere euskaraz. Kontua da, ordea, jakintza arlo gutxi batzuk kendurik (eta hemen ere zalantzak sor daitzke) gaur egungo ikerketa gehiena ingelesez argitaratzen dela. Eta kontua da gure artera lehen mailako irakasleak ekarri nahi baldin baditugu, mintegi bat ematera, ikastaro bat ematera, etab., normalean euskara ez den beste hizkuntzaren bat erabiliko dutela. Horrek hautsiko du, nahi edo ez, hizkuntzaren batasuna. Euskararen aldamenen beste hizkuntzaren bat agertuko litzateke, eta nekez ikusten dut nik hizkuntza horien artean gaztelaniak edo frantsesak, batez ere gaztelaniak, pisu handia ez izatea. Gauden tokian gaude, gauden tokian bizi gara, eta ditugun harreman akademikoak ditugu.

- Euskal unibertsitateak ghettora eramango gintuzke. Gaurko errealitate akademikoak atea irekitzea eskatzen du. Aukeran, nahiago nuke, askoz ere nahiago gainera, unibertsitate bat non euskara, gaztelania, frantsesa edo ingelesa nolanahi erabiltzen diren, denak maila berean, eta ez euskara bakarrik erabiltzen duen unibertsitatea. Arazo akademikoetan, esan nahi dut. Jakina, barne harremanetan euskara nahiago nuke. Euskara eta nazioarteko hizkuntzaren bat, normalean ingelesa, menderatuko lukeen jendea. Ez ditugu ekarri nahi kanpotik ere ikasleak ala? Baina unibertsitate baten pisua eduki akademikoek markatzen dute, eta ez barneko harreman burokratikoek. Bestetik, eta hau ere azpimarratzekoa da, gaur egun eta hemen euskal unibertsitatea sortzeak eragin handia izango luke EHUUn, kalterako, unibertsitate honetako irakasle eta ikasle batzuk (agian ez uste ditugun bezainbat) hara pasatzeko joera izango luketelako. Eta beldur naiz, hain zuzen ere, ideologia jakin bateko jendea pasatuko litzatekeela batez ere. Horrek, ghettotasun hori areagotu besterik ez luke egingo.

Ghetthora eramango gintuzke beste arrazoi bategatik ere: ez dut uste baden nahiko masa kritikorik, irakasle eta ikertzaile formatu nahikorik, holako proiektu bat bultzat-

zeco, berriz ere diot, maila eman nahi badiogu proiektuari. Eskola duin batzuk eman daitezke, hori bai, baina eskola batzuk emateak ez du unibertsitatea egiten. Baliabideak ere oso eskasak ditugu, ez dago testu nahikorik euskaraz, jakintza arlo batzuetan neketan gabiltza terminologia egoki bat aurkitzeko... Euskal unibertsitateak askoz ere harago joan beharko luke.

- Euskal unibertsitatea, izatekotan, publikoa izango da. Publikoa edo diru publikoaz mantendua. Zail ikusten dut bestela elkarte pribaturen bat animatzea holako zerbait sortzen. Norbaitek euskal unibertsitate baten proiektua bultzatuko balu, diru publikoaren laguntzarekin izango litzateke, ez bestela. Zailago, gainera, arazo demografikoak direla-eta, unibertsitatera gero eta gazte gutxiago doan une honetan. Egia da unibertsitatean sartzeko egiten diren sarrerara frogetan gero eta ikasle gehiagok egiten dituela azterketak euskaraz. Laster iritsiko gara kopuru osoaren erditsuraino, dagoeneko 2001eko ekainean %45ek egin baitzituen azterketak euskaraz. Baina hori hala baldin bada ere, gazte kopurua, oro har ikusirik, gutxituz doa. Gero eta unibertsitate gehiago dago, gero eta titulazio gehiago, baina gero eta ikasle gutxiago, Europara alde batera eta bestera joan nahiko dutenak gainera.

Egia da bestetik unibertsitatearen izaera ere aldatzen ari dela pixkanaka, eta formazioa ez dela gazte denboran bukatuko. Pixkanaka adineko jendea etorriko da unibertsitatera, formazioa eta hezkuntza bizi osoan iraungo duen zerbait izango baita. Baina, hain zuzen ere, uste dut horiek izango lirakekeela azkenak euskal unibertsitatera etorriko lirakeenak, besteak beste gazteen artean daudelako euskaldun gehienak. Hortaz, ez dut uste horrek bide berririk irariko lukeenik. Ez horrek ez hariaren bitarteko Interneteko unibertsitateak. Aukera hori ere hor dugu, baina aski da ikustea zer gertatzen den UOC Kataluniako unibertsitatearekin. Zenbat ikaslek egiten du han katalanez?

- Amaitzeko. Uste dut euskal unibertsitate bat bultzatzea, teoriarik bederen, posible baldin bada ere, ez dela batera errealista une honetan, ghetto bat bultzatu nahi ez badugu. Geratzen zaigun aukera bakarra da dagoenaz ba-

liatzea. Eta dagoena EHU da, hau baita euskararen alde u mundik ere gehien egiten duen unibertsitatea, zenbait jende kontrakoa erakusten arduratzen bada ere. Hor garrantzizko urratsak egin dira, eta orain dela urte batzuk amestu ere ezin ziren aukerak daude orain euskaraz egiteko. Jakina: unibertsitate honen egoera ez da gustatuko litzaigukeena, irakasle gehienak eta esperientzia handiena dutenak erdaldunak izanik, gaztelaniak pisu handiegia baitu. Baina nola ez du izango, bada, Eusko Jaurjaritza bezalako administrazio gazte batean, orain dela gutxi sortua, guk nahi izan genuen moduan egokitua, han ere gaztelania baldin bada nabarmentzen dena? Hortaz, egia da oraingoz gauza asko falta direla, baina ez ditzagun gure begiak itxi: euskal gizartea den bezalakoa da, eta unibertsitatea antzekoa. Nahi izanez gero, baliabide ekonomikoak izanez gero ere, batzuetan ezin da kurritu, lasterka ibiltzea ez baita borondate kontua. Eta unibertsitate mailan, oraingoz, oinarriek huts egiten digute.¶



Jose Luis Sukia

Hiru galdera egiten dira «Euskal Unibertsitateari» buruzkoak, eta burura etortzen zaidan lehenengo ideia zera da, «beharrezkoa, zaila baina egingarria», eta idatzi honetan gehien errepikatuko diren ideiak horiek dira. Beharrezkoa da, baina zaila; hala ere zaila izateak ez du esan nahi ezinezkoa denik, eta horretan jardungo naiz honetan ere.

- 2.- Hau ez da egin zaigun lehenengo galdera, baino ziur aski hortik abiatu beharko ginateke holako gai garrantzitsua mahai gainean jartzeko orduan; edo hobeto esanda, gai honen inguruan zein da erantzun behar den lehen galdera? Alegia, Euskal Herriko Unibertsitate publikoa sortu zenetik hainbeste urte pasatu ondoren beharrezkoa al da

«Euskal Unibertsitate» berri bati buruz hitz egitea? Nahikoa litzateke egun martxan dagoena aldatzea (asko edo gutxi baino dagoena oinarritzat hartuta)? Une batean «Euskal Herriko Unibertsitatea» sortu zenean batzuen buruan zegoen ideia «Euskal Unibertsitatea» zen, baina, beste gauza askorekin bezala, lehendik martxan zegoena kopiatu besterik ez zen egin (bere akats guztiakin: administratiboak, curriculumak, funtzionalak..., eta beste berri batzuk: hizkuntzen tratamendua...). Horrek bere ondorioak ekarri ditu, eta egun indarrean dagoen Unibertsitate Publikoak besteak dituzten akatsak ditu:

- Euskarak sekulako arazoak izan ditu eta izaten ari da. Gaur da eguna oraindik ikasle askok ezin dutela beraien ikasketak euskaraz burutu (ez naiz sartuko zergatietan baino hori errealitate bat da).

- Gestio korapilatsua. Hiriburuen arteko lehia batean gaudela dirudi, ea zeinek zer irakasten duen, zeinek irabazten duen borroka horretan; lurraldeen arteko kompetentzia gero eta handiagoa da, ulertu gabe oreka mantendu daitekeela baina ez zerbitzuak bikoiztuz (edo hirukoiztuz).

- Ikerketarako zailtasunak.

- Malgutasun falta. Gaur egun aldaketarako sekulako erraztasuna izan behar du edozein Unibertsitatek; gizarte moderno honek hala eskatzen du, baina dagoen estrukturaekin ezinezkoa da (edo oso zaila) legeak ezartzen dituen baldintzak gainditzea.

Egoera hau ikusita ziur aski erantzuna berehala aterako zaigu: gure gizarteak eskatu eta exijitzen duenari erantzuteko ezinbestekotzat jotzen dugu Euskal Unibertsitate berri bat sortzea, lehendik daudenak ezin ditugulako kontsideratu eskaera horiek erantzuten dituztenik edo aukera ematen dituztenik horretarako.

1.- Bai, ez dut zalantzarik gai honen inguruan, eta ez erraza delako (aurrerago aztertuko ditugu dauden zailtasunak), baizik eta lehenengo puntuari baietz esan badiogu ez dugulako beste irtenbiderik. Gure herri honek beti erakutsi du kapazitatea aurrean izan dituen erronkei erantzuteko, eta kasu honetan badugu erronka, eta handia gainera. Se-

kulako utzikeria erakutsiko genuke mundu honetan mugitzen garen guztiok (eragile sozialak, Administrazioa, sindikatuak, enpresak, irakaskuntzako eragileak...) orain arte bezala geldituko bagina.

Badakigu multzo handi batek pentsatzen duela egungo eredu aldaturik posible dela lehen aipatu ditugun akatsak zuzentzea. Gure ustez, eta esperientziak hala erakutsi digu, hori ezinezkoa da (berria egitea baino askoz zailagoa). Gogoia, imajinazioa eta lana behar dira gauzak aldatu eta zuzentzeko, baina ezinbestekoa da ideia horri eustea baldin eta benetako Euskal Unibertsitatea nahi badugu.

Zeintzuk izango lirakeen zailtasunak?

Akademikoak: gero eta gutxiago dira, eta, gainera, ez garrantzi handiena daukatenak. Gure esperientziak erakutsi digu arlo honetan zailtasun nagusia material pedagogikoan badatza ere, beste lekuetan dauden esperientzietan oinarrituta posible dela gure errealitatera egokitzea, eta gainera malgutasun handiarekin.

Juridikoak: handiak baina ez gaintitu ezinezkoak. Juridikoki Unibertsitatea tituluak emateko da, baina egiten den lana ona bada eta bertako ikasleak prestakuntza egokiarekin ateratzen badira posible da arazo horiek guztiak gaintitzea.

Demografikoak: hau izan daiteke batzuentzako arazo nagusietakoa, baina hemen ere antolatu nahi dugun Unibertsitateak jarriko ditu mugak. Egun ezin dugu pentsatu edo diseinatu eredu zaharkituetan oinarritutako Unibertsitatea; gure ustez, Unibertsitate horren ezaugarri nagusietako bat malgutasunak behar du izan, eta hori antolaketa txiki batekin egin daiteke (egingarriagoa dela esango genuke). Badakigu gero eta ikasle gutxiago daudela, baina ditugun datuen arabera nahikoak dira egin daitekeen proiekturako.

3.- Izaera aldetik oso garbi dugu zeintzuk izango lirakeen puntu garrantzitsuenak:

Euskara erreferente bai ikasketetan bai antolamenduan ere, eta bi arlo horiek garrantzi paretsua dutela argi izan behar dugu: ezin da Unibertsitate euskaldun bat antolamendu erdaldun batekin.

Gestioaren gardentasuna eta efikazia: baditugu gure gizartearen irakaskuntza munduan esperientzia nahikoa hori nola egin behar dugun jakiteko. Eta puntu honetara ailegatuta ez gara eroriko betiko eztabaidan (publiko-pribatua); gure ustez ez dago zalantzarik zerbitzua publikoa dela, baino horrek ez du esan nahi gestioak Administrazioarena izan behar duenik. Berak kontrolatu eta nolabait ere ziurtatu behar du funtzionamendu demokratikoa, baina gizartearen eskuetan utzita eguneroko gestioa. Hala bakarrik lortuko dugu Unibertsitate azkar eta independentea.

Antolamenduaren malgutasuna, aldaketarako jarreraren eta partaidetzaren oinarrituta. Bi horiek izan dira betidanik gure gizarte honek izan dituen ezaugarri nagusietakoak, eta horren bila joan behar dugu. Horretarako ezinbestekoa ikusten dugu teknologia berrien erabilpena (campus birtuala, informatika...), beti metodo tradizionaletan oinarrituta ere, baina ez horietan bakarrik. Azken urte hauetan izan ditugun esperientziak oso aberatsak izan dira alde horretatik eta bide hori sakondu eta gehiago landu beharko genuke.¶



Arantza Urkaregi

1.- Dударik gabe, euskaraz arituko den gune unibertsitarioa osatzeko giza-baliabideak egon badaude: gero eta ikasle euskaldun gehiago ailegatzen da unibertsitatara, UPV/EHUn soilik 1.000 irakasle elebidun daude, AZPn ere euskalduntze-prozesua aurrera doa...

Seguraski ezin izango genituzke lizentziatura guztiak eskaini, bereziki zailtasunak baitaude ikasketa teknikoetan eta zientzi arlokoetan (irakasle euskaldunak lortzeko zenbait arlo teknikotan, edota laborategiak eta beharrezkoak diren azpiegiturak eratzeko, besteetan).

Baina ziur nago gune unibertsitario euskalduna (nahiz eta osoa ez izan) eratzeko baldintzak badaudela.

2.- Nire beldurra, Euskal Unibertsitatea berehala eratzeko proposamenak plazaratu direnean, beti izan da ghetto ez bihurtzearena. Beharbada, gaur egun, beldur hori izateko arrazoi gutxiago dugu, baina, behintzat, arriskua kontuan hartu behar dugula uste dut.

Irakasle, ikasle eta AZP euskaldunak daudela aipatu dut lehen, baina Euskal Unibertsitatea eratzen bada, euskaldun horiek guztiak bertako partaide bihurtuko al dira? Zalantzak ditut. Euskaldun guztiok ez dugu euskararekiko jarrera bera, ezta ere ez dugu bat egiten Euskal Unibertsitatearen aldeko aldarrikapenarekin. Orduan, nortzuk osatuko genuke Euskal Unibertsitatea?

Beste aldetik, nahiz eta Euskal Unibertsitatea eratu, ez da izango Euskal Herrian egongo litzatekeen unibertsitate bakarra. Hau da, UPV/EHU, UPNA eta unibertsitate pribatuak ere egongo lirarteke. Unibertsitate horietan ez al dira ikasketak euskaraz eskainiko?

Beldurra hor dago, baina baita ere beharra. UPV/EHUko esperientzia ikusita, eta ezin ukatu euskalduntze-prozesuak aurrera egin duenik, unibertsitate elebidunak mugak dituela nabarmena da. UPV/EHUen zenbait ikasketa euskaraz egiten dira, Euskal Adarrak gune euskaldunak dira..., baina, oro har, gaztelania da jaun eta jabe. Komunikatzeko hizkuntza nagusia gaztelania da, nahiz eta hitzunak euskaldunak izan. Adibide moduan, Gobernu Batzarrean izandako eztabaidak ditugu: guztiak, euskarari buruzkoak salbu, erdaraz egiten dira, nahiz eta askotan gutxienez eztabaidaren bost partaide euskaldunak izan. Euskararen erabilera oso murrizta da UPV/EHUen, euskaraz hitz egiteko gai direnen kopuruarekin alderatuta. Azken finean, UPV/EHUen euskaldunak bigarren mailako unibertsitarioak gara.

3.- Nire ustez, Euskal Unibertsitateak izaera publikoa izan behar du, hau da, Euskal Herriko erakundeek eratu beharko lukete. Askotan, adibide gisa, ikastolak aipatzen dira. Nik ez dut inoiz bat egin ikastola unibertsitarioak eratu behararren ideiarekin. Ikastolek ekarpen garrantzitsua egin diote euskal hezkuntza sistemari, baina egindako proze-

suaz guztiok ikasi behar dugu: alde onak aprobetxatu, bai, baina ezin ditugu akats berdinak errepikatu.

Publikoa izateaz gain, Euskal Unibertsitatearen beste ezaugarri batzuk ere planteatu behar ditugu. Ez da nahikoa irakaskuntza euskaraz izatea besterik gabe. Gure curriculum diseinatzeke aukera izan behar dugu, beti kontuan izanda unibertsitatea ezin dela itxita egon, gure ingurura soilik begira, baizik eta Europara begiratu behar duela, eta ildo horretatik, gure ikasketek Europa mailakoe-kiko baliokidetasuna izan behar dutela.

Euskal Unibertsitateak bere langileriaren egitura (bai irakasleena bai AZPkoena) definitzeko ahalmena izan behar du. Egun, irakasle iraunkor bakarrak Espainiako funtzionarioak dira, Estatu mailako legearen menpekoak eta guztiz egitura hierarkizatuaren barnekoak. Euskal Unibertsitatean, aspaldidanik aldarrikatu dugun irakasle kontratatu iraunkorren irudia garatzeko aukera izan behar dugu. Eta hortan definitu beharko dugu zenbat irakasle-maila egongo diren. Nire ustez, bi besterik ez dira egon behar: dozentzia irakaslea (doktorea izateko beharra ez duena) eta dozentzia eta ikerkuntzarako irakaslea (doktorea izan behar duena), baina ez genuke bereiztu behar Eskola edo Fakultate bateko irakasle izatea. Horretaz gain, honakoak ere zehaztu beharko genituzke: langileek, irakasleek zein AZPkoek, zein prozedurari jarraitu behar dioten iraunkorrak izateko, nola ebaluatuko den irakasleen zein AZPkoen lana, eta abar.

Euskal Unibertsitatearen funtzionamenduak demokratikoa izan beharko du, sektore guztien parte-hartze orekatua bermatuz eta egun indarrean dagoen egitura hierarkikoa deuseztatuz.

Gauza asko ditugu eztabaidatzeko. Euskal Unibertsitatearen beharra rekin askok egiten dugu bat, baina oso gutxitan eztabaidatu dugu Unibertsitate horren ezaugarriez.

Beste aldetik, argi dago egungo marko politikoak ez duela baimentzen horrelako Euskal Unibertsitatea eratzea. Orduan, nondik jo?

Orain dela gutxi, UPV/EHUko irakasle-talde batek *Basarte* Campus euskalduna eratzearen ideia plazaratu zuen.

Eta ideia erakargarria iruditzen zait. Beraiek ausardia eskatzen zuten. Eta ados nago: ausartak ez bagara, inertziak jan egingo gaitu. Unibertsitate elebidunetako —behintzat, UPV/EHUko— Euskararen Normalkuntzarako Planek mugak dituzte, eta, beharbada, inertzia horri iraulketa emateko garaia heldu zaigu.


Euskarak erreferente unibertsitarioa behar du, eta erreferente hori *Basarte* Campusa izan daiteke. Euskal Unibertsitate «ideala» gaur eraikitzen hasteko oztopoak ikusten ditut, baina Campusa eratzeko aukera ikusten dut. Behintzat, oztopo legalik ez dago. Arriskuak eta zailtasunak ere ikusten dizkiot, baina UPV/EHUko euskalduntze prozesuari ikusten dizkiodan bezala. Dударik gabe, Campus horren aldeko lanari ekiten diogunean ikusiko dugu zein motatako oztopoak aurkitzen ditugun edota zein arrisku agertzen diren, eta praktikara eramatean gainditu beharko ditugu arrisku eta oztopo horiek.

Hori bai, puntu bat definitu beharko dugu hasiera-hasieratik: Campus horrek zein motatako harremanak izango ditu Euskal Herrian dauden unibertsitateekin? UPV/EHUko kokatuta egongo al da? Posible izango da Unibertsitate ezberdinetako irakasle eta ikasleak bertan aritzea?

Euskal Unibertsitaterako bidean, beste tresna bat ikusten dut beharrezkoa: askotan komentatu dugun bezala, egun dispertsaturik dagoen euskal komunitate zientifikoa egituratzea.

Eztabaidatzeko eta egiteko gauza asko ditugu. Has gaitezen ba lanean! ♪

Egunen
gurpilean



kultura • 219

- Paristik Madrilerera, Leitzan barrena
• Arteen Hiriburua • Leitzatik Artium-era

JOSEBA BALERDI



literatura • 223

- Enbor zaharra loratuz • Idazle, editore, kazetari...
• Profesionalizatzeko tresnak
• Argitaletxe bakoitzak bere «zalditeria»

LAURA MINTEGI



soziolinguistika • 228

- Euskararen kale-erabileraren azken emaitzak
• Euskararen kale-erabileraren irakatsiak
• Hizkuntz politika eraginkorraren baldintzak
• Hizkuntza gutxituen aldeko adostasunaren bila
• Hizkuntzen ekologia

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA



telepolis • 234

- Edukiak aldarrikatu... bakoitzak bere aldetik
• Edukien klusterra • GAIA, Telekomunikazio Klusterra
• Multimedia? «Ez dok» multimedia!
• Telemakina pentsalariak • Teleaudimetria digitala

AMATIÑO



Paristik Madrilera, Leitzan barrena

Nafarroako Enrike Hirugarrenak —Frantziako Laugarrenak, dinastiko-legitimista-hitorizista jartzen direnentzat, Borbonikoak alegia— botatako hitzak omen dira gaur arte heldu zaizkigunak, baina oraindik ere balioa galdu ez dutenak: Frantziako tronua ere bere ipurdipean izateko aukera ikusita, txikikeria hutsa iruditu zitzaion, kronikek diotenez bero-bero eta lerdentente ibiltzen omen zen majestateari, kalbinismoa alde batera utzi eta katolizismoa bere egitea. Parisek balio du meza bat, esan omen zuen (frantsesez esango zuen, ordurako euskara ez baitzen gure —hemengo— errege-erreginen hizkuntza). *Paris vaut bien une messe*.

Balio du, alajaina! Paris. Senaren pausaleku, argiaren hiria deitutakoa, meza bat baino gehiago ere balio du, eta asko izan dira horretaz konturatu eta hiriaren aurrean, errendituta, belaunikatu direnak. Parisek, baru-barruan zituzten on eta txarrak, hobe eta okerrenak, azaleratu dizkielako, eta azaleratze horretan, mirarizko osmosi bat eragin dielako, on eta txar horiek bereak eginez, berarentzat hartuz, hiriarentzat alegia, eta bere edertasunak eta bere magiak (zergatik ez?) harrapatutakoei on eta txar horiek lapurtzen zizkien bitartean, bere aurpegi eta itxura etengabe aldatuz zihoan Paris. Eta horrela, gaur arte.

Ez dut ezagutzen Parisen egon eta horrelakorik sumatu ez duenik. Paris bizirik dago, eta Boulogne-ko basotik arnasa hartzen duen bitartean, ez dio lotsarik ematen bere gernu eta gainerako ur zikinak erdi-erdian, Senan barrena zabaltzea, Montmartre-tik, Montparnasse-tik, edo baita Roissytik ere, bere begiek ia dena kontrolpean daukaten bitartean, Père Lachese-ko hilobietatik hildakoen bizitza, hildakoen negar eta algarak zerura zabaltzen diren bitartean. Parisek duen argi bereziaren bahetik pasatzen diren, oraindik bizirik gaudenontzat oxigeno bihurtzen diren negar eta algarak.

Eskuaraz baizik ez zekiten haiei ere malkoz bete zitzaizkien begiak Lehen Gerra amaitzean, hildakoak gogoan —morts pour la patrie— eta malkoz berriro ere Hitlerren tropak Parisen ikustean, eta berriro ere malkoz liberazio egunean, Bigarren Gerra, 30 urteko aldea, baina Paris beti sinbolo. Hutsaren sinbolo, edo guztiaren sinbolo. Paris, Parisen sinbolo baita.

Arteen Hiriburua

Guggenheim Bilbao Museoaren eskutik, Arteen Hiriburua ere badela ekarri digute gogora orain. Ez zegoen horretarako beharrik, garairen batean Paris artearen hiriburua izan dela gogora ekartzeko beharrik, ia-ia artea bera baita Paris, Paris baita artea. Baina koadroak —eta eskulturak— erakusteko modu aproposa iruditu zaie erakusketan honen arduradunei, eta, alajaina!, ez dira erratu. Paris aurretik jarritz, nola ez errenditu pintura eta eskulturaren edertasunari? Tranpa egitea da, beharbada, Paris erakusketaren ardatz bihurtzea, baina nori axola zaio tranpa Paris bezain ederra bada?

Koadroak—eta eskulturak: Giacometti, ezin ahaztu— XX. mendearen erakusle interesgami dira. Modigliani, Duchamp, Picasso, Kandinskyren bat, sorta oparoa da, eta merxe du benetan. Banaka, eta elkarrekin, nahiz eta erakusketan hau muntatzeko kriterioarekin bat etorri ez —modu asko egoten baita horretarako, eta askotan gustu kontua edo akademizismo hutsa izaten baita horretan eztabaidan hastea—. Museoak, Guggenheimek, bisitan doanari gogoratzen dio hiriaren edertasunak, bertako giro erromantikoak (*romantico* nobela), bere historia kulturalak, politika liberalak eta bizi-kostu merkeak munduko bazter guztietako artistak erakarri zituela. Paris bizirik dagoela esatea ahaztu zaie, beti egon dela bizirik, eta bertaratzen ziren guztien arimaren zati bat lapurtzen ziela, bere egiteko. Baina museoak Parisen arimaren zati bat utzi zutenen beste arima-zati bat ekarri eta eskaini digunez, ez dago zertan kontuak eskatu museoari Paris bizirik dagoela ahaztu zaio-

lako. Ikusgai daudenek, ikusi ondoren, erakutsiko digute hori. Nahiz eta hainbat gauza —Niki de Saint Phalle, orain hil berria, Parisen Beaubourg-en atarian hainbat lan egingakoa, esate baterako— niri gehiegi ez gustatu.

Eta Paris bizirik dagoela benetan ikustea lortzen bado, Guggenheim museoak aurrerapauso nabarmena egingo du. Museoa bera Parisen dagoela ere ez baita konturatu oraindik. Bilbon dagoela uste du, baina ez, Aldamenean eta barruan duen Nerbioi hori Sena da, nahiz eta batzuk Manzanaresekin nahastu, eta Parisen sortutakoak eta Paristik etorritakoak emango dio bizitza Guggenheimi etorkizunean. Nahikoa da begiak irekitzea. Guggenheim Bilbao ez baitago New Yorkean, Parisen baizik.

(Baina museoaren kudeatzaileak ez dira oraindik konturatu. Ireki aurretik ere, ia bost urte oker ez banabil, bertara joan eta kartel eta seinaleak euskaraz, espainolez eta ingelesez zeudela ikusita, horretarako kriterioa zein izan zen galdetu nuen. Euskal Herrian frantsesa askoz jende gehiagok hitz egiten zuela ingelesa baino, eta falta zela. Ingelesaren ordeztasun frantsesa jartzea proposatzen ote nuen erantzun zidaten, nire galdera batere ez zutela ulertu erakutsiz. Gaur egun lehen egunean bezalaxe daude kartelak.)

Ikastolan hasi ginenetik kantatzen genuen: «Paristik natorren artista bat naiz ni! Paristik datorren artista bat da hori!...».

Leitzatik Artium-era

Jakin-en azken alea inprimategira bidali zenean Gasteizko Artium oraindik ireki gabe zegoen, eta amaitu aurretik inaugurazio hartan entzundako hainbat kontu ekarri nahi ditut gogora. Lehenago ere esan nuen oso eztabaidagarri a zela Artiumaren beharra, eta are gehiago Artiumaren egituraketa. Baina inaugurazio ekitaldian, eta *peri-inaugurazioan* (barka neologismoa) erreferentzia gisa hartu zirenak ikusita, tripak ere nahastu zizkidaten. Espainiako erregea inaugurazioan izatea ez da ezer, monarkak horrelako gau-

zetarako baitaude, baina hortik hasita Artiuma Valladoliden zabaltzekotan dauden arte garaikidearen museoarekin anaitzea, Reina Sofia Madrilgo zentroaren atzetik bigarrena izango dela aipatzea (nongo bigarrena, Espainiakoa?), IVAM Valentziako zentroaren parekoa dela, eta beste hainbat astakeria, hori gehiegizkoa ere bada. Batetik gezura delako, eta bestetik penagarria ere badelako. Eta zergatik ez dugu Lyonekin egin konparaketa, zergatik ez Parisekin? Baina batez ere, zergatik ez dugu Guggenheimekin egin, zergatik ez dugu unea aprobe txatu Euskal Herriari baimura begiratzeko? Kulturak ere ez du sinesten dagoeneko herri honetan? Eta orain, Donostiako Tabacalera dator kigu, eta hobe izango da Iruñeko Ziudadelako proiektua ez aipatzea.

Azken batean, Madrilgo Reina Sofiak asko lilurutzen baikaitu. Hantxe atarira bidali zituen Eusko Jaurlaritzak —ekainaren 9a, igandea— harrijasotzaileak, Euskadiko turismoaren propaganda egitera. Tartean baita Mieltxo Saralegi ere. «Euskadi, con mucho gusto». Ez du jakingo beharbada Saralegik Leitzako landa-etxeak kontu handiz gelditzen direla kanpaina horretatik kanpo, edo beharbada bai, jakingo du, eta horrexegatik joango zen Reina Sofiaren atarira, harriak altxa eta madrildarrak «Euskadira» erakari nahian. Berastegitik hara/Berastegitik hona pasa ez daitezten.¶



Enbor zaharra loratuz

Ez dakit beraiei gustatuko zaien, baina jakin dudanean zenbait idazlek hamazortzi edo hogei urte pasa ondoren berriz argitaratu dutela, burura etorri zaidan lehen ideia izan da lehor ematen zuen enberrari kimu berriak atera zaizkiola udaberriarekin batera, eta poztekoa dela oso.

Josu Landaren *Odolbildua* nobelaz eta Ander Iturriotzen *Mugaren ariketa* poema liburuaz ari naiz. Lehenak bazituen zenbait liburu idatzita (*Haizearen itzala*, *Ipurtargi beltza*, *Gerraondoko poesiaren historia*), estilo, genero eta grazia ezberdinekoak. Borborka egindako literatura zen kasu askotan, hala geratu ziren gero, batzuk behexeago eta besteren bat oso lortua. Hauen artean, esaterako, «Tiro bat besterik ez» ipuina: urtetan irakurtzen segitu dut, eta lorpen literarioaren adibidetzat eman dut askotan.

Ander Iturriotzek ere bazuen aurretik bi poema liburu, *Birundak* eta *Goierrri*, eta oraingoan beste sorta bat plazaratu digu, berak dioenagatik iraganeko «akatsak» emendatzera datorrena.

Zaila izan behar da urte askoren ondoren berriz agerian azaltzea, arrazoi askogatik. Batetik, ia-ia berria bazina bezala agertu beharra duzu, baina idazle labelarekin aurkezten zaituzte. Beraz, berri-berri baten «bisoñokeria» ezin duzu agertu, baina aritutakoaren ziurtasuna ezin azaldu. Argitaratzeak ematen duen eskarmentua ez duzu izan, eta kritikak batzuetan mingotsak suerta badaitezke ere, besteen iritziak —eta irakurleengandik jasotako *feedback*-a ere— garrantzitsuak izaten dira norberaren garapenerako.

Kritiken balizko garrantzia, ordea, azaldu beharra dago. Idazleak aurretik dakien hori baieztatzen datozen kritikak soilik dira hartzekoak, egileak baino hobeto inork ez baitaki zer landu duen neke handiz eta non ez duen eman behar ahala. Beste mota bateko kritikak, ordea —*ad*

hominem eta *ad mulierem* egiten diren horiek—, ez irakurleari ez idazleari ez diote ezer aportatzen.

Genioenez, argitaratu gabeko urte horietan guztietan besteez zer egin duten irakurri dute, eta askotan ikusi ahal izan dute norbaitek «lapurtu» egin diela urtetan garatuz joan diren ideia, irudi literario hura, norberaren buruan dagoen doinua, koaderno txiki batean idatzitako esaldia... denbora aurrera doala sentitzen dute, eta noizbait eman behar dutela pausoa, baina, ai! urdailaren ahoan zorabioa sumatzen da.

Idazle hauen multzoan beste idazle bat sartzekotan egon naiz, baina aitortu behar da ez dela kasu bera. Joseba Sarrionandiaren azken liburutik *Lagun izoztua* argitaratu a rte urte batzuk igaro dira, baina Sarrionandiaren denbora eta espazioa neurtzeko ez dute balio neurgailu kronologiko eta metrikoak. Inoiz noizbait norbaitek deserriratzearen liburua idatzi baldin badu, liburu hau da. Hotza hezurretaraino sentiarazi egiten du. Sustrairik gabeko pertsonaiak, ez hasierarik ez amaierarik ez duten errepide isolatuak, paisaia jelatuak, lagun jelatuak, hormatuta dauden paraje arimagabeak islaturik daude nobela honetan. Lehen irakurketa batean kaosaren irudia ematen duen honenek, drama baten isla uzten du agerian gero. Atzerriratuen drama. Adjektiborik gabe, substantibo soilen bidez. Kritika Saria eta Beterriko Liburua Saria ongi irabazita ditu.

Bi hilabete hauetan beste egile batzuek ere argitaratu dute libururik, baina ez dira izan tarte luze baten ondoren ateratakoak. Horien artean daude Lutxo Egia (*Paperezko hegazkinak*, lehen nobela), Pello Lizarralde (*Lamepetit*, nobela), Karlos Linazasoro (*Inoiz izan ez garenotan*, poesia), Patxi Ezkiaga (*Uso bat gehiago*), Josu Penades (*Hurrengo itsasgoren zain*), Hasier Etxeberria (*Inesaren balada*), Pablo Sastre (*Leuropa*) eta zenbait itzulpen interesgarri.

Idazle, editore, kazetari...

Orain hamarkada batzuk euskal kulturgintzan aritzen zirenek denetarik egin behar izaten zuten (irakasle, kanta-

ri, liburugile, kazetari...), baina garai hura teoriaz pasatuta dago. Literaturgintzari dagokiola, aldiz, oraindik orain nahasten dira profesioak, eta batek baino gehiagok funanbularen ekilibrioak egin behar izaten ditu afizio eta ofizioaren artean, bataren interesak edo bestearen lehen-tasunak elkarren aurka jotzen dutenean.

Definizioz editorearen lana da liburuak argitaratzea, merkatuan konpetitiboa izatea, etekin ekonomikoa ateratzea eta, honi esker, liburu gehiago argitaratu ahal izatea. Idazleak, ordea, liburuak idazteari ekin behar dio, ezer gutxi axola zaio merkatua (lehen instantzia batean behintzat) eta editorearengandik lortu behar du bere produktua nahi bezala plazaratzea, haren interes ekonomikoak gorabehera. Kazetariak, azkenik, albisteak aukeratu eta haien berri eman behar du hedabideetan. Merkaturatzen denari buruz iruzkinak egiten ditu prentsan, balizko irakurleari orientabideak eman eta, horretarako, liburuak epaitu behar ditu, aldeko ala kontrako iritzia emanez.

Arazoa sor liteke (ez du esan nahi halabeharrez sortu behar denik), ordea, editoreak edo kazetariak idazle ere badituzten, eta hainbat kasu dugu gure artean. Boteprontoan esanda, eta gehiegi sakondu gabe, hainbat idazle/editore azaltzen da gure artean: Inazio Mujika Iraola, Gari Berasaluze, Xabier Mendiguren, Joseba Santxo, Iñaki Aldekoa, Txiliku, Miren Agur Meabe, Iñaki Zubeldia, Gorka Arrese, eta beste asko kolaboratzaile finkoak dira argitaletxeetan, hala nola, Koldo Izagirre, Joxerra Garzia, Jose Angel Irigaray eta Andoni Egaña.

Idazle/kazetariei dagokiela, beste horrenbeste gertatzen da. Nominaz edo egitez kazetari dira Juan Luis Zabala, Arantxa Iturbe, Mikel Asurmendi, Jasone Osoro, Joxean Agirre, Pako Aristi, Luzien Etxezaharreta, Ixiar Rozas, Jesus Etxezarraga, Arantza Urretabizkaia, Jon Benito, Hasier Etxeberria eta beste hainbat, zerrenda luzeagoa baita.

Kontua da zer gailentzen den interes kontrajarriak azaltzen direnean. Zein den nagusitzen den profesionaltasuna. Zeren profesionala profesionala, jardun bietan baitira profesionalak. Profesio batean ez dago diru-irabazi handirik, eta beste profesioa ogibidea izaten da. Baina ez

dut uste zalantzan ipin daitekeenik euskal idazleak, oro har, profesionaltasunez aritzen direnik literaturgintzan.

Profesionalizatzeko tresnak

Gezurra ematen ez badu ere, aurreko puntua kontura dator ondorengo honekin. Kontua da idazleek beren lanarekiko adierazten duten seriotasun eta profesionaltasuna agerikoa izaten bada ere, beste aldetik ez dutela giro onik beren interesak defendatu ahal izateko argitaletxeen aurrean, lagun giroak (atsegina bestalde) ez duelako laguntzen hainbat gai finkatzen. Eta editoreek ere antzeko egoera pairatu behar izaten dute, idazle batzuek adiskidetasuna jartzen baitiete mahai gainean transakzio komertzial hutsa baino ez den (edo izan behar ez lukeen) hainbat jardueratan.

Herri txikia gara eta denok elkarren ezagun, baina agentearen irudia faltan hartzen da sarritan. Hau da, egilearen eta beronen lana modu industrialean ekoiztu behar duen editorearen artean, bitartekaria jarri. Baina, nola bidera liteke idazle baten egite profesional osoa agente baten bidez, prentsan kolaboratzeko artikulua sorta lagun minak eskatzen baldin badizu; hitzaldia emateko gonbitea lankidearen ezagunaren bidez heltzen bazaizu, edo editorearekin gaupasa dezente eginda bazaude?

Hurbiltasunak alde onak ditu, eta alde txarrak. Alde ona da konfiantza, bostekoa ematea nahikoa dela, konplizitatea, adiskideari suposatzen zaion kariñoa norberaren lanarekiko... Txarren artean abusua dago, gehiegikeria bataren edo bestearen aldetik, idazleak beraren agentearen lana egin behar izatea, eta hurbiltasunak eragozteko interesen defentsa egokia egitea. Eta, batez ere, editorearen eskuetan utzi behar dela liburuaren promozio osoa, baita itzulpenak egiteko interesa (edo interes eza) ere, beti ere, argitaletxe bakoitzaren ahalmenaren (edo ahalmen ezaren) arabera.

Idazleek eta editoreek elkarren beharrizana dute. Tesurik gabe ez dago enpresarik, ez dago industriarik. Editore-

reak, aldiz, testu horren truke %10a eta hedapena eskaintzen dizkie idazleei, biak garrantzitsuak. Idazleek kazetariak ere behar dituzte, hedabideetara emateko haien liburu berri, azaltzeko zer egin duten, zer nahi duten egin. Kazetariak, aldiz, idazleak behar dituzte, kultura orriak nola bete ez dakitela egoten baitira sarri askotan.

Eta bi profesio batera dituzten horiei, bihotzak zer eskatzen die? Eta buruak nola erantzuten dio bihotzari?

Argitaletxe bakoitzak bere «zalditeria»

Egunerokotasunari askorik ez lotzea barkatuko didazue gaurkoan, baina argitaletxeei buruz ari garela, beste kontu bat plazaratu nahi dut orain.

Zer da argitaletxe bati kanpo-izaera ematen dion ezaugarria? Lantzen duen arloa, editorearen jitea edo bertan argitaratzen duten idazleen izen-deiturak? Elementu askoren nahasketa izango da, ziurren, baina zalantzarik ez dago argitaletxeak duen kolorea, neurri handi batean, bere «zalditeriak» ematen diola, editore baten terminologia erabiltzearen.

Maileguak egon daitezke, transakzioak, txango laburrak, lagunei egindako «bisitak», baina, oro har, nork bere argitaletxea du, eta editoreak ere badaki zein den «bere» idazlea. Beste kontu bat da argitzea zeren arabera biltzen diren idazleak argitaletxe baten edo bestearen inguruan, eta zein puntutaraino argitaletxea «proiektu literarioak» definitzen duen edo beste kontsiderazio batzuek. Enfin. Editoreen iritzia —eta idazleena ere— entzutea interesgarria izango litzateke. Baliteke harrিতuta geratzea erantzunak entzundakoan. Zenbait aurreiritzi baztertu beharko genuke ikustean zerk biltzen dituen idazleak «marka komertzialen» inguruan.¶



Euskararen kale-erabileraren azken emaitzak

Euskararen egoeraren diagnosis burutzean, askotan itxura eskizofrenikoa duen ikuspuntua izan daiteke egokiena, jarraian azalduko dugun bezala:

Bi botila ur, erdi-betea bata eta erdi-hutsa bestea erabili zituen Kike Amonarrizek euskal hizkuntzaren etorkizunari buruzko gogoetari ekiteko. (...) «uste dut euskara arriskuan ote den galderari ere bi ikuspegi horiexetatik, bi erantzunekin, ihardetsi dakiokela; bata, euskara desagertzeko arrisku bizian dagoela, eta bestea, euskara bi-bizirik dagoela, ia-ia inoiz baino hobeto. Eta biak hartu behar dira aldi berean egiazat edo gezurtzat, zorionez edo zoritxarrez, gaur egungo euskararen egoera oso kontraesankor, polikromiko, askotarikoa delako».

Horrela zioen euskalgintzako aditu horrek Unescoren «Desagertzeko Arriskuan dauden Munduko Hizkuntzen Atlas» izeneko txostenaren inguruan antolatutako mahainguruan (*Euskaldunon Egunkaria*, 2002-05-31).


Ados nago iritzi horrekin; izan ere, errealitateak izate askotarikoa eta, batzuetan, kontrajarria erakutsi ohi du, setatsu.

Era berean, SEI elkarteak landutako 2001. urteko euskararen kale-erabileraren datu berrietan, baikortasun eta ezkortasunerako parada begiztatzen da; gertutik aztertuta, alabaina, erabileraren azken datuok ondoko ondorio boro bilera garamatzate, duda izpirik gabe: erabileraren jorak ederki islatzen du urteetako jarduna. Goazen, ideia horretaz azalpen argiagoa jarraian ematera.

Euskararen erabilerak igoera adierazten du Bizkaian eta, are nabarmenago, Gipuzkoan, 1989tik 2001era bitartean. Bizkaian erabilerak, kostata bai, baina gora egiten du 3 puntuz: %8tik %11raino. Gipuzkoan, arinago, 7 puntuz: %23tik %30eraino. Eta hor amaitzen da *erdi-betetako* urrezko botilaren distira. Hau da, Araba, Nafarroa eta Iparralde-

ko erabileraren joera *e rdi-hutsezko botilan* sartu beharko dugu, hiru lurralde horietan geldiune edo atzerako joera nabarmentzen baita: Arabako eta Iparraldeko kale erabilerak %4tik %3ra eta %7tik %6ra jaisten diren bitartean, Nafarroakoak %7an dirau esandako hamabi urteko epean.

Erabileraren bilakaera herrialdeka



Iturria: SEI elkarte.

Eta errealitate bikoitz horretan uztartzen dira, hain zuzen ere, Amonarrizen bi *botilen erdiak*; baina beti bi izanik, bien arteko batez bestekoaren kalkuluak errealitatearen alde ilunak zuritzeko baino ez lukeelako balioko.

Euskararen kale-erabileraren irakatsiak

Joera bikoitz horien zergatiak bilatzerakoan, euskal hiztunen trinkotasuna eta bizindarra (edo bizikemena) dartzogiguru burura: soilik azpian hiztun-komunitate sendoa eta errotua egotean egingo zuen gora euskarak; eta baliteke, neurri batean, hori egia izatea, baina ez osoa. Izan ere, erabileraren bilakaera modu zuzenean ulertzeko ezin daiteke ahaztu 1989an erabilerak lurralde bakoitzean zuen abiapuntua: Gipuzkoakoa da gailentzen zen datu bakarra (%23), Iparralde eta Hegoaldeko beste lurraldeetakoak %4 eta %8 bitartekoak baitziren.

Are zehatzago, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko erabilerari erreparatuta, oso antzeko portzentajeak agertzen ziren 1989an: %8, %7 eta %7, hurrenez hurren. Ezin daiteke defenda, beraz, abiapuntu hobeko soilak erabileraren igoe-ra eragin duenik, Bizkaian ere erabilera areagotzen delako —antzeko egoeran zeuden beste lurraldeetan ez bezala—.

Hizkuntz errealitate bikoitz horren zergatia begi-bistakoa delakoan nago: hamarkada hauetan euskararen aldeko lanik inon egin bada, Gipuzkoa eta Bizkaian izan da. Euskalgintzaren —erakunde publiko nahiz herri ekimenaren— ahalegin eta baliabideak inon ugaritu eta metatu badira, bi lurralde horietan izan da. Eta horri zor zaio, gehienbat, lurraldeotan erabilera areagotu izana. Beraz, lan franko egin den lurraldeetan erabilerak gora egin du, eta, aldiz, sasi-neumiak hartu edo itxura hutsezko planteamendu txepelak nagusitu diren beste lurraldeetan, geldiene antzua eta gainbeheraren amildegia baino ez da ikusten.

Horrek ondorio ezin argiagora garamatza: euskararen etorkizuna gure (euskal hiztunen komunitate eta euskalgintzaren) eskuetan dago, eta zuzen jokatz gero badago itxaropenerako lekua: «(...) Unescok gogorarazten du hizkuntza bat salba daitekeela hizkuntza politika egoki baten bidez.» (*Euskaldunon Egunkaria*, 2002-06-02). Nola, baina?

Hizkuntz politika eraginkorraren baldintzak

Hizkuntz politika egoki baterako zer behar den jakiteko, Bartzelonara joko dugu, joan den apirilean Linguapax institutuak antolatutako *Hizkuntz Politikei buruzko Munduko I. Kongresura*, hain zuzen.

Hantxe azaldutako munduko hainbat eskarmentu kontuan hartuta, aipatu dugun kezkar erantzuna aurkitu zion Lander Etxebarriak, argitara eman zuen iritzi artikuluan batean laburtzen zuen bezala:

Arrakasta ahalbidetu duten hiru faktore diferentzialak ikusi ahal izan dira; berreskuratu nahi den hizkuntza izendatzen dela administrazioko hizkuntza bakarra edo lan hizkuntza, administrazioarekiko harremanak beste

hizkuntzan izateko eskubidea bermaturik; hezkuntza sistemak ziurtatu egiten duela haurrak hizkuntza horretan trebatuak izatea; eta, azkenik, sektore pribatua legez eta arauz derrigortzen dela hizkuntza gutxitua erabili eta honen hiztunen hizkuntz eskubideak errespetatzera.

Hiru faktore diferentzial horiek garrantzitsuak izanik ere, Etxebarriak berak aipatzen duen beste eskakizun premiatsu bat jarriko nuke aurretik:

Are gehiago, toki horietan guztietan, agintariak oso argi dute hizkuntza gutxituak lehentasuna eta babes maila berezia behar duela (*Euskaldunon Egunkaria*, 2002-05-07).

Izan ere, hizkuntza gutxituek agintarien aldetik ez bairik gabeko jarrera laguntzailea aurkituko balute, arestian aipaturiko faktoreak erraz jar litezke indarrean; aldiz, borondate garbirik ezean jai du hizkuntz politika orok. Nola erdietsi, ordea, politikari eta agintarien aldetik hizkuntz politika eraginkor baten aldeko jarrera komuna?

Hizkuntza gutxituen aldeko adostasunaren bila

Euskara politizatua dagoela maiz entzuten da, eta iritzi horrekin bat nator; baita auzi horri berebiziko garrantzia ematearekin ere. Besteak beste, Ramon Saizarbitoria kezkatu agertzen zen euskarak jasaten duen erabilpen politiko interesatuarekin, eta, egoera hori gainditzeko, euskal eta espainiar nazionalisten arteko adostasunaren premia aldarrikatzen zuen, Bilbo Zaharra euskaltegiak antolatuturiko hitzaldi sorta baten baitan (*El Correo*, 2002-01-26).

Dena den, hizkuntza bat politizaturik egoteko bi baldintza bete behar dira, nahitaez: batetik, hizkuntzak *kolo-re* politiko jakin batzuen atxikimendua lortu; bestetik, gainerako ildo politikoan axolagabekeria edo aurkako jarrera jasan. Horrexegatik, euskara politizatua izana ezin zaio alde bati leporatu, biei baizik. Argi dago, aldeko nahiz aurkako jarreretan ideologia eta alderdi guzti-guztiak bat etorritik gero, ez legokeela hizkuntzaren politizazioarako aukerarik.

Euskararen kasuan jakina da abertzaletasunak, oro har, euskararen defentsa bere egiten duen bitartean, espainiar sentitzen direnen artean axolagabekeria eta —gutxitan— aurkako jarrera direla nagusi. Hau da, euskal abertzaleek euskara euren nortasun kultural eta asmo politikoa- ren zutabetzat jotzen duten neurrian, esparru ideologiko horretatik at daudenak arerio politikoa- ren ezaugarritzat hartzen duten hizkuntza horretatik urruntzen dira. Euskal iritzi publikoak ere hala ikusten ditu euskara normaltzeko ahaleginak: euskal abertzaleen auzi bezala, ez denona.

Gauzak horrela, nola piztu bazter politiko guztiak ar- gi ditzakeen euskararen aldeko zuzi komuna? Eta nork piztu beharko luke?

Ezbairik gabe euskaltzaleok hartu behar dugu zama hori gure gain; guk geuk erein ezean ez baitu inork uzta- rik jasoko. Zein da, baina, ahalik eta emaitzarik emankor- rrena lortzeko erabili beharreko hazia?

Hizkuntzen ekologia


Euskal iritzi publiko osoaren aurrean euskararen luze-za- bal handiko defentsa egin ahal izateko, *hizkuntzen ekolo- giaren* zioa egokia izan daiteke. Hizkuntzen munduaren gaineko paradigma honek hizkuntzen ikuspuntu estru k- turalista osatu eta ordezkatu(?) nahi du. Labur —eta, se- gur asko, modu eskasean— esanda, ideia- ren muina hau da: ingurune naturaleko landare eta animalien espeziee- kin gertatzen den bezala, hizkuntzen ugaritasuna eta ore- ka ere beharrezkoak dira: aberastasun kulturala berezkoa eta beharrezkoa zaio gizateriari, hizkuntzek horretan be- tetzen duten lekua funtsezkoa izanik. Beraz, hizkuntza bat hiltzean, aberastasuna galtzen du gizateriak, eta, ho- rregatik, hizkuntza gutxitu oren defentsak denon ardu- ra behar du izan.

Proposamena ez da berria, ez; ezaguna da, bai nazioar- te mailan eta baita gure artean ere. Nazioarte mailan, adi- bidez, Alwin Fill eta Peter Mühlhäuslerren lana dugu (*The ecolinguistic reader: language, ecology and environment*, New

York-Londres, Continuum, 2001). Erramun Baxokek ere antzeko planteamenduen berri dakarkigu Montrealdik, *La dynamique des langues* lan-ildo zientifiko berriaren eskutik (*Le Journal du Pays Basque*, 2002-05-08). Eta Euskal Herrian ere badago ikuspuntu hori landu duenik: Sanchez Carrion, *Txepetx*, eta Juan Carlos Etxegoien, *Xamar*, besteak beste. Azken honek, adibidez, kaleratu duen liburua-
ren bukaeran, horrela dio:

Planetako Bizia osatzen duen puzzlean nork bere tokia bete behar du, landareak izan, animaliak edo pertsonak, bere aniztasunean. Eta hau, gizakien kasuan, hizkuntza/herri/kultura dibertsitatea da (*Orekan: herri eta hizkuntzen ekologiak*, Iruña, Pamiela, 2001, 155. or.).

Euskararen aldeko aldarrikapen honek, euskal abertzaleen ikuspuntuaren mugak gaindituz espainiar abertzaleengana iristeko egokia izan ez ezik, egun nazioarteko haizeak ere baditu bere alde. Aprobetxa ditzagun!🍀



Edukiak aldarrikatu... bakoitzak bere aldetik

Telebista ikus-entzunezko zein Informazio Gizartearen giltza edukia da. Balio hau erabat onartua da edonon eta kultur-esparruetan bereziki. Onartua ez ezik, baita ozenki aldarrikatua ere. Euskal kultur-giroan hogeitaz hamar urte daramatzagu gauza beretsua esaten, ETB emititzen hasi zenetik gutxiarik. Baina euskal edukien sektorea —zinea, irrati-telebista, prentsa idatzia, ekoiztetxeak, gidoigileak, publikizitatea, multimedia, webguneak, bilatzaileak eta abar— ez da egitasmo bateraturik burutzeko gai izan, ezta azken zazpi urteotan datu berririk biltzeko ere (Patxi Azpillaga, *Una aproximación a la estructura económica de la industria audiovisual vasca*, 1995). Beharbada Administrazio Publikoak ez du asmatu baina ekintza pribatuak ez du ekimenik erakutsi.

Euskal edukien mundua kinkan dago. Batetik, inork ez du zalantzan jartzen industri-arlo estrategikoa denik. Bestetik, behin eta berriz entzun ohi zaie euren ordezkariari edukiak zein garrantzitsuak diren. Horrez gainera, zer esanik ez digitalizazioa dela eta merkatu-mugimendu garauen bezperetan gaudena. Baina, zer gerta ere, ekimenak sektore beretik, barrutik, etorri behar du. Ez du balio merkatua zaila dela esatea eta plataforma handien lehia aipatzea. Espainiar estatuan saltzen diren erreminta-makinaren %80 Euskal Herrian egiten badira edo euskal produkzioaren erdia 120 estatura esportatu, ez da nazioarteko merkatua erraza delako, hemengo produktuak hobeak direlako baizik. Tradizio, adore eta ofizio kontua da.

Edukien klusterra

Aurreko hamarkadaren hasieran, Jon Azua lehendakariordearen eraginez, Michael Porter ekonomialariak bir-

moldata beharrean zegoen euskal industria aztertu zuen. Harvard-eko irakasleak urteak zeramatzan enpresen lehiakortasunaren baldintzak ikertzen eta hiru ziren, besteak beste, bere teoriaren zutaberik nagusienak: bat, enpresak dira lehiakorrak, ez nazioak; bi, lehiakortasunaren abangoardia eremu geografiko jakinetan elkarrekin lan egiteko gauza diren tokian tokiko enpresek bideratzen dute; eta, hiru, enpresak ez dira produktu beretsua dagitenean arteko elkartasunetan bildu behar, ekoizpen-prozesu guztia osatzen dutenen arteko klusterretan baizik.

Azterketa hartan lehentasunezko industri-arloak identifikatu ziren eta, ondoko urtetan, hamaika kluster osatu, beste hainbat sektoreen lekuko: elektrodomestikoak, automozioa, ingurumena, erreminta-makina, papera, ezagutza, energia, itsas-foroa, telekomunikabideak, aeronautika eta Bilboko portugunea.

Hamar urte geroago Michael Porter berrituro bihurtu da Euskal Herrira eta, geroztik gertatu denaren balantza guztiz positiboa egiteaz gainera, bigarren eraldaketa bideratzeko industri-arlo berriei dagozkiekeen klusterrak egokitu beharra proposatu du: moda, turismoa eta edukiak, besteak beste.

Edukien klusterra norbernal dezakeen inortxok ez dakien bitartean, senidetzat duen telekomunikazio-sektoreak duela hogeitau urte erein zuen lehen hazia eta orain seiu urte kluster gisa plazaratu.

GAIA, Telekomunikazio Klusterra

Telekomunikazio Klusterra 1996 urtean sortu zen euskal industria elektronikoaren inguruko 120 enpresaren egitasmoz. Gaur egun 172 dira, informatika (%35,3), elektronika (%34,6), telekomunikazio (%14,3) zein osagai-gintzan (%15,8) ari direnak. Euren artean, Fagor Automation, Ibermática, Ikusi, Sarenet edo Panda Software bezain enpresa ezberdinak daude elkarlanean. Lankidetzaren kimua 1983 urtean eragin zen, Euskal Herriko Industria Elektronikoen Elkartearen sorrerarekin batera, eta

gaur egun GAIA Telekomunikazio Klusterrak EAEko sektorearen %92 enpresa biltzen ditu.

Euskal Autonomi Erkidegoko Informazio-Teknologia eta Telekomunikazio sektorearen bilakaera azken hamar urteotan*

<i>Urteak</i>	<i>Fakturazioa**</i>	<i>Lanpostuak</i>	<i>Enpresak</i>
1992	339,57	4.250	106
1995	499,83	4.300	130
1998	933,97	5.750	145
2001	1.502,56	8.800	186

* Ez dira telekomunikazio-operadoreen salmentak eta zerbitzuak sartzen.

** milioi Euro.

Taulak agertarazten duenez, sektorea etenik gabe gehitu da azken hamar urteotan eta nabarmen gainera, 1992tik 2001era bitartean langile-kopurua bikoiztu egin baita eta fakturazioa, berriz, bost aldiz biderkatu. Aipagarria, bestalde, fakturazio horren %34 esportaziotik datorrela.

Salmentaren bilakaera erabat baikorra den arren, egitura-arazo larri samarrik ez da falta. Enpresarik gehient-suenek 20-50 lanpostu baino ez dute eta ez dira gauza erronka handiei ekiteko. Alderdirik ontxoenen artean, berriz, aipagarri dira erabakiak azkar hartzeko malgutasuna eta langileriaren goi mailako trebakuntza. Azpimarragarri ere, sektoreak urteak daramatzala fakturazioaren %5 inguru I+G arloan ezartzen. Heldutasun honen lekuko ditugu, azkenik, Euskal Herritik kanpora eragindako ehunka kokapenak, AEBetan, Txinan nahiz Lituanian.

Euskal edukigintzan ari den hainbatek sarri gutxietsi izan ditu euskal hardware eta software enpresak, garrantzitsuen edukiak direlakoan. Beharbada ez da arrazoirik falta. Baina, arrazoi arrazoi, euskal industria elektronikoak hogeituro urteko abantaila daramaio eduki-arloari, badaki substantiboa «industria» dela, asmatu du elkarren arteko lankidetzan kluster propioa osatzen eta gauza izan da mundura jalgi eta aurrez aurre dema egiteko, nazioarteko merkatuetan sekulako lehiakortasuna frogatu behar izan den garai berean hain zuzen ere.

Multimedia? «Ez dok» multimedia!

Orain hamar urte, 1992an, hamar urte lehenago ETB antolatzen ezagutu nuen Herbie Eisner adiskideak Hamburgora joan nendin deitu zidan telefonoz, muntatzen ari zen multimedia-enpresa erakutsi nahi zidala-eta. Hala-xe ikusi nuen nik estreinako informatika, telebista eta telefonoaren konbergentziaren adibide praktikoa, Herbiek teknologiarik berriena erakutsi ez ezik, zetorkigun hura nolabaiteko power-pointez azaldu baitzidan eta, gainera, harro asko, e-mail eta guztiko bisita-txartela luzatu, esanez: «Telebistarenak egin du, multimedia da etorkizuna». Are hitz potoloagoak esan zituen hurrengo urtean Europako Batasunaren Liburu Zuriak: «Multimedia-munduaren (soinua-testua-irudia) zabalkundea lehen industri-iraultzarekin aldera dezakegun mutazioa da» (*Crecimiento, Competitividad, Empleo: Retos y pistas para entrar en el siglo XXI*, Brusela, 1993).

Baina 90eko hamarkadaren multimedia-ametsak porrot egin du, telebista eta Interneten arteko zubigintzak ez baitu aurrera egiterik izan, bi arrazoiz batez ere. Bate-tik, behar besteko banda zabalik ezak iragarritako interaktibitatea eragotzi duelako eta, bestetik, Internetez baliatzea erabaki duen kontsumitzaileak informazioaren apustua egin duelako eta ez entretenimenduarena.

Gaur egun ez da multi-mediarik, media-banaketa baizik. Entrenimendua gogoko duenak telebistaren aukera egin du (satelitez zein digitala), eta informazioa nahiago duenak, aldiz, Interneten hautua (irratia, egunkariak, eztabaidaguneak, dokumentazioa, posta elektronikoa...).

Azken urteotan Internetek urratu dituen bideak ez dira telebistarengana hurbiltzeko izan, urruntzeko baizik. Gero eta gehiago, Internet berezko nortasunaz jabetu nahi duen komunikabide berria da, bere logika eta hizkuntza bereziarekin. Europako Batasunak bereizketa hau bedeinkatu du, telebista eta ikus-entzunezkoak Kultura komiteak aztertzen baititu eta informazio gizartea, aldiz, Ekonomia lantaldeak. Eta, itxura guztien arabera (Manuel Castells, *La Galaxia Internet*, 2001), aspaldi iragaritako

konbergentzia nekez gertatuko da, banda zabala erruz gizarteratzen ez den bitartean behintzat.

Telemakina pentsalariak

Robotak, izenez bederen, txikitandik ezagutu izan ditugu mendebaldeko hiritarrok. *Robota* (txekieraz, «behargina») 1921ean azaldu zen estreineko literaturan, «computer», «telepolis» eta «internet» bezalako izenak baino lehenago. Hala ere, geroztik laurogei urte igaro arren, zineman (zientzia fikzioa) edo telebistan (lehergailu-bilatzaile) izan ezik oso jende gutxik izan du inoiz androide gisako roboten bat ikusteko aukerarik. Munduan milioiren bat robot omen dago (6.000 biztanleko bat); eurerarik %90 industri-erabilpenerako telemakina aspergarriak dira eta beste %10ek edozein lanpernak baino adimen eskasago du. Oraingoz, haurtzarora amestu genuen lagun antropomorfo berritsuak porrot egin du. Ipuin asko eta neurona gutxi.

Telepolisen, informazioa metatu eta lastertasunez erantzun dezakeen konputagailuz inguraturik bizi gara. Baina hori ez da adimena. 1997an *Deep Blue* programa informatikoak Gari Kasparov gaingitu bazuen ez zen argiagoa zelako izan, bizkorragoa baizik. Zenbaiten ustez konputagailuek sekula ez dute eskaini ahal izango alde aurretik bildutako informaziorik baino gehiago. Alan Turing matematiko britainiarrak, ordea, 1950ean aurreratu zuen makinak ikasteko gai direla edota konplexutasunez hazteko gauza (Paul Strathern, *Turing y el ordenador*, 1999).

Segurtik Arthur C. Clarke oker zegoen 1964an, XXI. mendean hasierarako makina pentsalariak iragarri zituen (Stanley Kubrick, *2001: A space odyssey*, 1968). Baina, uste baino astiroago bada ere, makina adimentsuak etorri badatoz eta, ehun urte barru, emozioen jabe eta guzti, biztanleak bezainbat izango omen dira munduan (Eirik Newth, *Breve historia del futuro*, 2002), 11.000 milioi alegia (Nazio Batuek aurreikusitako datuen arabera). Are gehiago, 2030erako makina pentsalariak beraien kontzientzia subjektiboa aldarrikatuko dute eta XXI. mendea amaitu

aurretik ez omen da giza-adimena eta makina-adimena berizterik izango (Ray Kurzweil, *La era de las máquinas espirituales*, 1999).

Teleaudimetria digitala

Ikus-entzunezkoen sektorea digitaltzen ari da. Sektore honen berezitasunetako bat edukien kontsumoa edo audientziaren neurketa da. Baina, kontraesana dirudien arren, audientzia digitalaren neurketak ez du batere aurrerapenik egin. Noski, eskaintza digitalaren kontsumoa neurtzeko zailtasunak ez dira teknikoak, kontzeptuzkoak baizik (Carlos M. Arnanz, *Negocios de televisión. Transformaciones del valor en el modelo digital*, 2002). Orain arteko sistema analogikoak eremu txiki samarretara mugatu izan dira, eskualdez, nazioz zein estatuz, eta jakineko esparru horietako audientziak neurtzeko metodologiak ez du arazorik izan. Sistema digitalak, berriz, nahiz eta teoriaz behintzat analogikoak baino askoz ere langa tekniko gutxiago izan, hainbat eragozpen aurkitzen du, mugarik gabe zabaldu eta sakabanatu beharraren beharrez.

Batetik, sistema analogikoetan bezeroak kontsumitzen duen seinalea emititutako berbera den bitartean, pantaila digitalean, ordea, dena da aldagarri, nahasgarri, gordegarri zein erabilgarri. Eta, ondorioz, orain arteko ratingak eta shareak guztiz anakroniko bihurtu dira egoera digital berrian.

Bestalde, produktu analogikoa ez bezala, digitala ez da publikoa, pribatua baizik; eta terminala ez da bezeroarena, operadoreak alokatutakoa baino. Beraz, ez dirudi operadoreak bere bezeroaren kontsumoa neurtzen hain erraz utziko dionik hiruganen bati. Zalantzarik ez gero plataforma bakoitzak bere bezeroen jarraipen zehatza egingo duela, baina datuak ez dira publikoak izango eta, direnean, plataforma bakoitzari komeni zaizkion bezain interesatuak.

Horrez gainera, etorkizunari begira zientzia fikzioak iragartzen duen gizarte orokontrolatuari dagokionez, egia

da teknologiak galbahe-aukera guztiak eskaini ahal izango dituen; baina, aldi berean, ezin ere ahaztu edozein zerbitzu-hitzarmenek arautuko dituen intimitate eta pribatutasun-eskubideak, Europako Legebiltzarrak estatuei erraztu berri dizkien (2002-05-31) kontrol-ahalmenak zeharo kezkarriak diren arren.

Hauek eta beste batzuk (programazioaren hiperratomizazioa, kasu) dira eskaintza digitalaren neurketak gainditu beharko dituen zailtasunak. Auskalo gero noiz baina, oraingoz, datu objektibo bakarra zera da: inork ez dakiela oraindik nola.¶



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jalgi.com